



**BIGARREN ERREPUBLIKA  
DENBORALDIKO  
IDAZLANAK  
(1931-1937)  
ETA ONDARROA**

Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

Edizioaren prestatzailea:  
**JULEN URKIZA**

Ondarroa 2009

# **AUGUSTIN ZUBIKARAI**

## **BIGARREN ERREPUBLIKA DENBORALDIKO IDAZLANAK (1931-1937) ETA ONDARROA**

Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

**Edizioaren prestatzailea:  
JULEN URKIZA**

Ondarroa 2009

AUGUSTIN ZUBIKARAI  
BIGARREN ERREPUBLIKA DENBORALDIKO  
IDAZLANAK (1931-1937) ETA ONDARROA  
Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

EDIZIOAREN PRESTATZAILEA:  
**JULEN URKIZA**

ARGITARATZAILEA:  
**ONDARROAKO UDALA, 2009**

INPRIMAKETA:  
**LIZASO GRAFIKAK • ZORNOTZA**

MAKETAZIOA:  
**11 BARRI**

AZALEKO ARGAZKIA:  
**Augustin Zubikarairen lehendabiziko idazmakina.  
Alaba Maria Jesus Zubikaraik lagatakoa.**

ISBN: **978-84-606-4983-0**

LEGE GORDAILUA: BI-3114-09

AURKEZPENA	5.
ONDARROAKO UDALA	

## SARRERA

1. AUGUSTIN IDAZLE KONPROMETIDUA BERE GARAIAN	7.
2. GAIK EDO ETA ESTILOAK	8.
3. BERE PENTSAKERA ETA EUSKERA	11.
4. ARGITALPEN HONETAZ	13.
• IDAZLAN AUKERATUAK.	
• EUSKARRI INFORMATIKOA.	
• ERABILITAKO METODOA.	
• AUGUSTINEN ORDUKO LEXIKOA.	

## TESTUAK

I. KRONIKAK (1931-1933)	17.
II. ARTIKULUAK (1932-1937)	59.
III. OLERKIAK (1934-1935)	125.
IV. ANTZERKIAK (1934, 1936)	129.

**A**tzera begira egindako liburua dozu hau, irakurle, oso gertakari urrunekoak; baina, eraberean, oso hurrekoak biltzen dituana: Bigarren Errepublikako sasoiakoak. Sasoi hartan izan eban euskal prentsak ordu arte inoiz euki ez eban sorkuntza-maila. Eta orduan egindako lanari esker, neurri handi baten, ez gara ezerezetik abiatu garai barriagotan.

Zordun gara, beraz, sasoi hartako idazleakin. Eta nik neuk, gainera, poztasun handia daukat gure herriko idazleak izan ziralako haren artean. Eurek idatzitako artikuluak aurkituko dituzu liburuagaz batera banatutako euskarri informatikoan, eta liburuan bertan, ostera, Augustin Zubikarai idazle handiaren lanen bilduma bat, Julen Urkizak prestatua.

Jakin badakit liburu honek emongo deuskula danoi sasoi haren ezaupide hobea. Eta horregaitik bakarrik erantsia dauen balioa izugarria da.

**FELIX ARANBARRI URIZARBARRENA**

ONDARROAKO UDALBURUA



**ONDARROAKO  
UDALA**

## I AUGUSTIN IDAZLE KONPROMETIDUA BERE GARAIAN

Augustin idazten hasi zan bigarren errepublikako urteetan (1931-1937) bultzada handia hartu eban euskerak. Baina euskeraren susperraldia aurretik etorren. Pertsona ospetsu batzuen idazlanak mugimendu barrien bultzada serio lez agertu ziran. Eta, beste aldeetik, aldizkariak sortu ziran: ... *Euskaldun* (1896), *Euskaltzale* (1897), *Revista Internacional de Estudios Vascos* (1907), *Euskal Esnalea* (1908), *Jaungoiko-zale* (1912), *Euzko Deya* (1916), *Jesus'en Biotzaren Deya* (1917), *Euskera* (1919), *Argia* (1921), *Gure Herria* (1921), etab. Literatura arlo desberdinetan gero eta indartsuago agertzen zan: eleberri arloan, olerki eta bertso arloan, antzerki eta narratiba arloan, baita gramatika eta hiztegitantza arloan be.

Denbora honetan Augustin gaztearen inguruan euskeraren aldeko mugimendu handia gertatu zan: alde batetik, olerkariak euren lan ederrekin agertu ziran (Lizardi, Lauaxeta, Orixe, etab.), bestetik, euskerazko aldizkari barriak sortu ziran: *Bertsolariya* eta *Karmengo Argia* (1931), *Antzerti*, *Ekin* eta *Euzko* (1932), etab.; eta hain garrantzi handia izango eben auzo-eskolak sortu ziran.

Txomin Agirre eredugarriaren ostean, 30. hamarkadan eta aurretik ondarroar batzuk idazten eben *Euzkadi*, *Eguna* egunkarietan eta beste argitalpen motetan.

*Euzkadi* (1913-1937) zan ondarroar idazle askok idazten eben leku egokia, nazionalisten argitalpena... *Euzkadi* egunkaria (1913-1937) zan idazle nazionalistentzat leku zabal eta egokia... Ondarroarren artean aipagarriak dira Juan Badiola ("Biar"), Segundo Bedialauneta ("Txori Erreka"), Jose Ituarte ("Artibai"), etab., baita geroagoko Jose Maria Etxaburu ("Kamiñazpi") eta Jose Antonio Arkotxa ("Atxukale") be.

Egoera honetan agertzen da Augustin gaztea. 1914an Ondarroan jaioa, hamasei urte gaz hasten da euskeraz idazten, 1931n *El Día* Donostiako egunkarian. Bigarren errepublika denboran Augustin gazteak egunkari eta aldizkarietan 155 idazlan argitaratu eban; gehienak 17. urtetik 22. era arte idatziak.

Augustinek bost egunkari eta aldizkaritan argitaratu ebazan bere idazlanak. Gehien *Euzkadi* egunkarian (105), gero *Ekin* (38) eta *Euzko* (10) astekarietan, eta gitxiago *El Día* eta *Eguna* egunkarietan. Baina aipatzekoa da *Egunan* asko idatzi ebala, baina izenik jarri barik.

Augustin Zubikarai idazleak, bere denborako ohitura jarraituz, ezizenak erabilten ditu: zortzi agertzen dira: gehien erabilten daben ezizena *Arteta* izan zan (72 bider) eta *Gurutz* (41 bider), gero *Likona* (18), *Ibai-ondo* (12), eta besteak gitxiagotan: *Augustin*, *Zutarra*, *Kresala* eta *Amesti*.

Augustin, gazte-gazte zala, 30. hamarkadan idazle lez agertzen danean, idazle indartsu lez azaltzen da, hau da, idazle "konprometidu" lez. Berak argi eukan Ondarroako herriaren eta Euskal Herri osoaren zerbitzuan egoala, argi eukan euskeraren, euskal literaturaren eta kulturaren zerbitzuan lan egin behar ebala; eta Eleizagazko konpromiso bizia eta leiala eban, ideia moral eta aberkoiagaz lotuta, helburu garbiak begi aurrean zituala.

Augustinen sentipenak eta konpromisoak euskal prentsagaz be loturik ikusten doguz, batez be, *Eguna* egunkariagaz; hemen egingo ditu bere azken ahaleginak *Eguna* aurrera ataratzan, euskera hutsezko egunkariari bizitzeko arnasa emoten... Francoren militar basatiak Bilbon sartu ziran arte. Augustin idazle gaztea gizon osoa ikusten dogu, bere ideal eta helburuekin...

## II GAIK EDOTA ARLOAK

Augustin Zubikarai egunkari eta aldizkarietan erabilitako gaiak edota landutako arloak lau honeek ziran: Kronikak, artikuluak, olerkiak, antzerkiak...

**Kronika** laburretan Ondarroako egoera agertzen dau. Augustin orduko Ondarroako bizitzaren ispilu bihurtzen da. Berak emoten eban albiste edo notizietatik ikusten dogu Ondarroan zer egosten zan, bai erlijio eta politika aldetik, bai gizarte eta erakunde aldetik, baita kultura eta euskeraren aldetik be; eta batez be bere euskera eta gizarteagazko asmo eta ardurak agertzen ditu.

Augustinen eta beste Ondarroako idazleen kronika puntualak benetan aberatsak dira Ondarroako herriko bizitzaren eta asmoen historia egiteko.

Jakin nahi badogu orduan, bigarren errepublikan, Ondarroako jaiak zelan ospatzen ziran eta zelako jaietako programak egiten ziran, orduko elizako ospakizunak eta predikariak nortzuk eta zelakoak ziran, nahikoa da Augustinen eta beste Ondarroako idazleen kronikak begiratzea.

Augustinen kroniketan asmo eta interes bereziak agertzen dira, adibidez, euskeraren inguruan. Ondarroan jaietako umetxoen izenak jartzen ditu, batez be, euskal izenen arabera, familiak animatzen ahalegintzen zan euren umeei euskal izenak jarri egiezan... Baita agertzen dira ezkontzen ziranen izenak be, zorionak emonez, baita hildakoen izenak be.

Augustinen kroniketan askotan agertzen dan arazoa arrantzaleena da. Alde batetik, arrantzako gorabeheren albisteak, eta bestetik, arrantzaleen arazo sozialei buruzko azalpenak. Baita portuko lanak, batez be, dragiaren presentzia zala-eta, etab.

Ondarroako alkarteak edo instituzioak notizia zirala-eta, agertzen ditu alkarte horren barrizatze edota lehendakari barriak hautatzea, etabar. Aurrerako F. C. dala edo alkarte erreligiosoak dirala, adibidez, Luistarrak, Mariaren alabak..., edo politikako alkarteak, batez be, EAJ-PNVren batzarrak eta berak antolatutako kultur ekintzak... etab.

Kroniketan Augustinek, batez be, agertzen dauana euskerarenganako maitasuna da. Euskeraz nahiko deutse entzun kanpotik joaten ziran hizlarietara, antzerkiak eta gainerako ekintza kulturalak euskeraz izan behar ziran, beraren ustez... Eta euskerarenganako maitasuna zabaltzen ahaleginduko da bere kroniken bidez.

Kroniken ostean **artikuluak** idazten hasi zan Augustin; idazle lez, pauso garrantzitsua zan; bere ideiak eta pentsamendua azalduz 58 artikulua argitaratu zituen Augustinek. Orduko bere pentsamendua agertzen da gehien bat. Kroniketan herriko bizia azaltzen bazan, artikuluetan orduko pentsaera agertzen jaku, pentsaera sozial-politikoak, kulturala eta erlijiosoak. Hemen Euskal Herri osoko arazoak agertzen dira, bai eta nazioartekoak be, gizarteko arazoak izan nahiz politikoak...

Artikuluetan ikusten dogu bere konpromisoak aurrera errotan dituan gizon gaztea. Konprometiduta agertzen da abertzaletasunean, kristautasunean, gizarteko arazoetan, euskera arloan, eta abarretan.

Bere bigarren artikukuan, "Katalunia'ri begira", hamazazpi urte eukazan orduan Augustinek, erakusten deusku zelan Katalunia askatasunaren bidean sartuta egoan, eta hango joera eta ekintzak Euskal Herrirako eredu eta imitagarritzat hartzen ditu.



Herriko arazoan artean ikusten dau “ugorkondua” edo alkoholismoa, eta hortik datozen arazoak aitatzten ditu. Europako langileen arazoak gogoan ditu, eta gai honetaz Erdi Aroko langileen egoera azaltzen dau bere artikuluetan...

1935ean, gerrak prestatzen ikustean, Augustinek idazten dau “Gudarik ez!”; eta hurrengo artikuluetan Abisiniako egoeraz arduratuta agertzen jaku.

Baina, era berezian, euskera eta euskal literatura dau bere artikuluetako gai garrantzitsuenetakoa, batez be, 1936an; aurreko urteko euskal literaturari buruzko argitalpenei buruz hiru artikulua idazten ditu, beste hiru S. Muniategiren “Goiz Aize”ri buruz, bat Txirritari buruz, beste bat Gorkiri buruz, etab.

Augustin gaztea artikuluetan gaztediari begira dago, gaztediaren ardurea dauko(?), gaztediaren nondik norakoak, gaztediaren etorkizuna gizarte, politika eta erlijio arazoetan; sei artikulua idazten ditu gazteiei begira.

**Antzerkia** izan da Augustinen idazlanen artean eta haren literatura bizitzan bereziki azpimarratzekoa. Bere bizitzan 40 bat antzerki idatzi zituan. Oso gazte zala, hogeitaz urte-gaz, 1934an, antzerki bi idatziko ditu (“Aberriagaz bizi” eta “Illobearen indarra”), eta 1936an beste bat (“Itxas lapurrak”)... Martxa hau gerra zitalak moztuko deuto.

Augustin gaztearen antzerki-lana orduko euskal kulturaren berpizkundean kokatu behar dogu, bereziki antzerkiaren berpizkundean. Berpizkunde kultural honetan sakon parte hartu eban euskal nazionalismoak; eta ekintza kulturala eta sozio-politikoak alkarri lotuta egozan, eta alkarren beharrezanean aurkitzen ziran. Augustinek ikuspuntu biak eukazan bere begi-bihotzetan. Beretzat kultura eta politika euskeraren zerbitzuan egozan, eta gehiago, euskera zan kulturaren eta nazionalismoaren arima edo sustraia. Kontuan hartzeko da, 1934an, Augustin antzerkia idazten hasi zan urtean, jaio zala *Antzerti* aldizkaria, eta urte berean hasi zirala “Antzerti Eguna” ospatzen.

1934ko bere lehenengo antzerki lanean (“Aberriagaz bizi”) ume baten konbentzi-mendu nazionalista edo aberkoia agertzen deusku Augustinek, beste ume-lagunentzat jarraibide lez eta bihotzetan animo beroa sortzen. “Illobearen indarra”, urte bereko bigarren antzerkian gaztetxo bat eta bere aitaitaren arteko ideiak eta sentimenduak azpimarratzen dira, eta bien artean gaztetxoaren ama agertzen da, aitaitaren familiaren bizitzako joeraz hasarre egoana. Urte bi beranduago, 1936an, agertu zan beraren hirugarren antzerkia, “Itxas lapurrak”: piraten gaia erabiltzen dau Ondarroako arrantzaleen giroan kokatuta.

Uste danez, 1936-1937an laugarren antzerkia idatzi eban, "Itxasertzeko itsu muti-la" (han eta hemen horren aipamena aurkitzen da), baina testu horren arrastorik ez jaku geratu, eta galdutzat emon lei.

### III BERE PENTSAERA ETA EUSKERA

Augustin gazteak idazten dauan argitalpenetan (*Ekin, Euzko, Euzkadi, Eguna*, eta abarretan) badagoz orduko pentsaeraren eta euskal izatearen ezaugarri argi batzuk: hiru zutabeen gainean eraikitzen dira orduko euskaldun askoren idealak eta sentipenak: **abertzaletasuna** eta **euskera** alde batetik, eta **erlijiotasuna** bestetik, beste bien sustrai edo arima lez, hau da, abertzaletasuna eta euskerea gizatasun kristau batean oinarrituta.

Bizitza politikoari dagokionez, abertzaletasunak, batez be, nazionalismoan hartuko dau bere forma nagusia. Gizarte arazoak abertzaletasun barruan aurkituko dabe euren konponketa, baina kristau doktrina sozialaren bidez; Augustinek berak azalduko deuskuz Europako langileen arazoak eta kristau langileen bideak eta konponketak. Augustinek bere begiak eta bihotza jarrita eukazan Euskal Herriko gazteengan eta langileengan; eta, batez be, arrantzaleengan...

Augustin bere kroniketan eta artikuluetan ahalegintzen zan kultura eta literaturako albisteak emoten, bai herrikoak eta bai nazioartekoak. Baina Augustinentzat kultura eta literaturaren bihotza bere hizkuntza da, euskera. Euskera bizirik ikusi nahi eban, eta horretarako bere bizia euskerari emonda eukan, euskeraren etorkizun itxaropentsurako. Herriko bizitzan euskera nahi eban entzun, kulturako ekintza guztiak herrian euskeraz nahi zituan bizi... Zenbat ahalegin egiten dituan gurasoak animatzen umeei euskal izenak jartzeko...! Augustinen lan guztia, baita politika bizitzan be, euskeraren aldekoa izango da...

Euskeraren biziera zelan sentitzen eban ikusteko gertaera bat jarriko dot argigarri lez. Euskerazko aldizkaria *Euzko* azkenetan egoala edota hilda, protesta karta bat idatzi eben 1934ko ekainaren 27an berak eta Sekunda Bedialaunetak, Ondarroa'ko Euzkeltzale-Bazkunaren izenean:

## BIZKAI BURU BATZARRA'RI, BILBAO'N

*Agintari agurgarri ta aberkide zintzoak:*

*Miñez gatoz. Euzkerea zabaldu, euzkerea erabili, euzkerea euzkotar guztion izkuntzea danez, edertu ta ugaritu ta erabustera alegindu bear gareala gabiltzaz egunero, eta geu abertzaliok gara euzkera ori bastartuten gabilltzazanak: okintzetan ikusten danez euzkera orrek ardurarik eztaumoskula esan lei. Ondiño egun gitxi dirala, geure elian idatzia egoan asteroko abertzale bakarra, il egin da. Eriotza onetan irakurlerik ezak indar andia eukiko ebanik eztogu ukatuko. Baña uste dogu euzkerearen lotsearren, geure eliari maitasunarren, Alderki Jeltzaleak eta bereziki Bizkai Buru Batzarra'k, asteroko orren eriotzarik etzebala laketu bear. Nai ta "Euzko"ren bizia, bere iraupena, txindi begiz begiratuta, kaltegarri ixan. "Euzko" barik geure baserritar eta arrantzaleak, Bizkaia'ren zatirik andijenak, euzko irakaspiderik eztau izango. Ezer jakin gura ba'dau, erderazko indijetara jo bearko dau, edo bestela abertzaleak eztiran asterokuetara. Eta au lotsagarri-be lotsagarri dala uste dogu abertzale deitzen dan orri batentzat; eta askoz be lotsagarriago erri orren gogojaube dan abertzale alderdijarentzat. "Euzko"ren eriotzean zabalgundiari baño txindiari geiagao begiratu jakola uste dogu, abertzale lez geure asarrerik bizienera agortzen dogu; euzkeltzale lez geure ezespenera "Euzko"ren eriotzean esku-artu dabenentzako. Euzkeldun-erriaren izenez "Euzko"ren berpizkudea eskatzen dogu. Onetarako EUSKELTZALE BAZKUNA onek bere laguntzarik ugarienera eskintzen dau. Txindiz ezin dogu, baño geure jakintza argala, geure euzkera maitasuna "Euzko"ren aldezkintzen doguz.*

*Abertzaletasunez eta euzkeltzaletasunez igituta, euzko erriari maitemenes, barrero diñogu: "Euzko" berpiztu egin biar da. Euzkereari maitasunarren; euzkeldun erriari zor jakon begirapenarren; Euzko Alderdi Jeltzalea'ren lotsearren!*

*Auxe da Ondarroa'ko EUSKELTZALE BAZKUNA'koak, geure ta ondarrutar guztien izenez eskatu ta agertzen doguna.*

*Geure eskari ta agerpenau onartuak izango diran uste zindoz zebeu otsein geratzen gara JEL'aldez*

O. D.

Lendakarija.

Bedialauneta'tar Sekunda

Idazkaria.

Zubikarai'tar Augustin.

## IV ARGITALPEN HONETAZ

### - Idazlan aukeratuak.

Argitalpen honetan II. Errepublikako Augustinen idazlanen aukera bat egin dogu; erdiak argitaratzen dira, baina antzerkiak danak, hirurak.

### - Euskarri informatikoa.

Liburuarekin batera, eta honen osagarri, euskarri informatikoan, horreek guztiak agertzen dira; baina ez bakarrik Augustinenak, baita beste idazle ondarroarrenak be: II. Errepublikako sasoiari idatzi ebenak.

Kasu horretan, baina, bilketa-lan bat da, Ondarroako 'Historiazaleak' taldeak egina; laurehundik gora idazlanen erreferentzia ematen da, eta bilaketak egiteko modua eskaini, dala idazleak erabili eban ezizenaren arabera, dala dataren arabera, dala egunkariaren arabera.

Batean zein bestean orduko egunkarietan argitaratutakoak bere horretan jasota dagoz.

### - Erabilitako metodoa.

Prinzipioz, Augustinen eta honen denborako grafia, ortografia eta hitz forma batzuen erabiliera zerbait egokitu edo gaurkotu egin doguz, batez be, forma horreek beti era bardinez erabiltzen ez dituanean.

Augustinek, bere denboran ohi zanez, *r*, *l*, *t*, eta *d* tildetxo bat gainean dala idazten zituan askotan, *rr*, *ll*, *tt*, *dd*, bihurtzeko; guk *rr*, *ll*, erabiltzen doguz, *tt*ren ordez *t* edo *it* erabiltzen dogu, eta *dd*ren ordez *d*. Hitz askoren amaieran Augustinek *aba* eta *uba* erabiltzen ebazan, guk *aba* eta *ubaren* ordez *aua* edo *ua* erabiltzen doguz, adibidez: *egitaraba-egiteraua*, *abestuba-abestua*, *aginduba-agindua*, etab.

Beste hitz askotako *iya*, *ija*, guk *ia* bihurtzen dogu (adibidez, *batzokiya-batzokia*, *aberrija-aberria*, etab.). Beste forma batzuetan Augustinen *y* guk gehienetan *i* bihurtzen dogu: *eya*, *oya*, *aya*, etab. (adibidez: *odeyak*, *aberkoyak*, *alabayak*, etab.). Hitz batzuen hasierako *y* askotan *j* bihurtzen dogu, adibidez: *yakin*, *yaku*, *yat*, etab.

Hitz askoren *-ia* amaiera gehiago erabiltzen dau *-ea* baño, adibidez: *gaztia-gaztea...*, eta guk bigarren forma hori jartzen dogu.

X letra be z bihurtzen dogu gehienetan, *axe-aize*, *antzerkixun-antzerkizun*, *bixar-bizar*, *bixkor-bizkor*, *eginkixun-eginkizun*, *etorkixun-etorkizun*, etab. Badagoz hitz batzuk Augustinek ia beti era batera erabiltzen dituanak, adibidez, *bixi* (250 bider) eta *bizi* (24 bider bakarrik), *gixa* (225 bider), *giza* (15 bider), *ixan/ixango* (620 bider), *izan* (32 bider), eta beti *ixil* (40 bider)... Argitalpen honetan z jartzen dogu.

Beste hiz batzuetan hasierako *x* guk *s* bihurtzen dogu, adibidez: *xamur-samur*.

Augustinen *s* eta *z* letren erabiliera be ez da hain egokia, berak gehiago *s* erabiltzen dau, adibidez *gustia/gustiz...* Augustinek *gust--* erabilten dau 205 bider eta *guzt--* 32 bider; guk *guzt--* jartzen dogu, gaurko erara egokituz.

Hemen esan beharra dago, Augustinek forma berari beti eusten ez deusanean egin doguzala aldaketa honeek; era bitara erabiltzen dituan formak dira Augustinengan. Horregaitik gaurko erara egokitu doguz forma horreek.

Orduko inprimategiko hutsak be aitatu beharra dago; batez be, egunkarietan huts asko egiten ziran; eta argitalpen honetan huts horreek zuzentzen ahalegindu gara.

- **Eskerrak** emon beharren aurkitzen naz Luis Baraiazarrari, Augustinen testua finkatzen eskeini deustan laguntzagaitik. Eta eskerrak, batez be, Ondarroako Udalarari Augustinen gerra aurreko idazlanen argitalpen hau posible egin dualako.

#### - Augustinen orduko lexikoa.

Augustin gaztea idazten hasi zanean, Sabino Aranak jarritako euskerazko berba barriak indartsu egozan talde eta medio askotan, eta Augustin bera horren testigu bihurtzen da, nahiz eta bigarren errepublikaren amaierarantz hitz barri horreek gitxiago erabili, batez be bere antzerkietan.

Gaur egun horreetariko berba asko hain ezagunak ez diran ezkerreko, hemen jartzen dogu hitz horreen zerrenda, hitz bakoitzaren azalpentoagaz. Baina aitatu behar dot euskerazko hitzaren ostean parentesi artean agertzen diran gaztelaniazko berbak Augustinek berak jarritako azalpenak dirala, eta guk errespetatu egin doguz bere erderazko azalpen horreek.

Abar igandea:	Erramu igandea	ekandu:	oitura
Abea:	Aita	elaztu:	(comentar)
aberkatzea:	berriratzea, geuregantzera,	elburu:	(fin, lema)
aberkide:	Abertsale laguna	elia:	elea, hizkuntza
abertzaletasun	aldartetsua:	elkortasuna:	(esterilidad)
	(patriotismo intermitente)	elia:	elea, hizkuntza
agoliñean:	hil zorian	endekatu:	(degenerar)
Agurra:	(Salbea)	endore:	alkatea
aintzaldu:	goratu, goretsi	epail:	martzoa
akeitetxea:	kafetegia	eraildu: :	(asesinatu)
aldizkingi:	aldizkaria	eralguntza:	eskuordetze
anei:	mila	eresbatza:	musika banda
amildegi:	(torrente, vertiente)	eresdu:	abestu, kantatu
arranbel:	arkua	eresketia:	abestea, kantatzea
artezlari:	zuzendaria	erestaldi:	kontzertua, musika-saioa
aselea:	legenda	erestoki:	musika-lekua
askaltzaile:	demokrata	erkal:	errepublikaa
Askaltasuna:	(democracia)	erpin:	gailurra, tontorra
askitz::	tradizioa	errola:	(kontua)
asmo-ingia:	proiektua	erti:	arte
atzergetxe:	(aduanan)	ertxadona:	herriko eliza
atzipetu:	(engañar)	espetxaltze:	arresto
autarki:	botoa	etoi:	(traidor)
bakaldar:	monarkikoa	etsi:	(juzgar, estimar)
bakaldun:	erregea	ezpai:	(duda)
bakaulki:	(tronua)	gaizkatuko:	(salbautuko)
basatxaunea:	ermita edo baseliza	gaiztoki:	inpernua
basotxonua:	ermita	garbai:	(pesar, dolor)
buruin:	(bonete)	gentza:	pakea
dagonil:	abuztu	geiegikerietara:	(extremoetara)
zio:	arrazoi	giza-auzia:	giza araso
didar:	deiar	gizarte-zale:	(sozialista)
Doibatz:	Eliza santua	gogaikide:	(ideadun)
Doipurua:	Aita Santua	goizparkia:	ebanjelioa
donoki:	(zerua)	gongotzain:	artzapezpikua

Goteuna:	Espiritu Santua	maxiatzale:	(kritiko)
gotuts:	aingerua, espiritu utsa	monjorra:	montxorra
gorularia:	hilandero	neskutz:	(birgiña)
gurenda:	triumfo, victoria	notin:	pertsona
gurtza-abertzaletasun:	(patriotismo cultural)	notiñeri:	jendea, pertsona multzoa
azil:	azaro	notintzea:	jendea, pertsona multzoa
idaztegi:	biblioteca	oindi:	(aldare)
igazi:	igaro	oiuztatzen:	(pregonar)
ikurtona:	sakramentua	Oldoztu:	pensar
ikuskantz:	ikuskizuna	oldozkor:	pentsakor
ilgortziak:	(entierruak)	opalben:	(eskintza)
ingi:	papera	ordeko:	(interino)
iñartzi-izan:	(envidiar)	orril:	maiatz
itxarkor:	sirikakor	oturuntza:	comida, banquete
itxeikizun:	hitzaldia	ozkarbi:	(zeru garbia)
itxol:	txozna	ozkiñak:	(zapatos)
itxontziño:	itsasontzi txikia	tostartekoa:	arrantzale soila
Izki:	(letra)	txadona:	eliza
izkiñ :	(soplón)	txaide:	(kale)
izpar:	albiste	txardiña:	sardina
izparringi:	egunkaria	txaunburu:	parrokoa
jaurri:	(gobernar)	txauneskinlari:	organista
jaupa:	meza	txeigo:	balkoia
jaupari:	abade	txindia:	dirua
jopu:	morroi, esklabo	txinela	udaltzaina
joputasuna:	morrontza	txonitza:	sermoia, predikua
kistar:	kristau	ugorkondo:	(alcoholismo)
Kisto:	Kristo	ugutzau:	bateatu
lagidi:	legedi	urtzingetasuna:	(ateismoa)
lankin:	laneko tresna	uskurtza:	erlijioa
laterrri:	estatua	zantzolaria:	irrintzilaria
lepalpen:	(responsabilidad)	zapalo:	balkoia (sapailo)
lotazil:	abendu	zarrontzallea:	kontserbadorea
ludi:	mundu	ziñezge:	(pagano)
lupetza:	(lodazal)	ziñopa:	(martiri)
lutelesti:	geografia	Zorun:	zorion

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

BIGARREN ERREPUBLIKA DENBORALDIKO IDAZLANAK (1931-1937) ETA ONDARROA •

Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

# I. KRONIKAK

(1931-1933)



# ONDARRU

[El Día: 1931-07-08; 8. or.]

## “Luzear”i

Agur “luzear”. Euskal orri onetan toki txikitxo bat utziko didazula uste det. Oindiño gaztetxea naiz; amasei urte baiño ez ditut; baiñan nere zaiñetan euskal odol beroa daramat. Artu egizu idazle gazte onen besarkada sutsu bat.

## Ondarruko idazleai.

¡Ondarruko idazleak, ernai! ¿Beti lo gozoan egon bear al zerate? Elduko dira, bai, lo egiteko egunak, baiñan aurrena agoliñean dagon gure ama Euskera gaixoaren alde lan egin dezagun.

“Artibai”, “Txori Erreka”, “Basa-txoritxu”, “Biar”... ¡eupe!, esnatu eta ekin gogor ezeren bildurrik gabe gure euskeragatik.

## Lekeitio’ra.

Gaur, Lekeitio’ko batzokia zabaltzea dala-eta, an egingo diran jai ederrak ikusteko, emengo mendigoizaleak mendirik mendi joatea erabaki dute. Goizean zortziretan urtengo dute, Lekeitio’n amaiketako mezea entzuteko. Arratsaldeko jai ederrak ikustera, itxasoz eta legorrez.

¡Ondarruko abertzaleak, gaur danok Lekeitio’ra!

## Saski naski.

Bilbo’tik etorrita, emen arkitzen da Bastida’tar Rikardo bere sendiarekin.

Emen ikusi degu Uribasterra’tar Adolfo, Durango’ko endorea.

Itziar’ko txadonan ezkondu zan ostegunean Kanpos’tar Ander, Agirre’tar Ebarista’rekin.

Laister ezkonduko da Bermeosolo’tar Benino, Urresti’tar Julene’rekin.

## ¡Ondarrutarrak!

Gure artean uda dala eta, gisaseme lotsagabe asko sartu dira. Gure oitura eder eta garbiak zapaltzera datoz oneek.

¡Ondarrutarrak gure irakurgai, abesti, jolas, dantza eta jantziak euskaldun usai gozoa zabaldu dezatela. Erakutsi beti euskaldunak gerala, eta euskaldun lez Jaungoikoa’ren aurkako gauzarik ez degula nai.

ZUTARRA

Ongi etorri, “Zutarra”, eta urrengorako, arren, zure izen abizenak bialdu. LUZEAR.

# ONDARRU

[El Día: 1931-07-17; 10. or.]

**Gernika'ra.** – Ainbat eta ainbat abertzale joan ziran emendik Gernika'ra, gure aldunai agur anaikor bat egin eta Euzkaldi'gaitik lan egiteko berotzen.

Emengo abeslari taldeak ondo baiño obeto abestu zutela goizeko mezetan esan digute. Gure zorionik samurrenak beren zuzendari Urzalay'tar Gotzon leialari.

¿Zer esan ote dute, Prieto eta lagunak Gernika'ko jai ederrak ikusita? ¿Orain ere adorerik eukiko al dute, Mujika jaunak edo Loyola'tik zuzenduak izan dirala jai oiek esateko?

**Agindu eder bat.** – Txalogarria da benetan gure endore zintzoak egin daben agindua. Bertan esaten du ez dedila iñor erdi bilotzik ondartzan ibili, eta ez dedila iñor ez jantzi eta ez erantzi ondartza onduan dauden arkaitzetan bertan dabiltzanen lotseagaitik.

**Ugarritzan alde.** – Abertzale askok zabaldu dute euren eskua, gazte zintzo eta leial oni laguntzeko. Orain arte 114 laurleko batu dira. Iñork geiago nai badu ezer eman, abertzale onentzat Arriola'tar Bitor jaunaren dendan artuko diote.

**Eliz gaiak.** – Joan dan igandean euki zuten Maria'ren Alabak euren illeroko jaunartzea.

Atzo, osteguna, Karmen'go Miren Amaren eguna zala eta elizkizun ederrak izan dira leikaimeen elizatxoan. Goizean zortziretan, lekaimen ikastoletako umeen jaunartzea. Gero, meza nagusia, bertako neskatilak abestua. Arratsaldean agurtza deuna eta itzaldia, Aretxaga'tar Jines jaunak.

**Ezkio'ra.** – Ama Neskutsaren irteerak [agerpenak?] dirala ta, emendik ere joaten dira batzuk Ezkioga'ra. Itzik ez duala egiten, eta zer nai ote duan galdezka dabilta kristauak. Itxaroko degu zertan gelditzen diran gauza arrigarri oiek, ikusi arte.

**Basa txoritxu'ri.** – Orain urtebete “Euzkadi”n euskeraz ain ederto idazten asi ziñanean, uste izan genduan bazala Ondarru'n idazle on bat gure erriko izparrak idazteko; baiña, au tamalgarria, onoko bost illabeteen ez dezu ezer idatzi. Alperkeria eldu al da zugana ere? Ala Markiña ondoko nor edo nork buruauste geiegi ematen al dizu?

ZUTARRA

Eskerrak, Zutarra, nere ama zanaatik esaten didazunaren orde. L.

# ONDARRU

[Ekin 1 (1932, 3. zk.) 6. (1932-02-20)]

**Aratusteak.** - Aurtengo aratustietan tamalez iñoiz baiño burubako geiago ikusi doguz. Eta burubakoakaz mozkorra sendo.

**Arrantzaleak.** - Igaro dan aste guztian etxean egon dira mariñelak.

**Antzerkiak.** - Abertzaleak sutsu diardue “Amets gozoak” eta “Maitasun eta gorroto” antzerki ederrak gertatzen. Len “Itziartxo” egin zenduen lez antzeztuten badozuez, ez zarie makalak izango.

Eibar'ko gazte zintzoak be “Alma Vasca” Ondarrun botateko asmoa daukela entzun dogu. Poztuko giñake.

**Lanak.** - Erestokiari txapela ipiñi dautse, eta laster asiko dira enparantzan porlana botaten.

Txadonan be gurutze andi bat ipinteko tokia egiten dabiz.

**Gurutzeak kendu.** - Ikastoletatik Jaunaren irudiak kendu dabez. Umeak baiña euren paparrean gurutzak erabilteko asmoa dauke, ikastoletara biurtu arte.

**Itzaldia.** - Luistarrak “Bide Onera” aretoan astelenetan eukiten dogun itzaldia, Badiola'tar Alexander, “Ekin”en saltzalleak, egin eban. Itzaldi mamitsua benetan eta euzkera txukunean gero. Zorionak, Alexander, eta ekin gogor Jaungoikoa eta aberriaren aintzan.

**Agur.** - “Ekin” asteroko euzkeltzale onen bitartez agur maitekor bat idazle eta irakurle guztiai.

GURUTZ

# ONDARRU

[Ekin 1 (1932, 4. zk.) 6. (1932-02-27)]

**Luistarrak.** - Urtero lez aurten be luistarrok Kistar ikasbidea erakusten asi gara. Tamalez, baiña, lagun gitxi batzen gara.

Asteroko itzaldia Arriola'tar Aureli lendakari ospetsuak egin eban. Izparringiatzaz jardun eban eta argi eta garbi azaldu ebazan izparringi txarren kalteak. Zorionak.

**Arrantzaleak.** - Oraingo egunetan papardua polito dakarre.

Sardiñea be gaur motor batek polito ekarri dau.

Ardautako bear dabe zer edo zer gizajoak.

**Ontzi barri bat.** - Asteartean bota eben emengo astillerutik 25 metroko ontzi eder bat. Getari'ko Iriarte'rentzat dala jakiñ dogu. Iriarte Abak onetsi eban.

**Josulagun bat gugana.** - Durango'tik etorri jaku gure artean bizitera, Iriarte Aba, Josulagun zintzoa. Ondarru izan dala bere amesa diñosku eta gure artean lan egiteko asmo sendoakaz datorrela. Igandean egin eban bere lenengo itzaldia; baiña zelako itzaldia? Mutillak...! bastarretan erdi lotan egoazan aguratxoak lokatu ebazan arek. Jakin dogunez datorren igandean be beronek egingo dau. Poztuko giñakez.

Erriko abadeak ba dauke naiko zeregin errian ilten diran atsotxuen ilgortziak (entierruak) egiten. Oingo egunetako aize otzak erriko atso guztiakaz amaituko dabela dirudi. Gazte asko be estu eta larri ei dabiltzaz aize oneikaz. Kontuz gazteak, jakin dodanez, "Cirila" neskazarra ei dabil lagun billa-eta.

GURUTZ

# ONDARRU

[Ekin 1 (1932, 6. zk.) 4-5. (1932-03-12)]

**Antzerkiak.** - Iragarri neban lez antzerki-jai eder bi euki genduzan larunbat eta igande gauean "Maitasun eta gorroto" XV'garren gizaldiko antzerkizun adoretua eta "Amets gozoak" barregarriak izan ziran ondarrutar abertzale gazteak ondo baiño obeto antzestu ebezanak. Gurenda aundia benetan antzezleriok lortu zenduena.

Atalar-tean emakume gorulariak, Arriola'tar Ruperta buru zala Almandoz'en "Txeru", "Zeruko izar zelaia" eta "Artzai abestia"kaz atsegindu ginduzan. Abeslariok txaloa ugari entzun eben. Zorionak demotseguz antzezleri eta abeslari guztiei eta batez be, euzke-reagaitik ain sutsu lan egiten daben E. A. B.ko zuzendariei.

**Luistarrak.** - Igandean euki gendun Luistarrok illeroko jaunartzea. Asteroko itxei-kizuna Rementeria'tar Saba euzkeltzale gazteak egin eban. "Askatazuna eta ikastolak" artu eban gaitzat eta giputzez ondo baiño obeto azaldu euskun gaurko egunean ikastoletan jazoten dana. Itxeikizunaren laburpena guztiz egoki egin eban Arriola'tar Aureli lendakari ospetsuak.

**Euzkera radioan.** - Lengo eguaztenean zaletazun aundiagaz egon giñan geure elekutuna radiotik entzuten. Amaikatxu parre maite egin gendun Egileor alaitsuakaz. Ua, Ua, euzkera Gipuzkoa. Bizkaia, Araba eta Nafarroa. Laburdi eta Zuberoa-zear; ua, ua ludi guztirantz eure edertasuna zabaltzen...

## **Ama Neketsuaren bederatziurrena.**

Eguaztenean arratsaldeko sei eta erdietan asi zan Miren Neketsuaren bederatziurrena. Oste aundia batzen da bertara.

**Aberri-eguna.** - Zaletasun aundia dago ondarrutarren artien aberri-eguna ospatu-terera Bilbo aldera joateko. Berton be jai ederrak eukiko doguz Bilbora joan ezin dabenen-tzat.

**Eriotzak.** - Igaro dan astean Urkiaga'tar Domeka aguretxoa eta Etxebarria'tar Pilare ogei urtedun andrea il jakuz. Samin-agurra damotsegu bitzuen sendiai.

**Gudaritzara.** - Atzerri alderantz lau arrantzale gazte joan jakuz gudaritzarako dei-tura. Lenbailen etorri, gazteak.

GURUTZ

# ONDARROA

[Ekin 1 (1932, 8. zk.) 6. (1932-03-26)]

**Elizkizunak.** - Oste aundiagaz ospatu ziran Miren Neketsuaren eguneko elizkizunak. Bederatzietan egon zan jaupa nagusia Madariaga Abaren txonitzagaz eta arratsaldean seiretan agurtza, gurutz bidea erriak abestuta, txonitza eta ibildeuna.

Abeslariak Lotti'ren Agurra (Salbea) eta Stabat Mater Uriarterena ondo baiño obeto abestu ebezan.

Abar egunean amarretan izan zan jaupa nagusia ereinotz-onespen eta nekaldiagaz. Erri zatia abeslariak Vitoriarena abestu eben. Eskeintzan (ofertorioan) "Pueri Haebreorum" Palestrinarena abestu zan. Arratsaldean Madariaga pantzeskar Abak egin eban txonitza irugarren ordenatzaz eta Goikoetxearen lau eta sei abotsetako Miserere ederra eta lau, bost eta sei abotsetako Arregi'ren "Unus ex discipulis" abestu ziran.

Astearte gabeen Doipuruaren onespenez amaitu ziran Madariaga Abak irugarren ordenatzaz egin dabezan txonitz eder eta onurakorrak.

Asterrika-auzoan amaitu ziran eguaztenean Iriarte Abak emon dabezan gogo jardunak. Jakin dogunez baserritar asko batzen ziran Jaunaren itza entzuten.

Berbizkunde igandean asiko dira Gorozika auzoko Jon deunaren ertxadonan Iriarte Abak zuzenduko dabezan gogo jardunak.

**Itzaldi aberkoiak.** - Joseba deunaren egunean itzaldi aberkoi bi euki genduzan Bilbao'tar Kepa eta Gallastegi'tar Alexander euzko eletari ospetsuak izan ziran ondarrutari euren itz mamintsua zuzendu eutsenak. Txalotuak izan ziran.

**Euzko-langilleak.** - Langillez bete-betea egoan astearte gabeen Bide Onera aretoa Robles Arangiz aldun langilleari entzuten. Onak gai eder eta egoki bat artu eban eta bai ederto azaldu be. Zetan esanik be ez dago entzuleen txalo ugari artu ebezala.

Datorren asteartean Larrañaga'tar Polikarpa abade langilleak egingo dau.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 12. zk.) 5. (1932-04-23)]

**Dragia.** - Astelenean urten eban emendik Somorrostrorako ustean "Euzkal-Erria" dragiak. Ez dabe indarrrik euki Bizkai-Aldundian Bizkaiko arrantzale bazkunak zuzendu dautsoezan idazki zuzenak; izparringien jardun sakonak bez. Emengo arrantzaleak pozarren egoazan udarte baiño ez bazan be, emen egonda lan aundi eta onurakorrak egingo ebazala eta; baiña, tamalez, euren itxaropenak amets biurtu dirala esan bear dogu.

**Joseba deuna.** - Igandean ospatu gendun Joseba deunaren zaindaritza. Zortziretan izan zan umeen jaunartze nagusia. Jauna artu eben umeak 123 izan ziran. Abesti polit eta ederrak abestu ebezan umeok jaupa bitartean. Txonitza, txauburu jaunak egin eutsen. Jaupa nagusian Perosi'ren "Secunda Pontificalis" abestu zan eta Joseba deunaren onoinenak ondo baiño obeto azaldu ebazan Iriarte Josu Lagun Abak itzaldi eder baten.

**Errepublikaren urteurrena.** - Errepublikaren urteurrenean jai artu eben emengo langillerik geienak Erkaldarrak urteurrena ospatuteko apari bat euki eben "Comercio" jate-txean. Tamalez, apari ostean, ondarrutarrei atsegin ez jakezan gora eta bera asko jaurti ebezan txaideetan.

**Jaiotza.** - Il onen 15'an ugutzau eben Miren deunaren txadonan, Akarregi'tar Joseba eta Etxebarria'tar Mirenen alabatxoa. Aurtxoari Lorea euzkel izen polita ipiñi eutsien.

**Eriotzak.** - Ikurtonak eta Doipuruaren onespina artuta il zan igazi dan larunbatean Burgoa'tar Terese andere gaztea. (G. B.).

Astelenean il zan Egiguren'tar Joseba Augustin 90 urteko aguretxoa. Ondarrutik zarrena izan da au. Tamal agurra damotsegu bitzuen sendiari.

**Liburutegia.** - Koldobikatarrak eta Miren'en alabak gogotsu dabilta liburutegi bat ipinteko asmoz. Liburutegi au bearrezkoa dala uste dogu, irakurteko ainbat zaletasun dago erri onetan. Toki billa asi dirala be jakin dogu. Ainbat lasterren lekua billatu eta erriarentzat zabalduko dabela uste dogu.

**Arrantzaleak.** - Errepublikaren egunean iñoiz baiño bokarta geiago ekarri eben arrantzaleak <sup>(1)</sup>. Saneurria zortzi errialetik berrogeita bošt bitartekoa izan zan. Gaiñerako egunetan gitxi biño ez dabe ekarri eta ekarri dabena txikia izan da.

GURUTZ

(1) Gero esango dabe errepublikeaz gauza onik ez jakula etorri.

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 15. zk.) 7. (1932-05-14)]

**Udal-batzarra.** Ara emen azkenengo udal-batzarrean artu ziran erabaki batzuk. Kontu batzuk ontzat artu.

Iturriotz'tar Pirmiñen eskabideari jaramon egiñaz, amar "Lutelesti" erosi umetxuen ikastoletarako.

Bizkaiko betar-aurkako batzarreko lendakariaren laguntasun eskabideari, 50 lauerlekogaz erantzun.

Erriko bost txinelen artean azterkizunetara atera euren nagusitza.

Garbilekuan eta azoka enparantzan barriztapen batzuk egin.

Gero idazkariak txindi-kontu batzuk emon ebazan eta beste garrantzidun barik amaitu zan.

**Antzerkiak.** - Datorren igande eta astelenean antzezki-jai eder bi eukiko doguz "Bide Onera" aretoan "C.D. Aurrera" k eralduta.

Lenengo, Egiguren'tar Kepa antzezleri jaiok "Izkiña Mutrikun" bakarrizketa parregarria antzestuko dau.

Gero Arniches eta Asensioak egin eta Chapi'k erestutako "Puñao de Rosas" atal batekoa antzestuko da.

Atalaratean Etxebarria'tar Imanol abeslari zoliak "Mendi Mendian" eta "Los Claveles" en zati batzuk abestuko dauz. Salneurriak sei erreal eta laurleko bat.

**Idaztegia.** - Igandean, iragarri arren, ez zan zabaldu idaztegirik. Oraindiño gauza batzuk gertuteko [gertatzeko] dagoz eta, J. I., laster zabalduko da. Liburuak polito batu doguz eta eurok idazlerik aundienenak dira. Cervantes, Gabriel y Galan, Villoslada, Lacordaire, Campión, Delli, Papini, Ardel, Curro Vargas, Douillet, Pierre Lhande, Risco eta abar erdaldunen artean eta Jauregi, Azkue, Manterola, Orixe, Mugica, Kirikino, Lardizabal, Zubimendi, Agirre eta abar euzkaldunen artean, irakurleen atsegingarri izango dira.

Izparringiak El Debate, Gaceta del Norte, Euzkadi, El Día eta Pueblo Vasco Donostiakoa izango dira eta asterokoetan "Ekin", "Argia" eta besteren bat egongo dirala be badakigu.

**Aberkoiak.** - Igandean lagun asko joan ziran emendik Zarautzera E. A. B.'k eraldutako jaietara.

Zaletasun aundia dago abertzaleen artean datorren igandean Mutrikuko itzaldira joateko.

[GURUTZ]



# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 16. zk.) 6. (1932-05-21)]

**Antzerkiak.** - Iragarrita egoan lez igande eta astelen gauetan antzezkizun jai bi euki gebezan [genduzan] C. D. Aurrerak eralduta.

Antzerkiak, atzezlariak eta abeslariak notiñen atsegingarri izan ziran eta guztiak txalo ugari eta ondo irabaziak entzun ebezan.

Datorren larunbat eta igande gauetan "Boka-arena"ko gazteak antzeztokian aurkeztuko dira. Gonzalez eta Martin Alonso'ren "Más que Paulino" antzeztuten. Atalardean Urresti'tar Paulin abeslari ospetsuak, Arrate osagillearen "El Cristo de Lezo" eta beste abesti batzuk abestuko dauz.

**Deia.** - Ezpata-dantza ikasi nai daben ume guztiai eskatzen jake euren izen-abizenak emon dagiezala Badiola'tar Koikileri.

**Ordua zan!** - Erriko tokirik eder eta garbienean billatu dabe abertzaleak euren batzokia ipinteko lekua. Ordua zan!

E. A. B.'k oraintxe egiten dagozan etxe barri bat aukeratu ei dau.

Entzun dogunez euren zabalkundea arrantzaleak atunetara joan baiño len izango da.

**Elizkizunak.** - Aundikiro ospatu doguz Goteunaren egunak.

Igandean jaupa nagusia Perosiren "Missa Eucharistica" abestu zan. Arratsaldean loretako txonitza txauburu jaunak egin eban argi eta garbi.

Astelenean be txonitza egon zan eta txonislaria Lertxundi eta Duanto-Ruiz'tar Domeka izlari ospetsu eta iaioa izan zan.

**Naskaldea.** - Eguaztenean ezkontzen da Arantzazuko txadonan Ituarte'tar Agurtzane, Garrido'tar Gergorigaz.

Kanariatik etorrita emen agurtu gendun Josuren Lagundiko Badiola Anaia.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 17. zk.) 7. (1932-05-28)]

**Sorkunde Garbiaren idaztegia.** - Igandean amabietan izan zan Sorkunde Garbiaren idaztegiaren onespina. Arratsaldean bostetan zabaldu zan erriarentzat eta irakurteko zaletasun aundia dagoala ikusi genduan.

658 liburugaz zabaldu zan. Asierako polito ezta?

**Bergarara.** - Laster Bergara'ra joateko da emengo abertzale antzezleri-taldea angotxo "Novedades" aretoan "Garbiñe" eta "Amets gozoak" antzeztuteko asmotan.

Ikusiko dogu zelako "papela" eiten dozuen.

**Arrantzaleak.** - Igazi dan astean arrantzaleak bokarta gitxi ekarri dabe. Eguraldi txarrak izan dira eta ontzi txikiak ezin urten izan dabe. Astekoaren salneurria 73.000 laurlekora eldu da.

**Antzerkiak.** - Antzerki-jai ederrak benetan Boca-arenak eratuta larunbat eta igandegauetan euki gebazanak [genduzanak]. Antzezleri guztiak ondo egiten alegindu ziran eta euren alegiñak bete ebezan.

Antzerkia be guztiz polita izan zan eta augaitik "Bide-Onera" aretoa bete-bete egiten eben notiñik geienak poz pozik urten eben. Tamalez baiña gure ele kutuna gitxi baiña ez bada ere maite dogunok zerbait atsekabetuak urten genduan, gure euzkera ederra baster-tuta, ondarrutar askok ulertzen ez dogun arrotzen izkuntza baiña besterik ez gendulako entzun.

Egia da antzerkia eta abesti bat euzkal usaiñekoak zirala, baiña euzkal-usaiñekoak izan arren zer? euzkal izkuntzan idatzita ez baegozan?

Urrengorako ez aitzu.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 18. zk.) 7. (1932-06-4)]

**Txalogarria.** – Poz-pozik ikusi dogu gure eresbatza igandetako dantza-eresietan euzkal-eresiak joten asi dala. Len zazpi eresitik bat bakarra joten eben euzkal dantza garbirako, eta berau ez zan izaten dantza garbirako bakarrik, erdia garbi eta beste erdia loirako baiño.

Orain, igandean ikusi genduan lez euzkal usaiñeko eresi bi joten dauz dantza garbirako eta geroago iru joteko asmoa daukola entzun dot. <sup>(1)</sup>

**Jaiotzak.** - Gorpuzti egunean ugutzau eben Miren deunaren txadonan Lezea'tar Jon Koldobikaren semetxo. Umeari Josu Mirena euzkal izen polita ipiñi eutsen.

Astelenean ugutzau eben Josu Mirena izenagaz Solabarria'tar Jon eta Aremayo'tar Agurtzaneren semetxo.

**Elizkizunak.** - Ospetasun aundiagaz ospatu geban [genduan] Gorpuzti eguna. Jaupa nagusia Perosiren "Secunda Pontificalis" abestu zan eta eskeintzan (ofertorioan) "O Salutaris" Perosirena.

Arratsaldean asi zan Josuren Biotzaren bederatziurrena eta egunero lagun asko txadoneratzen dira, Josu ganako maitasuna agertzen.

Josuren Biotz-egunean, igandean eta urrengo barikuan kurutzetakoak (via crucis) eukiko doguz eta Josuren Biotzaren zortziurrenean Jauna agirian dala izango dogu agurtza, gaurko nabarmenkeriak Jaunak azketsi dagizan.

**Naskaldia.** - Gazteiz'tik etorri dira Urruzuno'tar Luken eta Basterretxea'tar Andoni jaupalgaiak, oporraldiak igaroten.

Baita ere etorri dira Saturraran eta Gastelu – Elexabeitiko jaupalgaiak.

Zaletasun aundia dago abertzaleen artean igandean Markiña'ra joateko. Bertoko eresbatza be joateko dala entzun dogu.

GURUTZ

(1) Orrelako asmoren bat emen aldean be ez litzatekek txarto etorriko, baiña...  
oraindiño beintzat itxaron egin bearko joagu.

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 19. zk.) 7. (1932-06-11)]

**Euzko araudi alde.** - Igazi dan ostiralean euki eben emengo erkaldarrak araudi aldezko batzar bat. Batzar orretan araudiaren alde sutsu lan egiteko asmoa artu ebela entzun dot.

Txaide guztiak araudi aldezko ingiz beteta dagoz. Salerostetxeetan be ainbat eta ainbat ikusten dira. Itxasontzi askok be euren tximinietan darabillez. Tamalez baiña "Dios y fueros" elburutzat dauken asko ingi oneik apurtzen dabiltza. ¿Zer dala-eta? Nire ustez one-tariko askok ez dabe ezautzen araudirik. Zer dan be ez dakie. Eta oneei Tertulianok Erromako agintariei eskatzen eutsona eskatu beariko dautsegu: Ez dagiela ezer jazartu, eza-gutu barik.

**Elizkizunak.** - Josuren Biotzaren egunean elizkizun ederrak euki gebazan [gendu-zan]. Amarretan izan zan jaupa nagusia eta txonitza Oar-Arteta Markiña'ko txaunburu-lagunak ondo baiño obeto egiñ eban.

Egun onetan etxe guztietako zapaloak oial ederrez apainduta agertu ziran.

Igandean asi zan Andoni deunaren bederatziurrena. Andoni deunaren txonitza egi-tera Huarte Josulagun Aba datorrela jakin dogu.

**Markiñara.** - Igandean oste aundia joan zan emendik Markiñara. Goizean zazpire-tan joan ziran mendigoizaleak. Arratsaldean, eguraldi txarra egon arren, eten gabeko aldrak urtete[n] eben batzuk oiñez eta beste asko burtariñetan.

**Bergara'ra.** - Zarrantzalle ugari joan ziran emendik Bergara'ra. Etxeratzean abertzaleei eta euzkotar askori atsegintzen ez jakozan "bera" batzuk jaurti ebezala-eta, iskanbilla txiki bat izan zan.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 22. zk.) 6. (1932-07-2)]

**Jon deuna.** - Ospetasun aundiagaz ospatu geban [genduan] Jon deunaren eguna. Iñoiz baiño notin geiago joan zan Gorozika'ko auzategira bertan egiten diran jaiak ikusi eta euretan esku artzeko asmotan.

Amarretan izan zan jaupa nagusia eta abeslari-talde batek gotzon-jaupa abestu eban. Txonitza aspaldi onetan gure artean euki dogun Iriarte Josulagun Abak egin eban argi, garbi eta adoretsu. Jaupa ondoren eta arratsaldean txistulariak, txistuari eten barik ekin eutsen, dantza-eresi alai eta politak jotzen.

Iluñabarrean, notintza errira jetxi zan eta urtero lez auresku eder eta alai bat egon zan errian.

**Euzkal izena.** - Igandean ugutzau eben Miren Neskutzaren txadonan Bedialauneta'tar Saba eta Zubikarai'tar Errosek izan daben alabatxoa. Umeari Lorea euzkal izen ederra jarri eutsien.

**Abertzaleak.** - Igandean izan eben abertzaleak batzarra, batzoki barriko bazkintza artezkaria autateko. Izka txiki baten ondoren autuak oneixek izan ziran. Lendakari: Solabarrieta'tar Joseba Mirena; Lendakari-orde Apraiz'tar Peli; Idazkari: Etxebarria'tar Imanol; Txindi-zai: Erremitteria'tar Saba; Idaztegi-zai: Urresti'tar Jon, eta Batzordeak: Arantzamendi'tar Augustin, Agirre'tar Xabier, Badiola'tar Alexander eta Badiola'tar Erramun.

Kepa deunaren egunean zabaltzeko asmoa egoan baiña oraindiño tresnarik ez dago-ala-eta, zabalkundea Garilleko egun baterako atzeratu zan.

**Kepa deuna.** - Agintariak egun au kenduta euki arren, emen arrantzale eta langille guztiak jai artu eben. Amarretako jaupa urtero lez Kepa deunaren oindian (aldarean) esan zan eta abeslariak Perosiren "Missa Eucharistica" ondo baiño obeto abestu eben. Espakarrak [bakarrekoak] Urresti, Etxebarria eta Urzelai abeslari ospetsu eta iaioak abestu ebezan. Eskeintzan "Quem dicunt homines" lau abotsetara abestu zan. Txonitza Huarte Josulagun agurgarriak egin eban eta entzuleen atsegingarri izan zan.

Udal-batzarra. - Astelenean endore jauna buru zala batu ziran ziñegotziak udal-  
txean asteroko batzarra egiteko eta erabagi onizek artu ebezan.

Aurreko asteko batzar erabagiak irakurri eta ontzat artu.

Ogasun batzordearen eskubideari jaramon egiñaz Gimon'tar Kepa etxegilleak,  
azoka-enparantzaren sarreran jarteko aurkeztu dabezan iru itxolen asmo ingiak eta dirutza  
ontzat artu eta erriko langillei lana emotearren, Bilbo'ko lanartun batzuentzako Gimon'ek  
eskatzen daben [dauan] ardurua osetu.

Zubikarai'tar Gaizka lanartunak aurkestutako iru ziegaren (calabozo) asmo-ingiak  
eta dirutza ontzat artu eta itxol eta ziegaren errematea uztaillaren 10'an egin.

Amilibia'tar Karla arginak Saldupe'ko garbilekuan egin dabezan [dauzan] lanen  
errolda (kontua) ontzat artu.

Amilibia'tar Lontzi, Gorostidi'tar Balasi eta Amilibia'tar Karla'k erriko urtokia gar-  
bitzeko aurkeztu dauan dirutza ontzat artu eta ainbat lasterren garbiketa egiteko agindu.

Atzergetxetako (adua) arduradunaren idazki bat irakurri zan, esanaz Ondarrun  
atzergetxe bat ipinteko udalaren eta arrantzale bazkunaren eskubidea ondo ikusi dabela eta  
eskubide ori Madrid'era bialdu dabela.

Arrantzaleen eskubide bat ogasun batzordearen ikasterako [batzordeak aztertze]ko  
laga eta amaitzeko.

Santa Kurtz ziñegotziak eskatu eutson endoreari txinelak ipinten dabezan diru-  
nekeak ez dagizala azketsi eta endoreak erantzun eutson orain arte beintzat ez dala olakorik  
egiñ.

Geiago barik amaitu zan.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 23. zk.) 7. (1932-07-9)]

**Zarrontzalleak.** - Igaro dan astean ez dira lo egon emengo zarrontzalleak. Aste orretan "Marina" akeitetxean izan ebezan euren bazkintza artezkariak. Ara emen gizonaekuen, Lendakari: Arrizabalaga'tar Lesmes; Idazkari: Urkizu'tar Kandida; Txindi zai: Agirre'tar Andoni eta Batzordeak: Etxaburu'tar Martin, Bengoetxea'tar Kepa Gurutz; Urkiola'tar Bitor eta Aranburu'tar Seber.

"Margaritik" beste au ipiñi dabe. Lendakari: Iturraran'tar Miren Nekane; Idazkari: Arriola'tar Todore; batzordeak: Urkizu'tar Luke, Aranbarri'tar Iñese, Aremayo'tar Barbare eta Arkotxa'tar Miren.

**C. D. Aurrera.** - Igandean izan eben C. D. Aurrerako bazkideak batzar nagusi bat Bazkintza artezkaria barriztatzeko.

Artezkari batzuk barriztau ebezan eta barriztapen orreikin ara zelan geratzen dan euren artezkari-bazkintza. Lendakari: Palazios'tar Maur (lengua); lendakari-orde: Iriondo'tar Joseba Mirena (barria); idazkari: Gabika'tar Marka (lengua); idazkari-orde: Arriola'tar Aureli (barria); txindi zai: Abadea'tar Joseba (lengoa) eta batzordeak: Arrizabalaga'tar Lesmes, Juaristi'tar Gelasi (lengoak) eta Campos'tar Pausta eta Iriondo'tar Pillipa (barriak).

**Naskaldia.** - Udea igarotera etorrita emen ikusi dogu Bastida'tar Errikarta bere sendiakin.

Baita ere emen ikusi doguz beste askoren artean Aznar, Gaminde, Areizaga, Iturritza, Arlex, Uribasterra, Acedo eta abar.

**Arrantzaleak.** - Santander aldera joan dira atun-arrantzako asmotan.

Larunbatean emen egon zan Cabiño, Bizkai'ko jaurlaria eta igandean Villa-Abrille gudari burua.

Igandean abertzale talde bat Durango'ra joan zan ango itzaldi aberkoiak entzuten.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 27. zk.) 7. (1932-08-06)]

**Iñaki deuna.** - Ospetasun aundiagaz ospatu dogu Ondarrutarrok Iñaki deunaren eguna. Txadonan egin ziran eguneko elizkizunetara notintza aundia urreratu zan. Jaupa nagusian Perosi'ren "Te Deum laudamus" abestu zan eta gure zaindariaren goralbenak Egaña Josulagun Abak edestu ebazan itzaldi mamintsu eta eder baten.

Aurrerako astean iragarri neban lez, jaupa nagusi ondoren, eresbatzak euzko eresi alai eta bizkor batzuk jo ebazan pelota enparantzan. "Euzko Batzokiak" eratutako jaiak be alaitasunez eta euzkel usaiñez beteak izan ziran.

Antigua'ko Miren Neskutzaren txadonan izan zan jaupa abestuan lareun abertzale Donoki-Ogiagaz janaritu ziran. Jaupa Perosi'ren iru abotsetakoa abestu zan eta txonitza Josulagun agurgarri batek egin eban eta Iñaki deunak aberriaganako izan eban maitasuna argiro agertu eban.

Jaupa ondoren "Euzko Batzokiaren" onespena egin zan.

Arratsaldean Batzokian akeita artu eta txistulariekaz batera abesti alai eta aberkoi batzuk abestu ondoren, gaztedi abertzalea Lexarren'go Zelaira joan zan, arratsalde on eta alai bat igaroteko asmotan, eta euzko dantzaldi luze bat egin ondoren, auresku eder eta bizkor bat ekarriaz etxeratu zan.

**Bederatziurrena.** - Datorren larunbatean asiko da Antiguako basatxonoan Miren Neskutzaren bederatziurrena.

Bederatziurren au goizeko seiretan eta arratsaldeko zazpiretan egingo da.

**"Schola Cantorum Sancta Cecilia".** - Datorren astean gure artean izango dogu Bilbo'ko abesbatz entzutetsu au.

Illuntzean txadonan egingo dan elizkizun berezi baten Agurra (Salbea) eta beste abestiren bat abestuko dauz.

GURUTZ



# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 28. zk.) 4. (1932-08-13)]

**Erriko jaiak.** Datorren igandean asiko dira gure uri zindo eta zintzo'ko udal agur-garriak, Antigua'ko Ama Neskutzaren jai egunak aundikiro ospatuteko eraldu dabezan [dauzan] jaiak.

Ara emen egitaraua:

Dagonilla'ren 14'garrenean: Goizeko 8 eta erdietan txaidetik txaide urtengo dabe buru-aundiak, erri-txistulariak lagun dabezala.

Arratsaldeko 4'retan: Pelota joko andia, Irureta II'ak eta Mondragondarrak, Ubilla eta Artazo'ren aurka.

Elizkizuneko Agurra'ren ostean erri-eresbatzak eta Lizarra'ko dultzaiñeruak biribilketa alaigarriak joko dabez eta gero gabeko amaika eta erdietaraiño dantzaketea, dantza-eresia joten dabelarik eresbatzak, dultzaiñeruak eta txistulariak.

Dagonilla'ren 15'an: Goizean-goiz, esandako iru eresbatzak biribilketak joko dabez. Jaupa nagusi ondoren, erriko eresbatzak eretaldi samur bat joko dau.

Arratsaldeko ordu bi eta erdietan: Itxas tanta-koipetsua ospatuko da Lagi-Zarrazugaztiaren aurrean; sariak izango dira 25 laurleko. Jarraian erritar-aureskua, pelota-toki zelaian.

Lauretan: Pelota-tokian, zerikusiko pelota jokoa Zabala eta mallabia'ko Txikiak, Peru eta Txapastaren aurka.

Pelota jokoa amaituta zazpi eta erdietaraiño erriko eresbatzak eresalduko dau dantzaketea.

Zortzi eta erdietatik gabeko 12'etara: Erri-eresbatzak, dultzaiñeruak eta txistulariak eresalduko dabe gau-dantzaldia.

Dagonilla'ren 16'garrenean: Goizeaz batera biribilketa pozgarriak eresbatzak joko dabez.

Goizeko 9'tan: Dultzaiñeruen eresbatza lagun dala urtengo dabe txaideetan zear buruandi barregarriak.

Amar eta erdietan: Aureskulari ekinketa berrogetamar urtetik gorakoentzako, eta obien [ondoan] egiten dabenentzako sariak 25, 15 eta 10 laurleko.

Ezpatadantza-agerketa, baita euzko-dantzaketak berrogetamar urtetik gorakoentzako, sariak izanik 30, 20 eta 15 laurleko.

Arratsaldeko ordu bi eta erdietan: Itxas tantai koipetsua, sariak emongo dira aurreko egunean emon diran beste.

Au amaituta gero, pelotatoki zelaian zantzolariak, eta bikaiñenentzako izango dira sari oneik: 20 eta 15 laurleko.

Arratsaldeko lauretan: Pelota jokoia Etxabe III'ak eta Artamendik, Ulazia eta Altuna'ren aurka.

Pelota-joko ondoren, aurregunean lez, erri-eresbatzak dantzaketa jolasgarriak joko dauz.

Zortzi eta erdietatik gabeko 12etara: Erri-eresbatzak, dultzaiñeruak eta txistulariak eresalduko dabe azken erromeri aundia.

Orain arte aitaturiko jaiak, kale-jaiak dira.

Txadon-jaiak be ospetsuak izango dira.

Igande-illuntzean bederatiurrenagaz batera Agur eder bat abestuko da Antigua'ko basotxonuan.

Miren'en Jasokunde egunean, urtero lez, amarretan izango da Jaupa Nagusia, len aitatu dodan basotxonuan eta Miren Amaren txonitza Iriarte'tar Erroka izlari jatorrak egingo dau.

**Itxeikizuna.** - Itxeikizun eder bat izan geban [genduan] igazi dan igandean Euzko Batzokian.

Bernedo'tar Pelagi izlariak argi eta adoretzu azaldu ebazan gure endaren oiñarri-igar-kaiak eta tarte batzuetan eta amaieran txalo asko entzuten ebazan.

Bere aurkezpena Urresti'tar Jon'ek egin eban ondo biño obeto.

**"Schola Cantorum Sancta Cecilia".** - Aurreko astean iragarri neban lez, emen izan zan igazi dan igandean abesbatz ospatsu au.

Illuntzean txadonan egin zan elizkizunean Zubizarreta'ren Agurra eta beste abesti bi abestu ebazan.

Txadona bete-bete egiten eban notintzari atsegin izan jakon.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 29. zk.) 8. (1932-08-20)]

**Erri-jaiak.** - Dagonilleko erri-jaiak amaitu jakuz.

Gure udalak eraldutako egitaraua oso-osorik bete da. Bakar-bakarrrik iganderako iragarritako pelota-jokoak uts emon leuguban [euskun] eguraldi txarragaitik.

Txaide (kale) jaiak atsegingarriak izan jakuz. Barregarriak itxas tantai koipetsuak, ikusgarriak euzko urresku eta ezpatadantzea, ederrak pelota jokoak, alaiak berrogetamar urtetik gorakoen dantza eta aurrekuak, jolasgarriak gaztientzat gau-eresiak.

Txadon jaiak be ez doguz izan makalak.

Ederra eta ondo abestua igande illuntzeko Agurra, ospatsua Miren'en Jasokunde-eguneko jaupa nagusia aintzagarria eta txukuna Irarte Josulagunaren txonitza...

**Ondarrua'ko abesbatza.** - Il onen 27'an Bilbon izango dan abesbatz sariketara aurkeztuteko da emengo abesbatza.

Augaitik gogor eta bulartsu diardu egunoro sariketa orretarako abestiak ikasten.

Beronek abestuko dabezan [dauzan] azke-abestiak "Orra or goiko" Almandoz'en sei abotsetarako abesti ederra eta "Boga boga" Guridirena izango dira.

"Boga-boga" au Guridi ospetsuak oraintsu sei abotsetara eresaldu dau eta lenengoz geure abesbatzak abestuko dau.

Sari nagusia opa dautsogu.

**Naskaldia.** - Eibar'tik etorrira emen ikusi dogu Larrañaga'tar Polikarpa argia, bere arrebekin.

Baita emen ikusi doguz Izpizua'tar Tiburtzi, Bedia'ko txaunburua eta Zamalloa'tar Peli, Ereñokua.

Erri-jaiak gure artean igarotzera etorrira; emen agurtu dogu Arriola'tar Luken.

GURUTZ

# ONDARRUA

[Ekin 1 (1932, 31. zk.) 6. (1932-09-03)]

**Erri-jaiak.** - Miren'en jaiokunde jaiak urreratzen jatorkuz. Eta jai oneik dagonillekoak baiño ederragoak eta andiagoak dakusguz.

Goiz-eresi eta gau-dantzea ugari izango da illaren zazpitik amaikagarreneraiño.

Batelen estropadak, aurrekulari-sariketak, arifñeketak eta beste jai erritarrak atseginñ izango jakuz.

Pelota jokoak be ez doguz makalak izango.

Eguenean, arratsaldeko lauretan Ubilla I'goa eta Mondragondarrak Irureta II'na eta Altuna'ren aurka jokatuko dabe.

Barikuan: Kirru eta Txapasta'k Zabala eta Kortabitarte'ren aurka eta larunbatean Egia eta Artazo'k Ubilla eta Urzelai'ren aurka.

Eta jaiok amaituteko igande arratsaldean zirku eder bat izango dogu Bilbao'ko Kirol-batzak eginda.

**Abesbatza.** - Larunbatez Bilbao'n izan zan erri onetako abesbatza "Buenos Aires" antzezrtokian ospatu zan abesbatz-sariketan esku artzen.

Azke-abetesketan lenengo saria irabazi eban, epalleen ao batez, eta bear ezkoetan autarki bategaitik galdu eban sari nagusia.

Bilbo'ra joateko langundu eutsenai bere eskarra agertzearren, abestaldi eder bat emon leuguban [euskun] igande gabeen pelota toki enparantzan.

Bilbo'ko sariketan abestutako abesti oso eta beste euzkal abesti batzuk abestu leuguban [euskuzan] eta berari entzuten ordu alai eta atsegingarri bat igaro geban [genduan].

Geure txaloak berari.

**Tostartekoak.** - Gogor diardue arrantzale oneik euren ikurriñaren onespenerako jaiak gertaten.

Amarretan jaupa nagusi bat izango dabe Larrañaga'tar Polikarpa'ren txonitzagaz.

Ondoren enparantzan itzaldiak, izlariak izanik Robles alduna eta Basterra erderaz, eta Jauregi, Larrañaga eta emakume bat, euzkeraz.

Ondoren oturuntza erriko jatetxe baten.

Arratsaldean ezpatadantza agerketa, Eibar'ko ezpatadantzariak egia.

**Durango'ra.** - Zaletasun aundia dago abertzaleen artean Durango'ra joateko. Erriko burtarin guztiak beteak dagoz eta geiago balegoz be errez beteko litzakez.

Mendigoizaleak oiñez joango dira.

GURUTZ

# ONDARROA

[Ekin 1 (1932, 33. zk.) 7. (1932-09-17)]

**Lore jaia.** - Igazi dan astean Ribadesella'n ito ziran arrantzale bitzuen sendiai lagun-tzearren, lore jai bat eraldu euskun igaro dan iganderako geure udal agurgarriak.

Au zala eta ainbat emakume ibilli ziran egun orretan notiñeri ingitxoak paparrean ipiñi eta txindia eskatzen.

Tamalez paparrean ipinten euskuezan ingitxu oro erdel izendunak ziran. Zergatik ez batzuk euzkeraz eta besteak erderaz edo bakotxa ele bitzuetan idatzita? Jakin dogunez txindi asko batu zan.

**Tostartekoak.** - Iragarrita egoan lez jai aundi eta ederrak izan gebazan [genduzan] igaro dan igandean euzko langille tostartekoak eralduta.

Errietako langille alkartasunetara bidaldu ziran deiak ondo artu eta erantzunak izan ziran, ba, Bilbao, Galdakano, Elorrio, Galdames, Soraluze, Barakaldo, Pasai, Andoain, Deustu, Ondarreta, Markiña, Lexona, Eibar, Lekeitio, Lasarte, Antzuola, Lemona, Sestao, Motriko, Santurze, Oruella, Basauri, Bergara, Zumaia, Irun, Durango, Alonsotegi, Gernika, Gueñas, Sodupe, Erandio, Elgoibar, Algorta eta Donostia'ko alkartasunak euren batzordeak bidaldu ebezan.

Amarretan onetsi zan Miren deunaren txadonan tostartekoen ikurriña eta jarraian jaupa bat abestu zan. Larrañaga'tar Polikarpa jaupari jakintsuak egin eban txonitza eta Josu eta Doibatzak langilleaganako izan daben begiramen eta maitasuna argiro agertu eban.

Jaupa'ren jarraian eta Eibar'ko ezpatadantzarien dantzaketa baten ondoren itzaldiak ziran.

Ikusgarria benetan itzaldien asieran pelota-tokiak agertze-eban agerpena.

Lenengoz, Lersundi'tar Ander, tostarlekoen lendakariak itz egin eban. Erbestetik etorri ziranai agur anaikor bat egiñ ondoren, E. A. B.'k tostartekouei opal dutako ikurriñaren margo-irudiak agertzen dauskuna ondo baiño obeto azaldu eban. Jarraian Ugartetxea'tar Donata, euzko eletari ospetsuak itz egin eban. "Socialismoa"ren euskaltasuna agerketak guzurrezkoak zirala agertu eban eta antxiñako euzkoen euskaltasuna eredutzat ipiñi euskun.

Ondoren Zenarruzabeitia andereñoak, emakumeak langille arazoetan daukozan eginberrak edestu eta euzko langillea aintzaldu eta goraldu eban; eta amaitzeko Robles Arangiz aldunak Euzko Langille Altartasunaren edestia edestu eta bere elburua azaldu eban, izlari oso guztiz txalotuak izan ziran.

Arratsaldeko ordu bietan oturuntza eder bat eginñ zan “Antzomendi” jatetxean eta 140 lagun bildu ziran bertara. Erbestean dagoan gotzaiñari urrutidatz bat bialdu jakon len-dakariak izenpetuta. Onelaxe iñoan: “Ondarroa’ko tostarteko arrantzaleak euren ikurriñaren onespena ainbat euzko-langille baturik agur maitekor bat euren gotzain aita agurgarriari”.

Bilbo’ko espetxean dagozan euzko langilliei be beste urrutidatz bat bialdu jaken.

Gabean abestaldi eder bat emon eban abesbatzak arrantzalien omenez. “Boga, boga”, “Ituna”, “Iru txito”, “Orra or goiko” eta “Bigarren kalez kale” abestu ebazan eta abesti orrei-tan txalotua izan zan.

“C. D. Aurrera”. - Datorren igandez “C. D. Aurrera”ren VIII urteurrena dala eta jai ederrak izango doguz. Egitarauak atara dabez eta zabaldu be bai ugari. Tamalez erdera utsean irarrita dagoz eta onek ez gaitu bape atsegintzen. Ara emen euzkeralduta:

Goizean. Zazpiretan: Goiz eresi alaiak.

9’tan. Jaupa abestua Antigua’ko basotxonoan.

11’tan. Erri-jaiak eta jarraian pelota-joko bi; palaz lenengoa eta bigarrena eskuz.

1’etan. Oturuntza.

3 eta erdietan. Batelen estropadak bazkideentzat bakarrik.

**Euzko-jaiak.** - “Euzko Batzokia”k be euzko jai ospatsuak iragarri dauz datorren igande arratsalderako.

Ainbat txistulari-eresbatzak, 70 ezpatadantzarik, Errenteria’ko makildantzariak, eta gorulariak ikusgarrizko jaiak egingo dauskubez pelota toki enparantzan.

GURUTZ

# ONDARROA

[Euzkadi 1932-10-05, (6187. zk.) 6].

**Lendakaria.** – B. B. B.'ko lendakari barria autetsiteko igandean egin zan batzarrean, Bedialauneta'tar Sekunda autetsi zan.

**Mikel Deuna.** – Ospe aundiaz ospatu geban [genduan] emen Alderdi Jeltzalearen zaindariaren jai.

Ertxadonan goizeko zazpi eta erdietan esan zan Batzokiak agindutako jaupa, eta bertara aberkide asko batu gintzazan.

B. B. B.'ren agindua beteaz, abertzaleen txei go leioak euzko-ikurriñez apaindu ziran.

**Ikastola barria.** – Igazi dan astelenean Gorozika-auzokideak eurak jaso daben ikastolea ospatuteko bazkari eder bat izan eben.

Bazkari aretara erriko endore, jaupari, ziñegotzi, osalari, txiñel eta abar eldu ziran.

**Txalogarria.** – Gurutzeko alabak deitzen diran lekaiameak euren ikastoletara dabilzan umeai egunean ordu bateko euskerea irakasteko asmoa artu dabe.

**Atzergetxia.** – Igazi dan ill baten, gure errian atzergetxe bat iminteko emengo udalak laterri-agintariak egin eutsen eskakizuna ontzat artua izan da.

Entzun dogunez erabagi au aste onetantxe erkaltseñiak izenpetuko dau.

**Euzkel-izenak.** – Igazi dan illean 15 jaiotza izan dira, eta eurretatik amarrereri euzkal izenak imiñi jakezan.

- Augustin, Etxebarria-Irueta sendiaren semetxoari.
- Gotzon Mirena, Etxaburu-Laka'renari.
- Iñaki Mirena, Etxebarria-Badiola'renari.
- Josu Mirena, Lertxundi-Kaltzakorta'renari.
- Miren Agurtzane, Aramayo-Laka'ren alabatxoari.
- Ane Miren, Lertxundi-Urresti'renari.
- Kepa, Arauko-Agirre'ren semetxoari.
- Sabin, Bakeriza-Azpiro'enari.
- Augustin Mirena, Osa-Zubikarai'renari.
- Joseba, Barruetabeña-Elordi'renari.

LIKONA

# ONDARROA

[Ekin 1 (1932, 36. zk.) 7. (1932-10-08)]

**Txandonkizunak.** - Larunbat gabean asi zan ospetasun aundi eta notintza ugariagaz urrillako agurtza deuna Guztialduna agirian zala.

Agurtza deunaren jai be aundikiro ospatu geban [genduan] igaro dan igandez. Jaupa nagusia Perosi'ren "Te Deum laudamus" abestu zan eta Durangoko txauburu lagun batek egin eban txonitza. Sutsu eta argiro azaldu ebazan agurtzaren edertasunak

Asis'ko txiroa aintzaldu barik be ezin egon eta bere gorlenez txadonkizun eder bat izan zan astearte goizean, txonitzagaz. Arriola'tar Kermen jaupari agurgarria izan zan txonizlari eta goimatasunatzaz jardunaldi sakon bat egin eban.

**Erabagi eder bat.** - Gurutzeko lekaiameak beren ikastoletako umeei egunean ordu-bete euzkeraz erakusteko erabagia artu dabe <sup>(1)</sup>.

**Ikastola barri bat.** - Gorizika auzoan oraintsu amaitu dan ikastolaren zabalkundea zala-eta, jai eder bat izan zan astelenean. Goizean jaunartze-jaupa eta Kistori umeen eskeintza egin ziran, Oturuntza eder bat be izan zan. Oturuntza onetara 60 lagun edo bildu ziran asi erriko endore eta jaupariiekandik azkeneko auzokideraiño. "Brindis"ak eta ugari ei ziran an. Arratsaldean dantzaketa bat, Doctor Olea buru zala.

**Atzergetxea.** - Orain iru edo lau illabete udalak geure errian atzergetxe bat ipinteko laterri agintariei egin eutsen eskabidea ontzat artua izan da.

**Kistar ikasbidea.** - Goterkiko gotzaiñaren agintza beteaz asi dira emengo jaupariak umeeri kistar-ikasbidea erakusten.

Koldobikatarrak eta Miren'en Alabak be egunero joaten dira jaupariei laguntzen.

**Abertzaleak.** - Aundikiro ospatu eben euren zaiñ-deunaren jai-eguna. Goizeko zazpi eta erdietan batzokiak eraldutako jaupa bat esan zan ertxadonan eta notintza aundia bertaratu zan. Euzkadi-Buru-Batzarraren agindua beteaz, txeigo asko euzko ikurriñez apainduta agertu ziran.

Igandean egin zan batzarrean Bedialauneta'tar Sekunda autu zan U. B. B.'ko lendariztat.

GURUTZ

(1) Zorion eta esker onak lekaiame agurgarrioi.



# ONDARROA

[Euzkadi 1932-11-30, (6235. zk.) 8]

**Sabin'en gomutaz.** – Jai eder eta onurakorrak izan doguz geure Irakaslearen gomutaz.

Larunbata gabeko 8'etan, Batzoki'ko aretoa betien-bete egoala “Lauaxeta” idazle sakon eta izlari iaioak itzaldi eder eta mamintsu bat egin lenguban [leuskun].

Itzaldiaren zati batzuetan eta amaieran guztiz txalotua izan zan.

Ondoren, eta “Lauaxeta”ren eskabidez Lersundi'tar Ander, tostartekoen lendakariak itz egin eban eta emakume langille alkartasun baten sorpenaren alde jardun eban.

Lengoaren antzera oso txalotua izan zan.

Igandez, goizeko amaiketan jaupa bat izan geban [genduan] geure Irakaslea eta ildako abertzale oroen alde.

Jarburuetan endore eta ziñegotzi abertzaleak, epaikari eta salatariak, U. B. B., E. A. B., eta Batzoki'ko artezkariak jarri ziran. Jaunparen asierarako ertxadona osoa beterik egoan. Euzko Abesbatzak Perosi'ren iru abotsetako jaupea eta “Libera me” ondo baiño obeto abestu ebazan.

**Antzerkiak.** – Igande gabaez antzerki jai bat izan geban [genduan], “Lore bat loitan” eta “Txibiribiri” antzeztuaz. Antzerki biak atsegin izan jakuzan eta antzergille orok txalo ugari eta ondo irabaziak entzun ebezan.

U.-B.-B. – Iragarrita egoan lez U.-B.-B.'ren batzar bat izan zan igande arratsaldean. Izka txiki batzuen ondoren Alderdi eralguntzeatzaz egingo diran batzarretarako alduntzat Bedialauneta'tar Sekunda eta Egiguren'tar Pilipa autu ziran.

**Pelota-txapelketa.** - J. L. [Jauna lagun] laster asiko da batzokiak eraldu daben pelota txapelketa.

Ainbat pelotari aurkestu dira jokatzeko eta jokoak ikusgarriak izango dirala uste dogu.

LIKONA

# ONDARROA

[Euzkadi 1932-12-09, (6243. zk.) 8]

**Ander deun.** – Euzkotarrak Padura'n lortutako gurenda ospatutearren jaupa ixil bat izan geban [genduan] egun onetan batzokiak eralduta.

Gabean oturuntza bat egon zan batzokian eta bertan esku-artu ebenak, urruti data [telegrama] bi bialdu ebezan. E. B. B.'ri bata eta Azaña'ri bestea, antxiñako euzkoak lez eurak bere askatasuna aldeztuteko gertu dagozala adieraziaz.

**Miren neskutza.** – Neskutzaren eguna ba-jatorku eta egun onetarako Miren'en alabak txadonkizun eder eta onurakorrek iragarten dauskuez.

Egunokaz Miren'en aintzalbenez ospatuten dan bederatziruenera notintza ugaria urreratzen da.

**Barbare deuna.** – Igazi dan igandez aundikiro ospatu dabe buzkindariak euren zaindariaren jai-eguna.

Goizean jaupa ixil bat izan eben Antigua'ko txadonan eta eguerdian oturuntza eder bat "Antzomendi" jatetxean.

**Antzerkiak.** – Larunbatez antzerki jai bat egon zan batzokian 14 urtetik berako umeentzako.

Amundarain'en iru ekintzako "Lore bat loitan" antzeztu zan eta umetxu oro atsegin-tsu urten ziran.

Igande gabez eta notiñen eskabidez bariro antzeztu ziran "Lore bat litan" eta "Txibiribiri". Aurrerako jaietan lez antzezlari oro zoriontsu egon ziran eta guztiz txalotuak izan ziran. Urrengo jaietan "Arantza" eta "Aterako gera" antzeztuko dira.

**Euzkel izenak.** – Igazi dan illean 14 jaiotza egon dira eta euretatik 5 bakarrik izan dira euzkal izenagaz ugutzau diranak. Oneik dira:

Zabala eta Gabiola'tar Biterin

Ibarretxe eta Gorostidi'tar Jon.

Sabiñe Santa Cruz eta Laka'tar Miren Garbiñe.

Ibazeta eta Azpillaga'tar Joseba.

Badiola eta Prieto'tar Miren Josune.

Oraindiño sendi abertzale asko ikusten doguz euren semeai euzkal izenak ipinten lotsatzen diranak.

Noiz arte iraungo ete da abertzaleen euzkal izenakanako ezaxolatasun (indiferencia) ori?

LIKONA

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-01-06, (6266. zk.) 8.]

**Antzerki jaiak.** – Bakaldun-egunez eta datorren igandez antzerki-jai ederrak izango dira batzokian “Patxiko eta Martintxo”, “Joxepa Inasi” eta “Negarrez igaro zan atsua” antzestuaz.

Ara emen azkenengo onen banaketa:

“Intxaurraga’tar Eustaki”, Egiguren’dar Kepa.

“Ganboa’neko Jasone”, Eizagirre’tar Miren Gotzone.

“Burintxa”, Arriola’tar Joseba.

“Gorka”, Zubikarai’tar Joseba Mirena.

“Miren Biotza”, Arriola’tar Karmele.

“Momoitio’neko Gergoretxu”, Arrizabalaga’tar Miren.

“Gerrikaitz’eneko Simone”, Burgoa’tar Jone

“Gopeginoko Donoke”, Zelaya’tar Miren.

“Negarrez igaro zan atsua”, Zubikarai’tar Agurtzane.

Bariku eta igandez danok batzokira.

**Umeak.** – Umeak be jai polit bat izango dabe bakaldun egunez arratsaldeko lauretan.

Abestiak, ipuñiak, olerkiak, alkarrizketak eta atsegin sari batzuk izango dabez eta ume orok ordu atsegintsu bat igaroko dabela uste dogu.

**Gabon sariak.** – E. A. B.’ ainbat sari zabaldu dauz igaro diran gabon egunetan txiro artean.

Jaiobarri euzkal izendunentzat gertau ebazan janzkien sendi-irabazleak oneixek izan dira: Zendoya-Etxaburu, Aspilaga-Badiola, Aldanondo-Zelaya eta Agirre-Txakartegi.

Oraindiño beste bat dago. Norentzat izango ete da?

**Jaiotzak.** – Igazi dan illean 18 jaiotza egon dira eta euretatik bederatzi izan dira euzkel-izenakaz ugutzau diranak. Ara emen:

Santiso eta Alegria’tar Iñaki.

Aulestia eta Txakartegi’tar Gorka Josu [Jon].

Etxaburu eta Kalzakorta’tar Josu Mirena.

Badiola eta Etxebarria’tar Joseba Erruperta.

Arantzamendi eta Ugartetxea Josu Mirena.

Ibaibarriaga eta Solozabal’dar Lukene.

Zendoya eta Etxaburu’tar Josu Mirena.

Aspillaga eta Zelaya’tar Miren Gotzone.

Aldanondo eta Zelaya’tar Miren Gotzone.

LIKONA

# ONDARROA

[Ekin 2 (1933, 51. zk.) 5. (1933-01-21)]

**Antzerti.** - Datorren igande gabaz antzerki jai eder bat egingo da batzokian.

Egiguren'dar Kepa antzezlari iaioak "Izkiña Mutriku'n" bakar-izketa irritsua edes-tuko dau eta ondoren Garitonaindia zanaren "Ongillearen saria" antzeztuko da, banaketa onexegaz:

"Ines"	Arriola'tar Erruperta
"Joxepa"	Urresti'tar Ane
"Karmele"	Arantzamendi'tar Miren
"Ixidor"	Agirre'tar Jabier
"Imanol"	Egiguren'dar Kepa
"Apaiza"	Urresti'tar Josu
"Sendagillea"	Urruzuno'tar Laurentzi
"Erramun"	Badiola'tar Koikilli
"Morroia"	Erreterria'tar Edorta.

**Euzkel izenak.** - Urresti'tar Pantzezka eta Iturriotz'tar Karmele'k seintxu bategaz ugaritu dabe euren sendia eta, euzkaltzale zintzo eta abertzale sutsuak diranez, Gaizka, Sabin, Eustaki izenakaz ugutzau dabe. Zorionak.

## Diñue...

... Aspaldian gure erritik izkin (soplon) asko joaten dirala Bilbao alderantz.

... Oneik entxuferen baten billa dabilzazala.

Oroen nagusi txoriburu bat dabillela.

Txoriburu oneri abertzaleak buruauste larregi damotsela.

Euzko-adkatasun gogarketak be beruzkotan ipinten dabela.

Orduan Hurdes'en bizitzea naiago leukela.

Ara joango ba'litz zoztor bat gitxiago izango gendukela.

Hurdes'era barik Pekin'era joango balitz sutsuago eskertuko geunskiola.

Udaletxean goratzen dan euzko ikurriñak be buruko minñ aundia damotsola.

Egun baten udaletxean sartu zala, ikurriñak neurtuten.

Erkalarena txikiagoa zala.

Au dala eta 500 laurlekoko zigorra lepaldu gura izan dautsola endoreari.

Baiña endoreak ortzak erakutsi eta adarra jo dautsola.

Lengoaren ordezen izen "klasiko" eta "laico" bat naiago leukela.

Gure aldetik "buruarin", "aspiantzalle", "etxekalte", "gizajo" edo antzekoren bat ipi-ñiko geunkiola.

Eta oneik baiño "klasiko" eta "laico" agorik ezin leikezala idoro.

Eta besteren baten umorerik ba'dago jarraituko dogula.

GURUTZ

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-03-24, (6332. zk.) 8.]

**Euzkotuten.** – Egunokaz emakume talde bat gaztetxuei euren jolas eta abestiak erakusten asia da.

Eurak dagien lana begi-begiko jaku eta beragaitik geure eskar eta txalorik sutsuenak damotseguz.

Eskar eta txaluekaz batera baiña eskari bat zuzendu bear dautsogu. Irakasten dabezan jolas eta abestien izkiak gipuzkeraz dagoz. Zegaitik ez bizkaieraz?

Umieri eurak dagien izkelgian erakutsi bear jake eta ez auzoarenean, olan ongarri ez dan iskelgi nastea sortuko litzakigulako urian.

Augaitik ba arren deskatsegu irakasleumeoi geure erara, au da: bizkaieraz erakusten asi daitezala. Akats au zuzenduteko o[rai]ntxe da erarik onena; gero ezifia litzake.

**Antzerti.** – Datorren igande gabaz antzerki jai eder bat egongo da batzokian “Gorgonio’ren estutasunak” eta “Goimaitasuna” antzeztuaz. Jakin dogunez gaztetxoak be agertuko dira jai onetan eurak ikasten dagozan jolas eta abestiak agertzen.

**Geldi or!** – Aldi-agintzako lendakariak udaletxean agertu dauzan gurariak, euzkalzaleok minduta laga gaitu.

Orain arte agintza guztiak lenengo euzkeraz eta ondoren erderaz oiuztatzen (pregonar) ziran. Aurrerantzean gure lendakariak ala nai dabelako lenengoz erderaz oiuztatuko dira. Zer ba?

Euzkadi’n erderearen lenagokoa ete da euzkerea baiño?

Orain arte gure urian erderaz oiuztatzea alper-alperrikoa zalakoan gengoan, bertan daukaguzan sei edo zortzi karabineroak baiño ulertzen ez ebelako. Orain baiña dirudienek erdaltzaleak geiago dira erdereari aurrea emoteko, ez da.

Ez dakigu gure endorearen guraria aurrerantz eroango danik; ala ba’da, geure asarrik beroena dagertsagu erriak eutetsi barik erriaren aurka dabilelako.

**“Orbela”ri omena.** – Margaritetako lendakari eta idazkariak apari bat eskintzen dautsoe “Shanti” jaunaren aginduz udal etxeetako euzko ikurriñak baztatu dabezalako.

Apari gaiak onetxek dira: Berakatz-saldea; txoriak erreta; arrautzak piper gorriakin, Bermeo’n batutako berdelak eta “the purgante”.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-03-30, (6337. zk.) 8]

**Antzerkiak.** - Iragarrita egoan lez, antzerki jai eder bat izan geban [ganduan] igazi dan igandez "Euzko-Batzokia" n.

"Motxa" bakarrizketa eta "Gorgonio'ren estutasunak" eta "Goimaitasuna" izan ziran geure antzerlariak ondo baiño obeto antzeztu ebezan antzerkiak.

Antzerkiok eta antzezlariak notintzaren atsegingarri izan ziran eta txalo ugariak entzun ebezan.

Astalarretan gaztetxu batzuk euzkel-abesti eta jolas politikak abestu eta dantzatu ebezan.

Datorren iganderako beste jai eder bat iragarten da. Bertan Garitaonaindia zanaren atal bidun "Aitona eta Billoba" eta "Gorgonio'ren estutasunak" antzeztuko dira.

**Itzaldiak.** - Datorren igandez itzaldi bi izango doguz "Bide-Onera" aretoan guraso orokarren bazkunak eralduta.

Itzaldiok goizeko amaika eta erdietan izango dira, eta Gorriño'tar Joseba Andoni'k euzkeraz eta Garzia Kortazar'ek erderaz egingo dabez.

**Mendigoizaleak.** - Igazi da larunbatez Berriatua'ko Milloi-auzunera joan ziran emengo mendigoizaleak eralguntza barriak eskatzen dautsoen taldea eralduten. Batzar onetantxe autetsi ebezan euren burukide eta aldunak.

**Bederatziurrena.** - Igazi dan eguaztenez asi zan ertxadonan Miren Neketsuaren bederatziurrena. Urtero lez notintza ugaria bertaratzen da.

**Arrantzaleak.** - Aspaldian arrain gitxi dakarre emengo arrantzaleak. Igazi dan astean tsardiñea be agertu jakun, baiña zoritxarrez gitxi baiño ez; bokarta be pixka bat ekarten dabe baiña dakarrena txikia da.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-04-06, (6343. zk.) 8]

**Itzaldiak.** – Iragarrita egozan lez, eta guraso orokarren bazkunak eralduta, itzaldi bi izan gebazan [genduzan] igaro dan igandez “Bide-Onera” aretoan. Gorriño'k euzkeraz, eta Garzia Kortazar'ek erderaz itzaldi sakonak esan ebezan eta txalotuak izan ziran.

**Antzerti.** - Igande-gabaz “Euzko-Batzokia”n aurrerako jaietan ain atsegingarri izan jakuzan “Aitona eta billoba” eta “Negarrez igaro zan atsua”ren antzezpena izan geban [genduan].

Beti lez antzezlariak sutsu eta iaio agertu jakuzan eta txalo ugariak irabazi eta entzun ebezan.

**Batzarra.** - Datorren igandez arratsaldeko ordu bi eta erdietan alderdikideen batzar orokorra egingo da “Euzko-Batzokian”.

Batzarrerako gaiak oneixek dira:

Uri-Buru-Batzar, epaikari eta ziñegotzigiainen auteskundea.

Amaierean itaun-erantzunak egongo dira.

**Euzkal izenak.** – Igazi dan epallean amazortzi ume ugutzau dira Miren deunaren ertxadonan eta euretatik bost bakarrik izan dira euzkal izena ezarri jakuenak. Onexek dira: Urruzuno eta Arrizabalaga'tar Joseba Mirena. Garalde eta Bedialauneta'tar Kepa Errupin Mirena. Osa eta Etxabarria'tar Domeka Imanol. Egiguren eta Laka'tar Sabin Mirena eta Etxebarria eta Aretxaga'tar Miren Jokiñe.

**Auteskundeak.** - Laster auteskundeak doguz geure uri onetan be. Ori dala eta aldra aundi bat batzen da egunero batzokian bear diran gertakixunak egiten.

Oindiño baiña geiago batuko ba'litzaz obe, bertan dabiltzanentzat lan astun eta larregia dalako.

Abertzale guztiai ba arren deskatsegu gabero batzokiratu daitezala beti izango dabelako eurentzako eginkizunen bat.

**Arrantzaleak.** - Egunokaz bokartarik ez dakarre arrantzaleak gitxi baiño eta dakarrena txikia danez saldu be ez dabe egiten.

Barriro besigua agertu da baiña erosleen artean gora txikia dakar.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-04-13, (6349. zk.) 8]

**Txadonkixunak.** – Txadonkizun ederrak ospatu daroaguz egunokaz ertxadonan. Eurretan egiten diran txonitzak Madariaga pantzezkar Abak egiten dauz eta adoretzu eta euzkera garbi eta txukunean egin be.

Ertxadonako abesbatzak be abesti eder bigunak abestuten dauz. Egunokaz abestu eta gomutan doguzanak onexek dira: Ugarte'ren “Agurra”; Hartman eta Uriarte'ren “Stabat Mater” Miren Neketsuaren egunez eta Vitoria'ren “Nekaldia”; “Pueri Hebraeorum” lau abotsetakoa eta Goikoetxea'ren sei abotsetako “Miserere” Abar igandez.

**Ikertaldi bat.** - Gaur, astelenez, España'ko iru erkaltsein eta ainbat euren jarraitzailek ikertau gaitue.

Guztiak berrogetamar berebilletan etorri dira; langilleen izerdi dira; langilleen izerdi atsa darioen berebil eder-txukunetan.

Kaiolako lenengo arria ipiñi, eta bereala Bermeo'rantz urten dabe.

**Pelota txapelketa.** - Igazi dan igandez Barakaldo'n jokatu eben emengo pelotariak. Jokoa irabazi eben arren txapelketatik at geratu dira. Beste baten bearako.

**Ziñegotzi-gaiak.** – Igazi dan igandez, arratsaldeko ordu bi eta erdietan alderdiki-deen barzar orokor bat izan geban [genduan] Euzko-Batzokia auteskundeetarako ziñegotzi-gai abertzaleak aututeko.

Auteskunde baten ondoren autetsi ziranak onexek dira:

Ibaibarriaga'tar Sekunda.

Lertxundi'tar Ander.

Guenaga'tar Toma.

Arantzamendi'tar Simon.

Egiguren'dar Joseba Mirena.

Solabarrieta'tar Pilipa.

Juaristi'tar Andoni.

Apraiz'tar Peli; eta Arriola'tar Kepa.

Abertzale: urrengo auteskundeetan badakizu zeure autarkia nori emon.

IBAI-ONDO



# ONDARROA

[Euzkadi 1933-04-30, (6363. zk.) 8]

**Auteskundeak.** - Iragarrita egozan lez auteskundeak izan gebazan [genduzan] igazi dan igandez uri onetan.

Euzkadi'ren arerioak alegin asko eta agbintza ugariak egin ebezan arren, abertzalien aurka ezin izan dabe ezer egin.

Abertzaleak 1.278 autarki izan ebezan eta olan U. B. B.'k aurkeztutako bederatzi ziñegotzi-gaiak ziñegotzi autetsi ziran.

Bakaldarrak barriz 737 autarki izan ebezan eta eurakaz aurkeztu ebezan lau gizonak ziñegotzi atara dabez.

Erkaldarrak bederatzi ziñegotzi-gai aurkeztu ebezan arren bapere ez dabe atara, ba, bederatzientzat 162 autarki bakarrik izan ebezan.

Auteskunde bidez eraldutako udal barrian jezarriko diran ziñegotziak onetxek izango dira:

Solabarrieta eta Markuerkiaga'tar Joseba Mirena.

Egiguren'dar Pilipa.

Guenaga'tar Toma.

Arantzamendi'tar Simon.

Ibaibarriaga'tar Sekunda.

Lertxundi'tar Ander.

Juaristi'tar Andoni.

Apraiz'tar Peli eta Arriola'tar Kepa. Danok abertzaleak, eta

Urresti'tar Jon.

Bengoetxea'tar Bitor.

Beitia'tar Jon Ugutz eta Larrañaga'tar Erroka, bakaldarrak.

Zorionak damotseguz ziñegotzi barrieri eta euren lana onurakorra izango dala uste dogu.

**Arrantzaleak.** - Igazi dan egunetan bokarta aundia eta ugaria ekarri izan dabe arrantzaleak. Egunokaz baiña gitxi baiño ez dakarre eta dakarrena txikia da.

**Itzaldiak.** - Igazi dan astean itzaldi eder eta sakonak izan gebazan [genduzan] auteskundeetarako pixka bat ger[ta]tu eta berotzeko.

Itzaldi oro batzokia bete-bete egiten eban notintzaren atsegingarri izan ziran.

Izlariak "Ogoñope", Unzueta'tar Sorne eta Epaltza'tar Imanol izan ziran, eguenez, eta barikuz Trabudua'tar Polizene eta Biteri'tar Bingen.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-05-09, (6370. zk.) 8]

**Espetxera.** – Bariku gabaz bitxabaletan agertu ziran idazkunen egilleak dirala eta, Larrinaga'ko espetxera eroan dabez Erremitteria'tar Saba, Beristain'dar Boni, Urruzuno'tar Laurentzi, Badiola'tar Koikili eta Etxabe'tar Koldobika mendigoizale zintzoak.

**Arpidea.** – Aberri egunaz bere ikurriña erreta ikusi eban Eibar'ko batzokiari ikurrin barria opalduteko arpide bat zabaldu da batzokian.

Arpidearen saria geienez errial batekoa izan bearke dau; gitxienez ostera txakur aundi batekoa.

Abertzale guztiak emongo dabela uste dogu euren saritxoia eibartar anaiei ikurrin eder bat opalduteko.

**Tamala.** – Abertzale guztien artean zer esan asko ibilli da egunokaz Bilbo'ko jazonak dirala-eta.

Guztiak itz mingotz eta gogorraz ebaztzen eben txinelen gogortasuna eta ainbat abertzalaren espetxeak samindu gebazan [ginduzan] arren, euren adoreak geure atsekabeok aztu eraziten ebazan.

**Euzkal izenak.** - Igazi dan illean 18 ume ugutzau dira Miren deunaren etxadonan eta euretatik zazpi bakarrik izan dira euzkal izena ipiñi jakuenak.

Illero lelo bardiña darabilgu. Ainbat abertzale gagozanak urian eta abertzale ezaugarririk iñoiz iñoiz be ez dogu agertzen.

Aberri maitasunak baiño sendiaren lotsa eta auzokoen zeresanak geiago al dabela geugan esan geinke. Eta aulan jarraitzen badogu, Euzkadi'n aurrerantzean be orain arte lez erdal usaiña arnastu bearke dogu.

Noiz arte iraun eta jarraituko ete dau euzkotarron euzkal izenak ganako arduragetasunak?

**Naskaldea.** - Geure artera etorri da Bengoetxea Josulagun Aba.

Igazi dan astean ezkondu ziran Aremayo'tar Josu eta Etxaburu'tar Aintzane neska-mutil abertzale zintzoak.

Datorren igandez Soraluze'ra joateko dira emengo mendigoizale batzuk an egingo diran jai aberkoietara. Iruña'tik etorrira emen agurtu dogu Egaña'tar Sekunda jaupari abeslaria.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-05-13, (6374. zk.) 8]

**Udal barria.** – Gaur eguaztenez jarri da erriak azkenengo auteskundeetan autetsitako udal barria. Solabarrieta'tar Joseba Mirena izan da endoretzat autua eta endore ordekoztat Egiguren'dar Pilipa eta Arantzamendi'tar Simon.

Ziñegotzi abertzaleak eskabide bat aurkeztu dabe eta ao batez ontzat artua izan da. Beragaitik erkalako agintariei eskari onetxek zuzendutea erabagi da:

1839'ko agindua ezetsi.

Bizkaia'ren aldundian dagon aldi-agintza kendu eta bere ordeztat eta auteskundeak egin arteraiño Bizkai'ko endoreen artean eraldutako aldi-agintza bat ipiñi erkiaren arazoak zuzenduteko.

Egunokaz egin diran espetxaltzeak gaiztetsi eta euren alde eskatu. Oneixek izan dira udal barriaren lenengo erabagiak.

**Arpidea.** – Bizkai'ko espetxalduben aldeztoko batzordeari berak egiten daben lanean jarraitu dagien eta berari lagunduteko arpide bat zabaldu da batzokian.

Orain arte emon dabenak asko diran arren oraindiño abertzale geiago izango dira-la uste dogu euren emokunekaz lagunduko dabenak.

**Txadonkizunak.** - Igazi dan igandez Joseba deunaren eguna zanez txadonkizun ederrak izan gebazan [genduzan] ertxadonan. Goizean zortziretan izan eben amar urtedun umeak euren jaunartze gurena.

Jaupa nagusia eta arratsaldeko txadonkizunak notintza ugariakaz ospatu ziran.

**Aberkoiak.** – Mendigoizaleen artean zaletasun bizia dago il onen 21'garrenean Milloi'n egingo diran jai aberkoietara joateko. Izlarien artean Bernedo'tar Pelagi, Enbeita eta abar mendigoizale bat edo bi izentaten dira. Ondarrutar abertzale guztiok Milloi'ra joan bear gara egun orretan mendigoizaleekaz batera.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-05-18, (6378. zk.) 8]

**Milloi'ra.** – Zaletasun aundia dago abertzaleen artean datorren igandez Lekeitio, Markina eta Ondarru'ko mendigoizaleak eralduta Milloi auzunean egingo diran jai aberkoietara joateko.

Jaiaren egitaraua auxa da:

Goizean, zortziretan txadon aurretik urtengo dabe mendigoizaleak.

Amarretan jaupa abestu bat egingo da auzuneko Andolin deunaren basotxonoan. Mendigoizale abesbatzak "Gotzon jaupa" abestuko dau.

Jaupa ondoren ezpatadantzariak dantzaketa alai-ikusgarria dantzatuko dabe.

Ordu batetan oturuntza.

Arratsaldeko iruretan ezpatadantzarien bigarren dantzaketea. Lauretan itzaldiak esango dira. Izlariak Bizkai-Mendigoizale Batza'ko batzorde batek aurkeztuko dauz.

Itzaldiak, Urkiaga'tar Eusebi, Bernardo'tar Pelagi eta Enbeita'tar Imanol'ek esango dabez.

Ondoren dantzaketea.

**Oarra.** Datorren igandez Milloi'ra joateko ustea dauken guztieri arren deskatsegu illuntzeoro batzokiratu daitezala gotzon jaupa ikasten.

**Pelota txapelketa.** - Igazi dan igandez Bilbo'n jokatu eben emengo pelotariak lekeitiarren aurka eta garalle urten ziran. Irabazte onetaz pozkarri saria etxeratu dabe.

**Arrantzaleak.** - Aspaldion txarto be txarto dabilta arrantzaleak. Egunokaz bokar-ta ekarri dabe baiña tamalez gitxi eta txikerra.

**Udaletxeko izparrak.** – Igazi dan astelenez ziñegotziak batzarrean batu ziran eta erabagi onetxek artu ebezan:

Udaleko batzordeak izentau.

Bilbo'ko udalak euzko araudietzaz egin daben itaunari baietzean erantzun.

Eskatuta dagoan umeen aldi ikastolarako bear diran gaiak ekarri.

Eresbatzak aspalditik dagien oporra ainbat lasterren atondu. Idazkariak uriko txinditzaren jakintsu ipiñi leuzan [ebazan] ziñegotziak. Berak agertu ebanez lareun eta emere-tzi anei (419.000) laulerkoren zorra dauko uriak.

Beste garrantzidun gai barik amaitu zan batzarra.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-05-25, (6384. zk.) 8]

**Milloi'ko jaiak.** – Igazi dan igandez Milloi auzunean ospatuteko ziran jai aberkoiak datorren iganderako atzeratu ziran eguraldi txarragaitik.

**Etxe-jaubeak.** – Igazi dan igandez batzarrean batu ziran uriko etxe jaubeak eta euren eskubideak aldeztuteko bazkuna bat ipintea erabagi eben.

**Eresbatza.** – Igazi dan igandez, eta udalagaz itunben bat egin ondoren, amaitutzat emon eban erespatzak aspalditik egian oporra. Ori dala eta igandez eresia entzun geban [genduan].

**Barriro be.** – Igandez be erderaz irakurri eben ertxadonan Gotzain-idazkia. Dakusgunez ondarrutar geienok erdeldun biurtu gara geure gogo-zaiñak erdereari ekiteko. Geure asarrea beragaitik.

**Batzokiko jaiak.** – Urreratzen jatorku geure batzokiaren askunde gurenaren eguna. Egun orretarako egitarau eder-gogoangarria eraldu dau jai orreitarako ipiñia dan batzordeak.

Goizean mendigoxalien sarrerea, jaupa nagusia eta batelen estropadak izango dira. Arratsaldean barriz ezpatadantzarien dantzaketea, itzaldiak eta euzko-erromeria.

Altzeta, Monzon, Goenaga'tar Pie eta Agirre izango dira izlari. Egun orretan aber-tzalerik geienak Ondarroa'ra etorriko dirala ditxarogu.

Abesbatzako abeslari guztieri arren deskatsegu gauoro batzokiratu daitezala askunde egunerako Goikoetxea'ren jaupa ikasten.

**Udal-etxeko izparrak.** – Astelenez batzarrean batu ziran uriko ziñegotziak eta erabagi onetxek artu ebezan:

Aurrerako batzar agiria oniritxi.

Bilbo'n ospatuko dan irakaskintza asterako 25 laurleko emon.

Aste orretara joateko urian daukoguzan laterri irakasleak eskatzen daben laguntzea ukatu.

Jaietako batzordearen izenez Arriola jaunak eresbatzagaz egin daben [dauan] itunbenaren barri emon eban. Itunben ori bide, eresbatzari 15 por 100 jako bere sarietan, baiña aurrerantzean len baiño eresi zati bat geiago jo bearko dau.

Erriaren osasun eta itxura aldezko erabagi batzuek artu ziran. Datorren astean ibaia garbitzen astea kaiako lan batzatik lortu ebalan esan eban endoreak, eta azkenez, uriko idazkari utsunea Madrid'eko "Gatzeta"n agertu zanz, ziñegotziak jakintsu geratu ziran.

Beste garrantzidun barik amaitu zan batzarra.

IBAI-ONDO

# ONDARROA

[Euzkadi 1933-07-21, (6433. zk.) 8]

**Abertzaleak.** – Il onen 9'an uriko alderdikideen batzar orokorra ospatu zan, Batzar onetan U. B. B. barria eta uri epaikaritzea autu ziran.

Egun beretan Batzokiko bazkideen batzarra egin zan. Batzar onetan artu zan erabagi bidez, bazkide guztiak euren ume jaio barritxuei euzkal izenak ipintera beartuak gelditzen dira.

**Atxuritarra.** – Igazi dan igandez "Atxuritarra" kirok batzakoak ikertau ginduezan. Uriko agintari eta eresbatzak urten eutsoen bidera. Egun alai eta ederra igaro ondoren etxeratu ziran.

**Abesbatza.** – Egunokaz asi da abesbatza datorren dagonillea'n Bilbo'n egingo dan abesbatz-sariketarako gertuten. Aurten gizonezkoak bakarrik osotuko dabe. Igazko gurenda barriztau eta uriaren izena goralduteko ona izango litzake abeslari guztiak bertaratzea.

**Arrantzaleak.** – Egunokaz arrantzaleak txardiña gitxi artzen dabe. Santander alde-tik ego-luzetan dabiltzanak be gitxi baiño ez dabe artu eta bidaltzen.

**Atzergetxea.** - Igazi dan astelenez emen izan zan atzergetxeko (adua) banakaria bere ardurez jaubetuten.

Atzergetxea Uribarri txaideko 15 zenbakian ipiñi dabe.

IBAI-ONDO

## Izpar urtenenak.

### ONDARROA

[Euzkadi 1933-12-15, (6559. zk.) 10]

**Arrantzaleak.** - Egunokaz polito arrantzuten dabe emengo arrantzaleak. Txitxarro ugari artzen dabe eta bexigua be polito.

**Sorkunde Garbia.** - Aundikiro ospatu dau erri onek Sorkunde Garbia. Bere aintzalbenez egin ziran txadonkizunetara notintza ugaria urreratu zan. Txonitzak Iturraran Gernika'ko txaunburuak esan ebazan.

**Antzerti.** - Batzokiko antzerki-taldea antzezkizun jai eder bat gertuten dabil. Jai onetan "Neskazar" eta "Ostegun-Gizena" antzeztuko dira.

**Gogo-jardunak.** - Iriarte Josulagun Aba gizonentzako gogo jardunak emoten ari da Miren Deunaren ertxadonan, gizonak pozarren joaten dira berari entzuten.

**Lanik ez.** - Kaia edo portu barria egiten dabillan ugazabak bertako lanak udabarri-rarte atzeratzea erabagi dau. Erabagi onek asarre gogorra suspertu dau langilleen artean.

**Bakaldarrak.** - Sorkunde garbi egunez jai batzuk egin ebezan emengo bakaldarrak auteskundeetako gurendea ospatu eta Miren, España'ko zaindaria ospatuteko. Gooiz-eresiak, jaupa eta ezpatadantzea dantzatu ebezan. Dantzaldia amaituta asarre eta zarata gogorra sortu zan.

**Jaiotza.** - Mugertza'tar Jabier'en emazteak alaba bat izan dau eta Miren Ikerne, Koldobike Eustake izenekaz ugatzau dabe.

IBAI-ONDO

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

BIGARREN ERREPUBLIKA DENBORALDIKO IDAZLANAK (1931-1937) ETA ONDARROA •  
Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

# II. ARTIKULUAK

(1932-1937)



# KRISTIÑAU-IKASBIDEKO AZTERKETAK

[Ekin 1 (1932, 24. zk.) 8. (1932-07-16)]

Ikusi eta ikasi, auxe egiten da Kistar-ikasbideko azterketetan. Ikusi, umeak urduri, artega, begiak bizi-bizi, biotzak pil-pil, dakienak dakiena erakusteko pozarren, egunak egun, asteak aste, aztertzaileen aurrez aurre erakusteko joranez, ainbeste ez dakienak dakienai jarraitzeko garrez. Ikusi baita jaupari eta ikasbidea erakusketan lagun izan jakezanen lan joria, onuratsua, jaungoikozkoa be. Ez dabe zarata aundirik atera izango: lan ixilla, gizonak oartzen ez daben lana, baiña neketsua baizen lan onurakorra. Gizonak ez dabe onelako lanik ederresten. Gizonen txalo eta gorakadak irabazteko lanak ez dira. Bai, baiña, Jauna'ren onespina eta biotza irabazteko adiñonak. Gauza eder asko egin izan ditu "Jaungoiko Zale bazkuna" k, baiña eder artean onena kistar-ikasbideari alako bultzakadea eragitea dala uste dogu. Jaupari zintzoak idoro izan doguz or emen, eleiz apaiñak, txukunak, eleizgizonen Jaungoikozaletasuna eta azkartasuna biziro agertzen dabenak, baiña gizon artean biotza eta begiak irabazi izan dauskuzanak, umeekazko lan arrigarria izan da. Ziri-miriak, piri-piri, lurra ezotu daroan legez, alantxe apal-apal, mara-mara, argitu izan dabez umeen adimenak zeruko argiz eta goi iñontzez txikitxuen gogoak ezotu. Jauna'k sarituko ditu.

Ikustekoa zan ume arein poza aztertzaileak errira eltzen ziranean. Urrindik ezagutzen ginduezan, iñoz ikusi barik. Ez dau iñongo guda garaitzallek errira biurtzean, ume areingandik guk artzen genduan lako arrera biozkoirik artu izango. Guztiak eleizpean batu eta jaupari eta aztertzaileakaz batera eleiz barrura, Jauna'ri otoi laburtxo bat egin ondoren, izendegiak. Irugarren mallakoak, bigarrenekoak, lenengokoak. Malla bakotxean geien dakienak, urrengo eta urrengoak. Azterketa. Talde bakotxak bere aztertzailea. Itauñ emendik, jo andik, ziri bestetik, atzekoz-aurrera, goikoz-bera eta baziran aztertzaileak itauna espaiñetan ebala erantzuna jaurtitzen eben morroskotxo eta neskatillak. ¡Au poza, bai aztertzaileentzako, bai irakasleentzako, bai ume arein guraso kistarrentzako!

Jai onek, iraun ba'dagi iraun, emendik ogei urtera gaur baiño be ospe geiago izango dabelakoan gagoz. Zergaitik? Gaurko zarrak, zoritzarrez, ikasbidea aztuta daukie. Oraingo gazteak, barriz, batez bere burrukaldi oneitan izan diranak, ez dabe ikasbidea beingoan aztuko. Eta norbaitzuk aztuko ba'lebe be, gaztetxotan burrukaldi oneitan izan zirala gomutazoteak, eta urlia eta berendia txapeldun gelditu zirala gogoratzeak, bizialdiko urterik atsegintsuenak gogora ekarriko dautsez, eta ordukoak ala oraingoak geiago diran ikusi eta jakingureak, jai oneitara pozik erakarriko ditu. Uskurtz edo erlijio gaietan, jakiñago eta jakingureago izan oi da: jakin ezago, eta jakin naiezago.

Jarraitu begie, ba, ikasleak ikasten eta irakasleak ikasten eta irakasten. Gure etorkizunaren erro eta sustraia ortxe dago. Erro eta sustraia sendoago eta ortik datorren zugatza mardulago eta arnaritsuago.

GURUTZ

# KATALUNIA'RI BEGIRA

[Euzko 1 (1932, 9. zk.) 6. (1932-09-25)]

Egunokaz Katalunia'n alaitasuna eta atsegiña ugari nabaitzen da. Izan be, alai eta pozgarri da seme batentzat bere ama arrotzen amorru eta bidegabekeriakandik gaizkatu eta askatuta ikustea.

Auxe berberau jazo da Katalunia'gaz be.

Ainbat urteetan arrotzen laterri baten menpean euki dabe beren ama-aberria; ainbat urteetan amaren zoritzarra negartu eta agertu izan dabe, eta amaordeak, laterri zitalak, jaramonik ez... Biotz gogorra baizan España-laterria.

Gaur, barriz, beren ama-aberriaren estutasunak arinduta ikusten dabez, askatasun bidean dakutse bere ama; zuzentasun izpiak bere gaiñean nabaitzen dauz; gaur lenengoz bere oi u eta askatasun irrintziai belarriak zabaldu iakez. Gaur ikasi dau España'k zuzen eta zintzoa izaten...; obeto esateko, gaur sartu da España zuzentasun bidean, ba zuzena eta leiala izateko, beste errugabe asko daukoz bere lokarri itzal eta zitalakaz lotu eta menperatuta.

Zorioneko da, ba, gaur Katalunia.

Gaurdanik ez dabez atzipetuko bere semeak ikastoletan beren aberritzat arrotzen aberria erakutsiaz; gaurdanik ez dabe negarrik egingo kataluniar amak euren semeak arrotzen aberria aldeztuten etxetik at joaten ikusiaz; gaurdanik katalunyarrik ez dabe arrotzen izkuntzan mintzatu bearrik izango, len nai eta naiez eta bear-bearrez mintzatu bear izaten ziran lekuetan; gaurdanik kataluniar langilleak ez dauz emongo bere izerdiaren irabazitziak arrotzen aberri bat sendotu eta janaritzeko, gaurdanik, Katalunia kataluniarrena izango da, bere semeak egindako lagi eta agintepean biziko dalako.

Bidezkoa da beraz Katalunia'ren zoriona.

Irakaspen ederra benetan euzkooi kataluniarrik damoskuena!

Aberriaren zorionarren kataluniar oro bat eginda irrintzi luze bat jaurti eben Madril aldera. Eta oi u eta oi u, irrintzi eta irrintzi, samin orduak eta neke larriak idoro dabez, baiñan neke eta samiiñen ordaintzat aberriaren zoruna lortu dabe.

Oldoztu bite [begie] Euzkadi'n bizi diran "euzko-ezpañar katolikoak" Katalunia'ren irakaspenaren aurrean; oldoztu bite [begie] aberri baten zoruna eragozte a Josu'ren agindua ete dan; ausnartu bite [begie] beren arrokeri eta nagusikeriagaitik aberri baten bidezko askatasun eta bizikerea gaiztetsiaz eta guzurtatuaz Kisto eta Doibatza'ren aginduak beteten dabezan; gogoratu bite [begie] beren zitalkeriagaitik euzko-erriari damotsen kaltea.

Oldoztu bite [begie] baita be, adimenez itsu eta biotzez gogorak ez badira beintzat, gaur Euzkadi'ren agintaritzan dagozanak euzko erriaren legezko askatasun eskabideetan beren ixillera bidezkoa ete-dan; oldoztu bite [begie] Euzkadi'gaitik gaur dagien lana naikoa ete-dan; oldoztu ondo eta gero...

Ikasbide ederra benetan euzkotarroi kataluniarrik damoskuena.

LIKONA

# GOGORATZEN

[Euzko 1 (1932, 12. zk.) 7. (1932-10-15)]

Notin bakotzak Urtzi'ganako daukozan eginbearrak Jaun Goikoa'ren lagiak erakusten dauskuez. Guraso, geide eta norberekiko doguzanak bere, bertan dakusguz; eta aberriarenganako doguzanak bere bai.

Aberriarenganako eginbear oneik ¿noraiño eltzen ete dira?

Gizona, ez bakarrik gurasoentzako baita bere aberiarentzako sortua izan da, iñoan Demostenes jakintsu ospetsuak. Esan naiez, gizon batek bere gurasoekaz dauzan aiña eginbear daukozala aberriagaz bere.

Ipar Ameriketa'ko gudari itzal eta errime baten irakurri dot, notin bat bere gurasoekaz baiño eginbear astun eta sakonagoakaz lotzen dala bere aberriagaz; ba seme bat, darrai, ez da gurasoekaitik bere odola emotera beartzen, baiña aberriaren estu orduetan odol ori azkeneko tantaraiño ixuri bearko dan bera aldeztutearren, aberkideen artean aberri-eraille eta atzipetea lez aurkeztu nai ez badau.

Olako eritxi gogor eta astun asko idoro genezakez [geinkez] gudarien eta batez be, abertzale ospatsuen idazkun eta edestietan.

Baiña esakunak esakun dira beti, eta erriak, esakunak eta eritxiak barik, eginkizun zale dirala ondo baiño obeto dakusgu.

Edestira jo daigun ba; baiña antxiñako eginkixun eta jazokunetan barik, eunki edo gizaldi onetako eta geure egunetako jazokunetan geure adimen eta gogoak irarri daiguzan.

Irlandarren edestia irakurten ba'dogu, jaupariak eta gotzaiñak eta aneika zaldun, Cork'eko endorea buru dala idoroko doguz aberri maitasunaren, laterri arrotz eta atzipetearen (ingalandarren) burugetasun eta itxutasunaren jasarpen eta eriotzeak jazaten. "Laterri arrotz eta atzipetearen burugetasuna eta itsutasunaren jasapenak" esan dot, atzipetuak urritu eta ikasbide jazartuaren jarraitzalleak ugaritzea baiño jazarpen oneikaz lortzen ez dabelako.

Argiro azaldu eban jakintsuak ziñopen odola igalitsua zala... eta auxe berberau autortzen dausku gaur Irlanda'k bere askatasuna agertuaz.

India alderuntz begirakune bat jaurti ezketino, aintzalbenez josia aurkituko dogu Gandhi'ren izena; abertzale jasankor onek, ondo baiño obeto ezagutu dauzalako aberriarenganako doguzan egin-bearrak, ainbat bidar aberriari bere bizitza opalduaz, arrotzen naiak bete baiño len.

Euzkadi'n berton, Sukarrieta'ra begiratzen ba'dogu, obitegi bat ikusiko dogu, eta obitegi aretan. Gurutze deunaren gentza, eta magalpean etzanda, Euzkadi'ren gaizkatzallea, euzkoen aita, aberri-maitasunarren España'k eraildua... eta bere aurrean, euzkoa berak lez Euzkadi aldeztuteko aberriari bizitza eskeintzen.

Maitasuna jazarpena baida.

LIKONA

# ASKATASUNA

[Euzko 1 (1932, 22. zk.) 1. (1932-12-24)]

Aspaldion itz auxe darabilgu beti ezpanetan.

Alderdi guztiak bere ikurrintzat artu dabe; agintari guztiak bere elburutzat.

Ala eta guzti bere askatasunik iñon ez dogu nabaitzen. Etsaitasunean txalotu eta goratuten ebenak, bera zabalduetako orduetan, askatasunaren giltzak artu dabezanean, askatasunaren menperatzallerik itzalen biurtu dira. Gaurko agintaririk geientzat ez dago beste Jaungoik[ko]rik askatasuna baiño; berarentzat dabez gogo eta adimenaren gurpenik itzalenak; beretzat elertiaren itzik goralgarrienak.

Tamalez baiña askatasunaren maitasun au guzurrezkoa da euren eginkizunak argiro dirauskuen lez.

Euron askatasuna Nuñez de Arze olerkari iaioak euzkeratzen dodan olerki txukun baten aitaturten daben askatasuna da.

“¡Askatasuna, askatasuna! Ez zara nik ametsetan ikusi zebazan [zindudazan] neschutz eder, zuriz estaldua. Ez zara, ez oskarbi izarra lez bizitzako ezkutapenak argitzen dabezan jaungoikotasun urena”.

\* \* \*

Gizaldi onetan askatasunari deika eta oiuka iñork egon bear ba'dau euzkotarrak gara lenenak.

Askatasuna arrotzen menpean daukogun aberriarentzako; askatasuna jauntxu batzuk bastertu eta zapaldu gura dabezan geure gogaiantzako.

Askatasuna (democracia) eta azkatasuna [sic] iñok baiño zintzo eta lerdengo jabor ebazan Erria, gaur albo laterrien nausikeri eta joputasunaren jopu bat baiño ez da. España'k Euzkadi'ra bialtzen deuskuzan agintari guztiak euzko-askatasunaren, geure eskubideien areriorik itzalenak dira. Eurak iñoz bere ezin genezakez abegi onez artu eta ikusi.

Eta geure erkiko jaurlaria lez euzko-itzurle, etoi eta ukatzallea ba'da gitxiago oindino.

España'k bialdutako jaurlari oneik, gaurkoak batez bere, maitasun bat biotzean: askatasun gorrotoa.

Argiroago azaldu dagigun; itzez askatasuna goratuten daben eta eginkizunetan zapaldu.

Bermeo, Sondika, Derio, Bilbao eta abar dira esan dodanaren ziñaldariak.

Baiña españar agintariak askatasunaren izenean egiten dabezan maltzurkeri eta lotsabakokeri guztiakaitik; askatasunaren izenean eskintzen deuskuezan jazarpen, zigor, minkorraldi eta estualdiakaitik bapere bildurtu barik, tanto bat bere kikildu eta ikaratu barik, aurrerantz jo bear dogu, beti aurrerantz Jel ikurritza Euzkadi osoaren goiburu izan arteraiño.

Jazarpen eta minkorraldiak geure gogaiok sendotu eta zabalduteko baiño ez dira; iñoiz bere ez eurak txetu eta ilteko.

Egia geugaz dago eta egiak garalle urtengo dau atzipen eta maltzurkeri guztien gainetik.

Josu'ren itzak gogartu dagiguzan: "Egiak askatuko zaitue".

LIKONA

# UGORKONDOA

[Euzko 1 (1933, 26. zk.) 1. (1933-01-21)]

Euzkadi zoritxartu eta beztuten daben gaitzik kaltegarriena auxe.

Zoritxarrez Euzkadi'n ugorkondoa barru-barruraino sartua dagerkusku. Eta zoritxarreko Erria ugorkidunen menpean bizi dana.

Ugorkonduren (alcoholismo) kalteak ezagun doguz: gorputza makalduten dau, ogasunak txirotu, gizartea gaixotu. Ugorkondoa aberriaren areriorik itzalenetarikoa da.

Gladstone jakintsuak gai onetzaz jardunaz onelaxe diño: Gaurko egunetan ugorkiak goseak, izurriak eta gudeak baiño kalte gogorragoak dakarski. Goseak eta izurriak baiño geiago izurritzen dau; gudeak baiño geiago erail; eta ez dau bakarrik erailten; ugorkiak iraindu eta laidoztatzen dau.

Ugorkia aberriaren areriorik gogorrena da, aberri-bizitasuna gebenduaz, bera agortuten dauelako.

Zelako seme-alabak itxaron genezakez [geinkez] sendi ugorkidun batetik?

Eurak beren semeetan irarten daben odola, odol gaixoa, edendua da.

Guraso ugorkidunak, diño Gibier'ek, sendi ajedun eta errukarri bat egiten dabe. Sendiak txartu eta dongetuten dabez, ez bakarrik euren ikasbide deunge eta loiagaz, baita, odolagaz batera, ugorkiaren edena eta gaixotasuna eurretan irarriaz.

Gizarteari seme galduak damotsez, gaztedi edantzale eta obenduna sortzen dabe, eta gizartearen zoztor eta iguingarri diran gizaseme meatz, ergel, jakinge eta biotz-miñekaz ludia beteten dabe.

Oindiño geiago: len esan dodan lez aberri-bizitasuna gebendu eta agortuten dabe, ugorkidun sendia elkortasunak (esterilidad) joten daualako.

Au egiztauteko zenbakuntzak ikustea besterik ez dago; euretan argi eta garbi ikusiko dogu ugorkondoa sartuta dagon laterrietan gaixorik ugarien eta jaiotzarik urrien izaten dirala.

Ugorkondoak baiña ez dau bakarrik aberri bizitasuna agortuten; aberri gogo bere agortuten dau, sendien errugetasunez izan arren, beren adimenak itundu, gorpuak makaldu, biotzak gaixotu eta lotu, ekanduak zikindu, oitura onak lurperatu eta izen ona menperatu, aberri-aberastasunak urritu, eta gizartearen oiñarria dan sendia zatitu eta ezereztuten daualako.

Guk, abertzaleok, aberria egiteko iñor baiño lotuago beartuak gagozanok, ugorkondoari guda itzal eta gogor eta iraunkor bat agertu bear dautsogu.

Aberri zoruntsua ikusi eta euki gura ba'dogu bere kaltegarri dan guztia, ezeren bildur barik, txetu eta lurperatzen asi bear dogu.

Bestela Sabin-gogoak beti negarrez jardungo dau, eta gizaldi guztietan Irakaslearen negar-oiartzuna entzungo da:

Ara baita  
sortu dituzan  
semiok, ba,  
berari bizitza kentzen  
dautsoela!

LIKONA

# EUZKEL GAIAK

[Euzkadi 1933-04-06, (6343. zk.) 8]

AUGUSTIN

Euzko-idazle asko jaió dira gure egunetan. “Ez da ilgo euzkerea” esan geinke, idazle bikaiñon lanak ikusirik. Eurok landu eta apaindutako Euzkerea, geiago ez da izango lotsatua. Geure Aberri eta Euzkerea’reñ pizkunde eta garaia alkaturik jatorkuz.

Mueta askotarikoak dira benetan idazle orreñ idazlanak. Guztietzaz idatzi dabe. Elerti, jakintza, Gizartiztietzaz. Lan irakurgarriak argitaldu dira. Egizko pizkundera da gure euzkerea’reña. Akats bat idoroten dot, baiña. Utszune andi bat dakust. Euzko-eletariak geiago eta ugariagoak dira euzko-gizartizlariak baiño.

Geiago idatzi da benetan, ikastolarako eta irakasleentzat, lantegietarako eta langilleentzat baiño. Txarto egiña dala, ez diñot; iñor ez naz ori esateko.

Gizarte arloko gaiak ez dira errez ibiltekoak. Gauza erreza ez da gai oneitzaz idaztea. Bear-bearrekoa baiña. Euzkerea’k eta euzko-langilleak daskatsugu.

Langillea irakurgaien zalea da. Eta asko irakurten dau gure egunetako langilleak, 50.000 T. N. T. langillien artean egunero saltzen dira. Edozein langille gerturik dago, ba, irakurteko.

Eta euzko-langilleak? “Analfabetoak” ez dira euzko-langilleak. Euzkadi’n ez dago baserririk “Josetxu” eta “Genobeba de Brabante’reñ bizitza” ezautzen ez dabezanik. Eta, onela lugiñen artean izan ezkeró, nolakoa izango da langillea?

Jakituna ez da langillea, baiña; elerti-gaien zalea be ez. Gosez [i]bili da; lan billa dabil; ugazaba zikotzaren erpegian aurkitzen da; bere gogoa illun dago; zuzentasunaren egorria dauko biotzean. Zeretzaz idatziko dautsogu taxu onetako gizonari?

Negargarria da langillien egokerea. Langillearen bizierak itzala eta ikeragarria egin dau gizarte-auzia. Jakitun eta “politikoen” auzirik andiena gizarte-arloa da; eta gizarte-arlo onen “aita” langillea



Euzko-langileai euzkeraz idaztea bear-bearrekoa dogu, ba. Euzkadi'n euzko-gizartiz-  
laririk aurkitzen ez badau langilleak, atzerrira igesiko dau.

Gure baserri txukunetara be gizartekeriaren belduak eldu dira. Arrantzale gizaxoai  
entzunazo dautze euren abotsa.

Zer egingo dogu geuk?

Euzko-idazle eta izlariak: euzko-bizitza pozgarriagoa da Euzkadi'ren azkatasuna  
baiño; geure gogoaren jabe izatea garrantzitsuagoa da, geure buruaren jabe izatea baiño.  
Langillea, arrantzalea eta lugiña geureak ez badira, zetarako doguz aszkatasun tta jabetasu-  
na?

Euzkadi eta euzkerea'ren semerik maiteenak dira langilleak. Euren naiak eta miñak:  
euren bearrizanak eta euren asmoak euzkeraz iragartea baiño zer goragarriagorik? Euren are-  
rioak nortzuk diran; zeintzuk bide diran eurenak; non eta zelan jaritsiko dabon zoruntasu-  
na... oneixek izango dira (J. L.) nire azalpenak. Oneixetzaz idazteko asmoa dogu.

Irakaslea ez naz ni. Gauza barriak dira niretzat Gizartiztia eta Euzkerea. Irakasten ez  
nator. Eta, beste gai batzuk erabilten dabozan idazleai irakasteko asmorik ez dot.  
Bakotxarentzat ederrena bakotxarena da.

Asmo ona deritxazu, ene irakurle?

# ERDU NEURERA

[Euzkadi – 1933-05-18, (6378. zk.) 8]

## I

Illunabarra zan. Otzamar. Giroaren atsegiñera mendirantz jo neban ibai-ertzeko bide txidor batean zear. Eta laster ibai ertzeko aize me bustigandik iges, barrurantz eta gorantz zuzendu nitzan bustindun burdi bidea artuaz.

... ..

Uritik urrun, laiño onduan, basotxono zar zabala; eguzki galdaz bere ormeak gorrituta dauzan basotxono itzala.

Nekalduta eldu nitzan. Atsedean apurra izerdia kenduz, eta barrura oldozkor. Basotxono oro[ren] antzera, zarra eta utzia. Or emen deun irudi zikiñak nolanai ormetan eskegiak. Erdi-erdian Josu gurutzalduaren antzirudia; bere gaiñean idazkun zar autsez betea. “Erdi neurera”.

Aberri aldezko otoi laburra eta kanpora.

## II

Etxera orduko gaba. Gau illuna. Bide ertzetan irudipen bildurkorrak ugari. Etxean atsedena eta gentzea.

Neke sendalaria,  
buru argitzalea,  
lanaren saria...  
amestegi guria...  
iñoan “Lizardi”k oiatzaz.

Eta benetan. Be[rea]laxe oldozkor jarria naz. Erdi neurera, neure oldozkuna.

### III

Itz leun-biguñaak Josu-renak, itxarkorrek, maitekorrek.

Aberastasun jabe egiñaz arrotuta eta aundikiro bizi zarean ugazaba, erdu neurera eta ikasi nigan esku zabala eta maitekorra izaten.

Erdu eta ikasi nigan txiroa maite izaten, langillea zuzen erabilten.

Txiro, apal, nolanai zabiltzan langillea, erdu neurera eta ikasi nigan arerioa onartzen, berari iguin eta gorrotorik ez izaten. Asketsi egiozue, zer egiten daben ez dakielako.

Eta bere deia guztientzat zuzenduten dau. Ankerrak, biotz bigunak, jakintsuak, jakingeak, aundikiak, txiroak, guztiak dira Josu'gandik deituak. Orontzat da basotxonoko didarra. Erdu neurera.

### IV

Oldoskunak aberrirantz be zuzendu jataz eta aberri oindian basotxonoko idazkuna irakurri dot: aberri amagandik be Josu'ren didar berbera entzun egin dot.

Erdu neurera, amagandik urrun zabiltzan euzkotarroi eta neure samiñetan ikasi neu maitatuten; ikasi neu ezagutzen.

Erdu neu gorrototzaleoi eta neure maitasunagan ikasi, neure ontasuna eta amatasuna ezagutu eta zeure zitalkeria gozartu.

Erdu baita be orain arte lez neu maitalea: beste anaiak lez amagandik iges ibilli arren zeure okerrak ezagutu eta bide zuzenera eldu zarienoi: erdu neurera eta sutsutu zeu[re] biotza nigan.

Ikasi neure zoritxarrean zeure aurrerantzeraiño bidea; buztartu zeure biotza neugaz, neuk lez gaixo bardiña euki eta jasanaz osakai billa asi gaitzean; aspalditik ditxarogun askatasuna ainbat lasterren idoro dagigun.

Erdu euzkotar oro eta jasan eta itxaron neugan. Aulan egiten badozu, zoruntsua izango zara, zoriona Delzant'tar Gabirele'k diñoanez norbere eginbearra beteak sortuten daun poza dalako.

Eta euzkotarraren eginbearra gaur eta beti bere amagaz egon eta bere zoritxar eta zorionakaz buztartuta ibiltea dalako.

Euzkotarra, entzun aberri deadarra: Erdu neurera.

ARTETA

# GIZAR[TE] ARLOA

[Euzkadi 1933-05-19, (6379. zk.) 8]

AUGUSTIN

Noraiñokoa danu gizar[te]-arloa, guztiok dakigu. Bere alderdirik latzenak, negargarrienak, zeintzuk diran, be, orok dakusgu. Bere iturburuak zeintzuk diran, guztiok ete daki-gu, baiña? Dirutzakeria ala uzkurtzarik-eza?

Gai onetzaz zer-edo-zer.

Gizona urtzige biurtu dalako, gizarte-auzia jaio dala esan dabenak asko izan dira. Jaun-Goikoa'gana biurtuko ba'litiz langillea, euron eretxiz, bertatik gizarte-auzia ondatuko litzake.

Bestetzuk diñoenez, dirutzakeriak dakarrena da gizarte-auzia. Gizon batzuk diralako aberatsak, txiro eta ezeukiak dira beste asko. Dirutza lanaren ganetik jarri dalako; gizonaren lana abereena lez ordaindua izan dalako, egokera larri orretan aurkitzen da langillea.

Uzkurtzarik-eza gizar[te]-arloaren iturburu dala esan dabenak kistarrak izan dira.

Dirutza dala esan dabenak, kistarren arerioak

Kistar-gizartiztiaren aita Kettelez jauna izan zan. Mengo'ko gongotzaiña zan, Gizartizti gaiak azalduten asi zanean. Bere lenengo txonitzan auxe iñoan: "Gizarte-auziak darraike, Jaun-Goikoagaz langillea adiskidetu arteraiño".

Uzkurtzak: bakarrik uzkurtzak langillea gaizkatuko dau, ba, Kettelez jaunaren eretxiz.

Marx'dar Karla'k "Dirutza" deritxon idazti bat, idatzi eban. Gizarte-auziaz, gauzarik asko diño bertan. "Dirutza'k" ekarri dauzan gatzak dira, baiña aitaturgarrienak "Dirutza" apurtutea da, langillearen eginkizunik bearrekoena".

Zeïñena ete da egia? Egia ete diño bitzuok?

Dirutza izan zan beti, Marx'tar Karla'rentzat, gizar[te]-arloaren iturria. Eretxi au iñoiz be ez eban ukatu. Gizartekeriak -Marx'en jarraitzalea- berorixe diño.

Uzkurtzarik-eza gizar[te]-arloaren iturbururik bakarra ez zan baiña, Kettelez agurriaren eretxia. Gaztaroan, lenengo txonitzan baieztu ebana, gero ukatu eban. Gatxa ikusi eban gizadiaren barne-barnean. Andikiak ziran batzuk; txiroak bestetzuk. Zegaitik?

Gizonaren, azaletiko alderdia bakarrik, ostera, Kettelez jaunak. Gizona, baiña, gotutsa ez da; eta aragi utsa be ez.

"Gogo eta gorputzaz osotutako izaki adimendua da gizona".

Eretxi aretan irauteko, baiña jaun argia zan Kettelez. “Gizonaren zoriontasuna sabeleko gora-beretan aurkitzen dala” inoanak –Marx jauna- guzurra esan eban. “Guzurra da, esan eban Kettelez jaunak be, eroapena eta jainko-maitasuna langilleari erakutsiaz, gizarte-azua ebatzirik dagoala”.

“Zuzentasunik-ezak gizarte-azua ekarri dau. Laukiñaren zati bat dalakoa uste izan dogu gizonaren gorputza. Gizonaren gogoakin asturik egon gara. Bitzubok, jaoken tokian imiñi bear dauz gizar[te]-zuzentasunak” (Kettelez).

Kettelez jaunaren azalpen argitsua da auxe.

Beraz, ez diruak bakarrik, ez uzkurtzak bakarrik, gizar[te]-arloa osoro ebatziko dau. “Gogo eta gorputzaz osotutako izaki adimenduna da gizona”.

Gizona ez dau beteko diruak bakarrik. “Zorionau, langille-lansaria geitu begie: lan-orduak laburtu; salgaien sariak eraitsi; erakutsi eta jarraibide gaiztoak ba’dakus, bere burua- ren kaltekoak izango dira irabazi eta aurrerakuntza guztiak” (XIII Lon).

Uzkurtzak bakarrik be ez, baiña.

“Gizarte-azua obenak sortua dala dinoanak be badagoz. Negar eta otoi egitea naikotzat dauke oneik. Jaungoikoa’ganako bildurra langilleari erakutsiaz, bederatziurren eskari eta abarreko elizkizunez langilleari bakea lortutea da biderik onena gizarte-azua ebatzeko. Gizagaxoak!” (Manjon).

Dirukeriak bakarrik, urtzigekeriak bakarrik ez dau, ba, sortu gizarte-azua.

Aro-erdiko Batzarrak ondatu ziralako jaio zan gizarte-azua. Kistar-gizartizlaririk bikaiñenak diño. Banandurik, inderge, bakarrik geratu zan langillea, Batzarrak apurtu ziraneko. Bakartasun orretan, u[ga]saba goitu jakon, indartsuagoa zalako. Laterri eta u[ga]sabak batzartu ziran, langillea zapalduteko.

Gizarte-azuiaren iturburua ona emen. Auxe da; besterik ez dago. Langilleen eskubi-dien zaintzalle ziran Batzarrok ondatu ziralako dirutza eta urtzigekeria sortu ziran. Larri eta negargarriagoa biurtu gizarte-azua; sortu ez, baiño langille [utsunea dago]en kaltez jokatu-teko indartsuagoa dalako dirua, dirutuak irabazi eban joko; Uzkurtza gatxa eta latza dalako, gosea dagonean, langillea urtzige biurtu zan.

Batzarrak ondatuta, baiña, gizarte-azuiaren iturburua.

# JASARPEN ONDORENAK

[Euzko 1 (1933, 42. zk.) 1. (1933-05-20)]

Antziñan, kistartasunaren lenengo aldietan, oraindiñokarren Kisto'ren jarraitzaleak banaka zenbatuten zirala, Erroma'ko kaisarrak jarraitzaleok jazartu eta menperatuten asi eta alegindu ziran, jazarpen eta zigorrekaz kistarren gogai eta elburuak zapaldu eta ixildu naiez.

Baiña idazle ospetsu batek diñoanez jazarpena dei egiten daberen [dauan] joalea da eta bere otsera, bere daunbadara notiñak zuzenduten dakiana. Eta aldi aretan orixe berberoi jazo izan zan. Jazarpenak berak, jarraitzaleak sortuten leuzan [ebazan]; aulan edestilari jakintsu batek dinoanez, Erroma'ko antzoki nagusi edo Koliseotik urten eben kistarrak ugari eta zintzoenak.

Euzkadi'n be berberau dakusgu. Abando'ko irakasleak egun batez jaurtitako irrintzi luzea Euzkadi osoan entzuten asi zan; erriak erabillezan oiturak, aseleak askitzak eta ziran, euren bidez irrintzi ori zabaldu eta oiartzunduten ebenak. Baiña irrintzia luze eta zoliegia izan zan geure arerioen belarrietara ez elduteko eta euzkotarrak bai'litzan, eurak, geure arerioak be itxarkor jarri ziran. Deia ixildu gura eben, baiña ixilduteko zaratsua izan zan eta arrotzok naigabez geratu bearra izan eben. Bera eziñean, eten barik bera oiartzunduten eben oitura, asele, askitz eta abarretara jo eben. Eta ustez zapaldu eta ixildu be bai.

\* \* \*

Ekaitza amaitu zan. Gentza aldiari asi zan barriro itxasoa gorantz. Gelditu barik gorantz beti. Eragozpenik ez zeban ezagutzen. Berari ipinten eutsoezan ormak ezer ez bailiran igaroten leuzan [ebazan]. Eragozpena igaroaz indartsuago zuzenduten zan, baiña beti gorantz. Jaubeak baiña ezin eroen itxasoaren aurrerakadea; euren basuetara sartzen lekuntzen ura.

Bildurtu dira, ikaratu dira eta... sortu da barriro ekaitza. Ezer lortuko ete dabe? Gorantz eta aurrerantz etorran ura berantza eta atzerantz zuzenduko ete dabe?

Sortu daben ekaitzagaz alderdia garbitu eta ugarituko dabe, baiña ekaitzatik ditxaro dabenik ez dabe lortuko.

Gaur ez dagoz ekaitzaren lenengo besarkadara bildurtu eta kikilduteko; ez dagoz arerioaren lenengo arrikadara zaurituta geratzeko.

Batzuek uste baiño gogorragoak gara. Arerioari arpegi emoten dakigu, eta batzuk zaurituta jausten ikusi arren ez gara amilduten geu aberriari eskiñiak gagozalako eta geure zorunik aundiena eskiñita gagozan maitaleagaitik jasan eta berari bizitza opaldutea dalako.

Antziñan Arrigorriaga'n, Otxandio'n, Mungia'n eta Gordexola'n geure eskubideak aldeztuten zintzo jokatu eben euzkoen oiñordekoak gara, euren odola daramagu geure zaiñetan eta eurak lez aberria maitatu eta beragaitik jasaten dakigu.

Ekatzak gentzea ekarriko dau, gabak eguna ekarten dauan antzo eta geure jazarpen eta atsekabeen ordaiña artuko dogu. Eta kistartasunarentzat kaisarrak izan zirana, geu-are-rioak izango dira geuretzat; geure gogaien erakusle eta izlaririk onenak, eta geure zorun-ekarleak.

ARTETA

# AURRERANTZ BETI

[Euzko 2 (1933, 67. zk.) 1. (1933-11-11)]

Euzkotarrak zorioneko gagoz.

Igandeko gurendea ikusita euzkotar izaten eta euzkotar lez agertzen ikasi dogula autortu bear dogu.

Alperrik izan dira euzko arerioen agintza ederrak, alperrik jauntxuen zigor iragarpenak, alperrik aberatsen diru eskintza ugariak, alperrik eurak emon dabezan jan-edanak geure baserritarrak atzipetutearren, alperrik Olazabal'en uzkurtza aldezko aldezenak biotz bigundun eta gogo epeldun emakume eta gizon kistarrak atzeratzearren.

Erriak jauntxukeriagandik iges dagi; atzo berak goratuten ebazan gizonak alde batera baztertu eta euren esanai belarriak itxiten ikasi dau; atzo berak goretsiten ebazan gogaiak gaur oinperatzen doaz, gogai eta elburu arretan euzkeltzaletasun eta abertzaletasunaz ezkultura espāñar zaletasuna eta batez be bakaldun maitasuna ikusi dauzalako. Eta euzkotarrak ezin lei bakaldun maitasunik nabaitu askaltasun eta euskatasun-zaletasuna oinperatu barik.

Igandeko gurendea erriaren gurendea izan da, Euzkadi'rentzat itxartuten asi dan erriaren gurendea, Sabin'en didarra entzun daben erriaren garaitzea.

Igandez ezagutu doguz Euzkadi'ko alderdiak, egun orretan ezagutu doguz, baita be geure aberrian oindiñokarren bizi diran jauntxoak. Eta aberri zorionerako garaitza aurrean eurak be makurtu bear izan dabe, eurak be ikusi daroe euren agintaritzea amaitu dala eta biotz onekoak badira eta batez be zintzotasun izpirik euren biotz eta gogoetan nabaitzen ba'dabez erriaren aurrean txapela kendu eta bere naia ain argi agertu daben erri ori abestu eta goraldtu egin bearko dabe.



Igandeko gurendea ikusita ezingo dabe aurrerantzean atzerritarrak esan euren arteko idazle batek beiñola Euzkadi'tzaz esan ebana: Ementxe izan zan Gernika. Igandetik aurrera guztiak zintzo didar egin bearke dabe: Ementxe bizi da Gernika, ementxe bizi da antxiñako euzkotarren gogoia, ementxe dago euzko erria eta itz onegaz dana esango dabe.

Erriaren gurendean Sabin-gogoak euki daben indarrrik ez dagigun ukatu, naita Sabin gogoari gurenda osoa opaldu ez.

Beti lez bere gogoak, alderdi abertzaleak, erriaren aurrien zindo agertuten jakin dau, beti lez bera izan da bildur tieak pizkortu eta araudi gaietan itsuak ziranak argitu dauzana, bera izan da erria gurenda bidean ipiñi dauana, Euzkadi osoa Sabin-gogoaz argitura dagoalako.

Erriaren eta abertzaletasunaren gurendea abestu dagigun ba.

Baiña gurenda ori dala eta ez gaitez an arrotu, eguzki izpiak ez gagizala itsutu ezta txaloak gortu be.

Arrotasunak jaurti albo batera.

Igandeko gurendea geure bidea zabaltzen dauskun bidea baiño ez da, Euzkadi'n zorunaren ateak zabaltzen dauzan erri guraria.

Bidean gelditu barik aurrerantz asi gaitez an, eta jarraitu bildur barik, bertan idoroko doguzan eragozpen eta arantzei jaramon barik Euzkadi'n askatasuna idoro eta besarkatu arteraiño.

Aulan egiten ba'dogu igandeko gurendea sendotu eta geure itxaropen bakarria, askatasuna jaritxiko dogu.

ARTETA

# BIOTZ OPALBENA

[Euzko 2 (1933, 69. zk.) 2. (1933-11-25)]

Abertzale gitxi ezagutu dabez luditar aberriak.

Aberria benetan maite daben atzertzaleak esan gura dot: aberri negar eta zoritxarrak norbereak lez nergartu daroezanak; jazarpenetan esku artzen dakien abertzaleak; aberri-zorionarren euren zoriona galdu eta ezetsiten dabenak.

Dana aberria ezagutzeko alik ez dogulako edo al ori izan arren alaitasun, atsedean eta zorionaren al ori baztartuten dogulako.

Aberri-bidea latza dala ondo dakigu; negar eta illun asko sortuten dauzanik ez dogu ukatuko, ezta bide orretan eriotzea dakarren arantzeak idoroko daguzanik be.

Baiña gizaseme guztiok aberri bidea asi eta bide ori erpiñeraiño, tontorreraiño igo eta amaitutera beartuta gagozanik zentzundun gizonak eta batez be luditar bearkuna ezagutzen dabenak ezingo dabe ukatu.

Egi au, edo obeto esateko bearkunau argi eta garbi ezagutu eta bera beteten alegindu diranen zintzo eta errimienetarikoa Arana eta Goiri'tar Sabin Euzkadi'k izan daben [dauan] abertzale guren, Kistar zindo, adimen argi eta biotz bulartsua izan zan.

Aberri-bidea dan latza, baiña ezagutu ezkeroz bera dan alai-ederra!

Eta Sabin'entzat olantxe izan zala esango dogu.

Sabin'ek aberriarren jasan ebazan jazarpenak, berak egin ebazan negarrak, nabaitutako itunak, sentidutako atsekabeak eta igarotako samiñak, alaitasun batek alaituten ebazan, atsegin batek atsegindu, poztasun batek arindu, zorion batek zorundu: aberri-maitasunak edo obeto esateko bearkuna beteteak.

Eta gizon zindoa eta abertzale errimea zalako, beti goratu eta autortuten eban Euzkadi'ren betiko Jaungoikoa'ren laguntzeaz eta abertzaletasun sutsuaren indarraz poztarren asi eban aberri-bidea eta lirain igaro euzan [ebazan] bide orretan idoro ebazan arantza eta itunak.

Dana aberria ondo ezagutu ebalako.

Eta aberri-ezaupide orregaitik ez eben minduten egotziten eutsoezan iraiñak, eta bere Kistartasunatzaz gizaseme argalak egiten eutsoezan irriak eta ipinten eutsoezan eragozpenak be.

Berak adiskide eta arerio aurrean bein baiño sarriagotan adoretu agertu izan eban bere kistartasuna: mendien oiartzun bidez Euzkadi osora jaurti eta zabaldu eban dei itxar-korra Jaungoikoaren-bakar bakarrik luzatu eban; berak irazitako alderdia be Urtzi'ren elburupean ugutzau eban eta berak askatu gura izan eban Aberria Jaungoikoa'ri opaldu eutson.

Ala eta be bere kistartasuna zalantzan ipiñi eutsen euren buruak kistartzat ezagutu arren Kistar lagiak bein baiño sarriagotan baztartu ebezan zital askok.

Baiña Sabin'ek onei jaramon gitxi egin eutsen, gizaseme onein adimenak alderdikerriz itsututa egozala ondo ekialako.

Aberri ezaupideak bere maitasunetik sortuten ziran laztasunak arinduten eutsozan.

Aberria ezagutzeko zoriona daukogunok beragandik ikasi dagigun, bere zintzotasunean eredutu gaitezana.

Gaur, bere eriotzearen XXX'garren urteurrenean bere obitegirantz geure gogoak zuzendu eta antxe, illobi aurrean, biotz zitalkeri eta txikikeriok alde batera baztertuta bere bizitzeaz eta batez be bere abertzaletasunatzaz oldoztu eta auznartu dagigun, baita geure epeltasunak aztertu be.

Aberria ezagutzen dogu eta aberri orren maitasunean gartsutu egin bear gara.

Aberria benetan maiteko ba'geunke, zer ez ete geunke egingo beragaitik?

Zindotasunak eta gartsutasunak jazarpenak gaiñeratuko leukiguzala?

Jazarpen bako maitasunik ezagutzen ez danik, ondo dakigu eta mingostasun bako bearkunik ezagutuko ez dogunaz be eskier egon bear gara.

Baiña maitasunak jazarpenak arindu eta bearkunak mingostasunak alaituten dabezala be autortu bear dogu.

Gaur ba guztiok Sukarrieta'rantz gogoz zuzendu eta antxe, Irakaslearen obia jagoten datzan Gurutza deuna ziñaldari ipiñita, geure biotzat oso osorik gartsututa Sabin'eri opaldu daioguzan, berari opalduaz aberriari opalduko dautsoguzalako eta bera lako abertzaleak izaten aleginduko gareala eskiñi dagitsagun.

ARTETA

# GAZTEDI GARBIA

[Euzkadi – 1934-05-09, (6681. zk.) 10]

Garbitasuna; ara emen gaztediaren elburua.

Gogo zindoak eta biotz garbia dira Jaungoikoari eskatu bear geunskiozanak iñoan Goethe idazle argiak (Wils Meisters Wondersjahre, 1-10). [Wilhelm Meisters Lehrjahre / Wilhelm Meisters Wanderjahre]

Alan eta be... zoritar illuna! Gaztiok besterik oldoztuten dogu gogai zimel eta ustelez igituta gabiltzaz, onoinenen amildegian sartzen gara, barru-barruraino sartu be. Bide zuzenetik okertu gara eta bide ezezagunak aukeratu doguz geure jakin-min zoli eta urduria asetu gureaz, aragi goseak janaritu gureaz.

Jakin-mi ori asetuko ete dogu? Gose ori janarituko ete dogu?

Ez dakit. Gaitz da. Barrura sartzen ba'gara, oraindiño barrurago gurako dogu, askoz be barrurago. Eta geure gogoia beti keztatsu, beti urduri izango dogu, nai eta gurariak osozorik beteten es doguzalako.

Kezkatsu eta urduri lupetz artean ibilteko, loikerietan naspilduteko, bide-nabar zear joranez bidaztuteko, amestien itxaso zakar ori igaroteko...!

Eta, esango daustazue, aberri-izpiak argitu daben gaztedia, aberria jaurteko deitua dan gaztedia be alan dabil? Itun da agertzea, samin, latz, baiña lotsaren lotsaz agertu bear da: Olantxe dabil. Txarto esan dot. Oker nago. Ez. Ez da aberri kezkak nabaituten dauzan gaztedia olan dabillana, kezka orreik nabaituten dauzala esaten daben gaztedia biño.

Argi bako eguzkirik ezin lei, illun bako gaurik bez. Eta abertzaletasun bako abertzalerik gogaldu leike?

Euren garbitasuna igartuten daben gazteak, aberri-etoia dira, diño argi-argi Toth Tihamer jakintsu ospatsue eta gaztedi zuzentzalle iaioak.

Zergaitik? Loikeriak gizona, eta gizon bidez endea makaldu, auldu, endekatu eta gaixotuten daualako, loikeriak aberria ilten daualako.

Eta zelako etorkizuna ames dagike Euzkadi'k, gaztedi loi eta giriñatsu batetik? Ez bairik ez dago ba eta, diño len aitatutako idazleak, gaztediaren gaurko bizitzea erriaren biar-ko bizitzea dala.

Eta idazle berberak darrai: Abendeak zarragotu eta jarraitu bear ba'dau, geienez gaztediaren garbitasunarren izan bear dau.

Ori olantxe da, jardetsiko daustazue, baiña zelan iges eta urrundu loikeritik, zelan aragi goseak atzeratu, gaur ikusi, ikasi, entzun eta nabaituten doguna ori besterik ez bada?

Zelan? Bakotxaren naimenez.

Txina'n emakume bat neskutz ilten danean, bere gurasoak arranbel edo arku andiak jasoten dabez bere aintzaz, eta arranbelotan idazkun labur eta zorrotz bat iminten dabe, illa-en bizitza guztia agertzen dauan idazkun au: Choeng Dche. Naimen deuna, euzkeraz.

Demostenes'gaitik esaten dabe, beñola atzipetu gura eban emakume bateri erantzun eutsaela: Ez, nik ez dot orrenbeste ordaintzen gero garbai izateko.

Eta Euzkadin? Txinatarren oiturarik gure artean ba'lego, arranbelik jasoko ete geunke? Geure eta aberriaren garbaiak atzeratu eta ezetsiteke, zenbatzuk Demostenes'en erantzuna emoten ausartuko ete giñake?

Gazteak! Geu gara aberria. Aberria, len aitaturako Tihamer jakintsuaren aburuz, ez da mapetan ikusten dan lur-zatia, ezta mendi eta aranen erreskadea. Aberri-azia gaztedi-odolean dago; odol ori jaboten ba'da, aberria aziko da.

Idazle ziñesge batek idazten dau: Aberria maite ba'dozu, bere etorkizunak ardura-tzen ba'zaitu, zeure zanetan darabillan odola maitatu egizu, gaztedi garbia gurtu egixu.

Gaurkoz matxiñada guztiak gaztedian oiñarrituten dira, beragan indartzen dira; laterri guztiak gaztediari begiratzen dautsoe eta batek baiño geiagok euren gaztediak Jaungoikotzat etsiten dabez. Doitxerria, Italia, Rusia... gaztediaren laterriak dirala esan geinke. Eta Euzkadi?

Euzkadi'k be gaztedian ditxaro. Arrotzagaz dagigun guda gogorrean, gaztediak izan bear dau guda-aurrea. Nok irabaziko ete dau? Ezbai barik, Euzko-egiak. Kisto'ren itzak goznartu dagiguzan: Egiak askatuko zaitue.

Bouillon'dar Godofredo'tzaz diño, bere arerioaren gorpua ots batez erdibitu ebanean, eskua jaso eta oju ebal: Esku au loikeriz loitu bagea da.

Eta Skander Beg'ari garaitza ondoren bere ezpatea eskatu eutsenean, jardetsi eban: Ara emen nire ezpatea; baiña nire indarra ez dago ezpatean, eskuan baiño, eta ezta eskuan be: neure odol garbian daroat.

Euzko-gaztediak beste orrenbeste esan al izango ete dau garaitza ondoren? Gaztiak itz begie. Nik bakar bakarrik ainbat aldiz izentautako Tihamer errimearen esakun bat argi-tauko dot: Garbitasunaren ikurrin-plan batzaldutadize: orduan aberri-etorkizunak ez nau artegatuko.

Oarra. – Errez zaleak asarratu ez daitezcan itz batzuen atzalgarriak imiñiko doguz. Elburu, fin, lema. “Amildegí”, torrente, vertiente. “Lupetza”, lodazal. “Jaurri”, gobernar. “Etoi”, traidor. “Endekatu”, degenerar. “Atzipetu”, engañar. “Garbai”, pesar, dolor. “Siñezge”, pagano.

ARTETA

# ABERRI-ZIÑOPEAK. GARAIZABAL

[Euzkadi – 1934-07-20, (6743. zk.) 10]

Askatasun! Askatasun! Ez zara nik ametsetan  
ikusi zebazan neskutz eder, zuriz estaldua.  
Ez zara ez, oskarbi izarra lez, bizitzako ezkutapenak  
argitzen dabezan jaungo[iko]tasun gurena!

Olantxe abestu eban askatasuna espāñar olerkari bigun batek, Nuñez de Arze olerkari samurrak. Askatasun! Zenbatzuk zeure babespean ezkutauten diranak Juda'ren musua damotzue! Ezaguna da Benson jakintsu ospatsuaren esakune au: Guztiok darabilgu ezpanetan, noizbein emoteko altasunaz, Juda'ren musua. Olantxe da. Oraindiño egun gitxi, askatasun, ementxe, Euzkadi garbi onetan, antxiña zeure bakaulki izan zan erri onetan, gizaseme anker batzuek, zeure izenez, zeure aintzalbeneze, euzko bizi jori bat ebagi dabe.

Barriro be, Euzkadi, maitasun-odol gorriak zeure lurak gorritu dauz, zeuk ames dagizun askatasunaren izenez. Chesnelong'en irakatsiz, gizonen aurrean tinko agertzeko, Jaungoikoaren aurrean belaunak makurtzeko eskubidea dan askatasun ezezagunaren izenez!

Ixildu gaitzezan, askatasuna itz eta itz! Leun bigunekaz ez da goratu eta abestuten, egikun eta biotz agerkun zindoekaz baiño-eta.

\* \* \*

Euzkadi, maite zaitut! Euzkadi, gurtzen zaitut! Zorioneko zara. Ez egizu, ez, negar zeure semeen odolik. Legortu malkook! Zeure semeak itxartu dira, esnatu dira; zeure semeak maite zaitue Euzkadi! Bai. Laga dabez koldartasunak, baztatu dabez bildurrak; pozarren jatortzuz zeure oindira euren odol gorriak, maitasun-odolak, zeure askatasunarren opaldu ten! Zetarako aitatu? Zetarako zenbatu? Ainbat dira...! Eurak geure oiñarria egiten dabe. Olivied idazleak Doibatz edo Eleizeatzaz jardunaz diño: Eleizeak ez dau oiñarri bearrik ama dalako; baiña oiñarri gogor eta iraunkor bat bear ba'leu, naikoa litzakez onetarako azkeneguna itxaroten datzazan bere jazartzaleen illobak. Nik, zeure semerik koldartien onek, Olivied'en itzak artuaz dirautsut: Euzkadi, ez dozu bear oiñarririk ama zarealako; baiña oiñarri gogor eta iraunkorrik gura bazeunke, naikou litzakez orretarako azken eguna itxaroten datzazan euzko-ziñopen illobak.

Zer uste dabe eurak? Bizitzak ebagiaz, bizitzak erailduaz, aberria erailduko dabela, aberria amatauko dabela? Olan uste ba'dabe, orretara oldoztuten ba'dabe jakin begiez Flavius'ak kistartasunaren lenengo aldietan erromatar agintariei arpegira jaurti eutsoezan itzok: Ilten ba'gabez [gaitue] be, bizi gara; ez gara eriotzearen garaituak, eriotzearen garaitzaleak baiño. Arro-arro euzkotarrok itz berberok diñoguz. Ez gara eriotzearen garaituak, eriotzeak ez gaitu ixildu eta ustelduten; ludi-eriotza gain gagoz; eriotza menperatzalleak gara; bere garaitzaleak gara.

Geiago oraindiño: geure artekoen gorputz-erailketak, euzko-gogoen itxart-zale bizienak izango dira. Ziñopen odola igozatsua dala ondo dakigu.

\* \* \*

*Consummatus in brevi explevit tempora multa*, irakurten da Idazki deunetan [Jak. 4, 13]. Arin amaituaren aldi luzea bete eban.

Ez zan gure gogaikide. Tamal dogu, gogaiok on eta zuzenenak diran uste zindoaz bizi garealako. Baiña aztu dagigun... Abertzalea zan! Euzkotarra zan! Geure anaia zan! Eta anai lez, bere eriotza ariña negartuten dogu, bere zorionak donoki zorionak alaituten gauzan batera. Eta iñartzi gaiakoz. Berak beste euzkotarrok egin ez doguna egiteko zoriona izan dau. Aberriak bere odola opalduteko zoriona izan dau. Idazle batek idatzi izan dau: Ez da ezer emon, dana emon ez dan arte. Zuk Garaizabal, dana emon dozu. Gu maitasun utsaz gogaituten gara; maitasun epel azaletikouaz. Zuk gorago jo dozu. Odola emon dozu. Aberriari oso-osorik eskiñi zara. Guk illunaldidun abertzaletasuna dogu. Raul Plus'ek esango leuken lez: gurtza-abertzaletasuna, abertzaletasun aldartsu, Chabot'ek esango leuken lez. Zuk gorago begiratu dozu, zuzenago ibilli zara, aberri-izarretara begiratu dozu. Zoriondu zara!

Baiña zeure zorionean ez dagizuz aztu. Euzkadi'ren Jaun bakarra dan Jaungoikoaren gentzan, Euzkadi'ren zorionaren arren egizu; bere askatasunaren eskatu egizu.

Olantxe ditxarogu emen bean aberri zoritxarra negartuten geratu garan seme anaiok. Agur.

## ARTETA

Itz-atzalgarriak: "Neskutz", Birgiña; "Ozkarbi", zeru garbia; "bakaulki", tronua; "tinko", firme; "izki", letra, "oindi", altara; "eraildu", asesina; "ziñopa", martiri; "opalben", eskintza; "gogaikide", ideadun; "donoki", zerua; "iñartzi-izan", envidiar; "gurtza-abertzaletasun", patriotismo cultural; "abertzaletasun aldartetsua", patriotismo intermitente; "txiro", beartsu, pobre.

# GAZTEDI-GIZAKUNTZEA

[Euzkadi – 1934-08-28, (6776. zk.) 12]

ARTETA

Asko idatzi eta itz egiten da aspaldiz gaztediaren gizakuntzeari buruz. Gizakuntza orren biurkuna guztiak ezagutu eta autortuten dabe. Baiña zelakoa izan bear dau gizakuntza orrek? Zein eratan erakutsi bear da? Zein elburu gaiz? Bakotxak bere irakatsi, gogai eta elburuai buruz erantzuten dau. Askatasun osoz, oiudagie batzuek. Baiña, zein eratako askatasunez? Or dago akatsa. Askatasuna be bakotxak bere begiz ikusi eta neurtzen dau. Bakotxarrez, goratuten dan askatasun berbera izaten da geure gogaiak eta geure amesak eta elburua itzaldtu eta txikituten dabena [dauzena]. Egokiro, zoriontsu eta olerkitsu agertzen dausku Chabot franzetar idazle argi baizxen ospatsuak askatasun ondoren au. Ara bere atal-txu bat: Askatasuna! Itz lilluragarria, usaindun itza. Askatasuna!... Gazteen adimenetan zorotasuna sortuaz igaroten da, bere atzean amesak zurbilduta eta gogaiak txikituak lagaz.

Gaztediaren gizakuntza au uskurtzgea izan bear dala erakutsi eta zalbaduten dabe askok. Bestetzuk gaztediaren gizakuntzean biotzari bakarrik begiratzen dautsoe; ugarik adimenari bakarrik. Adimena gizatu bear danik ez dogu ukatuko, biotza gizatu bear danik bez; baiña gaztedi-gizakuntzean zindoen gizatu bear dana, ardura eta begiramen geien eskatzen dabena [dauana], gogotsu eta zolien gizatu bear dana, bere gogoia da. Faulhaber janzkordunak, Munich'go gongotzain agurgarriak iñoan: Gazte-gizakuntzearen bizia, gogoaren gizakuntzea da. Geienok, zoritxarrez, tamalez, gogoaren gizakuntza au baztartuten dogu. Gizadiak jaubetu dan guzurrezko askatasun zalekeriak jo gauz [gaitu]. Egiz, askatasun zalekeria, barriz, arrokeri eta norberekeri ustela dirala esan geinke gizasemeen biotzak urratu eta eurekaz kutsatu dan zalekeri au. Zalekeri ori bide arto eta lelotsu agertzen gara. Siñismena ba'dogu, esan daroagu, zetarako ba bear dogu geiago? Geure kistar eginbearrak bete daroaguz, zer geiago eskatuten jaku? Olantxe oldoztu eta pentsetan dau gizadiak. Beste zeregin eta gai batzuk sakon eta bearrezkoagoak dira beretzat, bere bizitza osoan eurari eutsi eta eurentan alegintzen dalako. Baiña gogoaren gizakuntzea? Oi, ori... Emakumeen biguntasunari obeto jaoko gizonen itzaltasun eta sendotasunari baiño.



Pasteur jakintzale ospatsu eta errimearen esakun zoli eta zindoa gogoratzen jat. Asko ikasi eta oldoztu dodalako, iñoan berak, bretoniar gizon baten siñismena gorde dot; geiago ikasi ita oldoztu izan ba'neu, bretoniar emakume baten sinismena eukiko neban. Agerkun argi eta bioztuna, Euzkadi'ko gazte geienok, arrokeriz puztuta uskurtzari ardurage begiratzten asi garan geienok, geurenez oldoztu eta gogartu bear geunkena. Ganera, siñismena bizi dogunik, ez dogu ukatzen. Eta siñismen bizitza onek, ez ete dausku ezer eskatzen? Bizi dogun guztiak, janaritu, egokitu, eta osotutea eskatzen dau. Siñismena bizi dogu, autortuten dogun lez. Siñismen ori janaritu, egokitu eta osotutera beartuak gagoz ba. Siñismena, iñoan len aitaturako Chabot'ek, ez da gogo barruan eskutuan datzan ontasun elkorra; siñismena ekintzaran oiñarria da; geure gogoaren bizia osotzen dauan barrutiko igikunean nas-tauten da.

Gizadia, gaur, uskurtz-gizakuntza umezurtz agertzen jaku. Katolikoan artean be, bear-bearrezko diran jakingarrien jakingetasun zaratatsu eta lotsakorra nabaitzen da. Eta jakingetasun onetatik makaltasun eta biguntasun argala agertu eta sentiduten da geure artean. Rubbens, belgikar aldunak diñosku: Euren irakatsiak eutsiteko makaltasunarren, katolikoak, bein baiño sarriagotan, arerio taldeak loditu eta ugaritu izan dabez. Geure margoaren itzaltasunean, askotan arerioen margo antza artu dogu. Eta ori, norberekiko eta gizatze-arekiko bizitzeari jaokanez, irakatsi eta elbururik eder, zindo eta egizkoena daukogularik. Augaitik, darrai berak, ez da iñoz be bear aiña lanik egiten eta egingo gaztediaren gizakuntzearren.

Norbaitzuk bildur dira. Gaztetasuna lizunkeriarena da, diño; berari lotuta dago; ezin lei ba bera uzkutza gaiekaz janaritu, ezin lei bera gai onetan sendotu eta gogotu. Olan ete? M. Saralegi irakurri dagigun: Gaztetasunak lizunkerira joten dau, ezin dagikegu ukatu; baiña egia da baita be, eta oarrikaspenak ez dausku lagako guzurtatzen, gaztetasunean indartsu eta bizien nabaitu eta sendiduten dala gure eder, garbi eta anditasun-maitasuna.

Luzeegi goaz. Beste baten jarraituko dogu gai oneri buruz.

## EKANDU ARROTZAK.

[Euzkadi – 1934-09-04, (6782. zk.) 12]

Oldazne'ri

Tontor-bidean sartu gara. Astiro, geldi, nekez, baiña bagoaz. Bidea asi ondoren bide biren aurrean aurkeztu gara. Latza, estua, neketsua bata, tontorrera daroana. Zabala, nasaia, atsedentsua bestea, tontor ondora daroana. Bide bi orretan banandu gara bidazkariok. Arantza bidez zear batzuek, zuzen tontorrerantz, tontorreko aize garbi eta ikuskantz ederrak arnastu eta ikusteko asmoz. Atsegin bidez besteak, aize garbi eta ikuskantz ederrak baiña atsegin eta nekerik eza maiteago dabenak. Bitzuk elduko dira euren amaira. Eta au zoritxarra. Atsegin bidekoak tontor ondora elduta euren berogarrizat otak erreko dabez, eta ota orreik jaurtiko daben keiak, tontorreko bidazkari neketsuei ikuskantz ederrak illunduko dautsoez eta aize garbia loitu. Ulertu daustazu, Oldazne biotzetiko?

Euzkotarrak geure aberria askatu gura dogu. Aberriaren zorionarren diñardugu. Eta zelan askatu dagikegu aberria, euzkotar berberok, abertzalerik geienok, geure ekandu garbi – osasunkorrek baztertuz, atzerritar oitura loi-gaixoak ekarri eta erabilli ba'daroaguz?

Zelako askatasuna gura dogu? Arrotz ekanduak oiñarrizat daukazan askatasuna? Ekandu jopuen gain irazitako askatasuna?

Ekandu arrotz asko dira Euzkadi'n. Baiña erritarrena, sartuena, dantza lotua. Elburu bikotxa dogu: Jaungoikoa eta Lagi-Zarra.

Jaungoiko-zaletasunak dantza ori ezetsi eta baztartzutera beartuten gauz [gaitu], gizonen griñak igitu eta lizunkeria suspertuten daualako. Lagi-zarrak be dantza ori ezetsi eta baztartzutera beartuten gaitu, gure asaben eta geure siñismen azpiratzalle dalako; geure oituren baztartzalle dalako.

Itun eta tamalgarri benetan, ene Oldazne. Euzkadi'ko enparantzarik geienak sugarretan egoten dira dantza orduetan. Atzerri-eresira joranez lotuten dira neskato-mutikoen gorputz lizunak, eurak ospetasunez goratu eta txalotuten daben Jaungoiko eta Lagi-Zarra deuseztuten. Txistu zoliaren eresi alaira, barriz, geienak baztartzuten dira, o[rai]ndiño zentzunera eldu ez diran gatzetxu joriei eta beste "zoroen" batzuei lekua lagatearren. Eta bein baiña sarriagotan destaiñez begirutzen dautsoe dantza azkean diñarduenai, euren zorotasun eta deuntasuna arpegira jaurtitearren edo. Eta txarrena. Udal abertzale goragarri batzuen agindu txalogarriz uri batzuetan eresbatzak euzko-dantzaketarako joten daben eresira, aibat abertzale ikusi daroaguz dantza lotuan ekiten. Esan dodan au ez ete egia, Oldazne kutun?

Ori ikustean itanduten dogu. Nun dago baiña euzko-abertzaletasuna? Nun dira zuzengabekerien aurka bulartsu jagiten diran gazteak? Nun dira mendi-tontorretako Gurutz-euri-deunpean Jaungoikoa eta Euzkadi abestuten dabezan mendigoizaleak? Nun dira euzko-emakume zurbillak, euren otoitz sarrietan garbitasuna eskatuten dabenak? Nun Euzkadi biotz-biotzez aintzaldu eta goralduten daben euzko-erria? ¿Nun?

Atsegin aurrean burua makurtu dabe; euren zanetako euzko-odol gorria idargetu da; lizunkeriarri gurtza dagitse.

Baiña itanduko daustazu. Kalte egiten ete dautso benetan abertzaletasunari dantza lotuak? “Gudari” idazle bioztunak diñona irakurri dagigun: jolas eta atsegin ordu bi geure dantzetan idoroten ez jakitea; eta dantza lotuaren lupetz artean naspildutea, dantza lotuaren gurentasun eta edertasuna agertzea beste da; geure aberriaren menperatzallearen dantza arrotza aberkatzea lez da. Abertzaletasun taupada bakar eta bigun bat nabaituten ba’dozu, lotsakor eta otzan biurtuko zara dantzalditik etxera. Egi-egia, auxe. Eta berberak darrai: Dantza ori ezbai barik jazarkatzea, abertzaletasun elburuaren ezaguera zolia eukitea da; gizarasun, izakera eta naimena agertzea da.

Oldazne bigun: Noizbein siñestu eta mendu egi auxe. Aberria askatu gura ba dogu, ekandu arrotzak bastartu eta ezeztutea bearrezkoa da; euzkotarrak ez diralako; euzko-ekanduen azpiratzalle diralako; geure elburu donearen aurkako diralako. Ekandu arrotzdun Euzkadi aske, lore zimel eta igartu bat lez litzake. Ederra izan zanaren ezaugarri bat; geia-gorik ez. Arrotz ekanduaz Euzkadi aske, joputasun oiñarri ganean irazitako aberria askean litzake. Joputasuna askatasunaren oiñarritzat. Ori, Oldazne otzan, ezin lei.

Oar ekandu arrotz eta bereziki dantza lotuatzaz egin daustazun itaunari erantzuna.

ARTETA

# IDAZKI IDEGIA. ENDAITZ'ERI

[Euzkadi – 1934-09-14, (6781. zk.) 12]

Endaitz adiskide: Atsegiñez irakurri izan dodaz euzkel-gaiz izan dozuzan azkenengo izdazlantxu biak. Zeure eritxikide nozu. Oso-osorik. Euzkel-idazleok jostkereari buruz imintzen dogun baiño ardura geiago imiñi bear dogu. Erdel-zaletasun larregi ezagutu eta nabaituten da geure idazlanetan. Idazlerik geienok erderaz oldoztu eta erderaz eraturten doguz geure gogaiak. Ezin ukatu dagikegu. Lanen bat euzkeraltzeko erdel-“originaleko” itzik itz joaten gara, zeuk diñozun lez. Ezetz? Garbi dagonak arria jarti begi.

Itzen garbitasunak larregi ardurutzen gauz [gaitu], itzen garbitasunean guztia ba'le-go lez. Garbitasuna ba'litz lez euzkerearen osakai bakarra. Eta garbitasun ori dala ta, euzkerearen edertasun eta aberastasuna galdu eta ezerestuten doguz. Eta bakana! Euzkel itzekaz erderaz idazten dogu. Ez ete egia, Endaitz adiskide?

Iñoz baiño euzkera geiago erabilten da idazkietan. Abertzaletasunari eskerrak. Baiña tamalgarri benetan. Ainbat idazlan eta egitarau ulergatx egiten jakuz. Erderatik euzkeralduak dirana agiri-agiria izaten da. Erdel joskera edo “erderismos” puztuta etorten jakuz. Eta ori, lotsagarri be lotsagarri da. Izkuntzearen aberastasunik andiena jostkeraan dagola ikasi eta jakin bear dogu idazleok. Itz garbiak onak dira, joskera garbia erabilli ezkerero. Baiña itzen garbitasunarren jostkerea galdu bear ba'da, ezkutuan begoz itz garbiok. Itz garbien arerio nazanik ez begi iñok uste. Garbi-zale naz. Neure idazlanak ziñaldari.

Idazle batzarrrik egin bear ba'da, bertarako gairik jaso eta beiñena, diñozun lez, euzkel-jostkerea, euzkel-sintaxis. Ori baita be neure eritxia. Gai au batzarreratutea “zirika ibilteko asmoa” dala, “Etxekoa”k diñon lez? Ez dot uste. Eta zirika ibilteko asmoa ba'litz be, zer? Gai garrantzitsuagorik bai ete? Edo ikasle batzuen asarretxu batzuekaitik, euzkerearen osasuna baztartuko ete dogu? Idazle batzuk betiko ixildu bearke giñatekezala? Euzkerearen onerako izan ezkerero, poz-pozik. Idazleon txikikerien gain, euzkerearen osasuna dago. Min apur bategaitik, osatu al izanda, bizitza guztirako gaixo geratuko ete gara? Ori zurtasun-eza eta gozotasun neurrigabea agertzea litxake.

Augaitik, ba, zeure eritxia oso-osorik onartuaz, gai au idazle batzarrerera eroan bear dala uste dot.

“Etxekoa” idazleak, idazleon jostkereatzazko oker au bigundutearren, ezer ordaintzen ez dauskuen atxakia imintzen dau. Baiña ordaintzen ez dauskuelako, aske ete gara gura dogun lez eta euzkera-arauden arduragetasunez idazteko? “Etxekoa” idazle lagunak gai au azalduko ba'leu...!

Azketsi neugandik “Etxekoa” ganako igeskada au. Idazkiaren gaike uste izan dot. Zeure adiskide JEL'aldez.

ARTETA

# ¡GUDARIK EZ!

[Euzkadi – 1935-04-11, (6957. zk.) 12]

Norberekeri eta andikeriak ludia gaindu dabe. Gizonak arrotasunean gotor eta bekaizti agertuten jakuz. Arrotasun ori bide, ezin jasan daroe agintzarik; erriak ezin dira lagidi bat edo bestera makurtu.

Noznai agintariak baztartu, beratu eta ezetsiten dira; baiña baztartzalle, beratzalle eta ezeusle berberak izaten dira agintaririk zital eta okerrenetan biurtuten diranak. Orixe gaurko jokia, eta eguneko leloa gorrotoa, ikusi-eziña eta maltzurkeria. Bekoak goikoari; orobat goikoak bekoari. Eta beti alkar atondu eziñez, eratu, ulertu eta ezagutu eziñez. Norberekeri eta andikeria errudunak. Eta gizonak andikeri eta norberekeri au giza mallatik gorago luzatuten dabe; giza agintaritzatik, Jaungoikoti-agintaritzara zabalduen dabe, geure Egillearen agintaritzaz bidezko eta zuzena baztartu eta ukatuaz. Gizonak aske, diño: gizonak gizonen Jaungoiko; gizonak gizonen agintari bakarrak. Aulan Diotzgen'dar Joseba'ren irakatsiak beteten dabez.

Baiña Jaungoiko barik ez dago maitasunik, bildurrik ez dagolako; ez dago zuzentzarik, egiari biderik emoten ez jakolako.

Arrigarririk bai, agintariak, zuzenotoz, asarrez, bekaitzez eta zipozkeriz jota ibiltetik, maitasunaren Jaungoikoa artu eta baztartu ba'dabe?

Arrigarrerik bai, agintariak, zuzentzearen Jaungoikoa ezetsi daben agintariak, euren menpekoak jopu-antzo erabilteak.

Eta arrigarririk bai, laterkideak eten bako matxiñadetan nastauta jokatzek, laterrien ondasunak mirrindu, indarrak txakildu, lotsea ezereztu eta gentzea guzurretsiaz, laterkide orreik agintaritzearen Jaungoikoa gorroto eta alderatu ezkeroz? Ez. Onoimen gogorak eta ugari bear dira menpeko izateko; geiago agintaritzarako. Eta Jaungoiko barik ez dago onoimenik: bildurrik eta lotsarik eta maitasunik ez dagolako.

\* \* \*

Gizonen gaixoak laterrien gaixoak izaten dira; gizonen amesak laterrienak; bardin ekintza oro.

Gizonak norberekeriak jo ba'dauz, bidezkoa laterriak gaiz orrez kutsututea; andikeria gizonen jaube ba'da, laterriena be izango da.

Itxartu begiak: begiratu ludirantz; zabaldu entzumena: entzun laterrien jardunak. Zer dakusgu? Zer dantzugu? Esan bearririk ez dago.

Eta gaitz orren zuzenbide lez, gaixo orren osakai lez, itz bat entzuten dogu: Gudea. Norberekeria eta andikeria asetutearren, gizonak asarratu eta leoiak letxe burrukara jaurti gura dabez; gizonak giza odol artean iltzez narrastuten ikusi gura dabez. Gudean ituna, atsekabea eta negarra janari dira; odola edari, eriotzea loa.

O[rai]ndiño bizi dagoz lengo guda itzalaren ondorenak; eriotzetatik gaizkatu ziranak, granadak birrindu eta trixkatuta dagerkuz. Eta barrero be...

Asiko ete da gudea? Ez dakigu. Laterri asarreak azaletik gentza-maitale agertu gura dabe. Barrutik...

Napoleon'en edestiak agertzen dauskun oroigarri eder eta zoli bat gogoratzen jat. Genova uria alderatu edo sitiau eben gaiz idatzia dagon antzertiño baten, austriar aldun bat ikusten da jakiz uts dagon uri orretan sartzen. Makurtu zadize [zaiteze], diñotso Masena gualburuari; ezer ez dozuela ondo dakigu.

Oker zagoz, darantzutso Masena'k. Ez jaku ezer paltau. Nor da emen gose? Eta alboan daben [dauan] biotz luzedun gudarizar-iger bateri zuzenduaz, itanduten dautso: Zindo eta argi mintza zaite: gose zara?

Ez, ene gualburu, jardesten dautso gudari igerrak. Baiña bereala, gosez arrakalautta, konorte barik lurrera eroriten da.

Laterrien azaletiko gentza-itzak ekintzetan egi biurtutea gura geunke. Itzak, ekin-tza barik, Goizparkiko ikuaren irudiak dira.

Baiña bildur gara. Arrokeria eta norberekeria izaki bategan oiñarritu eta sustraituten diranean, gaitz izaten da norberekeri eta arrokeri orreik baztatu eta ebagitea. Gatxago gaixo orrez jota dagozanak maitasun iturria dan Jaungoikoaren agintaritzta eta bildurrari jaramon barik bizi ba'dira.

\* \* \*

Laterriak asarre biziz: guda zaratak or eta emen; norberekeria eta andikeria nagusi. Zarata orrein artean gizon bat, ule zuridun agura igar bat, biziro eta goranez gentzea erakutsi eta eskatuten: Doipurua.

Anai arteko gudeak min damotse Eleizeari: gudaetako trixkantza ikaragarriak Eleizearen biotza urratu eta naigabetuten dabe. Zelan ba ixilik jasan eta gentzea irakatsi barik igaro? Gentzea lenengoz eta gentzea beti; baiña gizonak itsututa, laterriak zoro-antzo gudara ba'doaz, "Nastau, Jauna, gudea gura dabenak". Auxe Doipuruaaren eskari eta arrena. Orixe baita be geurea. Katolikotasunarren, Gizatasunarren!

Gudarik ez!

ARTETA

## EKINTZA

[Euzkadi – 1935-10-24, (7123. zk.) 12]

Egin? Birrindu? Sortu? Auts-egin?  
Ez dago ardurarik. Geldik egon ezik...!

Auxe da ludiko gaurko berezitasuna. Geratu barik ibilli, ezkerretara edo eskumatarara, onez edo txarrez, zuzen bidean edo okerrean. Baiña ibilli, ekin atsedean barik, beti kezta-ti, urduri, joranez...!

Gizon gelberak, makalak, koldarteak ez dira gaurko egoki; zazpiki eta urduriak dira nagusi.

Laterri guztien ikurriñetan, alderdi oroen elburuetan: agintarien ezpanetan menpekoen agin tartean lez: ogasunez putzitutako aberats zabal eta nasaiaren jardun eta itzaldi baretsuetan eta goseak eta lanak eta sendiko kezkak zurbildu, leregin eta arrakalau daben langille bioztunaren jardunaldi bero, kezkatsu eta gogorretan: mendietako baso zabaletan eguzkiaren bero galda gordiñekaz izerdi lapatsetan atxurrari ekin eta ekin daragoien base-rritarren ezpanetan eta itxasoaren asarraldi gogor eta zatatsuei aurre emonaz eguneroko ogia itxaso orren gibeletik irabazi ezin daben [dauan] arrantzale lerdan eta aize zakarrez gorritutako bular gorridunen ezpanetan: ogasunen kezka barik, zatatsuei eta aundikiro gau nagiak lizun jaietan igaroten dabezan gazte gaixo aberatsak, eta zoritxarrari gibel egin eziñez biotz bakoan iguingarri eta nazkagarri kalerik kale, etxe guztiak zearkatuaz, ate guztietan bildurri eta negarka deiez dabillan agura zar jausia, edo maitasunez zoratuta bere seme-txu, gosekillarentzat maitasunarren ogi eske arrenka dabillan emakume txatxarrak; eta arro-keriz andituta, iñori ostuta izanarren be, euren amesen lurrak indarrez bereganatu gura dabezan laterri edo estadu amesteak, eta euren lurrak aldeztutearren eriotzara aurkestuten diran biotz jori guridun baltz sendoak ez darabille beste itzik, beste elbururik ekintzea baiño.

Ekintzarako bide eta lagunak? Ez dira arduragarri. Ekin ezkeroz...!

Erdel idazle bigun eta entzutetsu baten ipuin polita gogoratzen jat sarri. Castilla'ko uritxu baten emakume aberats bat bizi .ei zan, edestuten 'dau idazle aipatuak. Aberastasunaren lepoz, edertasun zoragarri batek begiragarri egiten ei eban; bere alaitasun biziak ortzargi; itz-jario laban eta eztituak atsegingarri, izate legun eta apalak guztien adis-kide, are biotz zindo eta leratsuak maitagarri. Baiña edestiko emakume ori arinkeri batek jota ebillan, ames batek zurbilduta; zorotasun batek erabillan; dantza zorotasunak. Aste osoa larri eta kezkatsu igaroten ei eban igandeari itxaroten; eta igande arratsaldean orduak luze eritxita urduri egoten ei zan erriko enparantza edo dantza lekuan soiñua noiz entzungo. Eta

soiñu eresia asiagaz batera gure emakumeak joranez eta sutsu ekiten ei eutson dantzeari, lenengoz idoroten eban mutillagaz ekin be. Adiskideak, zorotasun au txartetsita, arpegira esan eta adierazoten eutsoen: Adiskide, aberats zara, eder, ortzargi eta maitagarri; mutil ezkel, txakil, argal, tentel eta txiro oneikaz ez zenduke jolastu bear; gorago jo bear zeunke; zeure izate eta jatorriari begiratu bear zeunskio... Baiña emakume arin eta dantza zaleak arpegiko irribarre gozo eta eztitsurik galdu barik erantzuten ei eban: Eta zer niri? Dantzan egin ezkeroz...!

Ludiaren antzirudi zuzena dogu Castilla'ko emakume lerden au. Ames eta arinkeri bat ludiaren jaube: ekintzea. Ekintzarako bide eta lagunak? Edozein eta edonortzuk. Ekin ezkeroz...!

Eta ekintza zaletasun au bide jazokunik arrigarrienak ikusi daroaguz, nasterik gogorrenak susmau; gizonen artean zaletasun eta elburu ugari eta alkartu eziñenak oartu. Batzuk zuzen doaz; besteak okerretik lokatzen dabe; arantzagokoak okerrago. Eta gizonak, euren zaletasun onen menpeko, euren arinkeriaren otsein, euren ekintza-zaletasunaren jopu, gudeak egiten dabez; indartsuak makalak menperatuten dabez, aberatsak txiro edo beartsuak zapaldu, ugazabak langilliei ler-eragin, andiak txikia oinperatu. Baiña ez luzaroko. Makalen eta txiro edo beartsuen eta langilleen eta txikien ekintza-miñak be noizbein garaituko dabe. Eta gaurko indartsuak makal biurtuko dira, aberatsak txiro, ugazabak langille, andiak txiki. Eta oneik bere ez luzaroko. Ekintzeak laster eragingo dau barriro be aldaketea. Eta aipatuak len baiño zitalago, okerrago, gaiztoago jarraituko dabe. Gizonen arteko berrekintza guztiak, berjagipen oro okerrak izaten dira; okerregi. Aulan indar-agintaritza bateri naste eta anarkiak jarraituten dautsela ikusten dogu; erabat Erti, jakintza eta abarretan bakotxari jagokozan berezitasunetan.

Gizatasuna ez dago lo egiteko. Makiñen indarrak gizonen izateetan be indar egin dabela esan leike. Gizonen lotsagarri litzake izan be berak asmau, sortu, moldatu eta egiñiko izaki batzuk berari gain egitea; izaki orrein menpean beratuta eta kikilduta egon eta bizi bear izatea.

Gizonaren izatearen beragarri litzake bere ekintzeak eralduriko makiñearen ekintzeak gizatasunaren ekintzea menperatu eta beregain agertzea.

Ekintzea bear bearrezko da. Nai eta naiezko. Baiña geure ekintzak zuzenduten ikasi bearrean gara, bide zuzenez jokatu al izateko.

Zetarako gura bestela ekintzea geure kaltegarri izango ba da?

ARTETA



Ludi zear gar biziz zabaldu, ugaritu eta lodituten doan langille batza zuzen eta ereduaren izena dogu au. Gaztedi langille katolikoa adierazoten dabe iru izki edo letra orreik. Langile gazte guztiak alkartu eta batu; gaztedi langille ori zuzentasun bidean sartu; langille katoliko guztiak Goizparki edo ebangelioko irakatsietan zindo eta zeatz oiñarritu, argitu eta gizatuz. Argi bakarraren bidean sartu, bidaztu eragin, ibilli eta azken zorionera erroteko sortua da bazkun au.

\* \* \*

Gerotxoago Cardyn aba agurgarri eta ospatsua izan bear ebana bere jaupa-gintza edo abadegintzarako ikastaroak amaituten egoan. Laster, aldi gitxi barru, zorion eta aintzaz beterik aldarara igoteko zan lenengo jaupa egin eta abestuten. Baiña egun pozkarri eta zoriontsu orreik illundu eta mingostuten izpar itun eta negargarri bat eldu jakon. Bere aita, langille sendo, indartsu kezkatu eta ona gaixorik aurkitzen zan, txarto arkitu be. Berealako baten eskuratu eban urrutidatz edo telegrama batek etxera dei egiten eutson. “Aita ilten, erdu laster” iñotson urrutidatzak.

Ludi bizitzara sartzen asten zan gazte adoretuaren eta ludiari betiko agur egin agiñean egoan langille bioztunaren arteko azken jardunaldia jardunaldi garrantzitsu eta astuna izan bear eban. Aita gaixoak bere azken eskaritzat semeari egin eutson arrena, langilliekaz arduratu eta langilleen adiskide izateko agindua izan zan. Izketaldi aretantxe jaio zan Cardyn gaztearen biotzean geroago ain zarata andia sortuko eban bazkun gazte eta itxaropentsu au.

Bazkun onen asmo eta amesak zein diran? Cardyn abak Belgika'ko gaztediaren artean zabaldu eban agirian iñoan “Gure anai gazteak, ikastola adiña amaitu eta euren aurrerantzerako zeregin eta lanbidea aututeko orduan, ez daitezala bakarrik geratu gura dogu lan aukeratzeak ondoretuten dabezan ainbeste oker eta zoritxarri emon eta lotuak. Langintzako geure anai arreba diranak euren osasun, onoinen edo birtute, gaztetasun eta gizakerean ondo ikasi eta gertuak izan daitezala gura dogu. Maitale-gai, emazteki eta amagai langilleak ez daitezala arkitu gura dogu laido, irain eta jenteen ezazotasunari emonak. Langille gaztedia onago, kistarrago, gertuago eta zindoago egin eta biurtu gura dogu”.

Elburu edo idealaren zindotasun eta altasunari akatsik billatu ete leikio?

Belgika'ko langille gazteak J. O. C. bazkunaren irazkondearen amargarren urteurrena ospatu dabe igaro dan dagonillea'n Bruselas'en. Cardyn abaren irakatsiak goraldtu, aintzaldtu eta autortuten eun milla (100.000) gazte batu ziran, lenengo Laecken enparantzan 1'go Lopolda erregea izan zanaren oroiarriaren aurrean Malinas'ko kardenal agurgarriak egin eban jaupa edo mezea entzuten. Gerotxoago guztiak kirol zelaira zuzendu ziran. Bertan bi milla ikurrin ikusten ziran guztien aurrez aurre. Antxe Frantze, Holanda, Suiza, Portugal, Ingalterra, Dinamarka, Irlanda eta beste laterri batzuetako ordezkariak belgikar lagunei euren zorion egunean agur egin eta anaitasun laguntasuna erakutsi eta eskintzen. Leku berezian Belgika'ko eliz eta laterri edo estaduko agintari gurenak.

Jai onetan egin ziran itzaldiak entzungarriak izan ziran, baiña gogoangarri Malinas'ko kardenalak egin ebana. Bertan, aurrean eukozan eun milla gazteei euren arlo eta zeregiña erakutsi ondoren Belgika'n dagozan bosteun milla gazteak ososorik eurekanatuteko bideak agertu eutsoezan.

“Geure lanbide eder onetan ainbat onurarik geien batu al izateko, iñoan kardenal agurgarriak, lenegoz eta bein baktxaren zuzentasun eta gizakeran gogotsu lan egizue; zabaldu eta argitu egizue ikasbatzetan zeuon ezaupideak; erriari itz egiteko ikasi egizue; zeuon uskeriak jaurti egizue eta kistar onoiemen ongarriei lotu zaiteze... Gauza guztietan lenenak izan zaiteze; langillerik onenak ekintzez eta izatez, gizonik zuzen, garbi eta agurgarrienak; kistar ereduak, beti zeuok siñesten dozuezan egiei buruz jokatu egizue, siñesmenean oso-osorik biziten zariela. Aulan zerturik zeuon indar eta izatea agertuko dozue edonun eta beti; erakarri eta ten egingo dozue zeuon bizitz garbiaren ereduaz; zeuon itz gozo eta biguna indartuko daben [dauan] goi-maitasun edo karidadearen garras siñestu eragingo dozue... Zeuon irakaskintzak lanbide lagunak dozuezan edozein tokitan sartu eta irarriko dozue, idazkola eta landoletan lez etxean, kalean, burtariñetan, median eta gudari-etxeetan...”

Eta gaztedi aldra lodiak Malinas'ko kardenalaren itzok txaloka eta oiuka agurtuten ebazan, gotzai agurgarriaren itzak onartu eta aurrerantz eroango ebezala adieraziaz. Eta jarraian gazte aldra lodi eta ugari arek, siñesmenez eta itxaropenez langille katoliko guztien abestia izan bear leuken abesti au abestuten eban: “Geure landolak osatuten aleginduko gara, eurak beste ainbeste txadonetan biurtuaz, eta euretan geure makiñen aldaraen gain, geure lan-ekintzako opalkia eskiñi eta zuzenduko dautsagu Jaungoikoari”.

Cardyn abak bere irakatsiekaz amar urte barru irabazi dabezan [dauzan] gazte adoretuak aurrera doaz; oindiño eurenganatu ez dabezan lareun milla belgikar gazteen biotz eta gogoak eurenganatzeta ospatu al izango ete dabe?

ARTETA

# OROIMIÑAK

[Euzkadi – 1935-11-09, (7137. zk.) 12]

“Agarel”en oroiz

Euzkel-baratzeko udabarriko lorarik gorienak igesi joakuz. Lora orreik edertasun, joritasun eta usain gozo eztiz inguratzen gaitue, eurekana geuk igarri barik eroaten gaituez eta eurei musu biguna emoterakoan atzaparretan orriulduten jakuz. Loraon usain eta edertasuna geure usaimenak gozatu eta ikusmenak oartu ez baleuz, amesetan inguratuta, irudipen jolasei emon eta lotuak gengozala usteko gendun. Baiña ez; agertuegi eta ezaunegi ziran lorok gu atzipetuteko; eta geure maitasuna ez zan itsuegi, maitasun argi eta oldozpen ondoren indartu eta egiña baiño, eurekaiño jarraitutean. Baiña udazkenagaz batera geure begien ezti eta geure maitasunen kutun ziran lora joriok geuk igarri barik orriuldu jakuz. Egunetik egunera joritu eta gurituten oartuten genuzan aldian orriuldu eta jausi be.

Lizardi eta Loramendi olerkari iaio, zoli eta errimeen eriotza gordiñak euzkeltzaleok negarrez itxi ginduezan. Euzkera ederra goratuten, beste ludiko elerti edo literaturen mallara geure elertia aupatuten sutsuen, gogotsuen eta zorionsuen ebiltzazanean; euren gaztetasun indarretik eta batez be euren gogamen eta etorri zoli, ugari eta gurenetatik euzkera-erentzat gurenda egunak itxaroten genduzanean, eriotzeak, illunpetan bizi dan segalari asarre eta ikaragarri orrek bat-batez eroan euskuzan. Eta o[rai]ntxe be geure inguruan erabilli dogu zoritxarreko eriotza ori euzkerearen adizkide, maitale eta langillerik errime eta bular-tsuenenetarikoen bat geugandik eroateko. Edonok esango leuke eriotzeak, euzkerea maiteen daben eta berari gogotsuen lotu jakezanan ludi bizitzak amatauaz, eriotza etoi geure euzkera bigun, gozo eztitsu eta mamintsu au, euzkotarrok sutsuago maitatu eta ugariago erabilli bear geunken euzkera txairoan; geure asaben oroipenarren, eta ziñesmen eta aberri ezaupide eta zabalgundearren maitale kutuna bai litzan zaindu, maitatu eta erabilli bear geunken euzkera garbi au, edonok esango leuke eriotzeak be beraganatu gura dabela [daua-la].

Lizardi eta Loramendi'ren utsunea bete baiño len, geure euzkeltzaletasunean egiñiko zauria zabaldu eta andituten igarri dogu eriotza ori “Agarel” gazte jori eta langillea geure artetik alden duaz. “Agarel”en eriotza ariñak itunez eta minkor laga gauz. Idazle ezagun orren lanak gogotsu irakurten genduzan: Bere olerki bigunak bein baiño geiagotan atsegin aldia opaldu euzkuen. Olerkari batzuen mallara eltzen ez bazan be, bere olerkiak ez dira baztartuteko. Olerkari askok pozik iminiko leuke euren izena, “Agarel” zanaren olerki batzuen oiñetan.

Euzkera garbiegi erabilten ebalako eta euzkel-berbetan berak erabilten ebazan berezitasunak bide askok ez eben ondo ikusiko. Baiña “Agarel” zintzoa uste onean eta euzkerearen maitasunarren bakarrik ebillanik ezingo dau iñok ukatu. Eta au edo origaitik bere idazkerea ez darabilgunok ezin daikegu ezetara be “Agarel” zanaren lanik ezetsi eta txartetsi. Euzkel izkerearen aberastasun ugaria baiño ez dabe erakutsi eta agertzen idazleon berezitasunok . Erriarentzat idatzi bear dala? Erriak errez errez eta neke barik ulertu al izateko eran idatzi bear dala? Egi zuzena. Baiña idazleren bateri idazlan garbi, sakon eta berezi bat egi-tea otuten ba jako, izkelgiren bateko idazkera eta mintzaera sarratu edo arindua agertu eta erabiltea atsegin ba jako zegaitik eta zetarako jarri eta iñardun mormorka, barriketan eta zeresan zentzunbakoei lotuta? Euzkel idazleok ez ete dogu beste elerti edo literaturetako idazleak dabezan eskubiderik?

“Agarel” zintzoak gai askori ukutu bear izan eutson, euzkerearen bide asko aztertu, ikusi eta agertu ebazan. Askok dabillenak okerrak eukitea miragarri ez da. Bide askoz zear ibilli bear dabenak bein edo bein bidea galdu eta erratutea arrigarri ez da; baiña gizonak uste onez dabiltzanean eta batez be maitasunarren bakarrik dabiltzanean begiragarri eta agurgarri dira. “Agarel” zanak aldirik ez eban galtzen euzkearerren lan egiteko. Une guztiak euzkerei eta aberriari eskiñi eta emonak eukoza. Beragaitik egiz eta egoki esan leike Eleizearen esakunean: *Consummatus in brevi explevit tempora multa* [Jak. 4,13]. Arin amaitu arren, aldi asko bete eban.

“Agarel” il da. Bizitzearen udabarrian il be. Bizitzeak dakarren laztasun, gogortasun eta neke-bideak igaro ondoren, zoriona agurka asi jakonean, eriotzeak ludi zorion ori ebagi dautso, betikotasuneko zorion eta gentzea bizi eta gozatzera bidaltzeko.

“Agarel”en eriotzeaz kistar siñesmenak ludi onetan jarraitzalle bero bat eta aldeztzale sutsu bat galdu dau, aberriak abertzale errime eta azarri bat: euzkereak biotz-biotzez maite eban maitale kutuna.

Goian bego “Agarel” zintzoa.

ARTETA

## Elerti-gaiz. URTE ONA

[Euzkadi – 1936-01-14, (7193. zk.) 16]

Euzkerearen eriotzea iragarri eroenak ostikada gogorrik artu daroe. Arrotasun eta itsukeriak ogutziriko itzak euzkera-maitalien ekintzekaz lainotuta geratu dira. Itzez motz eta ekintzez luze euzkeldunoi ezarri euskunak geure ezaupide zindorik ba'eban. Illeta eresiak arrokero eta negar irrutsuz jo ebazanak ostera, geure izakera gotorraren urrats gitxi.

Nagikeriari emonak, edo itsutasunez joak edo arrotzkeriz kutsutuak edo erdera-min lotu giñala-eta; itz batez: lo zorroan murgildu gareala eta beste barik illeta jo? Edozein gizonek eta edozer ekintzak ez ete dabez ba euren bizitzetan asperrune, nagi aldi eta neke arorik izaten?

Euzkerearen lo-arorik ezin ukatu. Baiña nok era batez bere itxarkunderik ezagutu ez? Eta itxartu-ala euzkerearen bizitasun eta zabalmiña ezin ase. Egazka erabilteko eta geure erriaren kolkorik eskutueneraiño eroango daben seme zintzorik ba'dau euki be euzkerak.

Ez dagigun atzerantz luzegi begiratu. Begirakada motz eta bigun bat amaitu dan urtera geure zeregiñerako naiko eta larregi izango da. Eta illeta jotzalle eta eriotz abeslariei itandu daikiegu: Nun datza, negar intziri eta uluka batzuek eta biotz lizun eta etoien irribarrez bestetzuk, illotzik abestu zenduen euzkera gaixoa? Zein obitegitan ete datza ainbeste zarata eta arrotasunez obiraldu zenduen euzkera ori? Zeuen biotz otz eta txikien illobietan nunbait? Olantxe bedi. Baiña guretzat zeuok il eta obiraldutako euzkerea bizi da; iñoz baiño sendoago bizi be.

Igaro dan urtea euzkerearentzat ugaria izan da. Gai asko ukutu izan dira urte orretan. Eta edozertarako euzkerearen gaitasuna sendo eta zeatz agertu dabe euzkel-baratzeko elertilari edo literato jakintsuak.

Lanaren laburpen mota bat egin daigun.

Olerti edo poesia darakusku goi-goian. Euzkel olerti aro aberatsaren erdi-erdian bizi gara. Olertiaren Urre-Aroa ez ete oraingo au? Euzkel olerkari benetan egiñik ba'dago oraingotan. Goi-mallan "Lizardi" eta "Loramendi" betiko atsedean dagien olerkari negartuak, euzkel-olertiaren aro onetan erti-lanik ugari opaldu euskuezanak leñen-lenengoz aitaturtea bidezko. Or Jauregi, "Orixe", "Lauaxeta", Zaitegi, Etxeberria olerkari gorengoak. Eurei otska eta tenka Jakakortajarena. Loidi, Lekuona, "Endaitz". Tapia eta abar. Eta ainbat loran, egunetik egunera osotuten, egiten, gurituten. Olerkariok eztirik ugari emon dauskue. Izparringi eta aldizkingi orrietan sakabanatuta ainbat; liburuetan txorta mardulak egiñik ez gitxi. "Lauaxeta" irudimen bizi eta zolidun, aitatu bear lenengoz aurtengo olerkari argitaldarien erreskadan. "Bide-Barriak"etan andiro eta ospatsu agertu jakun lenago; oraingo one-

tan xeago, ariñago, jolasgarriago, baiña olerki mamiñik galdu barik, len bezin olerkari, goimallatik jatxi barik malla orreri tinko eutsiaz eta gogorago indartuaz. Ludiko elertilaririk ospetsuenak jo daroen bidera sartu gura izan dau "Lauaxeta" argiak euzkel olertia. Txalagarri be txalagarri bere asmoa; areago bere lana, zindo, ben eta iaio agertu bai da bide orretan.

"Euskaltzaleak" bazkun langilleak, zazpikiak esango neuke, argitaldu daroan "Eusko-Olerkiak" en bosgarren zenbakia datorkigu ondoren. Zarauz'ko Olerti eguneko batzaldira aurkeztutakoak dira oraingoak. Liburu onetan irakurri daikeguz Zaitegi sarituaren olerki irudimentsu eta edergarriz josiak. Ala eta be "biurri xamar" tzat etsi izan dau kritiko edo maxiatzale guren batek. Zaitegi berbera errezagoo agertzen jaku "Eusko-artzaiarena" poematxoan. Atsegiñez irakurri daikegu "Orixe" ospatsuaren "Gure zizak". Eta "Endaitz" gaztearen "Errotazuri" arintsua eta "Neure aberriari" olerkariaren opalbena. Goi malletako bidea arin dabil adiskide barruko onek. Ortxe baita be Ormaetxea lekaide agurgarri, Ametzaga'tar Bingen, Muxika, Gaztelu eta Onaindia'ren olerki eztitsuak. Eta Loidi abade gaztearen "Orio'ko umezurtza" poematxu ezti, mamitsu eta biguna. Eder-zaleei atsegiñik naiko emongo dautse liburu onek.

Olerki liburu artean gogoan artu daigun baita "Beietatik zerura" "oxobi" goi aldeko idazle argi eta olerkari bioztunaren liburutxoa. Baita "Zumalakarregi poematxoa" Zubimendi jaunari zor dautsagun liburu atsegiña be. Bagilla'ko illuntze baten Donosti'ko "Euzko-Gaztedi" n giñan egillearen aotik poematxu au entzuten. Geroago liburututa ikusi gendunean poztu giñan. Olerkari onek idaztiño txikietan olerki mamirik ezkintzen ba'daki. Errez, errikoi eta ximendi jokutzen dau Zubimendi'k, erritar olerkaria bera.

Eta olerki liburu sail onetan sartu daigun Erreterria Abaren omenez bere adiskide batzuk argitaldu dabezan olerkari bigun eta ospatsu orren olerki samurrak.

Idazti oneikarren olerki gose gara oraindaiñotan. Eder-zale. Guri-min. Sartu garan urtean ase al izango ete gara? Igarotakoa bezin ugari izango dogu barri au. Askooz be ugariago. Ez bai barik. Ugari baizen goi eta eder izango ete da? Baietz uste.

Egunokaz "Lotsati" ren olerki liburu bati itxaroten gagoz. Maite olerkiak nunbait geienak. "Euskaldunak", "Orixe" gurenaren poema andia noiz elduko kezkatu gagoz. Muniategi'tar Sabin laster argitaltzeko dala ba'dakigu; "Lauaxeta" k liburu barriak aspaldiz iragarri euskuzan. Zaitegi eta Jakakortajarena ez dira ixil geratuko. Jauregi'k be ezin daike ots egin barik luzaro iraun. "Endaitz" gaztea argitaltze-asmoak jo dabe. Eta olerkari asko doguz o[rai]ndiño!

Iragarri zindoagorik al ete euzkerearen osasun eta geure elertiaren osokuntzearentzat?

(*Darraike*).

ARTETA

## URTE ONA

[Euzkadi – 1936-01-18, (7197. zk.) 12]

Itz-lauz igarotako urtean argitaldu diran idaztietatik zaratarik ugarien sortu dabena [dauana] “Pisia” izan dala esan geinke. Euzkerea jakintzarako gai ez dala autortu eroenak iru edo lau baserri-gai adierazteko baiño ez zala esan, agertu eta siñestu eroenak ez dira lirain eta egiti geratu Jauregi'tar Gabirel karmeldar lekaide edo pralle apal baizen jakintsuaren liburu onegaz.

Balmes entzutetsu eta ospatsuaren “El Criterio”, “Irizpidea” izenburuz Zinkunegi osalari argiak euzkeratuta irakurri al izan dogunok, eta Olabide Josulagun errimiaren “Giza-soña” esku-artearen erabilli dogunok euzkerearen jakintzarako gaitasun eta alik ezagutzen dogu eta sasi-jakintsuen esakun tentelok daben idazlanen barririk ba'dakigu. “Pisia” onek geure usteetan indartu eta sakondu gauz [gaitu]. Astiz, eroapenez eta maitasunez gaiak artu, ikasi, erabilli eta sakondu ezkeroz euzkerearentzat illun, gaitz eta misteriorik ez dagola erakutsi izan dausku Jauregi azkarrak. Itz barri edo obeto itz-naste eta osokuntza ugari egin bear nai eta ez olako liburu bat egiteko. Ainbesteren artean guztien atsegin izango ez diran batzuk egoterik ez da arrigarri. Karmeldar ikasmin orren liburu onek be ba'dauz batzuk. Izenburu berbera ez da euzkeltzale ororen begiko. Baiña itz-ezegokiok eta erdi-zeatzok ez dautse mamifiñik eta gunik makaltzen Jauregi'ren lanari. Txalo berorik jo izan dautse. Eta erriak arrera bizia egin dautso liburu oneri. Egilleak uste baiño lenago saldu da lenengo irarraldia. Onezkero Gazteiz'ko lekaretxe edo konbentuko gela zabal-txiroan Jauregi'ren adimen zolia geldi-eziña jakintza-liburu barriren bati lotuta egongo dala-eta gagoz.

Euskaltzaindi'ko lendakari ospatsuaren “Euskalerraren Yakintza”ren lenengo zatiak pozik ugari emon dausku. Lau zatitan opalduko dauskuzala eskintzen dausku egille argiak geure erri-jakintzeatzaz batu dabezan zertzelada oro. Lenengo onetan euzkel-otura eta siñeskeriak agertzen dauskuz. Besteetan ipuin eta irakurgai, esakune edo atsotitz, esakera, esakuntza amaikide, aurren izkuntza, mordollokeri, euzkel-gaitz, erriaren zendakintza, olerki, ostagikinde, mutiko-neskatoen joko eta kanta, igarkizun eta otoitzak agertuko jakuz. Euzkadi'ren baster asko zearkatu bear izan dauz Azkue jaunak liburu au osotuteko. Etxeriketxe eta baserririk baserri ibilia da. Oitura eta siñeskaiak entzun eta batu alako izkelgietan idazten dauz. Egillearen idazkerea bakarriz izkelgi guztietatik eraldu eta osoturikoa da. Idazkera onek aurrerapide ugaririk emongo dautsola diño euzkereari. Baiña berezitasun asko galdu-erazoko dautsozanik be ezin ukatu. Euzkerearen osokuntzara joan ezker, batasun ori egin ezker izkelgien aberastasun ugari galduko dira. Izkuntzen aberastasun oiñarria izkelgietan dago, Gabriel y Galán erdel olerkari bigun eta samurraren “Extremeñas”en itzaurre Maragall'dar Jon maxiatzale edo kritikiko ikasiak idatzi ebanik ez jaku iñoz be aztu-

ko. "Eritxirik ezagun eta erabilienak izkuntza baten zakartzat etsiten dau izkelgia; baiña ondo oldoztu edo pentsetan ba'dozu, izkelgia lur-ama dan erriaren aotik urteten diran izkuntzen geratu bako jarioa da; beragan jaio, beragan il, beragan aldatu, eratu, alkartu, berregin eta ibilten dira euren jatorrizko askatasun osoan. Erriak beti izkelgiz itz dagi; au da: aske, aldakor; eta izkuntza batek ala-olako zuzentasun edo osotasun arauz agertzeko izkelgien erriagazko alkartasuna baztatu eta ezetsi daroanean izkuntza ori bere edertasun miñean txikituta ilten da".

Lerro oneik bide ez dauzagu Azkue jaunaren idazti ederrari onoimen, gurentasun eta meriturik kendu gura. Ez olakorik. Azkue lako gizonen aurrean txapelak kentuz eta makurtu bearrean gara. Eritxi bardiñezak ez dira eragozpen liburu baten baliorik ezagutu eta liburu orregaz atsegin izateko.

Eguzkitza jaunak be txalo ugaririk irabazi dau bere "Giza-Auzia" dala-eta. Gizartegaia sakon aztertu dau abade jakintsu orrek. Gizarte gaizko liburuak eskatzen dauz gaur erriak. Gizarte-gatxez jota, gizarte amesak gainduta bizi bai'gara. "Ekin" asterokoan agertu ziran lenengoz liburu onetan baturiko atalak. Joskeraz urteko libururik aberatsena dala autortu bear Eguzkitza'ren liburu ori. Mamitsu, ben eta sakon jokutzen daki "Gizarte-Auzia"ren egilleak. Eta beti argi. Edonok ulertzeko erara. Bera lako idazle gitxi dauz euzkerek. Sarriago liburuak opalduko ba'leukuz euzkel elerti edo literatureak ez leuke gitxi irabaziko. EUZKADI onen ataletan bananduta dagozan "Emakume-bizitza"tzazko lanak ez ete dauz iñoz libururen baten osotuko?

Uzkurtz edo erlejiño gaietan Irazoiz-ko Polikarpa Aba eta Izurrategi'tar Jon agertu jakuz. "Yosu-Kristo gure Jaunaren bizia" idatzi dau lenengoak. Iraizoz Aba euzkel-elerti baratzean ezaguna da. "Zeruko Argia"ko idazle iaio eta ezetsu orrek olerkitsu erabilten daki bere idazkortza.

Izurrategi, Elorrio'ko txauburu euzkeltzalearen lanak "Urteko igande guztietarako Goizpar edo ebangelioak" daroa izenburu. Abadeentzako liburu berezia. Lanik asko aurre-ratuko dautse. Edozeiñez eskuetan goralbenak entzungo dauz Izurrategi jaunaren liburuak. Euzkera errez eta jatorra bai darabil. Eta gaiak be aspergarri barik labur eta egoki.

Zamarripa'k be ez dagi lorik. Aspaldi onetan libururik ugari argitaldu dauz euzkel-tzale amorr[0]tu onek. Oraingo onegaz barrerik ñaiko eragingo dautso irakurleai. "Firi-firi"ren irakurgai arin eta labanak, ipuin eta naste dirala diñosku egilleak, gatzik lar dabe. Eta idazle onen liburu guztiak lez erri izkera jator eta bizian idatziak dira.

Eta liburu onein artean Agirre edestilari gurenaren "Garoa"ren irarraldi barririk ez dagigun aztu.

Abade eta lekaideak irakatsi ederra emon dauskube urte onetan. Zintzo eta langille jokatu dira. Gaur aitatuten doguzan liburu guztiak eurei zor dautseguz. Txalogarri dira benetan.

(Amaitzeko).

ARTETA



## “GOIZ AIZE”

[Euzkadi – 1936-02-22, (7227. zk.) 12]

“Izadia, Lamartine’reu olertian entzunda, abestuten dakian gogoia da; Hugo’tar Bitor’eu olertian abestiari lagun dagitson erestalde edo orkestia”.

Laprade maxiatzale edo kritiko ospatsuak idatzi eban au egi zeatz eta arteza da. Olerkariak, olerkari on eta iaioak, irudipen amesez inguratu, josi eta ornidu daroan gaiari abestu eragiten dautso; bizitasuna irarten dautso. Eta olerkariak edo garraren indarraz gogoia (arimea) erakarri bear dau edo gogaiaren indarrez makurtu eta men eragin.

Olerkarien artean baiña sasi olerkari asko dagoz eta oneik olertirik ezaguten ez dabenuk ezin daikegu ukatu. Olerkari izatea gauza bakanak polito eta txairo esatean dagola uste dabenu ugari idoro daikeguz bazterretan. Amaikatu zorakeri eta barregarrikeri irakurten dira olerkari askoren lanetan. Cesar Cantu’reu edestiko orrialdetan irakurri daikegu: “Olerkari ospatsu bat zoro antzera illargiari oda bat egiten asi zan, kulatz edo puntu batek “i” izkiaren ganean argi egiten dabenu [dauan] lez, illargiak be kanpantorre baten gainean argi egiten dabela [dauala] adieraziaz”. Eta Cesar Cantu’k aitaturten dabenu [dauan] ori lako milla barregarrikeri eta tentelkeri irakurri daikeguz olerkarietan. Eurontzat Marin’eu esakunean:

*E de poeta il fin la meraviglia*

*Cbi non sa for stupir vada alla striglia.*

(Olerkarien elburua gurentasun edo arrigarria da;  
eta arritasunik eragiten ez dakiana zaldiak garbitzera joan bedi).

Olerkari izatea goitarra da. “Lauaxeta” zoliak “Goiz-aize”ren itzaurrean olerkitsu dager: “olerkariak esku artean zer daukan? Udabarririk ederrenaen usaiñak atz puntetan geratu jakoz. Beretzat Eder’ak autu daunaren begietan argirik bizienak dagoz. Zelako gorritasuna aren ezpanetan! Larrosa guztiakin mosuka ibilli ete jaku? Olerkariaren sentzumenak goiztarrak dira. Zador au ez daikie igarri guztiak. Soloetako lur apatzaren kolkoan datzazan azien erne-aldiko otsak eurak, be, entzun daroaz olerkari jaio danak. Nun egiten dabezan orrillako loreak? Berak bakarririk daki... Artotzaetan aize mea ibilli dabillan legetxe, olerkariaren ahapal artean be, goiko Arnasa dabil”.

Orixe da olerkari izatea ene irakurle. Labur. Olerkariaren zeregin bakarra: itzekaz edertasuna agertzea.

Edertasuna zer dan? Jakintsu askok definidu gura izan dabe. Ara ezagunenak: Procklo'k: "Izaki ederrean argi egiten daben [dauan] Jaungoikoaren edertasunaren izpia da edertasuna". Toma deunak: "Ederrak dira ikusiagaz atsegin diran izakiak". Baiñez"ek: "Adimen, entzumen edo argimenaz oartu eta gogoa erakarten daben [dauan] eskarra". Leon Hebreo'k: "Gogoa alaituaz maitasunera igituten daben [dauan] eskarra". Aristoteles'ek: "Ona izarrrik atsegiña dana, ona dalako". Augustin deunak: "Eratasunaren anditasuna". Mendelson'ek: "Ugaritasunean batasuna". Vischer'ek: "Idearen agerkun sentikorra". Carriere'k: "Ideaki eta sentikorraren batasuna". Tapareli'k: Ikusmenaren atsegin dana". Pilo'k: "Atsegin jakuna". Z. Gonzalez'ek: "Bear dan lez azagutuaz atsegiña sortuten dauskun izakien barruko ontasuna". Erokman'ek: "Edozelako osotasuna, osotutako lan oro eder diralako". Beste batzuk: "Osotasunean argitasuna". Eta luzatuaz ez nekatutearren ez daiguzan agertu Platon, Schiller, Hegel, Lemoke eta abarren eritxiak. Parkatu irakurle. Edertasuna zer dan eritxi orreitatik ikasi daikezu.

Olerkariaren zeregin bakarra edertasuna agertu eta abestutea dala adierazi dogu. Oraintsu agertu jakun olerkari gazte eta adoretu dan Muniategi'tar Sabin'en lenengo olerki-liburuak ederraren izpirik agertuten ete dausku? Olerkari ete da. "Goiz-aize"ren egillea?

Idazti edo liburuen kritikea egitea gatxa da; gatxago olerki liburu batena. Kritikoa olerkari izan ezik beintzat. Liburu bat ots-ots irakurtean ezin ukatu olerkariaren adimenberotasunak, biotzaren garrak eta irudimenaren bizitasunak erakarri, asmau eta abesturiko gogaiak indar eta bizitasunik galduko dabenik. Olerkarien liburuak zeatz eta zindoki maxiatu eta okerkariak esan gura ebana eta adierazi dabena ulertuteko, olerkari berberaren mallan egotea litzake egokien. Olerkari ez garanok eta batez be ardura barik liburuak irakurten oituak gagozanok ezin ba lan ori zeatz bete. Ala eta be al dogunik zeatzen geure azaletiko maxiaketa au egiten aleginduko gara. Eta lan onetan eztogu ezelako zalekeririk iminten.

Egillea adiskide ba'litz adidkidetasun orrek geugan zerbait eragingo leukenik ezin ukatu. Baiña oraingo onetan ez dago olako bildurrik. Egilerik ez dogu ezagutzen eta ainbat obeto geure zeregin au beteteko. Eta urrengo idazkian ekingo dautsagu zindoki lanari.

ARTETA

## “GOIZ AIZE”

[Euzkadi – 1936-02-27, (7231. zk.) 12]

Euzkel-liburuetan “bertso ugari baiño olerki gutxi” esan izan dau norbaitek. Esakun ori zuzena ete dan? Euzkel-olerkari askok guzurretsi dabe. Osorik atan be. Baiña gaur lez olerkari barri baten aurrean, zelan gogoan euki ez esakun ori? “Goiz-Aize” irakurriaz, baiña, esakune orrek sorturiko astuntasuna pizkana-pizkanaka baztartuten joan gara, osotara aztu arteraño. “Goiz-Aize”ren egillea olerkari agertuten jaku, eta olkerkari ospatsu izateko izpiak erakutsi eragiten dauz bere liburuaren orrialdetan. Ogeitabi urtedun gazte adoretzu orrek euzkel-olertian zaratarik sortuko dabela [dauala] uste dogu olertiari lotuta jarraitze-kotan. Makaltasun eta biurrikeririk ba’dauz euki orratiño bere bidean. Olerki makal eta uts batzuk irakurri daikeguz “Goiz-Aize”ren gibelean. Gogai edo idea polit eta atsegiñak apalki eta txiroki azaltzen asmau dogu batzutan. Baiña zorionez gitxi dira orretarikoak.

Akats igarri-erreza baita aditzarena. Aditza erabilten trakets agertzen jaku zenbait alditan olerkari gazte au. Euzkera-ezaupide osorik eskatu ete leikio ume-umetatik aberritik urrun ibilli dan itxasoetako bidazkari orreri?

Akats meok, edo nai izan ezkerok akats mamitsuok, laster deuseztuko dauzala uste dogu gazte azkar onek. Arteaga’ko baserritarren artean aditza zuzen erabiltera egingo da eta gogai edo ideak zindoki maniatzen eta eraltzen ikasi leidi, bereziki klasikoen irakurte eta ikasteari lotuten ba’da.

Baiña akatsak bakarrik aitatutea ez da bidezko. Akatsak agertzekotan onoimenak be azaldu bear dira. Eta Muniategi’k onoimenik ugari dauz. Idea polit, atsegin eta aberatsak dakazki. Eta beti ez-arren zoriontsu eta zindoki jokutzen ba’daki eurak agertzen. Eta idea polit, atsegin eta aberatsok agertuteko zolitasun bizi baten jaube da olerkaria. Gauzarik txi-karrenean be olerki mamia idoroten daki. Erreztasunik be ez dauzagu kendu eta ukatuko. Eta berak darabilen arintasuna be onoimen maitagarritzat etsiten dogu. Bertso luze eta asperkorrei lotu barik arin-ariñetan agertzen dau Muniategi’k bere gogaia. Gogai edo idea bakotxari ikutu baiño ez dauzola egiten esan lei eta ala eta be ikutu arin orretan, agerkun xe orretan olerkiak agertzen, ingurutzen eta lagaten daki. Gozoro eta eztitsu bai darabil bere amesak edo bere zolitasunak aukeratutako gaia.

Rabindranath Tagore’ren antza artzen dauzola diñosku “Lauaxeta”k liburuari egin daurson itzaurrean. Gorralben ori larregi ez ete? Inditar olerkari bigun, gozo, samur eta ezti orren lanak ezagutzen dabezanak irribarre bategaz gorralben ori larregia dala autortuko leukie. Gaurko olerkaririk oneneitakoa eta entzutetsu be entzutetsua bai’dogu olerkari aipatu eta errime ori. Ala eta be Muniategi gazteak olerkari guren orren bideetan sartu eta bide orreik zearkatu-miña agertzen dabenik [dauanik] ezin ukatu.

Biguntasun eta zolitasuna nun-nai idoro daikezuz, irakurle, “Goiz-Aize”ren orrial-  
detan.

Itxas-ertzetako neska arrain-saltzalle bixkor eta abots zoli eta eztarri garbidunen  
irudi bizirik gura dozu? Olerkariak eztitsu eta bigunki dagerkitsu:

“Esku bat daukazu gerrian,  
bestia jolaska axian.  
Nexka! Kantauri itxaxoan  
begiok margoztu zenduzan?”

Notiñen zale barik izadiaren eder-min zara? Zabaldu orriok, nun-nai idoro daikezuz  
izadiaren edertasuna agertu eta izadiaren edertasun ori bizi eragingo dautszuenak. Ikus  
“Udako gaba”:

Gora eta bera  
lilluraz nabil amesetan;  
goian itargia  
izarrakin diz-diz izketan;  
beian, bertanbera  
soloko garia  
axe leunakaz dabil dantzan.

Irakurle, ahapaldi orreik irakurriaz ez ete zara igarri barik udako gau atsegiñetan  
amesetan jarten? Eta ez uste ori bakarrik. Erabili orriak eta “Udabarri-eresia”n aro alaitan  
eta irribarretsu orretan zagokez:

Txoritxoak txorrotxioka;  
inguru legorrenak loran,  
odei urdiñak goi oztñean...  
Oi! Zenbat oldozkun axian!

Udabarriaren mamiñean aizean dabiltzan oldozkunok gaztetasunak igitu, bizitu eta sarritan gaztetasun ori makaldu eta indargetuten daben maite-miñak edo maitasun-kezkak sortu eta biribilduriko oldozkunak ete dira? Bai noski. Baiña baztatu daigun maitasun gai au, beste baten olerkariaren min onetzaz bereziki jarduteko ustea dogu ta.

Biguntasun eta ezti izpirik ezagutzen jarraitu gura dozu? Jo ume olerkietara, Muniategi'k ain zindoki eta ben darabiltzan umeentzako lan orreitara. Bai ume arro eta aize-dun ingizko izontziaren jaubea eta bere arrotasuna portura andira sartzeak suspertu dautsona!

Axoial zabal zabalakin  
geldiro sartuko naz portura.  
Noren izontziak lekarke  
eun izar eta artizar bat?

Eztirik eta atsegiñik ez dozu nabaitzen, irakurle, ahapaldiok irakurtean? Ezti ori ugari dozu liburu barnean. Eder'aren usai gozo atsegiñik nabaitu daikezu "Goiz-Aize"ren orrialdetan.

Muniategi'ren liburuaren baratzean loran dagon olerkariaren joritasunan musu itxarkorra artu daikezu, lorea inguratzen daben arantzak miñik irarri eta lorearen edertasunik galduko ez daben ziurtasun osoz.

ARTETA

## EGUEN GABEAN...

[Euzkadi – 1936-04-09, (7267. zk.) 14]

Ikasleak mai-inguruan batzartuta aparitan dagoz. Mai-buruan Irakaslea ixilik dago. Arpegia zurbil, gorputza dardarti, ezpanak otz, begiak itun, biotza areago... Zer ete dau Irakasleak?

Bein baiño geiagotan begiak jaso eta ikasleei begirakada samurrak luzatuten dautsez euren arpegietan koldarkeria eta ondoren lartzak irakurten, eta bein baiño sarriagotan bere begiak juda'renakaz alkartuta adi-adi lotuten dira. Bada juda'ren biotzak ez daki maitasunik eta ezin ulertu!

Ikasleak ixildu dira. Irakasleak bigun-bigun, leun-leun eta begiak malkoz bustita itz dagi: Benetan diñotzuet zuetariko batek gaur bertan salduko nabela [dauala].

Ikasleak arrotu dira. Zalapartadaka, alkarren leian, guztiak itanduten dabe: Ni ete naz, Jauna?

Eta Berak, erantzuteko: Neugaz batera eskua ontzian sartzen dabena [dauana] orixe izango da. Eta benetan diñotsuek gizonaren Semeak bere bidea daroala, idatzita dagon lez; baiña gizonaren semea salduten dabenaren [dauanaren] errukarria! Obeto izango litzakion jaio ez ba'litz.

\* \* \*

Aparia amaitu da. Eskerrak emon ondoren Olibet mendirantz zuzenduten asi dira. Eta bidean Josu'k itunez eta miñez: Guztiok lotsatuko zarie gaur nigaz. Idatzia dagolako: Artzaña zaurituko dot eta artaldeko ardiak bananduko dira. Baiña berpiztu ondoren zuek baiño lenago joango naz Galilea'ra.

Kepa'ren arrotasunak ezin daike jasan olakorik eta biziro jardesten dau. Guztiok lotsatuten ba'dira be ni neu iñoiz bere ez!

Eta Josu'k apalki: Benetan diñotsut gaur gabeen ollarrak abestu orduko iru bidar ukatuko nozula.

Orduan Kepa'k: Zeugaz iltekotan be ez zaitut ukatuko!

\* \* \*

Illargiak argi dagi. Izarrak kiñutan.

Mendien bakartadean izadi guztiak lo dagie. Tantai luzeak lo-arroaren baretasuna zainduten arro dagoz.

Eta atsedean dagian izadiaren ixiltasunean Irakaslea kezkatu, dardaratu, gorantz begira arrenka: Jauna, al ba'da aldendu nigandiz eriotz-edontzi au. Baiña ez bedi nire guraririk egin, zeurea baiño.

Eta jagita bere jarraitzaleakanaiño zuzenduten da, baiña izadiagaz batera ikasleak lo dagie.

- Simon, ezin izan dozu neugaz ordu bete otoi egin?

Baiña Simon'ek barrero lo dagi.

"Zeugaz iltekotan be ez zaitut ukatuko". Egia ete?

\* \* \*

Bigarrenez eta irugarrenez be azkenengo ekintza au berregin da. Baiña orduak ots egin dau. An, be-aldetik, izakien lo ixilla esnatuten, aldra ugariak zarataka datoz eskuetan su-otak dabezala gau illuna argituten. Irakaslearen bekokia izerdiz busti da. Odol izerdia.

Illargia lotsatu da. Eta izarrek, Saltzallearen besarkadearen ziñaldari ez ete dabe izan gura?

Aldra lodiak urreratu dira. Euretariko bat Irakasleaganaiño zuzendu eta besarkatu dau. Bitzuen biotzak taupada urduriak dagiez. Eta une baten biotzik biotz taupaden bitartez itz dagie. Baiña begien izkuntza ixilik ulertu etzebanak biotzen izkuntzarik ulertu al izango ete dau?

Aldretako gizonak zarataka Josu inguratu dabe. Juda'k emoniko agindua ekarren: Nik besarkatuten dodana.

\* \* \*

Aldra zaratatsuak, zorionaz mozkorturik Kaifa'ren etxera daroe Irakaslea. Kepa'k jarraituten dautzo... baiña urrundik.

Kaifa'ren etxean gizon mozkortiak Irakaslea salatuten dabe eta eriotzara eroan gura dabe.

An, bazter baten jesarrita, Kepa. Bildurrez kikilduta, aulduta, adore barik. Neskame batek ezagutu dau.

- Zeu be Galilea'tar Josu'gaz ibilten ziñan.

- Ni? Zer diñozun be ez dakit.

Eta atera doa. Baiña bigarren neskame batek begiz jo dau.

- Au be Nazaret'eko Josu'ren adiskidea da.

- Gizon ori ez dot ezagutzen.

Eta zin (juramentu) dagi.

Ikasle asko urreratu jakoz eta salapen bardiña dagitse:

- Benetan zeu be eurretarra zara. Zeure izkuntza berberak salatuten zaitu.

Baiña Kepa'k gogor, eta barriro zin egiñaz:

- Gizon ori ez dot ezetarako ezagutzen.

Eta bat-batez, an, barruan, ollarrak abes dagi. Abesti orrek Kepa'ren gogoa itxartu dau. Irakaslearen itzak zurbilduten dabe: "Ollarrak abestu orduko..."

Eta arrantzale gordiñak, itxasoen zakartasunaz narrua tximurtuta darabillan arrantzale erimeak etxetik urten eta mara-mara negar dagi. Zaratatsu eta ugari egin be. Irakasleari agindutakoaz gogoratzen da: "Zeugaz iltekotan be ez zaitut ukatuko".

\* \* \*

Ordutik ona ogei gizaldi igaro dira. Baiña Juda'ren eta Kepa'ren jarraitzalle asko gara ludian. Juda'ren antzera besarkada batez geure sinesmena salduten dakigunok ugari. Baiña, zenbat Kepa'k lez negar egin eta bizitza barria artzen dakienak?

ARTETA



# IKASTOLAK

[Euzkadi – 1936-04-22, (7277. zk.) 14]

Ikastoletan irakatsi bakarrik egin bear dala diñoenak oker dagoz. Irakaskintzea adimenaren argitasunari buruz egiten da. Baiña ikastolen zeregiña astun eta garrantzitsuagoa da. Ikastoletan irakaskintzeagaz batera gizakuntza edo edukaziñoa arduratu bear da. Adimena argitutea ona da eta bear bearrezkoa, baiña beragaz bakarrik ez da ezer lortuten. Gizonak egiteko gizakuntzea bear da. Gogo edo arimearen eta ontasunaren gizakuntza edo edukaziñoa. Gizonak jaiotzez onak dirala eta ontasunera doazala uste dabenak ez dakarre uste zuzenik. Katoliko irakatsiak ez daukue olakorik erakusten. Gizona obenagaz jaioten da eta geroago be oben-gatxa beti beragaz eroango dau. Ikastolak gaitz ori zuzentzera jokatu bear dabe; gizonetan zuzentasun azia erein eta ontasun-miña irarriaz.

Baiña zuzentasun-maitasun ori suspertu eta sortu eragiteko geure eta geure kidekoen gain dagon norbaiten bildurra bear da; geure gaiñetik eta geure agintari lez agertuko dan norbaiten kezka eta begirapena bear dira. Eta norbait ori nor izan lei Jaungoikoa besterik?

## Jaungoiko barik...

Jaungoiko barik ez dago onoinenik; ezin lei ulertu zuzentza miñik, gitxiago anaitasunik, Jaungoikoaren aginduetan iñarritutun ez dan ontasuna utsa da; eziña. Ontasun orrek ezin lei iñoren gogorik beartu.

Kant'ek jarraitzalle asko dauz. Ontasunaren eginbearra agiria dala eta agintzerik ez dabela bear Kant'egaz uste dabenak euren eritxi eta usteen okerra eurrez ikusten dabe. Jaungoiko bako ontasuna norberekeriak eta norbere ardurak laster lurperatuten dabe.

Ikastoletan ontasuna erakutsi eta ontasun-min ori gizonengan sakonkiro irarri bear da. Baiña Jaungoiko barik ontasunik be ezin leikela adierazi dogu. Ikastoletan ba Jaungoikoa erakutsi bear da.

## Eritxi batzuk.

Gizonik okerrenak eta ezkertarrenak argiro ezagutu eta azaldu dabe erlejiñoak gizonengan daben indarra eta gizartearen bake eta zuzentzarako daben ala.

Girardin, katolikotasun – min gitxi agertu eban idazleak iñoan: “Erlejiño bako ikastolak zabaltzea txarkeria eraldutea, txarkeririk ankerrena eraldutea da”.

Zanella'renak dira jarraian doazan itzok: “Ez da egia ezjakintasuna gatxik okerrena dala. Erlejiñoa bastartuten daben [dauan] jakintzea txarkeria bera baiño okerrago da”.

Zola idazle loiak erantzun auxe emon eutsen, gizonen gogo guztiekaz jaubetu ziran erailketa-gogai edo ideen zabalkunde bizkorra atzeratuteko zer egin bearco ete zan itanduten joan jakezanei: "Agintariak siñezmenera biurtu daitezala eta siñesmen orren guna artu dagiela lege guztiak; kistar siñesmenen odola gizarterearen zain guztietan zear ibilli daitela eta ludia gaizkatuko da".

Thiers'ek bere aldetik iñoan: "Ikastoletako umeak kistargetuten ba'dozuez ziur egon zeuon aurka jagi eta iruntsiko zaituezala".

Garofalo sozialista ezagunak ikastoletzaz egin eban idazti baten idatzita laga eban: "Irakaskintzeak ez dau mamiñik eta oiñarririk erlejiño barik. Erlejiño irakaskintzea baztartu ezkeroz umeak ez dabe entzuten min egin bear [ez] danik; ez dala ostu, erail, etzipetu bear; kidekoak maitatu bear diranik eta abar".

Zetarako jarraitu eritxi geiago agertzen?

### Zenbatzak.

Zenbatza edo numeroak eritxi guztiak baiño argiago agertzen dabe erlejiñorik irakasten ez dan ikastolen okerra.

Frantze'n erlejiño bako ikastolea ipiñi eta amar urtera ogei urtetik berako 16.000 erailleren orde, 41.000 egon ziran.

Urte baten bakarrik Paris'en atrapau ebezan 26000 legeausletik 16.000'k ez euken ogei urterik.

Urte areitako baten, 1880'garren urtean, Frantze'n euren buruak il ebezanen artean 53 mutiko eta 67 neskato amasei urtetik berakoak ziran, eta 372 mutil eta 409 neska amaseitik ogetabatera artekoak.

1897'garren urtean Fouillee'k idazten eban: "Paris'en legepean ipinten diran eun umetik ozta-ozta iru izango dira erlejiñodun ikastoletatik urtenak".

Zenbatza oneitan irakurri eta igarri daikezu, irakurle, eta eritxi eta uste guztietan baiño argiago irakurri be erlejiño bako ontasuna, erlejiñoa baztartuten daben ikastoletatik urteten dan ontasuna zelako eta norartekoa dan.

ARTETA

# GAZTIEI BEGIRA

[Euzkadi – 1936-05-14, (7295. zk.) 14]

(Ene adizkide U. J.'ren M. A.'ri. K. O.)

I

Norantz ete doaz gazteak? Zelako etorkizuna gertau, eraldu eta egingo ete dabe?

Itaunok geroago zabalago, larriago eta kezkatuago entzuten dira. Alderdiak, laterriak eta erriak gaztediei begira dagoz, ezelako ziurtasun barik begira egon be. Aizearen antzera bizi gara. Egin eta ezereztu, eraldu eta deuseztu, indartu eta birrindu... guztiori une baten erabilten dogu. Ezereztu geiago egin baiño; deuseztu ugariago eraldu baiño, indartu baiño gogotsuago birrindu. Egitadakin jolastuten gara, ondorenei begiratu barik, gerokoak arduratu eta larritu barik. Egon eziñak jo, kutsutu eta gaindu gaitu. Ezin gara elburu bateri lotu; gogai edo idea bardiñak aspertuten gaitue, ekintza ezagun eta jakiñak nazkatu.

Gaztediak ames dagi... Bide barriak, elburu barriak, berak be ezagutu eta ulertu ezin dauzanak zoratuten dabe eta euren billa zoro antzera doa. Ez alperrik eragozpenik imiñi bide orretan: bere ibillera zoroan eragozpenok ezetsi eta gaiñeratuko dauz. Gaztediak ots dagi: Bide! Bide! Baztatu epelok, nagiok, koldartiok! Kendu aurretik bake-zaleok: Bide gaztediari, ekintza miñez jajo dan gaztediari, atzera begiratzen ez dakian gaztediari, ames barrien ikurriña zabalik dakarren gaztediari...!

Eta epelak koldartuten dira, makalak kikildu, bake-zaleak lotsatu gaztediaren oiuen zaratara. Gaztediari bideak zabalduen jakoz.

Baiña norantz doaz gazteak?

**Leiza bidea.** – Iñoiz ikusi dozu Martin'dar Endika'ren "Leiza bidea" deritxon margo-antzezkoa?

Emakume arro eta aizedun bat, ontzaren egoekaz eta mozkortien orbelagaz bures-tundu edo koroetuta arin be arin doa bide batez zear. Gizonak eta anderak, mutil ariñak eta neskatil zoroak jarraituten dautso. Bidea berantza doa eta igarri barik leiza baten amaituten da. Goi aldean erroiak eta bela baltzak egaz dagie mozkortien eriotzea igarrita.

Martin margolari ospatsuaren irudimenak bururatu eta margozturiko emakumeagan gaztediaren amesak igarri geinkez. Ames orreik aurrera doaz, geratu barik, zoro antzera, aurrean darakutsena igarri eta oartu barik, eta euren atzetik gaztedi lodiak daroez...

Nok esan eban gazte-aroa zoro aroa dala?

**Kisto'gandik urrun.** – Gaztedi osoari begira gagoz oraingo onetan: geroago aztertuko doguz gaztedi aldrak euren zeregin berezietan.

Gazte aroa ekintza nagusien aroa da, ames gurenen aroa. Baiña gaztetasan berbera da ekintza eta ames orrein eragozpenik biziena. Gazte aroan ikasi bear berezi bat dogu; norbera gainduten ikasi bearra. Ori lortu ezkerro gazte zuzen eta adoretu gara; gorantz begiratuteko bildurrik ez dogu izango. Baiña griñen otsein gara. Eta griñak otseinduten doguzala ezin geinke Kisto'ren adiskide bizi.

Gaztediarentzat Kisto gidaririk onena da. Gaztediak elburu gurenak eta egite goralgarriak maite dauz; gizon adoretu eta errimeen adiskide da. Eta gaztedia Kisto'ren eta bere elburuaren maitale, adiskide eta jarraitzalle litzake: baiña Kisto'k eginbearrak agintzen dauz. Eta eginbearrokarren be Kisto'ren aldeze jarraituko leuke gaztediak, eginbearrak ez dabelako kikildu eta atzeratuten. Baiña gaztediak bere-berea daben [dauan] makaltasun bat dau: atsegin-makaltasuna. Makaltasun orrek menpekotuta bizi da. Makaltasun orren aurkako gudea agindu eta beartuten dau Kisto'k. Origaitik gazteak Kisto'gandik urrunduten dira. Ez dabe Kisto'rentzat gorrotorik, ez. Eta Beragandik urrun ez dago ontasunik. Ontasun bako gizartea, barriz, gizarte ustel, argal eta gaixoa da.

Gaztediak Kisto'gandik urrun doan bide barrien billa, ames dagien atsegiñen billa. Geroago Kisto gorrotauko dabe.

**Gazteak maitasunean.** – Maitasuna zer dan bakotxak daki obetoen, guztion bizi-tzako lege bai dogu. Egizko maitasuna goitarra da. Atsegin lizun eta argaletan oiñarritu eta asetuten dan maitasuna ez da maitasuna maitekeria baiño.

Gizonen biotzetan maitasunik ba'lego...! Baiña lora guri eta atsegin ori eskuartean orriulduten dogu. Beregiko mallara jatxi dogu, aragiaren atsegiña bere gain jarteko. Eta onoiмена izateko jaio zan lora ori obenean biurtuten dogu. Kisto'gaz batera lotsea bazartu dogu. Lotsa barik ezin lei maitasunik. Eta maitasun bako gaztea abere biurtuten da.

Maitasunerako eta maitasunarentzat jaio gara. Neskutz zainduteko adorerik ez dogunok agindu batek lotuten gaitu: azi eta ugaritu zaiteze. Orretarako maitasuna bearrezko.

Maitasunak urkoaganako lotsea eskatzen dau, maitale izango danarentzat begirape-na. Baiña gazteok ez dogu olakorik. Ariñegi itsututen gara. Emakumeak erru ugaririk ba'dabe. Zenbat euretariko gazte jori eta garbien oben-bide? Eurak ez dira ba, sarritan, lotsa barik salduten diranak?

Uri baten gagoz. Gaba da. Tximistargiak argi makala dagi. Ibiltaldi labur bat egi-tea otu jaku uri ertzetik. Geure atzetik oiñotsak entzuten doguz, "Jauna, erdu neugaz..." Nor ete? Begiratu argontziaren izpira. Arpegi jausi igartua, goseak edo gau zaratatsuetako mozkor-aldiak auldua, mirrin eta txakila. Arpegian emoniko margo gorrien azpian ezagutzen ez daben lotsea ezkutau gura dabela dirudi. Baiña zer gura ete dau mulastin orrek? Atsegin-asegarri baiño nazkagarri ez ete areago?

Goazen aurrera. Baiña ondiño jarraituko dausku: "Jauna, erdu neugaz...!"

Maitasunik ba'lego ete litzake alakorik?

**Mozart.** - Mozart ereslari edo musiku ospatsu eta entzutetsuak bere adiskide bate-ri egiñiko idazkian iñotson: "Edozeiñek aiñako berezko griña biziak dodaz. Izan lei onetan iñok be niri ez irabaztea eta neuk eurak gaindutea. Ala eta be ez naz ausartu iñoiz neure adi-ñeko gazte askoren antzeko izatera.

Egia da eta pozarren autortuten dot. Kistarra naz biotzez. Ona naz; lagun urkoa mai-teegi dot emakume gaixo eta errugabe bat atzipetuten ausartuteko. Gaiñera neure osasuna maite dot eta bitxi aberastzat etsiten dot badaezpadako naspil eta tratuetan sartzeko. Origaitik Jaungoikoaren aurrean zin (juramentu) dagiket gaurdaiño ez dodala akatsik gai onetan".

Zenbat gaztek Mozart'en itzok barriztau ete leikez?

ARTETA

# “TXIRRITA”

[Euzkadi – 1936-06-06, (7315. zk.) 14]

“Txirrita” il da. Bertsolariak negar dagie lagun zarraren oroiz; euzkeldun eta geienok itunez artu dogu izpar itzal ori.

Bertsolaria erriaren adiskide eta maitale da beti; erria bertsolarien atzetik pozez eta atsegiañez ibiltzen da; euzkel-izatearen mamin bero bai da bertsolaria.

Bertsolaria nun, an izaten da euzkelduna. Bere biotza ikutu eta beratuten bertsolariak baiño zindo eta zoliago inok eztaki; ez da biotz ori erakarri eta menperatuten be. Jo bestela 1802'garrenerantz. An ikusiko doguz Amasa'ko enparantzan bost milla euzkedun Txabalategi eta Amezketa'ko Zabala'ren saiaketa gogoangarria entzuten. Oar Iparragirre'ri. “Gernika'ko arbola”ren abeslariak sentimenturik ba'eban erri osoa bere ondoan alkatu eta biotzean joteko. Eta euzkeldunak baretuko ba'ziran espetxean sartu bear bertsolaria Madrid'eko Gobernuak. Ordutik “Zibillak esan naute” bertsoak. Oar baita Otaño'tar Pello Mari'ri, Argentina'rako itxasontzia artzean eundaka euzkeldun Pasai'ko portuan bere azkenengo bertsoak entzuteko garretan. Eta urte onetan bertan millaka lagun Donosti-ko Victoria Eugenia antzokian bertsolariak txalotuten. Bertsolaria euzko erriaren biotza bai-da; euzko-izate ber-bera.

Gaur erria itun dago. Bertsolaria il da. Udabarriko goiz baten, euzkotarrok Aberri-Eguna ospatuten gendula, aberria goratuteko zan Goizueta baserri alaietan. Antxe eriotz-miñak jo eta goi-bidean sartu eban. Orrelaxe da bertsolarien bizia. Kantuz jaio eta kantuz il, Mendiage koplakari sonatuaren bertsook gogora jatorkuz:

Kantuz egiñez gero, munduan sortzia  
kantuz egin biarko dut, ene ustez, iltzia...

Orrelaxe “Txirrita” bertsolari gaixoak. Goian bego!

Bertsolariak zolitasunik eta eskerako gatzik ba-dabe. “Txirrita” ez zan motela onetan. Bere bertsoak barrerik eragiten eutsen entzuleei, baita edenik irauli be bertsolari areioen biotzetan.

Bere bertsoak piper-miñez igortziten ondo ekian, eta adarra jotzen ez zan tentel. Orrelaxe izan bear bai-dau bertsolariak. Zorrotz eta zoli gaur, alai eta ugari bear: pipertsu eta zirikalari emen, koipetsu eta gozo an; samur eta jeratsu batzutan, sendo eta gizon bestetan... Eta “Txirrita”k bertsolarien eskola ori ondo ekian. Bere bertso berriak amaikatxu barre eragin dabe, baita jolas-ate ugari sortu be. Nok ez dauz irritsu entzuten edo irakurten Fernando Amezketarrari jarritako arek?

Egun batian astoarekin  
abiatu zan etxetik,  
lepo gaiñian palakatuaz  
-maite zuen biotzetik-,  
ipurdi-pian zatarrarekin  
ez ebakitzeagatik.  
Ba-zioan eta apaiz jaun batek  
arrapatu du atzetik.

Burla egiten asi zitzaion  
gure sazerdote jauna:  
Jesus! Pernando, au da lujua  
zure astoak daukana!  
Tela oberik iñun billatzen  
izango da naiko lana;  
nik ere pozik artuko nuke...  
Zenbatian dago kana?

Sazerdotiak itz ori esan,  
Pernando-k buelta urrena;  
eskuarekin asto zipotza,  
altxatu zion aurrena,  
esanaz: -Jauna, or dago denda-  
tela jeneru orrena;  
bertan ederki ikusiko du,  
sartu liteke barrena.

Donosti-n giñan aurtengo bertsolari saiaketan. An ikusi gendun antzeztokian patxada-patxadan jarrita, makilla bi eskuetan ebazala irurogeta-amabost urtedun mutilzar trakets gotorra, bertsolari gaztiekaz leian. Bai zindo jokatu be. Txalorik geienak berak jaso ebazan, baita barrerik ugarien eragin be.

Bigarren saioan zan. Bertsolariak gudeatzaz jarduteko agindua artu eben mai-burutik. Eta asi ziran ekiten, batzuek gudearen kalteak agertzen, besteak negarti, are bakeari otoika. "Txirrita" zan azkenengo. Zer esango ete? Entzuleak adi, bera irribarretsu.

Zenbat errezo egin det  
nere denboran elizan  
ta pozik nago ikusirikan  
pakian nola gabiltzan.  
Ni naizen bezin kobarderikan  
iñor ezin leike izan,  
semeak gerra ez joategaitik  
mutilzar gelditu nintzan.

Ateraldi onek sortu eban barre-algarea ez zan otsekoa.

Bere urteak-arren gordin eta zoriontsu ekiten jakin eban egun aretan. Eta lenengo saria beretzat.

Baiña bere bizitzan ziririk sartu ba-eban eta adarrik jo, berak be-entzun bear izan zitun bereak eta bi. Betiko leloa: esaten dabenak entzun bear. Eta bertsolari aipatu baten esanak ez jakozan makalak izan.

Zuzen eraman nai det  
asi dan aria:  
"Txirrita", ba-daukazu  
orren premia.  
Andriak eginda jaten  
derala ogia...  
gaizto txar enbustero.  
gezur-kontaria!  
zure memoria  
ezta ugaria,  
talentu eria,  
korputza nagia;  
errespeto gutxiko  
bertsolaria.



Nori esango eta “Txirrita”ri? Erantzuna ez zan epela izan. Esan ba eban esan damutuko jakon milla aldiz.

Onelaxe da bertsolaria. Beti esaten eta entzuten. Beti zirika. Baiña beti adiskide.

“Txirrita” bertsolari aipatu eta saritua il jaku.

Eta bere eriotzean kantu ariñez lagundu dautzagu. Gorago aitaturako Mendiage bertsolariaren esana bete dogu:

Kantuz egortz nazate iltzen naizenian,  
kantuz ene lagunak arturik aldian,  
kantuz ariko dira ni lurrian sartzian.  
Kantuz franko utziko diotet munduan,  
kantuz egin dezaten oroitzian.

ARTETA

# JARDUNAK

[Euzkadi – 1936-06-11, (7319. zk.) 12]

**Gizarteari begira.**- Gizarteari begira gagoz. Eutsi eziñez eta nabarmenkeriz jota eta kutsututa dabillan aro onetan begiragarri eta errukarri bai'da. Iñoiz ez da ezagutu gizarterik gaur baiño zoroago, gaur baiño ez-jakiñago, gaur baiño nastu eta aldakorrago. Bakearen ameslari eta guda egiten: jakintzearen zale eta maitale, eta jakintzea baztatu, beratu eta ostikopetuten; azkatasunaren gurtzalle, eta gizonak zapaldu eta menpekotuten, ideak ezetsi eta azpiratuten, gogoak estututen, agerpenak galerezotzen, ikurriñak makurtuten, siñestean eragozpenduten, elburu zuzenen bideak sarratuten; askatasun edo demokraziaren goraltzalle eta abeslari, eta indarra eskuetan, indarra ekintzetan, indarra agintaritzetan ames-egiten; langillearen aldezele eta laguntzalle, eta langille ori iñoiz baiño zoritxarrekoago, iñoiz baiño itunago, iñoiz baiño jausiago eta makalago ikusten eta ezagutzen, ogasunetan lez jakintza, uste eta siñesteetan.

Zoroaren lana ez ete dagi eta zoroaren bizitza ez ete darabil gaur gizarteak?

**Norberekeria.**- Norberekeria da gizartearen zorotasun eta zoritxarraren irudirik bizi eta zabalenetarikoa. Norberekeria gizonen biotzetan sartu eta sustatu da, gizonen uste, asmo eta ames oro norberekeriak darabiz, era berean alderdi eta errienak.

Ez alperrik autortu eta agertu urkoaren onarengaitik gabiltzala, ez alperrik erakutsi adizkidien zorion eta on-miñez gabiltzala; ez olakorik. Adiskide eta urkoaren on eta zoriona gizonen biotz eta ezpanetan aspikeri edo koipekeri dira; birao dira. Ez bakarrik gizaseme era bat edo bestean; ez bakarrik aberatsetan. Langilleak be gaitz orrez erreta dagoz. Goikoak lez bekoak, aberatsak lez beartsuak, ugazaben antzera menpekoak maitale kutun baten gurtzalle agertuten jakuz; norberekeriaren biotzetiko.

Esan-mesanok ez dira uts eta alper, ez dira gure uste zorango eta azal. Begira gizarteari, Gizonen biotzetan oartu daikeguzan amesen iturri zein ete norberekeria baiño? Gizonetan nabaitu eta sentidu daikegun gorrotoaren oiñarri, zer? Zer eskabideen-bide, zer maitasunen au, zer ikastien asmo, jolasen elburu eta ibillera eta ekintza ororen zegaiti eta nai, norberekeria besterik?

**Gorrotoa.**- Norberekeri utsa ez litzake ain gaizto. Arrokeri apur bat ez litzake ain kaltegarri. Baiña norberekeri utsik ez dogu ezagututen. Norberekeriak seme kutun ugari dauz. Gorrotoa euretariko bat.

Norberekeria eta gorrotoa alkartu eta buztartu ezkeroz gizonarentzat kaltegarri eta beragarririk bizienak dira. Norberekeriak gizonaren begiak lañotu egiten dauz, adimenak itzaldtu, biotzak leratu; gorrotoak begiak itsutu, adimena illundu, biotza edendu eta zipoztu.

Onelaxe gaur gizartea: norberekeri eta gorrotoak mirrenduta, ezereztuta, illunduta, edenduta, itsututa.

Begira bestela. Zegaitik eta zetarako ainbeste zarata, ainbeste eskabide eta ainbeste opor?

Eskabideak zuzenak izan ezkeru bearrezko dira eta entzungarri; oporrak ongarrri izan leiz eta bearrezko dira baita be gai eta zegaiti zuzen eta ongarrriak dabezanetan. Baiña gaur sarritan eskabideak egiten dira besteen aurka joatearren bakar-bakarrik, oporrak egiten dira ezelako zegaiti barik, arinkeriz, eta batez be aurrekoari kalte egitearren, min emotearren, bestea lurperatutearren. Eta orrela ez da lortuten erria makaldu eta ezereztu, laterria beratu eta auldu, gizartea ausi eta gaixotutea besterik. Eta olakoetan oporra egin daroen berberak izaten dira galtzale. Baiña gorrotoak ez dau laketuten olakorik ikusten.

**Etxera begira.**- Gure erri onetarantz begira ez daikegu gaurdaiño ainbestekorik esan. Gure artean ez dabil ortik zear aiña zarata eta nasterik; erria baketsu eta lanari emona dago.

Erriaren agintaritzea laster eskuratuteko dogun aldi onetan zentzundun eta zindo agertzea bearrezko jaku. Erri baten legeak egiteko gara, geure erria eraldu eta zuzenduteko asmotan gara. Eta edozeiñen aurrean geure erria zainduten ba'dakigula adierazi bear dogu; erri baketsu eta zoriontsua egiten ba'dakigula.

Orretarako gizonen maitale dan norberekeria baztartuta bear-bearrezko, norberekeria bastartuaz gorrotoari eutsiten jakingo dogulako.

Norberekeri eta gorrotoak erriak ondatu egiten dabez. Maitasunak barriz sendotu eta indartu. Eta euzkotarrok geure erri au sendotu eta indartuteko aldietan gara.

ARTETA

# Aberri-egunean. ITXASORA BEGIRA

[Eguna, 1937-03-28, (74.zk.) 4]

Itxaso urdiñaren edertasuna!

Beti berari begira eta aspertu ezin!

Ez ni bakarrik. Bertsolari zarrak itxasora begira kanta-gai mintsu eta lilluragarriak aurkituten ekiezan.

Zegaitik?

“Urandian umen ba’da  
kantatzalle eder bat,  
“Zerena” deitzen den bat.  
Itxasoan inganatzen  
ditu hak pasaierak;  
ala nola ni maitenak”.

Igarotako gizaldian Txaho’k bildutako “Zerena” maite kantaren zati bat dozu ori. Baiña nik ez dot itxasoan “zerena”rik. Ez dakust bertan ez maiterik ez biotz-kutunik.

Itxasora begira nago orratik. Adi adi, zorrotz-zorrotz, zoli-zoli.

Bits eta apar artean, bare egunetan lez aize zoli eta ipar baltz egunetan aberriari begira eta aberrian pentsaten bizi diran mariñel sendo errime eta adoretsei begira nago.

Biotza baiño arpegia eta bularra gorriago dituezan kresal usaindun gure arrantzale azarriei adi adi begira.

Aberriaren zaiña, aberriaren odola eta aberriaren biotza ortxe bai’dakust.

Gogoratu “Nabarra”; gogoratu “Gipuzkoa”: gogoratu... Zetarako aitatu?

Guda au amaitu daitenean malkoz beterik begiratuko dogu itxaso orretara. Ama askok ez dabe orretarako adorerik izango.

La Vendée’ko brontzeko oroigarria frantzetar amak begiratzen ez ba’dabe miñaren miñez, euzko amak itxasoan izango dabe oroigarri ori baiño itunago, latzago eta miñagoa.

Euzkadi’ren aszkatasuna itxasoz eta legorrez odol ugari eta joriz busti eta gorrituta jaioko bai’da.

\* \* \*

Gaur, San Mames'en, euzko arrantzaleari omen egingo jako.  
Aberriari begira, aberri-miñez irakiten egozan zanetako odolaz itxasoaren urdintasuna gorritu eben arrantzaleak gure biotzen agur eta aupadea artuko dabe.

Itxasoa odolez gorri!  
Euzkadi'ren ertzeraiño...  
Itxasoa odolez gorri!  
Eta maitasunez gorri eta amesez jori.  
Gora begira jausi ziranak gorri laga eben.  
Gora begira jausi ziranak!

“Nabarra” ontziaren irratiz (radioz) larri-larri deiez ebillanaren azken-itzak ez jakuz aztuko. Ontzia lertuta, urez beteten egoala, mariñel bulartsu aren abotsak siñismenez ots egin eban: “Iñok ez gaitu gaizkatuko (salbautuko). Bakar-bakarrik Jaungoikoak”.

Orrelaxe ilten dira abertzale ereduak.

Il ziranak gorri laga eben. Orain dabiltzanak gori dabiltz, aberri-maitasunez irakiten aszkatasun amesez jori.

Kresalez bustitako iparrak maitasun eta ames orrein musua ekarten dauskuz.

Guk, San Mames'tik biotz eskartsuen agur beroa bialduko dautsegu, il ziranen aintzaz, gaur dabiltzanen omenez.

San Mames'tik itxasora begira, azkatasun abestia bialduko da, lurrunez beteriko abotsa eta kresalez beterikoa maitasun-kanta baten alkartu eta batu daitezana.

ARTETA

# Azalpenak. ATSEDEN?

[Eguna, 1937-06-12, (138.zk.) 1]

Gudariak nekatuta dagozala...

Egia. Arpegi zurbil eta tximurrik ikusten dogu guda-oiñetatik zear egiten doguzan osteretan. Nekearen ezaugarriak irakurten dogu gure gudarien gorpuetan. Joaldien astuntasunak, burruka gordiñen zitaltasunak, gudate luze eta ikaragarri onen ondorenak ez dabe gudariaren gorputzik sendotu, ez dabe gudariaren indarrik bizitu eta geitu.

Atsedetik ezin egin orraitio. Arerioaren zalapartak orretarako astirik ez dabe emoten. Joaldiak joaldi doguz gaiñean, gure aberriaren arerioak euren erpa zorrotzak gure askatasunaren gain irarri nairik, eriotzearen itzaltasuna gure gain eta gure aberri eta euzko iza-tearen gain jaurti eta ezarri nairik. Gudariak ba'dakie ori. Eta nekeak gaiñeratzen ditue adoreagaz, kemenagaz itzaldu, eriotzeagaz garaituten ez dituezanetan.

Gure gudariei begira, "Morir-dormir", Machado'k baturiko erdel olerkietako bat gogoratzen jat. Ama semeak jardunean, baserri zarreko sukaldean, su-ondoan. Semea nekatuta dago, zearo jausita, joaldiak ames oraindik, orraitio. Maitasunaren garrak sortu eragiten dautson ames dontsua. Amak, baiña, nekea igarriaz atsedena agintzen dautso eta arrenka eskatu.

- Asetu loz.  
Jaurti biotz-min,  
burukomin  
ta ames oro,  
atseden eiteko.

- Orretarako,  
ene biotz,  
gogoz maite  
nik eriotz.

Eriotz-maite! Zorakeria? Itsukeriaren bultzada gaiztoa?

Ez gaitazan esamesetan urbildu eta galdu. Bertsuotan gure gudarien izatea agertzen danik ez dagigun ukatu orraitio.

Atsedean bear-izana ezagutu arren, atsedean-miñik ez dabe nabaitzen gure gudariak arerioak dagiazan joaldi larriotan. Atsedena eriotz-erdi litzakela ba-dakie, une onetan. Eta eriotz koldarrik ez dabe maite Eriotzeari arpegi emon naiago dabe aberria aldezten, maitasun gaiaz igituta. Eriotz aintzagarri bai'da azkenengo au. Bakean biziteko, zegaitik ilten den jakin bear dala, diño. Euzkotarrok ba'dakigu ori. Gure gudari askok euren barruetan sartuta dabe. Orixegaitik, bakearen ameslari diralako, euzko-izatearen zorion eta askatasun egarri diralako, orixegaitik eriotzeari arpegi emoten dautse, atsedean aldi egokiago izango litzaken une oneitan. Eriotza orrek gaindutea lortuten ba'dabe, bizitza baketsua irabazi dabela ezbai barik dakielako.

Euzkotarrok bide bi doguz aukeratzeko: atsedean egiñaz, eriotza jatorku. Etengabe jokatu eta eriotzeari zindoki arpegi emonaz, betiko bakea, gure zoriona.

Bide biotan atsegiñago nor dan adierazi bearrrik ez dogu. Gure ekintzak dira adierazlerik zindoenak.

KRESALA

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

BIGARREN ERREPUBLIKA DENBORALDIKO IDAZLANAK (1931-1937) ETA ONDARROA •

Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

# III. OLERKIAK

(1934-1935)



# USOA BA'NITZ

[Euzkadi – 1934-09-06, (6784. zk.) 12]

Negarrez naukok ene aberri  
eure mendien oiñetan  
seme dongiak amildu abe-eta  
arrotz-amildian.  
Oi, usoa ba'nitz  
Ego-zabal egatzeko gorantz!

Uri andian dana arrotza:  
gizon, ele, lagi, oitura.  
Urian ezkutau joek gurutza  
ta aztu Lagi-Zarra.  
Oi usoa ba'nintz  
urrumaka juateko gorantz!

Txadonetako joale otzanak  
jo dagie itun illeta.  
Euzkera txairoa il dok, il gaixoa,  
ta euzkoak parrezka...!  
Oi, usoa ba'nitz  
negarrez urrunduko gorantz.

Ibai zurbillak loi jatozak  
ta indarge sartu itxasorantz,  
arrotz-lixunak gaixotu dauz-eta  
euzko-ibar garbiak.  
Oi, usoa ba'nitz  
egazteko erpiñeko iturrirantz!

Usoa ba'nintz  
egazka nindukek beti gorantz  
ta tontorrik-tontor nebilkek  
bular-zabal arnasten askatasun.  
Oi, usoa ba'nintz  
laster nindukek zorundun.

Usoa banitz  
neugaz neroakek euzko-elea  
ta antxen gurutz-zuri oiñetan  
laga bigunki ene mintzoera,  
garbi eta azke izateko  
urtzi'k emoniko euzkerea.

Usoa ba'nintz  
tontorreko Gurutz-magalian  
berregingo neukek zindoki  
arrotzak birrindu jauskun abia  
ta antxen alkartu betiko  
Jaungoiko eta lagi-Zarra.

ARTETA

# SEASKAKOAK

[Euzkadi – 1935-04-10, (6956. zk.) 12]

M.'tar J.'ri biotzez

Seintxuai eraiten loa  
amonatxo seaska ondoan.  
Oi! Bere amesen gozoa  
“dan-ba, dan-ba” eragitzan.

Aurtxoa baiña malkotsu  
ta alaituteko amonak  
olesten dautsoz eztsu  
ames irudi samurrak.

“Eure begien oztiña  
garbi zalien ikurra;  
ameslarien nai-miña  
ille beltzeran kiskarra.

Eure espanen irria  
gotzon zurien barria;  
udabarriko oskirria  
zure musuan ezta.

Eure bioztxu joria  
sagasti barri loremin,  
eguzkiaren izpira  
geroago eta zabal min.

Eure gorpuztxu gordiña  
guri-zalien atsegiña;  
igerrago klabeiña  
ta arrosearen pizpiña”.

Ta amonatxu bioztunak  
berba samurren eztez  
dirautsoz oles amesak  
edertasunan ederrez.

Seintxoak, baiña, lo-lo nai  
ta negar malko itunez,  
kiñu, ekiteko abestiai  
seaska eresi samurrez.

Amonaren biotz meak  
bigun eta maitekor abes  
seintxu kardin kurrinxoak  
gotzonekaz dagian ames.

Abestiaren ots-ixilla  
seintxu pitxian logarri.  
Seintxoaren lo-ixilla  
amonaren amesgarri.

ARTETA

**AUGUSTIN ZUBIKARAI**

BIGARREN ERREPUBLIKA DENBORALDIKO IDAZLANAK (1931-1937) ETA ONDARROA •  
Egunkari eta aldizkarietako idazlanak

# IV. ANTZERKIAK

(1934, 1936)

## ABERRIAGAZ BIZI

[Euzkadi – 1934-08-22, (6771. zk.) 10;  
1934-08-23, (6772. zk.) 12;  
1934-08-24, (6773. zk.) 12. Epekako antzerkia]

ARTETA

Gaztetxuentzako antzerki laburra. Atal bakarduna.

### Antzeznotiñak:

Ibon, 13 urtedun mutikoa. Argala. Osasunez makala.  
Luis, 14 urteduna. Sendoa. Uzoa.  
Imanol.  
Sabin  
Gurutz.  
Jon.  
Ander.  
Igone.  
Argiñe.  
Guztiok 11-14 urtedun mutiko-neskatoak.

\* \* \*

Antzertokiak uritik at'eko zelaitxu bat agertuko dau.

EKINTZA BAKARRA

## I. IRUDIA.

### IBON.

IBON.— Badoaz. Ez nabe eroan izan gura. Ez ba. Lelokerietan iñarduten nazala esaten dauste.

Lelokeria, geure aberriatzaz iñardutea!

Lelokeria, geure asaba, oitura eta izkuntzeatzaz jardutea...! Lelokeria...! Eta beti neugandik iges egiten dabe; bakar-bakarrik lagaten nabe, sasikumea ba'nitz lez... Baiña ez nau onek arduratzen. Ondo dakit aberri bat daukadala eta aberri ori Euzkadi dala, bere askatasunarren aitak bere bizia emon ebana. Euzkadi jopua. Aita gaixoa! Gaiztakeri bategaitik erail ebela esaten dauste. Baiña ez... ez. Ondo dakit zegaitik eraildua izan zan.

O[rai]ndiño gogoratzen dot. Zortzi urte edo neukoizan. Goiz baten oetik jagi nintzanean, aita itunez eta ama negarti idoro neuzan. Eta eurak olan ikustean, neuk be mara-mara negar egin neban [nebazan]. Negarti aitarengana urreratu eta zer igaroten ete zan itandu neutson. Ez eustan erantzun, bai ordez musu bigun bat neure bekokian ezarri. Eta neure burua aitaren bularrera urrenduta, negar zotiñez egon nintzan aldi luzean, aitak bigun-bigun loisinduten ninduala. Eurak, alkarri itz egin gureaz edo, adi-adi begiratuten ziran aldirik aldira, eta orduan barriri negar zaratatsuari amak ekiten eutson eta taupada urduri eta zoliak aitaren biotza dardaratuten eben. Eta bere ituna obetoago nabaitutearren edo, esku dardaratsuekaz biotz ganean estututen nindun, estutu.

Olantxe igaro gebazan [genduzan] ordu bat eta bi, atean dei indartsu bat entzun zan arte. Orduan len baiño be musu bigunagoa neure bekokian irarri ondoren, amagana joan zan eta bere aurrean auspeztuta, zotiñak ebagitako oguzkeraz "azketsi" esan eutson; amak ez eban erantzun, bai ordez, burua makurtuta negarrari berrekin.

Ate jotzaleak irugarrenez eta laugarrenez be atea jo eben, amorruez jo be. Eta bosgarrenez be jo bearko eben, eurak zabaldu eta sartzen ausartu ez baziran. Gudari bi ziran. Aitari gogor eta lotsage erderaz jardun ondoren, besoetatik oratu eta indarrez eroan eben. Atetik "agur" itzal eta ixil bat entzun zan. Geroztik ez dot aitarik ikusi, baiña bere irudia beti neugaz daroat. Eta geure mendietan dagozan arrizko Gurutzetarantz begiak zuzentzen dodazanean, euretan neure aitak sinistu

eban aberri txiroa ikusten dot, eta aberriagan, bera, neure aita gaixoa.  
Orduan ez nabe arduratzen auzokideen zeresanak, ondo dakidalako gaizkilerik ez  
dala bizi Gurutzearen oinetan. Ondo dakidalako Gurutzeak babesetan dauzan gor-  
puak, Josu-maitale-gogoen gorpuak dirala.

## II. IRUDIA.

*IBON, IMANOL, SABIN, GURUTZ eta JON.*

IMANOL.— (Sartuaz). Ez zara joan, Ibon, Gorozika'ko erromerira?

SABIN.— Ez jakoz atsegin oneri olako erromeriak.

IBON.— Pozik be joango nintzan, baiña...

JON.— Adiskideak iges egin dautzue, ala?

IMANOL.— Kokolo'gaz eta Sagu-zar'egaz batzen ba'zara barrero be...

GURUTZ.— Bestelako arroa da Kokolo ori. Bera buru izatearren edo, txikerrakaz baiño ez  
dau ibilli gura izaten.

SABIN.— Sakelako txakur txikiak ederto orraztuten deutsez arek. Totolo'ri egin eutsona niri  
egingo ba'leust...

IMANOL.— Aoko agiñak laster atarako neuskioz nire anaiari ezer egingo ba'leutso.

JON.— Paparrean darabiltzun ikur ori zer da Ibon?

GURUTZ.— Abertzaleak edo direlako askok erabilten dabe ori.

SABIN.— Zeu be euretariko[re]n bat zara edo?

IBON.— Zorionez euretarikoa naz.

JON.— Zer adierazoten dau ba orrek?

IBON.— Aberria iragarten dau.

SABIN.— Aberria?

IMANOL.— Aberria zer da ba?

IBON.— Geure asabak eta geu jaio garean lurrari deituten deutse aberria.

SABIN.— Orrezkero geuk be aberria dogu?

IBON.— Bai, Euzkadi da geure aberria.

GURUTZ.— Eta zergaitik deritxo ba Euzkadi?

IBON.— Euzkadi'k euzkotar oroen batza agertzen dau, nai laterrietan bananduta bizi diran  
euzkoen batza.

IMANOL.— Sei laterritan bananduta bizi dirala esan dozu?

SABIN.— Eta laterri orreik zein dira ba?

IBON.— Laterriok Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nabarra, Lapurdi eta Zuberoa dira. Benabarra deitzen dautsoen bat be ba'dago, baiña egiz Nabarra'ren zati bat baiño ez da.

JON.— Eta laterriak zer dira?

IBON.— Oitura eta izate bereziak dabezalako eurek egindako lagipean bizi diran erriak dira laterriak.

GURUTZ.— Don Braulio Irakasleak España dala esan dausku geure aberria; zeuk barriz Euzkadi dala esan dauskuzu. Zelan da ori?

IMANOL.— Neuri be alan irakatsi izan daust irakasleak.

SABIN.— Ori dala-eta neuk artu izan dodazan makillakadak ez dira makalak izan. Yo Bizkaia erderaz esan neutsolako lepoa astindu eustan, astindu, barrabas arek. Gure etxe aurrean atrapauko ba'neu, atrapau...

JON.— Euli bat ilteko ez zara eta orreik koplak.

SABIN.— Barriro ezer egingo ba'leust, sur-azpiko bibotea ez leuke osorik eukiko.

IMANOL.— Ixildu zaitetz, ixildu, koldar ori, atzo be negarrari ekiten egon ziñan arratsalde osoan, eraztuna imiñi eutzulako-eta.

JON.— Ona zagoz zu, neuk lez eraztuna uretara jaurtiteko.

GURUTZ.— Zegaitik ez zara ikastolara erduten [etorten], Ibon?

IBON.— Gaur irakastoletan guzorra besterik irakasten ez dalako.

IMANOL.— Orregaitik baiño ez bada...

IBON.— Aita bizi zanean beragaz ikasten neban, baiña aita il ebenetik...

GURUTZ.— Aita il egin eutzuen?

JON.— Gaiztakeri bategaitik eraildua izan zala esan euskun lengoan Luis'ek.

IBON.— Nire aita gaizkiña? Nok esan dau ori?

SABIN.— Zegaitik il eben ba?

IBON.— Abertzalea zalako; orixegaitik bakarrik.

Egun batez auteskundeak ospatu ziran uri onetan. Abertzaleen arerioak gogor jokatu eben eurak nagusi urtetarren. Euren esanetara makurtu ez zan abertzale bat izkilluz zauritu eben. Nire aita zaurituaren onduan gertau zan. Arerioak zapu-keriz bera izentau eben eralletzat eta...

ABOTS BAT.— (barrutik). Eup! Eup! Gurutz! Imanol!

SABIN.— Ene! Ander eta auskan dabiltz!

JON.— Goazen, Ibon! (Arin-aringa eta algaraka joaten dira).

### III. IRUDIA

*ARGIÑE eta IGONE...*

ARGIÑE.— Orreik dira mutil gaiztoak!

IGONE.— Alkar jo eta burrukan ibiltea besterik ez dabe oldoztuten.

ARGIÑE.— Ankoker'eneko Ander beintzat beti olantxe dabil.

IGONE.— A baiño okerrago da Kokolo. Miren'eri atzo emon eutson ostikadea etzan olgetakoa izan. Lau bat egunean sentiduko eban bera.

ARGIÑE.— Orraitiño ez zan izango Ibon'eri emon eutsona baiño andiagoa.

IGONE.— Ibon gaixoa! Atsekabez eta penaz beterik dago beti. Zer jazoten ete jako?

ARGIÑE.— Aitaren lorratza ondo sartu jako areri. Beti baltzez jantzita ibilten da, bere penak obetoago atzaldutearren edo.

IGONE.— Orrek gogo zuria izan bear dau ba. Iñoiz be ez da ikusten txarkerietan.

ARGIÑE.— Goizero-goizero egunsentiagaz batera. Azkorgain'go Gurutzerantz igoten dala esaten dabe, eta antxe otoiari ekiten dautsola bere aita zanaren alde edo. Eta aldi luzea igaro ondoren, Gurutz ondoko lorarik guriak batu eta txortatxu bat egiñaz, Gurutzearen oiñetan lagaten dauzala. Eta gero, Gurutzeari musu bat emon ondoren, lurrean makurtuten dala esaten dabe, eta lurrari be mun egiten dautsola bere aitaren gorpua jagoten daben lurrari maitamenez.

Orrek gogai astunen bat dabil, itxuraz.

IGONE.— Eta gabero gorantz begira egoten dala edestuten dabe, ortzian agertzen diran izarri adi-adi. Eta izarrik agertzen ez danean, itunez eta atsekabez lotuten dala.

ARGIÑE.— Bera ikusiaz bakarrik, neu be atsekabez zurbilduten naz. Ez dakit zer jazoten jatan neure biotz barruan, baiña beti oldozkun batek artekatzen nau. Ain errukarria da mutil ori!

IGONE.— Bere aita gaizkiña zala esaten dautsenean, negar egiten dau eta adiskideak min egingo ba'leutse lez, eurekandik iges egiten dau.

ARGIÑE.— Ez ba. Adiskideak dira berari iges egiten dautsenak, on-ona eta abertzalea dala. (Mutikoen itz ots zatatsua entzungo da).

IGONE.— Oi! Ba'datoz mutil gangar okerrok! Iges daigun arin, iges.

ARGIÑE.— Aztuta nengoan ganera iturriko uragaz. Goazen arin! (Joaten dira. Mutil taldea zarataka agertuko da).



#### IV. IRUDIA

*IMANOL, SABIN, GURUTZ, JON eta ANDER*

IMANOL.— (Neskatoak joan diran alderantz begira) Bildurri argalok! Iges, iges bixkor, jango zaitubeguz-eta.

ANDER.— (Adiskideai bere auskaldi edestia edestuten) Ederrak emon dautsodaz berari be.

GURUTZ.— Zeuri emon dautsuzanak ez dira makalak izan. Ez neuke zeure kolkoan egon gura.

JON.— Orratiño begiondoko ederrak artu dauz ba berak be. Ez jako erraz aztuko areri gaurko auskaldea

ANDER.— An joango zan aitagana negarrez berak errurik ez baleu lez.

SABIN.— Bai ba, berak ezin dauanean...

ANDER.— Atrapauko dot nik ondiño, atrapau, aitak eta amak ikusiko ez daben lekuan.

IMANOL.— Ibon'ik ez da etorri ala?

ANDER.— Lagaiozu baketan bere koplekaz. Gotzon'eri laguntzen joan dala egingo neuke. Olan ba'litz ez litzake asko urreratuko geugana.

#### V. IRUDIA

*LENGOAK eta LUIS*

LUIS.— (Arin-aringa agertuaz). Gure txakurrik ikusi dozue emetik zear?

GURUTZ.— Txakur ona emongo dautzu Ibon'ek.

LUIS.— Ibon'ek? Zer ba? Zer dala eta?

JON.— Bere aitagaitik esan dozuna guzurra dala esan dausku.

LUIS.— Nire aurrean ez dau esango olakorik alotz arek.

IMANOL.— Aberriatzaz esaten dozuzanak be guzurrak dirala agertu dausku.

LUIS.— Eta beranak egiak ezta? Berak zer esaten dau ba?

JON.— Euzkadi dala esan dausku euzkotarren aberria.

LUIS.— Abertzaleen lelokeriak! Ba'dakizue zegaitik esaten daben tentelkeri ori? Ezjakiñak atzipetu eta onein lepotik eurak ondo ibiltarren. Irakasleak baiño geiago ete dakie ba zoro orreik?

IMANOL.— Irakasleak zer esango dautzu ba emengoa ez bada?

ANDER.— (Albo baterantz begira. An doa Ibon iturritantz edo).

IMANOL eta GURUTZ.— (Didarrez). Ibon...! Ibon...!

SABIN.— Ibon...!

ANDER.— Gogorrago didar egiozue ez dau entzuten eta.

LUIS.— Entzun bai zapo arek baiña neu emen ikustean ez dau naiko etorri.

ANDER.— Don Braulio irakasleak gorra izan arren ariño entzuten dau.

IMANOL.— Bai ikusi be. Bere begi pizterreekaz laster ikusten dau arek.

GURUTZ.— (Didarrez). Ibon! (Beretzat). Gorra balitz be. (Didarrez) Ibon!

SABIN.— Araiñegun arek emon eustazan ostikadak tinterua jausi jatalako!

ANDER.— Ostikadea baiño txarrago da belarri bietatik oratu eta gorantz jasotea.

GURUTZ.— (Didarrez). Ibon! Etorri! Orratiño be noz edo noz entzun dauanean.

LUIS.— Ikusiko dogu ontxe. Orrek entzungo daustaz bereak eta bi. Ikusiko dogu ezer esateko adorerik ba'dauan.

ANDER.— Iñozo ori Gotzon' aegaz joan dala ba'neki...

## VI. IRUDIA

### *LENGOAK ETA IBON*

IBON.— (Atsanditsu agertuaz). Zer gura dozue?

GURUTZ.— Kostau jatzu entzutea.

LUIS.— Olako gizonik euren buruari garrantzirik emoten ez badautse, nok emongo dautse ba?

IBON.— Orratiño zeu ez zara bizi zeure buruari garrantzirik emon barik.

LUIS.— Ez baiña... zebek euzkotarrok...

IBON.— Gu euzkotarrok zer? Españarrak baiño apalagoak gareala uste dozu?

LUIS.— Españarrak baiño apalago ezin izan españarrak zarielako.

IBON.— Nok esan dau ori? Euzkotarra ez da iñoz españarra izan, ezta izango be.

LUIS.— Zeuk bai nai, gizajo orrek. Eta zergaitik Castilla'ko bakaldunak jaurri izan daroe ba beti lur au?

IBON.— Bertokoen itxukeriagatik. Baiña ez ziran Castilla'ko bakaldunak izan lur au jaurri ebenak, Bizkai'ko jaunak baiño, aldi baten Castellako erregetzea eta Bizkaia eta Bizkaia'ren jauntzea ebezan gizonak baiño.

LUIS.— Gurutz!

IBON.— Guzurrik ez! Alperrik izango ziran gizon arek Castellako bakaldunak. Bizkaitarrak euren jauntzea eskiñi eta Bizkaiko lagiak zin egiten ez baebezan, etseban Bizkaia'n agintaritzarik.

ANDER.— (Jon'eri). Nun ikasi ete dau zapo orrek orrenbeste?

JON.— Batek ba'daki nun ibilten dan demoniño ori.

ANDER.— (Jon'eri). Sorgiñak ezkutan zirala esaten dabe ba.

LUIS.— Olako almena euki izan ba'dozue, zegatik ez dozube ba gaur beste orrenbeste egiten?

IBON.— Ezin dogulako. Atzipetuta bizi garealako.

IMANOL.— (Gurutz'eri). Laster elduko jakoz Luis'i tripetako miñak.

LUIS.— Noz atzipetu zenduezan ba?

IBON.— Noz? Bergara'n. Bakaldun batek bera agintaritzara igotearren, Jaungoiko aldeko izena emon eutdan gudan.

LUIS.— Ixillik egon zaitez koitadu ori, bestela emoten dautsudan alderdikoagaz...

IMANOL.— Alderdikorik ez, Luis, alderdikoak malen atxakiak izaten dira.

LUIS.— Ba, ni berotzen ba'nau...

GURUTZ.— Laster berotzen zara zeu orratifño.

IBON.— Egiak min emoten daki.

LUIS.— (Ibon jotera urreratuaz). Emongo dautsut gero!

GURUTZ.— (Luis'eri oratuaz). Geldi! Geldi!

LUIS.— (Amorruz iges egiñaz) Atrapauko zaitut o[rai]ndiño, atrapau bakarrik. Orduantxe ikusiko dogu. (Joaten da).

IMANOL.— (Ibon'eri). Gaur ez dautsozu laga bereagaz urteten. Tripetako miñak laster eldu jakoz areri.

IBON.— Ostera be elduko jakoz bein baiño sarriagotan.

SABIN.— Aspertu be egin naz arratsalde osoan emen egoten.

ANDER.— Intxaur lapurretan joango gara?

JON.— Nora joango gara ba?

ANDER.— Ureder'era joango gara.

SABIN.— Ureder'en baiño Goiko-Errotan zindagoak dagoz.

IMANOL.— Joango gara Ibon?

IBON.— Ni etxera joan bear naz.

ANDER.— Ez egiozu orreri jaramonik egin, orrek txinelen bildurra eukiko dau-eta. (Zaratatsu joaten dira).

## VII. IRUDIA

*IBON.*

IBON.— (Oldozkor). Ez dauste sinistuten... Ez dabez arduratzen olako gauzak. Ez dabez arduratzen biotzak... gorputzari bakarrik begiratzen dautse... Abertzalea izatea zer dan ez dakie... Aberriaren deirik ez dabe entzuten...  
Badoaz... ez dakie zer dan aberria...  
Euzkadi gaixoa! Zeure semeak dira zeure illobia egin dautsuenak! (Ixillunea. Oldozkor lotuten da, amesti. Urrun, leun-leun, ume abestia. “Ene aberri laztana” abestu daroe. Ibon'en amesa).

## VIII. IRUDIA

*IBON, ARGIÑE eta IGONE*

IGONE.— (Sartuaz). Oi Ibon! Zer egiten dozu emen bakarrik?  
ARGIÑE.— Zegatik ez zara joan adiskideekaz?  
IBON.— Intxaur lapurretara joan dira.  
ARGIÑE.— Eta joaterik ez dozu gura izan? Bestelako koldarra!  
IBON.— Ez jat atsegin olakorik.  
IGONE.— O[rai]ntxe be itunez eta penetan zagoz. Zer igaroten jatzu?  
IBON.— Ezer bez, ezer bez.  
ARGIÑE.— Bai zerbait.  
IGONE.— Oldozkun astunik darabiltzu edo?  
IBON.— Ez, amesak bakarrik.  
IGONE.— Jaurti burutik amesok!  
ARGIÑE.— Oi! Eta amesak dirala-eta, itunez zagoz? Neuk ames ugari egiten dot, baiña orre-gaitik ez nozu ikusiko penetan.  
IBON.— Ames itunak dira, ames itzalak.  
ARGIÑE.— Zer ames egin dozu ba?  
IBON.— Aberriaren eriotzea ames egin dot.  
IGONE.— Betiko leloa!  
IBON.— Euzkotarrak ikusi dodaz aberriaren illobia egiten, eta aberriagaz batera Gurutze garbia be lurperatuten ebela ames egin dot.

ARGIÑE.— Ori ames bakana.

IGONE.— Eta besterik ez dozu ames egin?

IBON.— Eta illobiaren oiñetan umezurtz bat ezagutu dot aberria negartuten. Geiagorik ez dot egin.

IGONE.— Tira, Ibon. Ez zadiz [zaitetz] orrenbeste kezkatu aberriaren eriotzeaz. Ill ezkerobeto egongo da bake-baketan.

IBON.— Ez, ez da olan. Aberriaren eriotzeak gizonak ilda dagozala agertzen dauz. Aberriaren eriotzeak geure asabekaz aztuta bizi gareala atzalduko dau; geure gurasoak gorroto doguzala erakutsiko dau.

Eta nik ez dot aitarik aztu gura, ez dot gorroto gura... (Negar dagi).

ARGIÑE.— Zer dala-eta negar, Ibon? Zegaitik?

IGONE.— Eta ori dala-eta negar? Epela!

ARGIÑE.— Baiña zegaitik negar? Zegaitik?

IBON.— Ez da ezer... Oldozkun bat... pentsamentu txar bat...

ARGIÑE.— Jaurti oldozkunok! (Pitxarretik ura eskiñiaz). Tori, edan ur apurtxo bat eta goazen etxe ondora. Antxe jolastuko gara.

IBON.— Joan zaitetze, joan. Laga nagizube bakarrik!

IGONE.— Zer egingo dozu baiña emen bakarrik?

IBON.— Negar egingo dot; neure zoritxarra negartuko dot.

ARGIÑE.— Baiña Ibon...!

IBON.— Joan zaitetze... Laga nagizube bakarrik!

ARGIÑE.— Baiña orrenbeste negar?

IBON.— Laga nagizube... laga...

IGONE.— Agur ba. Etorri gura ez dabenantzat [dauanarentzat] eztago ezer.

ARGIÑE.— Baiña Ibon...

IBON.— Ez... ez...

IGONE.— Goazen Argiñe, orrek zerbait izango dau-eta.

ARGIÑE.— Agur ba. Laster etorriko gara. (Beretzat). Ibon gaixoa! (Neskatoak joaten dira).

## IX IRUDIA

*IBON*

IBON.— Aita gorroto... aita gorroto...

Ez, ez, Ibon. Ezin daikezu aitarik gorroto izan. Ezin daikezu. Ori egiten dabenak sasikumeak izaten dira. Zeuk ez dozu olakorik egingo. Ez... iñoz bere ez...

Eta adiskideak esaten daben lez gaizkilea ba'litz?

Baiña zer diño? Ez, ez, ezin daiket aitarik gorroto; gaizkillea ba'litz be ezin daiket, neure aita dalako.

Biotz ganean estututen nindun aitarik ezin daiket gorroto. Esku dardaratsuekaz loisinduten nindun aitarik ezin daiket gorroto, ezin daiket... (Asmo sendoz). Ez... maite izango dot beti, izarrak gaba baiño geiago, amak maite naberen [nauan] baiño geiago... Eta beragaz aberria maiteko dot, Euzkadi maiteko dot, neurea dalako.

Eta aitaren irudia neugan bizi dan bitartez, aberririk ez da ilgo... ez... ez da ilgo.

## X IRUDIA

*IBON eta LUIS*

LUIS.— (Sartuaz). O[rai]ntxe, o[rai]ntxe ikusiko dogu.

IBON.— Zer?

LUIS.— Esango dozu españarretzaz beste bein len esan dozunik?

IBON.— Zegaitik ez?

LUIS.— (Samatik oratuaz). Esango dozu beste bein?

IBON.— Bai, beti esango dot. Euzkadi jopu bizi dan bitartez beti esango dot.

LUIS.— (Ikurra kendu gureaz). Ekatzu ikur ori!

IBON.— Ez daukot zetan emon.

LUIS.— Irugarrenez esango dautzut. Ekatzu ikur ori.

IBON.— Eztautzut emongo! Iñoz be ez dautsut emongo. (Luis'ek indarrez Ibon lurperatuten dau. Lurpean daukola be, kentzeko alegiñak egiten dautsoz, baiña Ibon'ek esku biekaz gogor gordetan dau. Ez, ez dautsut emongo, alperrik jardungo zara.

LUIS.— Esan ba "il bedi Euzkadi".

IBON.— (Sutsu). Gora Euzkadi!

LUIS.— (Arpegian joten dau). Barrero ez dozu esango. Didar "il bedi Euzkadi".

IBON.— (Sutsuago). Gora Euzkadi! (Luis'ek arpegian joten dau barriro, indartsu jo be).

LUIS.— Irugarrenez ez dozu esango. Didar "il bedi Euzkadi".

IBON.— (Sutsu eta gartsu). Gora Euzkadi! Gora Euzkadi! Gora Euzkadi! (Barriro Luis'ek joten dau. Urrun dabillen eiztari baten sutots bat entzungo da, eta bera entzutean arin-arin igesten dau, didarrez).

LUIS.— Ene! Ene!

## XI IRUDIA

### IBON

IBON.— (Lurrean etzanda, jagiteko alegiñak egiñaz). Ezin daiket... indarrrik ez dot... (Oldozkor). Iguin dauste... aberria gorroto dabe... bakar-bakarrrik lagaten nabe... (Urrundik, abesti arrotz baten oiartzuna entzungo da, eta batera, basotxonoko joaleak, laiño zatiak bai'litzan, eriotzea iragarriko dabe astiro eta leun). Zer dausat? Abesti arrotza gizonak..., basotxonoko joaleak eriotzea... (Negarti). Aberria il da... il da aberria... Eta aberria il ezkeroz, zetan biziko naz? Ez... ez... ez dot bizi gura (Urtzi'ri arren egiñaz). Il nagixu Jauna! Aberriagaz batera il...! Zeuganatu nagizu, Euzkadi'ren eriotzea ikusi biño len... Il... Il...!

## XII IRUDIA

### IBON eta ARGİÑE

ARGİÑE.— (Sartuaz). Ibon... Ibon... (Adi-adi geratzen jako).

IBON.— (Argiñe'ri jaramonik egin barik). Il... il, Jauna, aberria baiño len!

ARGİÑE.— Ez Ibon, il ez, bizi...

IBON.— Ez... il.. il..

ARGİÑE.— Il ez Ibon, bizi... bizi...

IBON.— Argiñe...! Ez..., ez..., ezin daiket... il gura dot..., aberriagaz il...

ARGİÑE.— Aberriagaz bizi Ibon... Aberriagaz bizi..., aberririk ez da ilgo...

IBON.— Zeuk diñozu? Baiña ez... ez..., berandu da..., berandu... Aberriak ez dau semerik, danak ezetsi dabe.

ARGIÑE.— Jagi, Ibon. Arrotzak izan dira iges egin dabenak. Euren eriotzea izan da joaleak iragarri dabena [dauana].

### XIII IRUDIA

#### *LENGOAK eta IMANOL*

IMANOL.— (Sartuaz). Zer da Ibon? Zer egin dautzue?

IBON.— Il gura neban, il..., aberriaren eriotzea ikusi baiño len.

IMANOL.— Ez egin olako amesik Ibon. Aberria biziko da. Zetarako gagoz ba geu?

ARGIÑE.— Imanol be abertzale egin jaku, Ibon, aberriagaz bizi gaitazan.

IMANOL.— Ez naz bakarrik. Neure adiskideak be abertzaleak dira. Zeuri eskerrak.

IBON.— Benetan diñozu ori? (Urrundik datorren abesti itxarkor bat, mutikoak abestuta, entzuten da). Baiña ez... ez... Berandu da, berandu...

ARGIÑE.— Berandu ez...

IMANOL.— Ez dogu entzuten? Geure adizkideak dira, aberriari opalduteko Gurutzean indartuten joan diranak.

IBON.— (Bizi jagiaz). Zer dasaut? Neure poza dan andia! Il ez, Jauna, bizi baiño, aberriagaz batera bizi!

Euzkadi! E zzara ilgo, ez! Ez zara ilgo. Geuk askatuko zaitugu. Gurutzearen indarraz, Gaztetxoak izango gara zeure askatasun eguzkia abestuko dogunak. Goazen! Goazen Gurutzerantz geure gogoak argituten, geure biotzak indartuten, joputasunaren eriotzea abestuten.

Il ez, Jauna, bizi baiño, aberriagaz batera! ([Ba]doaz) (Abestia apal-apal amaituten joango da, atzoiala jausten dan bitartez).

### AMAIA



# ILLOBEAREN INDARRA

[Euzkadi – 1934-09-19, (6795. zk.) 12;

1934-09-20 (6796. zk.), 12;

1934-09-21, (6797. zk.) 12. Epekako antzerkia]

*Ekintza bateko antzeziñoa*

ARTETA

## Antzeznotiñak:

Domeke, 40 urteduna.

Garbiñe, 20 urteduna. Etxeko otseña.

Imanol.

Gergore, 40 urteduna

Ikerne, 48 urteduna.

Oldazne, 10 urteduna.

Ander, 78 urtedun agurea.

Jon, Peli, Dei, gaztetxoak.

## EKINTZA BAKARRA

I

*DOMEKE eta GARBINE*

(Iruditegia: Etxe-txaki dotore eta garbia. Albo baten, orman eskegita, txori-kaio-la bat).

DOMEKE.— (Etxe-erara baltzez jantzia. Itun itz egingo dau, zoritxar batek zurbilduta antzo. Atzo gabaz baiño illunago, argalago, jausiago dago. Arnasea be geroago eta estuago jaku... Begi-niniak lausotuten asi jakoz... Nekezago eta ulergatxago itz egiten dau... Alditik-aldira itz bakanak, askeak esaten dauz, burutik egingo ba'leu lez...) Imanol gaixoa!

Antigua'ko Ama Neskutz ori, jabon egidazu, arren, neure seintxu bakar au!

IMANOL.— (Gela barrutik, itzal eta leun). Au da...!

DOMEKE.— Bai, ontxe, biotza.

(Sukalderantz. Baiña Garbiñe, o[rai]ndiño be ez dozu gertu?)

GARBIÑE.— (Sukaldetik). Laster. Bereala.

DOMEKE.— A! Gaurko emakumeok ez litzakez estutuko...

IMANOL.— (Barrutik). Ama...! Amatxu...!

DOMEKE.— Bai, bai, o[rai]ntxe laztana, ontxe. (Sukalderantz). Zetan zagoz, Garbiñe?

GARBIÑE.— (Edontzi bat esne eskuan dakarrela, sartuaz). Banator, etxeoandre. Josu!  
Errekaxe zitalak surik biztuten be...

DOMEKE.— Tira, tira, ixildu eta ibilli bixkor. (Gelan sartzen da).

GARBIÑE.— Gaixo ori dala eta ez dala arnasarik be ezin artu izango dogu. Neu beintzat okotzeraiño bete-bete eginda nago. Zer da au? Bigunkeri eta maitasun gitxiagogaz baten bat osatuko da. Baita zarata eta mikixkeri gitxiagogaz bere.

Noan, noan azokara, berandutu baiño len.

DOMEKE.— (Gelatik agertuaz). Garbiñe!

GARBIÑE.— Etxekoandre!

DOMEKE.— Ama, orriren batzuk ekarteaz ez aztu.

GARBIÑE.— Ondo da.

DOMEKE.— Arrautzak be ekarri.

GARBIÑE.— Baita.

DOMEKE.— Baiña ez geratu gero auzokediekaz kontuak edertuten, ondiño etxea jasoteko daukogu-eta.

GARBIÑE.— Eta Imanol'gaitik itanduten ba dauzte?

DOMEKE.— Txartoago dagola, guztia txarto dagola. (Garbiñe urteten da).

Bosgarren eguna gaur; garra aurrera doa. Bera barriz aul eta indarge dago.

Amaren pozgarri zaran semetxu maitea! (Gelan sartzen da).

II

*JON, PELI, DEI eta GERO DOMEKE.*

JON.- (Atean agertuaz). Ixilik... ixilik... lotan ba'dago be ez dakigu-eta.

PELI.- Iñor bere ez da agiri. (Dei orman dagon kaiola ondora urreratzen da eta txoriagaz jolasten asi).

JON.- Egon geldi, txo!

DEI.- Gurea baiña itxusiago da txoritxo au.

JON.- Nun ete dira etxeoak?

DEI.- Didar egingo dogu?

PELI.- Bai, baiña leun-leun, Imanol esnatu barik.

JON.- (Didarrez). Andre Domeke! Andre Domeke...!

PELI.- Au ixiltasun itzala.

DEI.- (Sukaldeko atetik begiratuaz). Emen ez dago iñor be.

PELI.- Barriro didar egizu, Jon.

JON.- (Didarrez). Andre Domeke...! Andre Domeke...!

DOMEKE.- (Gelatik agertuaz). Ixilik... ixilik...- Noz etorri zarie?

DEI.- O[rai]ntxe etorri gara. Ikastolara joan aurretik Imanol ikustea nai geban [genduan].

DOMEKE.- Imanol ikusi...

JON.- Ezin lei ikusi?

DEI.- Ez dago ondo, ala?

DOMEKE.- Ondo-ondo be... Baiña o[ra]in lo dago.

PELI.- Nozko esnatuko da ba?

JON.- Ikastolatik urten ondoren etorriko gara?

DOMEKE.- Ez dakit ba, ez dakit...

IMANOL.- (Barrutik). Ama...! Amatxu...!

PELI.- Ara, esnatu da.

DEI.- O[rai]ntxe ikusi al izango dogu?

IMANOL.- (Barrutik). Ama...!

DOMEKE.- Itxaron apur bat. (Gelan sartzen da. Umeak apur baten ixillik egoten dira. Dei gelako ate-ondora joaten da eta barrura begira egon).

JON.- Dei! Dei!

PELI.- Txo, geiago ez naz etorriko orrela ibilteko.

DEI.— Arpegiko kolorerik be ez dauko. Begiak ostera urten-urtenak daukaz. Amari zerbait esaten dago. Gaixo txarren bat izan bear dau orrek.

JON.— Iturri-ondoko sagar eziak ez ete dautse egin gero!

PELI.— Goazen geu be ikusten, Jon.

JON.— Eta andre Domeke'k igarten ba dausku?

(Andre Domeke agertzen da).

DEI.— Esnatu da ezta?

DOMEKE.— Bai, esnatu da baiña...

JON.— Ezin daikegu ikusi?

DOMEKE.— Txarto dago. Guztiz txarto. Beste baten ikusiko dozue.

DEI.— Eta osatzen ez bada?

DOMEKE.— Bere aldetik musu bana emoteko agindu daust. Tori enetxuok. (Iruen bekokie-tan musuak irarten dauz). Eta gero, ikastolatik urten ondoren, Antigua'ko baseli-zara joateko eskatzen dautzue, bere osasun aldez otoi egiten. Joango zarie, ezta?

JON.— O[rai]ntxe joango gara gero baiño obeto.

PELI.— Eta ikastolan sartzen ba'dira?

DOMEKE.— Ikastolatik urten ondoren joan.

PELI.— Bai, orduantxe joango gara.

JON.— Arratsaldean etorriko gara?

DEI.— Ikusi al izango dogu arratsaldean?

DOMEKE.— Ez dakit ba, ez dakit...

Ikastolara zoaze orain eta gero...

JON.— Gero Antigua'ko baselizara joango gara bere aldez otoi egiten.

DOMEKE.— Bai, bai. Miren Neskutzak entzungo al dau zuen eskaria. Agur umetxuok.

AURRAK.— Agur. (Joaten dira).

### III.

#### *DOMEKE*

DOMEKE.— (Umeak joan diran lekurantz begira oldozkor).

Ume joriak! Bioztun umeak! Nok al leiken zeuok lez alai eta pozik ibilli, jolastu, ames egin...

Oi! Neure Imanoltxuk zebon artean ibilli al ba'leu... Baiña bildur naz. Ondarru'ko kaleak ez dabela geiago ezagutuko uste dot. Aurrerantzean ez dozue jolas-laguntzat autu al izango, ez.

Antigua'ko Ama Neskutz ori! Loikeriz eta lizunkeriz kutsatuak gagozanon otoi bero eta itxarkorrek entzuten ez dadozuz be, umetxu garbien arrenak onartu egizuz.

Bera dot neure zorion eta alaitasun bakarra. Bera, an urrunean dabillen neure senarraren irudi eta gomuta bizia. Arren, Ama, seintxu kutun ori jabon egidazu, gorde egidazu, laga egidazu... Eroan nagizu neu, bear ba'da, baiña ez bera. Arren, Ama!

### IV

#### *DOMEKE eta ANDER*

ANDER.— (Eskale antzera jantzia. Bizar luze-zuria arpegian). Jaungoikoak dagizuela egun on.

DOMEKE.— (Asarre). Nora dator? Ez dauzat esan milla aldiz etxe onetan ikusterik ez dodala gura?

ANDER.— Neure illobea ikusten nator: gaixo zitalez txarto be txarto dagon neure semeen seme otzana ikertuten nator.

DOMEKE.— Alperrik etorri da, ba, alperrik. Ez dau ikusiko.

ANDER.— Odolak damostan eskubidea dot. Neure illobea ikusi bear dot. (Gelan sartzera doa, baiña Domeke'k, atean jarrita, sarrerea sarratzen dautso).

DOMEKE.— Kanpora nire etxetik, kanpora!

ANDER.— Domeke, arren! Zeure senarra izan zan neure semearren!

DOMEKE.— Zure semea bere aita okerragaz lotsatuta dago.

ANDER.— Nire semea... Ama izateko bere odola emon entzunarren!

DOMEKE.— Alperrik! Ez nekatu alperrik

ANDER.— (Barriri sartu gureaz). Ikusiko dot, ikusi.

DOMEKE.— Kanpora nire etxetik, kanpora!

ANDER.— Itzik egingo ez badautsot be, musu bat... azken musua.

DOMEKE.— Alperrik dabillega esan dautsot. Lenago gogoratu bear zan illobeagaz, lenago.

IMANOL.— (Barrutik). Aitita...! Aitita...!

ANDER.— Deiez daukot. Ikusi bear dot, loisindu bear dot...

DOMEKE.— (Indarrez etxetik jaurteaz). Kanpora esan dautsot, kanpora!

ANDER.— Imanol! Imanol, ene maitea!

## V

DOMEKE.— Agure satatsua! O[rai]ntxe gogoratzen da illobeagaz, o[rai]ntxe. Zital alena.

Lotsatu be ez da egiten etxea saldu, birrindu, beratu eta ezereztu ondoren, joko eta edarrietan nastauta ebillanean gogoratu eta errukitu izan ba'litz...!

(Garbiñe agertzen da). Ba'zatoz emakume?

GARBIÑE.— Oi etxeoandre. Azokan ezin lei ezer erosi. Gaiki txatxarrak eta garesti, guztia garesti.

DOMEKE.— Ekarriko zebazan [zenduzan], baiña, nik agindutakoak?

GARBIÑE.— Ekarrri bai, baiña kostau jat kostau, eurak idorotea.

GERGORE.— (Barruan). Agur Miren garbia!

GARBIÑE.— Arritxu'ko Gergore izango da gaixoa ikusten.

GERGORE.— (Sartuaz). Imanoltxu gaixorik dozuela esan dauste, ene Domeke. Ez nekien ezer be. Noztik dago ba gaixo?

DOMEKE.— Bosgarren eguna daroa.

GERGORE.— Eta zelan dago ba?

DOMEKE.— Txarto dago, guztiz txarto.

GERGORE.— Ikusi al neike?

DOMEKE.— Bai, laster ikusiko dozu, baiña itzik ez egin, nekatu ez daiten (Gelan sartzen dira).

## VI

### GARBIÑE. GERO DOMEKE

GARBIÑE.— Ander gaixoa! Atadian ikusi dot negarrez, zotifari eutsi ezinda. Errukarria! Agure orrek itundu eta saminduten nau benetan. Baserririk baserri ibiltzen ei da eskean, uri onetatik aberatsena izan zan ori. Lagun txarren ondorenak. Bere ogasunak gitxi zirala, semeenak be iruntzi eta eralgiko euzan [ebazan], astiz konturatu ez balitzaz. Berak, barriz, gogor ukatuten dau. Indarraren bildurrez azaldu ezin leikean ezkutapen bat dagola diño. Dana dala, etxe onetako sarrerea galazota dau aspaldiz. Bere illobea ikusi nai dauala esaten dauste, baiña ez dakit. Andre Domeke, gogorra eta gogorra da eta ez dau iñok beretik atarako.

DOMEKE.— (Barrutik). Garbiñe!

GARBIÑE.— Bai. (Lengoari jarraituaz). Zer egingo jako ba! Penagarri da baiña...

DOMEKE.— (Gela atetik). Esnea berotzen imiñi egizu.

GARBIÑE.— Ondo da. (Sukaldera sartzen da).

## VII

### ANDER

ANDER.— (Sartuta). Jaungoikoak dagizuela egun on. (Ixillunea). Ez dau iñok erantzuten. Txindiz beteta etorri ba'nintzan, atera urtengo ziran eta alai eta saratatsu agurtuko ninduen. Baiña Ibarluze'ko Ander'eri, zoritxarrez, aberri-arerioak bere ogasunak ostu entsoezan, eta ogasunik ez daualako, txiro eta esku-utsik dabilkelako, bere 78 urteak be ez dautzez errespetaten. Lanaren nekez jausitako sorbaldok, eta izerdiaren izerdiz tximurtutako bekoki baltz au iguingarri jakoez.

Astun, garratz izan zan aberri-aldezko jagipena; baiña bizitza bakar eta galdu au ez da gitxiago.

Ixil nadin... Norbait dator... Ez, begitanziñoa izan da. Didar egingo ete dot? Baiña zarataka kanpora jaurtiko nabe. Ara ostera be... Ez dator iñor... Norbait egon bear dau gelan.

IMANOL.— (Barruan). Amatxu...!

ANDER.— Neure illobearen abots minkorra. Txarto egon bear dau dirudianez, itzik egiteko indarrrik be ez dau-eta.

Ikusi bear dot, bai, ikusi, azkenengo aldiz izango da-eta. Musu bigun bat irarri bear dot bere bekoki gurean, neure semearen seme kutunaren bekoki gaixoan.

## VIII

### GARBIÑE eta ANDER

- GARBIÑE.— (Sukaldetik agertuaz, ixil eta bildurti). Zer da Ander? Zetan dator?
- ANDER.— Illobea ikusten nator.
- GARBIÑE.— Gaitz izango dauala uste dot. Andre Domeke barruan dago.
- ANDER.— Andre Domeke.
- GARBIÑE.— Ez dautso lagako ikusten.
- ANDER.— Nai eta ez ikusi bear dot (Gelarantz egiten dau).
- GARBIÑE.— Geldi, Ander. Gergore be barruan dago. Zaratea atarako leuke eta kalean...
- ANDER.— Kalean... kalean... Zelan dago neure illobea?
- GARBIÑE.— Ez dakit. Txarto egon bear dau, guztiz txarto.
- ANDER.— Guztiz txarto... Ikusi bear dot.
- GARBIÑE.— Ene, Ander! Ez olakorik.
- ANDER.— Ikusi bear dot, bai.
- GARBIÑE.— Egon... Emetixek, ate aurretik ikusi al izango dau. Baiña kontuz... iñok igarri barik. Zaratarik ez gero...!  
(Ander gelako ate aurrera joaten da eta barrura begira adi-adi egon). Naikoa da, naikoa da Ander!
- ANDER.— (Negarti). Illobatxu gaixoa! Bere itzala besterik ez dot ikusi. Zarraren zarrez begiak lausotuta daukodaz... Bere bekokian musu bat irarri gura neuke.
- GARBIÑE.— Ez estutu. Neuk emongo dautsodaz beorren orde.
- ANDER.— Eskerrak Garbiñe.
- GARBIÑE.— Ez dago zegaitik. Joan bei orain emetik, etxeakoandreak igarri baiño len.
- ANDER.— Bai, joango naz, pozik ganera, neure illobearen itzala ba'da be ikusi dodalako. Baiña, Garbiñe, ogi zati bat. Arren! Iru egun daroadaz ezer be jan barik. Eguraldi txarrak egin dauz eta ezin izan dot iñora urten. Zatitxu bat baiño ez.
- GARBIÑE.— Bai pozik be. Bereala ekarriko dautsot. (Sukaldera doa).
- ANDER.— Imanol gaixoa! Beragan egotearren neure osasuna be emongo neuke. Noz entzun al izango ete dot barriro bere abotsaren gozotasuna? Nabaituko ete dot barriro bere musuaren samurtasunik? Ez, ziñez. Ama baten itxutasunarren! Domekeren biotz-gogortasunarren!
- GARBIÑE.— (Ogi zatiagaz agertuaz). Tori, atzokoa da baiña...
- ANDER.— Milla esker, Garbiñe. Agur.



GARBIÑE.— Agur, Agur.

Koitadua! Errukarria! Biotz on eta bigunduna dala esan lei. Bere obenaz ondo be ondo damututa dago. Ala dirudi. Pena andia emoten daust. Ezin ulertu al dot Andre Domeke lako emakume elizkoi batek, zegaitik etxetik kanpora jaurti eta gorrotatzen dauan bere aitagiñarreba on ori.

## IX

### *GARBIÑE, OLDAZNE, DOMEKE eta GERGORE*

OLDAZNE.— (Negarrez, kezkatu eta zaratzatu agertuz). Ene! Ene! Garbiñe! Garbiñe!  
(Garbiñe'ren altsuan bere burua gorde gura ba'leu lez).

GARBIÑE.— Zer dozu Oldazne eder ori?

OLDAZNE.— Ene! Ama!

DOMEKE.— (Gelatik urtenaz). Zer da ene lobatxu ori?

GERGORE.— Zer igarten jatzu?

OLDAZNE.— Ama! Ene ama!

DOMEKE.— Zer dozu baiña enetxu?

OLDAZNE.— Gizon zar bat ikusi dot ate-ondoan, bizar zuri luzeduna.

GARBIÑE.— Eta bildurtu orregaitik. Ez zaitu jango.

OLDAZNE.— Negarrez asi nazanean musu bat emon daust bekokian.

GERGORE.— Eskaleren bat izango da.

DOMEKE.— Ander izango da. Setatsu ori ortxe egongo da atean, barrura sartzeko unea artu gureaz, baiña ezta sartuko, ez.

OLDAZNE.— Ibar-ondoan ibiltan dan agurea izan da.

DOMEKE.— Berbera zipotza alakoa!

GARBIÑE.— Ez bildurtu maitea. On-ona da. Ez dau txarrik egiten.

GERGORE.— Etxera joan bear naz, Domeke. (Oldazne'ri). Baretu, Oldaznetxu, neuk jaurtiko dot o[rai]ntxe agure zirtzil ori.

DOMEKE.— Agur Gergore. Eskerrak, zeure ikertaldeagaitik. Gorantziak etxekoei (Gergore joaten da).

Nun egoan ba agure ori?

OLDAZNE.— Ate ondoan jesarrita egoan, ogi zati bat jateñ. Bere ondora eldu arteraiño igarri be ez dausat egin. Berak besoetatik oratu eta nor nazan itandu daust. Neuk orduan, bildurtuta, iges egin gura izan dot, baiña gogor oratu eta bekokian musu bat emon daust.

DOMEKE.— Zeure bekokia loa gurako eben bere ezpan zikiñekaz.

GARBIÑE.— Eta ez dautsu ezer esan?

OLDAZNE.— Bai, Imanoltxu'ri aititaren gorantziak emoteko esan daust.

DOMEKE.— Aitita ona, maltzur — petrala alakoa!

OLDAZNE.— Imanolen aitita da agura ori?

DOMEKE.— Aitita... Agurarik geienak aititak izaten dira. Orrek bear ba'da, illobatxurik ez eban izango, bai?, eta aguren biotz ituna alaitutearren Imanol gurako dau illobatztat. Aguren aragi zimel igartuei atsegin izaten jakez umetxuen aragi jori-guriak. Origaitik, umetxoak urreratzen jakoezanean, bigun-bigun eta leun-leun loisinduten dabez, euren umetasun betiko galdua negartuten dabe.

OLDAZNE.— Bai, agura orrek be, musua emon daustanean, negar egin dau eta begiak zabalzabal begiratu izan daust iges egin daustadanean.

IMANOL.— (Barrutik). Amatsu...!

DOMEKE.— Imanol'gana goazen, enetxo (Gelan sartzen dira).

GARBIÑE.— Itsutasunaren txarkeri zitala! Imanol'en aititasuna ukatzen dautsa Ander onari eta beste edozein aguratzat etsiten dau...

## X

### *GARBIÑE eta IKERNE*

IKERNE.— (Misterioz beteriko andra barritxoa. Barruan). Agur Miren Garbia!

GARBIÑE.— Ara ba! Ikerne sorgiña izango da auxe. Amaika kontotxu eta guzur jakin bear dodaz.

IKERNE.— (Sartuaz). Ene bada-eta! Josu milla bidar! Antigua'ko Ama Neskutza!

GARBIÑE.— Zer dakar ostera?

IKERNE.— Uriol andiren bat etorri bear jaku. Bear-bearrezko da, ene Garbiñe. Bai. Jaungoikoaren zigorra ganean dogu. Eta zigor astunen bat izango da, bai.

GARBIÑE.— Zer dala eta Ikerne?

IKERNE.— (Bekokia esku artean artuaz). Jaungoiko errukitsua, gorde eta zaindu gagizuz.

GARBIÑE.— Zer da baiña?

IKERNE.— Gaurko andrak euren izter eta bularra erakusteko daukez beintzat! Josu! Zer da ori!

GARBIÑE.— Oi! Ori baiño ez bada... Modea da gaur olan ibiltea.

IKERNE.— Zorioneko modea. Josu! Josu!

IKERNE.— Ala eta be beste munduko gauzaren bat ekarrela pentsau dot. Orrenbeste zarata eta koplak!

IKERNE.— Josu! milla bider! Lotsa-lotsa eginda igaro naz kaletik zear. Ez dakizu zer entzun dodan.

GARBIÑE.— (Beretzat). Itxaroten neban albisteren bat.

IKERNE.— Artoburu'neko Igone ezkontzen ei da. Orrek egin bear daust zorakeria!

GARBIÑE.— Zorakeria? Zegaitik baiña?

IKERNE.— Ixilik egon zaitez, ixilik egon. Ixidor Orbel'egaz ezkonduko jat ba, ezkondu? Artape'ko aitz-muturra baiño alperragoa dan mozkorti orregaz? Josu! Josu! Nik esaten dodana: Mundu au zoratuta dabil, zoratuta. Zer egiten daben be ez daki.

GARBIÑE.— Atsegin ba'jako zer egingo dau ba?

IKERNE.— Zer jakingo dau, baiña emakume orrek emeretzi urtegaz? Josu! Josu! Pentsau be egitea!

A! Eta Katarine'ren semea Ameriketara ei doa.

GARBIÑE.— Zein? Paul?

IKERNE.— Berbera.

GARBIÑE.— Ondo mutil iaioa!

IKERNE.— Zer egiteko ustez, baiña, Ameriketara?

GARBIÑE.— Nai beste diru ekarten ba'dau.

IKERNE.— Dirua? Orainartekoak ekarri dabena ikusi dogu. Siñismena eta lotsea galdu, besterik ez. Etxetik igestearren guztia, aske bizitzearren. Gaur mutillok ezagutzen doguz, ezagutu.

GARBIÑE.— Uste onez joango da, bai? ta...

IKERNE.— Eta baltzena. Ibiriku'neko Andima'k adiskidea egin ei dau. Nok eta Andima pralle antzeko orrek! Josu! Josu! O[rai]ndiño zer ikusi bear dogun!

GARBIÑE.— Zegaitik ez dau egingo ba?

IKERNE.— Ez nagizu berotu, Garbiñe. Egunero-egunero eleizan sartuta dago-eta...!

GARBIÑE.— Zegaitik ez dau egingo ba?

IKERNE.— Eta pralle esanagaz gogoratu daustazu. Lepoker'neko Anakelda pralle ei doa.

GARBIÑE.— Orrek be zer esana dau?

IKERNE.— Ba'dakit zegaitik doan. Lanik ez egitearren. Alperra alakoa!

GARBIÑE.— Aukera ori ba'dau...

IKERNE.— Aitearen eta Semearen... Ixilik egotera noa, ixilik egon.

GARBIÑE.— Bai, bai. Sartu bedi, sartu, semea ikusten. (Ikerne gelan sartzen da).

## XI

### GARBIÑE eta OLDAZNE. Gero OSAGILLEA

GARBIÑE.— Andra barritsuagorik! Pozik nago txotxin ori barrura sartu danean. Orraitiño be laster amaitu dau. Ez dakit nundik-nora ibilten dan. Kontu ugari jakiten dauz beintzat. Eta jakiten dauzanak beretzat gordeko ba'leuz, gaitz erdi. Baiña kontauko leukez bietz puntatik be! Zer da ori! (Oldazne agertzen da). Imanol ikusi dozu?

OLDAZNE.— Bai, ikusi dot.

GARBIÑE.— Zer esan dautsu ba?

OLDAZNE.— Ezer bere ez. Begiratu besterik ez dau egiten.

GARBIÑE.— Ez dautsu itzik egin?

OLDAZNE.— Bai, bere aldez otoi egiteko esan daust, eta nik antxe, bere ondoan otoi egin dot.

GARBIÑE.— Pena eta min ikaragarriak dauz. Orregaitik ez dau itzik egiten.

OSAGILLEA.— (Sartuaz). Egun on. Eta?

GARBIÑE.— Txarto egon bear dau, atzo baiño txartoago.

OSAGILLEA.— Lorik egin dau?

GARBIÑE.— Gitxi baiño ez.

OSAGILLEA.— Eta jan?

GARBIÑE.— Esne pixka bat. Baiña atzera jaurti dau. (Osagillea, buruari eragiñaz, gelan sartuko da).

OLDAZNE.— Gizon orrek zer egiten dautdo ba Imanol'eri?

GARBIÑE.— Ezer bere ez. Ikusi bakarrik.

OLDAZNE.— Miñik ez dautso egiten?

GARBIÑE.— Ez, on-ona da gizon ori. Imanol osatuten etorten da.

OLDAZNE.— Neuk biotz-biotzez eskatuten dautsot Donokiko Ama deunari bere osasuna. Maite-maite dot benetan. Toki guztietan bitzuok alkarrekaz ibilli izan gara. Oiñ barriz.

GARBIÑE.— Arretarik ez izan. Donokiko Ama bigunak lortuko dau zeure guraria, zindo eskatuten ba'dautsazu.

## XII

### GARBIÑE, OLDAZNE eta ANDER

ANDER.— (Sartuaz). Jaungoikoak dagizuela egun on.

OLDAZNE.— (Ikarati). Ene...! Ene...! Ara lengo agurea!

GARBIÑE.— Egon geldi, Oldazne. Ez dau ezer egiten. Barriri be Ander?

ANDER.— Eta ostera be etorriko naz. Neure illobea ilten dagola sartu jat buruan eta Donokira iges baiño len beragaz itz egin gura neuke. Neure biotza berari zabaldu gura neuskio, emen barruan gordeten dodan ezkutapen au berak bakarrrik jakin bear dau-eta.

GARBIÑE.— Ez dakit ba gurariok lortu al izango dauzan.

ANDER.— Zer esan dau osagilleak?

GARBIÑE.— O[rai]ndiño barruan dago.

ANDER.— O[rai]ntxe joango nintzake... Baiña itxaro dagidan. (Jezarten da). Nekatuta nago. Neure egunak be laster amaituko dira. Ain birdurti dagon neskaitlxu ri, nor da?

GARBIÑE.— Au... Oldazne da.

ANDER.— Oldazne... Oldazne... Izen ori iñoz entzun egin dot, Oldazne...

GARBIÑE.— Bai, zereko...

ANDER.— Erdu ona. Oldaznetxu, erdu.

(Oldazne'k bildurrez atzera egiten dau).

GARBIÑE.— Joan zadiz koldarti ori.

ANDER.— (Oldazne bere eskuekaz loisinduten dauala). Non bizi zara, enetxo?

OLDAZNE.— Baserrian bizi naz. Gurutz-bide baserrian.

ANDER.— Gurutz-bide basetxea! Basetxe apala, maitea, deuna; neure basetxea! Amaikatxu gomuta itun-minkor gogoratzen jaustaz! (Txapela kendu eta otoi egingo ba'leu lez lotuten da).

DOMEKE.— (Gelatik) Garbiñe!

GARBIÑE.— Bai! (Gelan sartzen da).

XIII  
*OLDAZNE eta ANDER*

OLDAZNE.— Zegaitik kendu dau txapela Gurutz-bide entzun dauanean?

ANDER.— Udabarri bat zan. Euzkotarrak illun egozan, kezkatu... Euren joputasunik ezin jasan eroen. Aldra bulartsu bat gogor jagi zan goiz baten, eta erriari didar egin eutson askatasunera. Baiña o[rai]ndiño erria lo egoan Euzkotarrak baiño lenago entzun eban arrotzak guda-zantzoa. Baita amorrus jausi be euzkotar zindoen gain. Azarrienak iges egin eben, Ameriketarantz edo. Baiña bioztun batzuek, igestea koldartiena zala-eta, bertan il gura izan eben. Eta egun batez, eguzkia jaio baiño len, antxe, Gurutz-bide basetxearen ondoan, arrotzak erailduta, lau euzkotar bulartsu betiko jausi ziran. Zoruna eta Askatasuna dan Jaungoikoari didarrez. Ordutik ona, Gurutz-bide'ren orma zarrak, gorri-gorriak dira, bertan jausi ziran euzkotarren ondolaren antzerakoak.

OLDAZNE.— Eta nortzuk izan ziran ba bertan jausi ziranak?

ANDER.— Gurutz-bide'ko jaunak ziran, Lexarditarak. Euretariko bat larogei urtedun agure lerdena; neure aita kutuna. Bere semeak, neure anaiak bi, eta neure semetxu gazte ezkonbarri bat laugarrena. Nik koldarti onek, iges egin al izan neban.

OLDAZNE.— Ez jarraitu, agurea, negar gurea emoten daust-eta.

(Garbiñe sukaldarantz igaroko da, bereala gelara biurtuteko)

ANDER.— Amagaz bizi [zara], ezta?

OLDAZNE.— Ez, amarik ez dot ezagutzen. Poxpolin nintzala il zala esaten dauste. Aitak, barriz, Ameriketan edo egon bear dau. Ez dakit noz etorriko dan.

ANDER.— Bere izenik ba'dakizu?

OLDAZNE.— Bai, Jabier.

ANDER.— Jabier..., Jabier... Berbera. Neskato gaixoa! Ez alperrik itxaron zeure aitari. Ameriketa baiño askoz be urriñago dago-eta; nunbait an... Donokian.

Lizardi'tar Jabier; neure aita eta neure anaia. Gurutz-bide'n eraildua izan zan eta antxe datza bere gorpua euzkoen itxarkundea itxaroten. Alperrik eskutau gura izan dau arrotzak Gurutz-bide'ko eraillketa lotsagarria. Neuri be ogasun guztiak ostu eustazan eta sendiagan neuganako iguin eta gorrotoa suspertutearren, moz-korti eta alproja lez izentau ninduan... Baita bere guraria lortu be.

Atzerrian urte bi igaro ondoren aberriratu nintzanean, ez ninduen etxean artu. Geroztik kalean bizi naz, eskuzabalak emoten daustenagaz. O[ra]in Imanol neure illobea ikusi gura neuke eta berari esan dakidazanak, baiña Andre-Domeke'k...

OLDAZNE.— Aor Aitita, tori gozoak erosteko emon dausten txanponau eta gero neugaz etorriko da neure etxera. Antxe biziko da. Nire osaba on-ona da. Nik esan ezkerro pozik egiten dau, gauzarik astunena be.

ANDER.— Eskerrik asko, Oldaznetxu. (Musu bat emoten dautso bekokian).

#### XIV

##### *OLDAZNE, ANDER, GARBIÑE, OSAGILLEA eta IKERNE*

GARBIÑE.— (Osagilleagaz urtengo da. Ander ikustean). Gaixoa!

ANDER.— (Osagilleari). Zelan dago neure illobea?

OSAGILLEA.— Txarto dago, ilten dago... zure bearrik ez dau... (Badoa).

ANDER.— (Belauniko jarriaz). Imanol! Imanol!

IKERNE.— (Gelatik urtenaz) Garbiñe! Joan zadiz arin txaunburuaren billa. (Barriro gelan sartzen da).

GARBIÑE.— Bereala.(Badoa).

#### XV

##### *ANDER eta OLDAZNE. GERO JON, PELI eta DEI*

ANDER.— Jaungoiko laztana! Arren! Nere ames eta itxaropen bakarra dan illobatxoa! ez egidazu ain arin eroan.

Jaungoiko andia! Ez nagizu laga bakarrik. Eroan nagizu neu, gura ba'dozu, baiña ez bera.

Ene Jaungoikoa! Jaungoiko on ori! Entzun egizu agure zar onen otoia! Entzun neure arrena!

Jauna! Bera bear dot neure azken egunon laguntzalle. Bera bakarrik neure poz eta alaitasuna.

JON.— (Barruan, bigun eta ixil). Ixilik gero, txo!

(Iru mutikoak agertzen dira. Ander eta Oldazne belauniko ikustean bildurtuten dira eta atzerantz egiten dabe. Baiña bereala sartuko dira eta besteen antzera belauniko jarri. Urduri lotuko dira albo guztietara begira, zer jasoten dan jakin gureaz edo. Gelatik Domeke'ren negar zotifñak entzungo dira. Baita Imanol'ek ogutziten dauzan itz bakar ebakiak be).

ANDER.— Jauna! Eroan bear ba' dozu be, ez arren neure ezkutapen au agertu barik!

DEI.— (Peli'ri). Ilten egon bear dau.

PELI.— Dardaraka nago.

ANDER.— Aititaren zoritxar au ez egizu geiago luzatu! Neure gentzea dan illobatxu otzan ori bizi egizu, osatu egizu. Arren, Jauna! Negarrez eskatzen dautsut; biotz-biotzez otoi dagitzut.

PELI.— (Jon'eri). Zer egingo dogu?

ANDER.— Jaungoiko errukitsua! Errugabea nazala ondo dakizu. Ondo dakizu etsiten dausten obenik ez dodala egin. Laga egidazu, arren, illobatxoari neure errugabetasuna agertzen!

IMANOL.— (Barruan, leun eta dardaratsu). Aitita nun dago? Aitita...!

ANDER.— Didar egiten daust. Neugatik itanduten dau... Ba' noa... ba' noa... (Jagi eta joranez gelara sartuaz). Imanol! Imanol maitea!

{AMAIA}



## ITXAS-LAPURRAK. (Ekitaldi bitan)

[Euzkadi – 1936-08-18, (7377. zk.) 10; 1936-08-19, (7378. zk.) 8;  
1936-08-20, (7379. zk.) 8; 1936-08-21, (7380. zk.) 8;  
1936-08-22, (7381. zk.) 8; 1936-08-23, (7382. zk.) 10;  
1936-08-25, (7383. zk.) 10; 1936-08-26, (7384. zk.) 8;  
1936-08-27, (7385. zk.) 8. Epekako antzerkia]

ARTETA

TXIMISTA

IXURDE

NAGI.

IPARRA.

Itxas-lapurrak. Gizon gordiñak.

LORE, 23 urte. Txakolintegiko neskatillea.

ANTXIÑE, 35 urte.

DANIEL, 12 urte. Antxiñe'ren semea.

IBON, 35 urte. Antxiñe'ren senarra. Zar antzera.

ILLARGI, 30 urte. Ibon'en adiskidea. Zar antzera.

“MAIKO-ZARRA”, 70 urte. Ibon'en aita.

AINGIRA.

BRIX.

IGERRA.

Emakume igerrak. Barritsuak.

IKARA, 25 urte. Arrantzale bildurti-bildurtia.

TXEPETXA.

TARIN.

Bertsolariak.

Arrantzale gazteak.

AKELARRE.

TURMOIA

GONAGORRI

SORGIN BATZUK.

Sorgiñak XVI'garren gizaldian.

## LENENGO EKINTZEA

Txakolintegi zarraren atadia, erri ertzean. Ate zarra, leio estu eta motza; leio aurrean egurrezko mai zikiña. Eskerretik arrantzale artetako kale estuaren azkena; urrunerantz etxe estu luzeak igarriko dira. Eskumatik erdi-mendi-erdi-ondartza antzeko leku galdua. Bertan atze aldetik bide galdua. Berago porturako bidea. Urrun itxaso. Udabarriko eguerdi-atea, XVI'garren gizaldian.

## LENENGO EKINTZEA

I

*TXIMISTA, IXURDE, NAGI eta LORE. Geroago IPARRA.*

(Txakolin'tegiko mai inguruan kontu-kontari. Mai gaiñean erdi utsik pitxarra bat eta edontzi batzuk)

TXIMISTA.— (Ixurde'ri). Abestirik ez zendun entzun?

IXURDE.— Urrunegi nengoan.

TXIMISTA.— Nun?

IXURDE.— Aitz baltzaren oiñean. Amarrak aldera argi kiñuak igarri nebazan ondartzapean. Gerotxoago erramuen grakadea entzun neban. Zaratatsuegi ziñuezen.

TXIMISTA.— Alantxe da, baiña itxaso asarrea gendun. Eta zegaitik ez zendun deirik egin? Lagun gitxi giñuzen.

IXURDE.— Dei egitekotan goiko basetxetik oartuko giñuzen. Eta ibarretxe'ko etxe jauna ezagutzen dozu.

TXIMISTA.— Ez egiozu bildurrik. Gordiñagoak, diñagoak markutu doguz.

IXURDE.— Ala uste?

TXIMISTA.— Uste baten... bai. (Pipea atara eta ke-belarrez beteten asiko da).

IXURDE.— Eta zer? Ezer egin zenduen?

TXIMISTA.— (Buruari eragiñaz) Pa...! (Pipea biztu eta nasai-nasai tengada batzuk egin ondoren). Bere ondoraiño eldu giñan baiña olatu batek lemea apurtu euskun eta besteak igarri. Orrela ez gertatzekotan gau aberatsa gendun.

IXURDE.— Nor zan?

TXIMISTA.— Getari'ko "Kaxarra".

IXURDE.— Uste neban.

NAGI.— Oraindik ez dogu Kaxarra ori menderatu.

TXIMISTA.— Jausiko da.

IXURDE.— Baietz uste?

TXIMISTA.— Egiz.

IXURDE.— Gaitz samarra dirudit.

TXIMISTA.— Zegaitik?

IXURDE.— Begi luze da.

NAGI.— Eta indartsu.

TXIMISTA.— Indartsuagoak jausi dira.

NAGI.— Talderik bulatsuena darabil.

IXURDE.— Ule-gorri arek bik aiña al daike.

TXIMISTA.— Eta zer? Bildur zarie?

NAGI.— Ez, baiña...

IXURDE.— Makaltsu igarten ba gaitu...

TXIMISTA.— Zer?

IXURDE.— Txarto erabilliko ginduzke.

TXIMISTA.— (Oso). Ez.

IXURDE.— Ezetz uste?

TXIMISTA.— Oraindik ez da iñor ausartu gure gain jarkiten.

NAGI.— Ausartu lei orraitik.

TXIMISTA.— Gaitz da. Gu ikusi orduko igesari emoten dakie. Ontzi bat bakarra billatzekotan ez dogu iñoren bildurrik.

IXURDE.— (Belarriak zur eta portu alderantz begira) Ixi! Abestia izan da?

(Irurak zutunduten dira. Ixurde eta Tximista'k itxaso alderantz oinkada batzuk dagiez. Nagi'k mai gaiñeko edontzietako ondakiñak edan dagiz).

TXIMISTA.— Begitaziñoa izango zan.

IXURDE.— Aizearen otsa ete zan ba? (Maian jesarten dira). Txakolin geitxuago edango dogu?

TXIMISTA.— (Txaloak jo dagiz neskameari deiez). Sekulako gau neketsua igaro dogu.

IXURDE.— Siñisten dautsut. Aize meak zoli soiñu egin dau.

LORE.— Didar egin dozue?

TXIMISTA.— Pitxarra bete txakolin ekarri egixu.

LORE.— Seigarrena danik ba'dakizue?

TXIMISTA.— Ordainduko ez ete dogun bildur zara?) (Diru batzuk mai ganera luzatuaz). Aor lengo eta oingoarentzat. Eta geiegi dana zeuretzat.

LORE.— Orrenbesterik be...

TXIMISTA.— (Lore'ri itza ebagiaz). Eskatu dautsuguna ekarri egizu. (Lore sartzen da. Ixillunea).

IXURDE.— Eta urruneko argirik ikusi dozue?

TXIMISTA.— Ontzi bat edo bi ikusi doguz. Terranoba'tik etozanak nunbait.

NAGI.— Laster etorriko dira emengoak be (irritsu), oraindik etorteko diranak.

IXURDE.— Arrain ugari ekarriko dabe itxurea dagonez, bestela, onezkero etorrita egon bear-ko ziran.

NAGI.— Erritarren aurka ezingo dogu ezer egin, oraiñarte lez gau illunean izan ezik.

TXIMISTA.— Eta guzur-uleak eta jantzi... (Bat-batean ixiltzen da Lore agertu dalako. Onek mai gaiñean pitxarra laga eta barrurantz egiten dau. Gizonak edontziak bete eta edaldi nasai egiten egiten dabe, ukanduaz ezpanak sikatuaz. Lore barrura sartu dala ziurtau ondoren). Eta guzur ule eta jantzi zarrak zetarako doguz?

IXURDE.— Izketan salatuko giñake.

TXIMISTA.— Bai zera. Olakoetan ba'dakizue; ezpan estu eta esku arin. (Urrundik abestia entzuten da. Iparrak abestuta).

IXURDE.— (Zutunduaz). Ara abestia.

NAGI.— Ontziren bat agertuko zan.

TXIMISTA.— Arin ibilli gaitezan.

IXURDE.— Ontzia nun dogu?

TXIMISTA.— Ondartzapean. Baiña erramu bi baiño ez doguz.

TXIMISTA.— Piper'eri kenduko dautsaguz.

NAGI.— Piper'eri ez. Zainduko gindukez. Eta berbalapiko da.

TXIMISTA.— Turmoia'neko lantegian ainbat dira. Eta Turmoia erbestean da.

NAGI.— Baiña Turmoia'ren etxean atsoa da prakadun. Eta lantegiko atetik begirik kendu barik jardungo da leioan.

IXURDE.— Mendi aldetik sartu lei orraitik.

NAGI.— Mendi-aldean txakurra ate-zai. Zaunkadaka elitzake ixilduko eta atrapauko gindukez.

TXIMISTA.— Prakerrenean ba'dira batzuk.

NAGI.— Prakerre'nak kate'pean lotuta dagoz.

TXIMISTA.— Eta Musugorri'renak?

NAGI.— Orrenak gitxiago. Musugorri alkatea dala gogoratu. Atrapau ezkerro betiko zigortuko ginduzke.

IXURDE.— (Gogoratuaz). Egon... egon... Giputxa'k nun gordeten dauz?

TXIMISTA.— Kantalepe'ko etxe zarrean.

NAGI.— Okerrak eta apurtuak dira.

IXURDE.— Kiñu'renak bestela.

NAGI.— Ezta. Itxasora joana da.

IXURDE.— Edo Tariña'renak.

NAGI.— Tariña'renak? Txikiegiak dira. Ontzi esturakoak.

TXIMISTA.— Norbaiteri kendu bear jakoz ba.

IXURDE.— Berakatz'enak nun dira?

NAGI.— Astelenean Getari'ra salduak.

TXIMISTA.— Arin ibilli bearrean gara, oraindik lemea konpontzeko dogu-eta.

An edo emen jaubetu zaitez, Nagi.

NAGI.— Nun baiña? Erriko erramudun guztiak gogoratu doguz.

TXIMISTA.— Bazterren baten aurkitu zeinkez.

NAGI.— Alakoak izango dira.

IXURDE.— Beti dozu atxakiren bat. Diru banaketetan ez zara atzean lotuten.

NAGI.— Lanerako lez diru banaketetan be.

IXURDE.— Ez dozu itxurarik. Onezkero ontzian izan bear zenduzan erramuok.

NAGI.— Lapak legexe ostikopean aurkitzen dirala uste al dozu?

TXIMISTA.— Zuk batuta eurak be ez litzakez urrituko.

IPARRA.— (Sartuaz) Abestiak abesti ibillia naz aspaldi onetan.

IXURDE.— Entzunak gara, baiña erramurik ezin dogu billatu.

IPARRA.— Ikara'nean erramu ederrak dira.

TXIMISTA.— Egiz.- Eta ez giñan gogoratzen.

IXURDE.— (Nagi'ri). Koldarti areri errez kenduko dautsazuz.

NAGI.— Esatea errezago da egitea baiño. Ikusi gura neukez ikusi arro batzuk. Arririk jaus-  
tekotan ez dira zapalduak izango.

TXIMISTA.— Tira, ez asarrerik. (Iparra'ri). Lemea konpontzeko astirik izango ete dogu?

IPARRA.— Arintsu ibiltekotan bai. Illuntzea elduko da gure uretan sartu orduko.

IXURDE.— Ez dogu asti luzegirik.

IPARRA.— Uste batez egun ugaria izango dogu ondo urtetekotan. Baiña arerio ugari doguz  
bitartean.

TXIMISTA.— Orainartekoak beste edo gitxiago; geiagorik ez.

IPARRA.— Edo bai. Ontzia beintzat errikoa da.

IXURDE.— Aingira'rena?

IPARRA.— Berbera.

IXURDE.— Arerio gogorra.

NAGI.— Lau lagunok joanda be kontuak izango doguz.

TXIMISTA.— Ez orrenbesterik. Nekatuak etorriko dira. Bide luzea dakarre.

IPARRA.— Ori gaiñeratzekotan be arerio gogorrik ba'dogu.

TXIMISTA.— Zein?

IPARRA.— Erri osoa. Eliz ondoan jolasean dabil une onetan. Baiña illuntzean ontzia aurrez-  
aurre agertzean ontziari begira lotuko dira jolasari baiño areago.

NAGI.— Alantxe da. Gaurkoz etxean gelditzea egokiago litzake. Erritarrak, gure lanetan  
igartekotan, gaiñean litzakez eta ondatuko gindukez. Diru batzukaitik betiko gal-  
duko giñateke.

IXURDE.— Beingo eta lenegoz Nagi'gaz nago. Erritarrak igarri eta inguratu ezker zetan  
giñateke.

TXIMISTA.— Iges egin alko genduke.

IXURDE.— Nora?

TXIMISTA.— Beste portuetara.

IXURDE.— Ausardi galanta litzake. Eta atea sarratuta doguz.

NAGI.— Eta gizonekaz zer egingo genduke?

TXIMISTA.— Nungo gizonekaz? Menderaturako ontzikoekaz?

NAGI.— Bai.

TXIMISTA.— Itoten laga orainarte egin dogun lez.

IPARRA.— Ez, olakorik ez. Ille onetan ontzi bi menderatu doguz eta euretariko bederlatzi  
gizon itoten laga.

IXURDE.— Gabaz ba'litz ez, baiña egunez bai, erritarrak ba'dira.

IPARRA.— Eta uste dozu egunez jardun bearko garala? Illuna nausiago izango da argia baiño.

TXIMISTA.— Gizonei begira ba'gagoz ez dogu ezer egingo. Olakoetan pentsamentu otzei bidea sarratu eta odol beroari aurre emotea egoki.

NAGI.— Eta erriak zelanbait igarriko ba'leuke, aztarrenik atarako ba'leu, zetan giñake?

TXIMISTA.— Bildur larregi agertuten dozu. Ez ete dozu etorri gura?

NAGI.— Gure lana ixillean egingo dan ziurtasunik ez dodala, ez.

TXIMISTA.— Eta ziurtasun ori ez dogula uste ete dozu?

NAGI.— Oraingoz ez.

IPARRA.— Oraingoz bai.

NAGI.— Uste dozu?

IPARRA.— Bai.

NAGI.— Eta orretarako zer egin bearko genduke?

IXURDE.— Alantxe, baiña orixe ez dakigu.

NAGI.— Nik uste neban dana gertauta zenkazula. Goiz guztian mendian etzanda egon zara. Zerbait pentsetako astia izan dozu.

IPARRA.— Eta zer dakizu gertauta ete natorren edo ez?

TXIMISTA.— Lekutan zagoz agertzeko.

IPARRA.— Ixasaurretik gizonak barruratzeko barruko kaleetan zerbait egitea bearrezko da.

IXURDE.— Eta zer egingo dogu? Erri guztia bertaratu bearko dozula jakizu.

NAGI.— Jokoren bat ipiñi?

IXURDE.— Ez, jokoak ez dabez gizon guztiak erakarten.

IPARRA.— Nik, neure aldetik, bertsolarien gudua ipiñiko neuke.

NAGI.— Bertsolaririk ez dogu. Kardantxillo makaltsu dabil.

IPARRA.— Kardantxillo izan ezik besterik ez ete dago?

TXIMISTA.— Kardantxillo bera be ardao apur bategaz berotuko litzake.

NAGI.— Eta nor leuke arerio?

IPARRA.— Edonzein. Txepetxa bera.

NAGI.— Zartua da.

IPARRA.— Birigarrogana jo geinke.

NAGI.— Peto egiten oitua.

IXURDE.— Ez uste. Azkenengoan gizonki jokatu zan. Txakoliñez busti-busti egin bear orretarako.

TXIMISTA.— Txepetxa eta Birigarro orduan?

IPARRA.— Nik, neure aldetik, Txepetxa eta Kardantxillo alkartuko neukez. Astitsu eta luze-ago jokatuko leuke.

TXIMISTA.— Ainbat obeto. Nok itz egingo dautse?

IPARRA.— Irurok. Nagi bidean lagako dogu Ikara'ren erramuak artzen.

NAGI.— Joko guztietan Nagi galtzeko.

IXURDE.— (Nagi lepoan jo eta koipetsu). Baiña dirutan irabazteko.

TXIMISTA.— (Txakolin edontzi bat bete, Iparra'ri kiñu egin eta Nagi'ri emoten dautsa). Zenbat doaz?

NAGI.— Bertsolariei labantsu eta koipetsu itz-egin al izateko aiña. Ikara'ren erramuak eza-gutzeko begiak laiñotsuegi. (Besteak barre dagie. Astiro eta gozotsu edontzia utsi-tuten dau).

TXIMISTA.— Ba'goaz?

IXURDE.— (Aolkulari). Betiko leloa; zur eta arin. (Doaz).

## II

### *ANTXINE eta DANEL*

(Ama-semeak. Ituna eta kezkea amaren arpegian; argitasuna eta itxaropena semeare-nean. Maite dabenaren kezkatu eta itxaropentsu datoz, begi-gogoak portu alderantz zuzenduaz).

ANTXIÑE.— (Une baten porturantz begira egon ondoren itunki). Ikusten? Itxaso urdin...!

DANEL.— Ara, an, barratik laster itzal nagiak ikusten,

ANTXIÑE.— Laiño zuriak. Euririk ez dakarren laiño zuriak.

DANEL.— Itxaso eta odeiak alkartuten diran ertzean. Oraindik oartzen ez?

ANTXIÑE.— Ene begi jausiak ez ainbesterik igarten.

DANEL.— Aizeaz jolaska dabiltzan bela zuriak oraintxe igarten, txori goseti pilloak irudi-tzen, ontzia inguratzen. Oraintxe ikusten, ama, benetan ikusten.

ANTXIÑE.— Uste argalak. Egunero ago ikusten eta aitaren ontzirik beiñere ez eltzen.

DANEL.— Baiña gaur bai, ama. Begira, begira luze!

Nire poza! Gaur gabeen aitaren ondoan neguko ipuiñak entzuten.

ANTXIÑE.— Gaur gabeen ames zoroak kimatzen; biar goizean barrero itxaropenei men-egiten.



DANEL.— Ez. Gaur gabean itxas otsoen kontuak jakiten; izotz artean bizi diran arrain gaiztoen edestiak eta gozatzen.

ANTXIÑE.— Koitadu ori, gaur gabean atzo lez negarti oera. Ontziaren aztarrenik ez gaur be.

DANEL.— Zegaitik ain ustekabe itz egiten? Nire esanetan ez siñisten? Ara, begira, begira ondo! An... itxasoa eta zerua bat egiten diran tokian ontzi puntak argiro ezagutzen.

ANTXIÑE.— Ago ixillik. Menperatu biotzaren min ori. Biotzaren min guzurzuloa eure begietako irudi.

DANEL.— Ez olakorik. Abestia be entzuten. Etxera datorren aitaren ontziko arrantzalien abesti samurra entzuten. Entzun? Ez?

ANTXIÑE.— (Apurtxu baten belarriak zur euki ondoren). Irudipenak.

DANEL.— Itxaron, itxaron aize-joaldiari. Oraintxe. Entzuten?

ANTXIÑE.— Aizearen soiñua bakarrik eta mozkortien itz-jarioa.

DANEL.— Siñisten ez? Goazen arantzago, goazen!

ANTXIÑE.— Nora baiña? Egunoro abil bardin eta gaixotuten ago.

DANEL.— Goazen porturantz. Andixek urrerago ikusiko dogu, askoz be urrerago.

ANTXIÑE.— Zelan ikusiko ontzirik ez ba'dator?

DANEL.— Goazen, goazen! (Portu alderantz doa, bere atzetik ama darouala).

### III

#### *ILLARGI eta IBON. Gero LORE*

(Portu aldetik datoz. Bizar zuri eta makurtu Ibon; gazteago Illargi)

ILLARGI.— (Ama-semeakaitik). Ikusi dozuz? Zeureak ziran.

IBON.— Nekez eutsi naz. Musu bat emoteko egon naz.

ILLARGI.— Itun doa.

IBON.— Mutilla be bai. Begiak diz-diz egitsen malkotsu.

ILLARGI.— Zoriontsu zeu. Maite zaituen emazte eta semea dozuz eta itxaroten zaitue.

IBON.— Begiratu be ez dauskue egin.

ILLARGI.— Ez zaitue ezagutu.

IBON.— Ezagutuko ba'nindue.

ILLARGI.— Ez itxaron, gaitz da.

IBON.— Errian ezagutuko nabe.

ILLARGI.— Ezta. Nor ausartuko da agure zar ori, bizar zuridun arrantzale makurtu ori, Ibon lemazain gazte bixkorra dala esan eta siñisten? Edonok esango leuke Urondo'ko jauna zareala. Alantxe zagoz dotore, zuri, betargi eta arin.

IBON.— Maitale koipetsuen leloa ikasia zu be? Mutilzar trakets uste ziñuzen.

ILLARGI.— Mutilzar loratan izateko eragozpenik ete dago?

IBON.— Lore zimelak, igarrak dirudie zeureak. Ez zendun jakin begi argirik erakarten, esku labanik leuntzen; musu bigunen kili-kilirik ez dozu oraindik nabaitu.

ILLARGI.— Ixil, koipetsu ori. Agure zartu eta bizar zurituta be maitemintsuen gogorik dozu?

IBON.— Jantziak ez dagie prailerik, adiskide.

ILLARGI.— Txakolin apur bat edango dogu? Atsedean aldi bat irabazia dogu; nekatua nago.

IBON.— Goizetik asten gara. Baiña jarri gaitezana eta zur. (Mai inguruan jarri eta txaloak jo dagiez. Lore agertzen da)

LORE.— Deitu dozue?

IBON.— Pitxarra bete txakolin ekarri egizu begi-ezti orrek.

LORE.— Aspaldi nebazan begi eztiak.

IBON.— Oraindik ezti dozuz orraitio. Mutilzar askok gura leukez zeure begiok aurrez aurre. Artizar'eko Illargi'k bai beintzat. (Illargi'k ukondoaz jo dagi eta arpegi asarrez ixillik egoteko erakutsi gura dautso).

LORE.— Ezagutzen al dozu?

IBON.— Orain, ez dakit. Iñoiz ikusia naz. Entzutea geiago ezaupidea baiño. Mutilzar trakets arlotea dala ba'dakie bazterrak.

LORE.— Arlotea ez dakit, baiña artoa bai beintzat. Eta aizetsua.

IBON.— (Zirikalari). Ainbesterik?

LORE.— Milla errial ozta-ozta eukiko dauz euki eta Urondo'ko alaba nagusiaren atzetik ibillia da. Ez dago bazterretan argiagorik eta iaioagorik!

IBON.— (Nasai barre egiñaz). Eta zurragorik.

LORE.— Eta liraiñagorik. (Ibon'ek nasaikiro barre dagi. Lore barruratzen da alaitsu. Illargi irakiten. Bat-batez jagiten da sutsu eta Lore'ri zerbait egitera doala igarri-erazoten dau).

IBON.— (Illargi'ri eutsiaz). Nora zoaz?

ILLARGI.— Laga, laga; neskazar ziztrin ori ilten noa.

IBON.— (Barre-algaraka). Origaitik?

ILLARGI.— Laga nagizu! Neskazar sorgin, zikin, arlote, berbalapiko, txatxalea.

IBON.— Baretu, gizona, baretu. Gure lana galdu zeinke orrela jardutekotan. (Ibon barreka, Illargi nekez, baiña jesarten da).

ILLARGI.— (Ibon'eri). Eta zu...

IBON.— (Zirikalari). Ez nekien zure ibillirik.

ILLARGI.— Sorgin zarren kontuak, akelarretan asmauriko sorginkeriak.

IBON.— Ibaia oska datorrenean...

ILLARGI.— Eta zeuk be siñistuten dozu? (Barrero jagiten da sutsu).

IBON.— Ez berotu gizon, ez asarratu. Zerbait jakin geinke ementxe. Baiña kontuz. Neuk bakarrik itz-egingo dot. Ikusiko dozu. (Lore datorrela oartuten dau). Ba'dator (Jarten dira. Ixiltzu dagoz. Lore agertzen da edariagaz).

LORE.— Urrundik al zatoze?

IBON.— Zartsu gara bide luzeetan ibilteko.

LORE.— Ez ain zarrak orraitik. Begi argiak dozuz oraindik eta bekoki garbia. Adiskidea gazteago itxuraz.

IBON.— (Zirikalari). Gazte-zar zan aldi baten; orain, zar-gazte dirudi. Guztiz aldartetsua da. Illargiak indarrrik ba'dau bere izatean. Il goretan gazte-zar agertzen da; il beretan zar-gazte.

LORE.— Gizon bakana benetan.

IBON.— Illargi betean izan ezik ez daki itzik egiten. Illargi betean, barriz, barritsuegi jarduten da. Guztiz zoritxarrekoa izan da. Lenengo maitalea billatu ebanean illargi bete zan. Koipearen-koipez eta loren lorez emakumea arrotu eban eta andik laster zoratu.

LORE.— Arrigarria.

IBON.— Bigarren emakume bati agertzeko indarra izan eban oraindik. Baiña zoritxarrez illargi-betea zan eta...

ILLARGI.— (Eutsi eziñez). Edo ixilik edo ilko zaitut.

IBON.— (Geldi egoteko agerkun eta kiñu biziak egiñaz). Baretu, gizona, baretu (Lore'ri). Ez bildurtu. Gaztaroan asarre gogorrak eukia da eta il-beretan asarreok gogoratzen daki. Gatzik egiten ez daki orraitio.

LORE.— Artizar'eko semearen antza dau. Olantxe ibilten da a be.

ILLARGI.— (Ibon'eri, ixiltzu). Ikusten? Salatuten nozu.

IBON.— Tximista'ren adiskide kutuna da.

LORE.— Bai?

IBON.— Biotz-biotzeko adiskidea.

LORE.— Oraintsu emen egona da.

IBON.— Bakarrik?

LORE.— Ez. Nagi eta Ixurde beragaz egon dira. Baita Iparra gaztea be.

IBON.— Nora joan diranik ba'dakizu?

LORE.— Oso asarre dira nigaz. Ixiltzu itz egiten dakie eta guztiz begitankorrek dira. Atean agertu orduko jarduna bertan bera lagaten dakie.

IBON.— (Illargi'ri, ixiltzu). Entzuten? (Lorer'ri) Ainbesterik?

LORE.— Parkatu asko esatea ba'da, baiña bide garbirik ez darabillela egingo neuke. Alkarri dei egiteko abestiak erabilten dabez. Abestia entzun orduko guztiak alkartu eta iges egiten dabe.

#### IV

#### *LENGOAK eta AINGIRA, BRIX eta IGERRA. Gero NAGI.*

(Emakume zarkote-barritsuak. Markutsuak dira.

Kaletik porturantz doaz astiro eta berbalapiko).

AINGIRA.— Ez zekien? Gonagorri'k ekarri ei dau albistea.

BRIX.— Zelako albistea?

AINGIRA.— Getari'ko Kaxarra'ri itxas lapurrak urten ei dautse.

ILLARGI.— (Ibon'eri) Entzuten?

IBON.— Ixi. (Bitzuak barritsuen jardunari adiago jardutuko dabe eurak darabilenari baiño).

AINGIRA.— Bart illuntzean, txikiña, bart illuntzean.

BRIX.— Jiesuuuus...! Baketan itxiko ete dauskue? Aitaren eta Semearen...! Eta okerrik egin dautse?

IGERRA.— Barruan ekarrezan arraiñak kendu eta etxera elduten laga dautsenean pozik be pozik, txikiña, pozik be pozik.

AINGIRA.— Amaika lebatz ostu dautsezala esan dau Talatxepe'ko neska motzak.

BRIX.— Amaika lebatz andi, amaika? Errialak balio dabez eurak, ba, errialak balio. Jiesuuuus...! Aor aste guztiko irabazia.

IGERRA.— Eta amaika bakarrik izan ba'litzaz utsa litxake, baiña amaika ez-eze amazazpi be izan ei dira, Brix, amazazpi lebatz andi. Olgetako jokoa ez da gero. Esan errezagoe giten dira (Astiro). Amazazpi lebat andi!

BRIX.— Amazazpi lebatz andi neuk ikusi dodazala denboratxoa da (Astiro). Amazazpi andi...! Jiesuuus! Eurak esaten aoa be adurtsu-adurtsu egiten jat-eta? Amazazpi lebatz andi!

IGERRA.— Mutillok be ez dira izan gogor-gogorrak. Besterik barik amazazpi lebatz andi ostuten laga? Zeiñeri eta itxas-lapurrei amazazpi lebatz andi ostuten laga?

AINGIRA.— Orixe berori diñot neuk be. Nire senarra izan ba'litz ez eutsen ainbesterik egingo, ez orixe.

IGERRA.— Olakorik ez daustu esango Arpeizuri'k.

AINGIRA.— E? Zeiñek esan dozu? Arpeizuri'k? Zer dauko ba esateko andra txatxala arek? (Nagi igaroten da kaletik porturantz. Arintsu doa lepoan erramu bat daroala. Lore'k ikusten dau eta bestiei adierazoten dautse).

BRIX.— Ara Nagi be. Eta jaramonik egin barik doa bera gero! Ez daukagu ezer esateko. Aor, etxea erosi dabenetik [dauanetatik] aizeak burura igonda. Nor eta Nagi!

AINGIRA.— Binke!

BRIX.— (Nagi'ri jarraituten dautzela). Egon, egon Nagi, ontxe gatoz geu be-eta. (Badoaz).

## V

### *IBON, ILLARGI, LORE eta IKARA*

ILLARGI.— (Ixiltzu, Ibon'eri). Bera da.

IBON.— Ziur zagoz?

ILLARGI.— Bai, oraindik begi aurrean ikusten nago. Bera da.

IBON.— Jarraituko dautsagu? Portura doa.

ILLARGI.— Itxaron. Gaberarte ez dira urtengo.

IBON.— (Lore'ri). Eta ba'dakizu nora joan diran?

LORE.— Bertsolariakana joango ziran. Entzuten nengoan esan dabenean. Gabean bertsolari gudu bat ipinteko jardun dira.

IBON.— (Illargi'ri). Misterio asko dago emen. (Lore'ri). Eta errirantz joan dira?

LORE.— (Bai, atze aldetik joanak dira).

IBON.— Joango gara? (Txakoliña ordaintzen dau eta jagiten dira).

IKARA.— (25 urtedun mutil bildurri eta tentela. Barrutik deiez). Lore! Lore!

IBON.— Didar dagitzue.

LORE.— Ikara da.

ILLARGI.— Zure senargeia?

IBON.— (Illargi ukondoaz joaz). Ixi!

LORE.— (Gorrituta). Mutil gazte bat. Lengusu bat...

IBON.— (Zirikalari). Emakume batek mutil gazte bategaitik lengusoa dala esan eta gorritu-  
ten danean...

IKARA.— (Gutziz dardarati eta bildurri agertuaz). Lore! Lore!

LORE.— Zer dozu? Kezkati zatoz.

LORE.— Eta nigana zatoz? Gordeta daukodala uste dozu?

IKARA.— Ezkontzen gareanean ezingo dautsut arraiñik ekarri erramurik ez dodalako.

LORE.— Goi-alde eder eta argia dago ontxe zeugaz ezkontzeko. Tira, ez egixu tentelkeririk,  
koldarti orrek. Ume mokoa dirudizu era orretan, entzuten?

IKARA.— Zeuk be baztartuten nozu, maite orrek?

LORE.— Zeu ostuten ez zaitubenean... Zetan zagoz emen? Orrela egonda erramurik billatu-  
ko dozun ustean zagoz? Portura emendik. Aztertu ontziak. Ondiño geldi zagoz?

IKARA.— Portuan lapurrak egongo dira-eta...

LORE.— Ez zaitetz ain koldarti. Ezer egingo dautsuen bildurrik dozu?

IKARA.— Lapurrak-e... lapurrak-e...

IBON.— Entzun gazte. Bildur zara?

IKARA.— (Gutziz dardarati). Ez...

LORE.— Ezetz diñozu eta dardaraka zagoz.

IBON.— Geugaz etorri gura dozu?

ILLARGI.— (Ibon'eri belarrira). Ondo zagoz? Zoroa dirudi.

IKARA.— Nora?

IBON.— Ez egizu bildurrik. Ondo ordainduko zaitugu. Etorri gura dozu? (Ikara'k Lore'ri  
begiratzen dautso baimen eske; onek kiñutsu baietz).

IKARA.— Bai...

IBON.— Goazen gorantz.

IKARA.— Eta nire erramua?

IBON.— Aztu egizu, mutil.

IKARA.— Nire erramoa... bera bakarrik neukan-eta...

IBON.— Jaubetuko gara, benetan diñotsugu. (Kale zear doaz. Ikara Lore'ri kiñuka eta agurka. Lore txakolintegira sartzen da).

## VI

### *TXIMISTA, IXURDE eta IPARRA.*

(Kaletik datoz)

TXIMISTA.— Dana gertuta dago.

IPARRA.— Eta Nagi? Bere barririk ez dakigu.

TXIMISTA.— Onezkero portuan egongo da.

IPARRA.— Baietz uste?

IXURDE.— Gaberako bildur naz.

IPARRA.— Oindiño orretan zagoz?

IXURDE.— Oraintsu be gaua gogoratzen dot. Ezin dot aztu.

TXIMISTA.— Ez zaitetz ain koldarti. Emakumea dirudizu. Ibon menderatu gendun egunekoaz zabiltz? Ezin geinkian besterik. Edo gizonak ito edo geu galdu. Eta zoroak izango ete giñan gizoni baketan lagateko.

IXURDE.— Egun aretan bost gizon ito genduzan. Uste dozu gure irabaziak bost gizonen bizitzarik merezi ebela?

IPARRA.— Itxas-lapur odolik ez dozu. Geugaz batzean jakin bear zenduzan ondorenok. Edo uste zendun lanbide leun eta eztian sartu ziñala? Nekea da gizonaren ogi, adiskide.

IXURDE.— Nekeak ez nabe bildurtuten, eurei egiña bai nago. Gizonen odolak ikaratzen nau orraitik. Ainbat gizon il doguz odol otzean. Eta euren atzetik negarra eta zoritxarra laga doguz. Begira Artizar-era. Semerik kutunena, Illargi, Ibon'egaz batera il gendun. Uste dozu Artizar'en semearen itxaropena galdu dagienean zorionik eta alaitasunik egongo dala?

TXIMISTA.— Ba'dakik zure bildurren sustraia. Artizar'era begira bizi zara. Artizar'eko alabean zeure biotzaren begiak.

IXURDE.— Maitasunak itsutu eta atzeratzen nabarik ez uste. Begira Ibon'en sendira. Aita zarra, ozta-ozta itxasoratuten dan agure ona; emaztea eta seme gaztea. Ibon kenduaz maitasuna, alaitasuna, ogia eta bizitzea kendu dautseguz. Uste dozu ainbestarik ba'daikegula?

TXIMISTA.— Terranoba'ko uretan ito dirala pentsatuko dabe agertuten ez diranean.

IXURDE.— Alantxe uste dogu, eta zer? Beste pentsamentuei begiratuko ete dautsegu gure ekintzak aztuaz? Gizonok zintzoago jokatu bear geunke.

Zer egingo dau erriak gizonen itxaropena galdu dagienean? Gure aurka jagiko ba'litz zetan giñateke?

IPARRA.— Zegaitik altzauko da gure aurka? Gure errurik pentsau be ezin daike erriak. Oñarririk billatuko ete dau orretarako? Erriak gizon zintzo uste gaitu.

IXURDE.— Aspaldi onetan arinkeri ugari egin dogu orraitik.

TXIMISTA.— Agintari makala nazala esan gura dozu?

IXURDE.— Irabazteko ziurtasun barik jokatu gara sarritsu. (Urrunetik datorren abestia entzuten da). Eta errian parra-parra dabiltz gure ibillerak. Ez gaitue ezagutzen eta ez gaitue lapurtzat begiratzen, baiña itxasoan lapurrak dabiltzala ba'dakie. Eta geiegi da.

IPARRA.— Abestirik entzuten? Gazteak datoz. Goazen emendik..

TXIMISTA.— Portura joango gara?

IPARRA.— Obeto izango da ontzia zainduten Begi-Eder'era joan, ezta? (Sasi bidetik joaten dira).

## VII

### *TXEPETXA, TARIN, ARRANTZALEAK eta LORE*

(“Joxe Mikel'en batela” abesti ezaguna abestuten datoz alaitsu eta erromeri antzera. Gazteak dira, Txepetxa ezik. Kaletik datoz).

LORE.— (Zaratara atera urten da). Beti alai eta beti zoro.

TARIN.— Zer egingo dogu ba, negar?

LORE.— Bein edo bein ikasiko dozue negar egiten be.

BATEK.— Gazteak ez dakie negarrik egiten.



LORE.— Zartzarora elduko zarie orraitik. Ez uste beti udabarrian biziterik (Zirikalari). Or dozue Txepetxa zartsu eta makurtsua. Gaztiekaz ibilli nai baiña gogo zarregi. Mutillak barre dagie).

TXEPETXA.— Oker zagoz. Urteak ez dagie gogo zarrrik. Txepetxa gazte da oraindik.

BATEK.— Gazte asko ikusi gura neukez orren aurrez aurre bertsotan.

BATZUK.— Ori! Ori! Ori bai!

BATEK.— Erakutsi egiozu Txepetxa oraindik gazte zareala.

BATZUK.— Bertsotan! Bertsotan!

BATEK.— Bertsotan bai, Txepetxa. Ekin bertsotan!

TALDEAK.— Bertsopak! Bertsopak!

TXEPETXA.— (Irritsu, Enbeita'k erabilli oi dauan doiñuan).

Adiskidiak zirikalari  
bertsoak entzun naiezka,  
zalegoa lore biguna  
begi ezteie kiñuka;  
uleak zuri izanagaitik  
biotza maite deiezka,  
orrek kenkuko leuskit gozoki  
bizitza guztiko kezka.

TALDEAK.— (Txaloka). Ori! Ori!

TARIN.— (Lexoti bertsolariak erabilten eban doiñuan).

Agure jausi izanagaitik  
biotza dozu penetan,  
gaxuoi erruki zaitugu  
ikusten maite garretan;  
min kentzerik eztozu izango  
izan ezik zoroetan;  
oba dozu biotzoi asetu  
txakolin gozo eztitan.

LORE.— Aor. Ziri ederra sartu dautsu.

BATEK.— Txakoliña ekarri egizu, pixka bat berotzeko.

BESTEAK.— Ez. Oraindik ez. Geroago obeto. Porturako osteria egin dagigun aurretik.

IRUGARRENAK.— Bai, portutik gorakoan obeto.

BATEK.— Agurtuteko beste bat bota egizu, Txepetxa.

TALDEAK.— Beste bat! Beste bat!

TXEPETXA.— Eztarri urratua dot.

LORE.— (Zirikalari). Zarren eta makalen kontuak.

TALDEAK.— Beste bat! Beste bat!

TXEPETXA.—

Eskuko dardara eta ule zuriak  
eztabe gizonik zartuten;  
gizon iaio eta langilliaren  
ezaugarritzat nik etsiten.  
Oraintxen ain zuzen odolak  
gazte lez irakiten;  
laster gaituzu zeure txakoliñaz  
odol beruok otzitzen.

TALDEAK.— Ori! Ekin ortxe! (Txaloak).

TARIN.—

Eskuko dardara eta ule zuri  
ikusten zaitugu Txepetxa,  
origaitik gazte alaitzat  
gure aurrian zu zara.  
Zar itxurarik iñoiz ba' dozu  
nik ba'kit orren sustraia  
txakolintzat sarritxu edan dozu  
ur zikiñaz nastatua.

BATZUK.— Ederto! Ederto!

BATEK.— Ordago Lore'rentzat.

BESTEAK.— Esaten dakianak entzun dagiala. (Porturantz doaz zaratatsu. Malko zarra'gaz bat egin eta alaitsu agurtuten dabe. Lore txakolintegian sartzen da).

## VIII

### MALKO ZARRA eta geroago LORE

- MALKO.— (Gazteei). Zoro antzera zoaze eta zeuon artean eriotzarik dozuenik ez dakizue. (Bere artean). Neuk ikusi dot eta ezin dot siñistu. Guzurrik ez dakien zeure begi argiok ikusi dabe. Eta neure esku artean, dardarearen dardarrez sentikor eta egiti diran neure esku zakar artean erabilli dot. Eta ontzian euki dot aurrez aurre. Maitasunez begiratzen neutson. Bere begiak ez eben indarririk orraitik. (Gogoratuaz). Zabalik oraindik, baiña urrunerantz begira... amari begira... maitale kutunari begira... zerurantz begira... nok esan daike nora? Eta bere ezpanak zabalik... norbaiteri deiez ba'egozan antzera. Baltza gaixoa!  
Eta bere begiak, bizitzarik ez euken begi itzal areik, Ibon bere lemazain gaztea, neure semeetan kutunena, zoritxar bardiñak menderatu ebala iñosten. Bere begietan irakurten neban, odolik ez euken begi areitan, Ibon gaixoa! Bizitza barrezka zendun aldian jausi zara! Ointxe, itxaropentsu begiratzen geuntson zeure udabarran! (Oldozkor, lotuten da eta negarti mai inguruan jesarten da).
- LORE.— (Agertuaz). Zartzaroak menderatu zaitu Malko. Zeure indarren arrotsu agertzen ez ziñan ba?
- MALKO.— Ez, zartzaroak ez.
- LORE.— Itun zagoz. Gaixorik edo?
- MALKO.— Itxasotik nator.
- LORE.— Eta geiegi nekatu egin zara.
- MALKO.— (Itunez). Itxasoan Baltza gaztearen gorputza billatu dot.
- LORE.— Zer diñozu? Ibon zeure semearen ondoan ebillan Baltza alai?
- MALKO.— Itota billatu dot. Neuk billatu dot eta ezin dot ziñestu.
- LORE.— Ez zan Baltza izango.
- MALKO.— Nire begiak ez dakie guzurrik. Ondo ezagutu dot.
- LORE.— Baiña ezin daike olakorik. Terranoba'ra ez ziran joan ba?
- MALKO.— Bai... Eta onezkero Terranoba'tik etorri beariko ziran. Eta bidean etozan. Ziurtau daiket.
- LORE.— Zeuk ikusi zenduzan ala?
- MALKO.— Ikusi ez. Baiña Baltza'ren gorputz osoan igarri dot. Osoegi egoan Terranoba'tik ona itota ur gaiñean eltzeko.
- LORE.— Oraintsuko ekatxik ez dakigu orraitik.

MALKO.— Ekatzik ez. Itxasoa baretsu agertu da aspaldion. Bart arratsean aize mea... Ibon'en ontzia lakorik ezin zeinkean ondatu itxaso arek. Ala izatekotan ontzia agertuko zan an edo emen. Eta ontziak ekarzan arraiñak itxas gaiñean billatuko genduzan bana-banaka. Itxasoan luzaro ibillia naz; itxasoko barririk ba'dakit. Semerik kutunena ostu dauste. Baiña Ibon zarrak adorerik eta indarrik eukiko dau lapurrok billatzeko.

LORE.— Zer? Lapurrak izan dirala diñozu?

MALKO.— Ezin zeinkian besterik eurak izan ezik.

LORE.— Gizonak ezin daikie olakorik.

MALKO.— Zoroen antzera bizi diran gizonak bai orraitik.

LORE.— Biotz bako gizonak.

MALKO.— Diruaren jopuak. (Ixillunea. Jagi eta joaten asten da). Ibon gaixoa!

LORE.— Eta Baltza?

MALKO.— Portuan laga dot. Laster ekarriko dabe.

LORE.— Etxerarte laguntzea gura dozu? Nekatua zagoz.

MALKO.— Elduko naz astiro-astiro.

LORE.— Egon. Lagunduko dautsut. (Txakolintegiko atea itxi eta Malko'ri laguntzen doa).

Olakorik ez dogu o[rai]ndiño ezagutu. (Ezkutetan dira).

## IX

### *IBON eta ILLARGI*

IBON.— (Kaletik datoz). Ezin daiket geiago. Ezin daiket. Emaztea eta semea ikusi dodaz len negarti. Aita zarra orain.

ILLARGI.— Ez zaitez ain bare eta leratsu. Gure usteak bertan bera lagako ete doguz?

IBON.— Ori ez. Ontzia apurtu dauskue eta lagunak ito. Koldartiak giñake lapurrak menperatu barik lagako ba gendukez.

ILLARGI.— Itoak uste gaitue.

IBON.— Illunari eskerrak bizi gara. Itoteko uste geiago nebán aldi baten gaur gabiltzan lez ibilteko baiño. Etxekoak ba'lekíe nun nabillen ez leuskit ardurarik. Egun batzuk orrela igarotekotan galdutzat etsiko gaitue. Eta negarra eta zoritxarra lotuko dira eurekaz.

ILLARGI.— Ori bai. Ezin geinke luzegi onela jarraitu. Gaur gabeen bertan nai eta ez lapurrak menderatu bear doguz.

IBON.— Ala bearko.

ILLARGI.— Lagun koldartia aukeratu dogu. Uste dozu ezelako laguntzarik eskiñiko dausku-  
la Ikara bildurri orrek? Mutil epelagorik gitxi egongo dira.

IBON.— Ez uste. Ez da ain epela. Berotzen ba'daki, eta esanekoa da. Gureztat orixe bearre-  
koena.

ILLARGI.— Portutik datorren zaratea entzuten dozu?

IBON.— (Begiratuaz). Emakumeak datoz negarti.

ILLARGI.— Eta gizonak ukabillak jasota. Ikusten? Baten bat illik dakarre.

IBON.— Neureak be ortxe datoz negarrez.

ILLARGI.— Itotako lagunena bat billatu ete dabe?

IBON.— (Eutsi eziñez). Neureakana noa.

ILLARGI.— Ez egizu olakorik.

IBON.— Itoak uste gaituez eta miñez ilko dira.

ILLARGI.— Gaberarte iraun dagigun. Gabeen lapurrik ez menderatzekotan agertuko gara. Ez zindudazan ain maite-min uste, itxas-otso ori. Zure indarrak et zure adorea nun geratu dira?

IBON.— Baltza izan bear dau dakarrena, guztiak bere izena esaten dabe-eta.

ILLARGI.— Baltza, lagunetatik onena eta langilleena. Urreratzen dadoz. Goazen emendik.

IBON.— Ez gaitue ezagutzen. Ementxe egongo gara.

ILLARGI.— Leratsuegi zagoz. Agertuko ziñake eutsi ezinda.

IBON.— Ez olakorik. Benetan diñotsut.

ILLARGI.— Ezin daiketsut siñistu. Biotz-minduei etxakoe iñoiz siñistu bear.

IBON.— Baltza ikusi gura dot.

ILLARGI.— Ikusiko dogu. Or goian ezkutauko gara. Arin! Arin! (Ibon ezbaian dago). Igarriko gaitue. Arin! Erdu! (Sasi bidean sartzen dira).

X

*IGERRA, BRIX, AINGIRA, ANTXIÑE, DANEL,  
TXEPETXA, TARIN eta ARRANTZALEAK*

IGERRA.— Negarra ekarri dauskue.

BRIX.— Eta zoritxarra, txikiña. Jiesuuuuuus!

IGERRA.— Gizonok ez dauke odol askorik.

AINGIRA.— Eta agintariak zetan dagoz ba?

BATEK.— Gizonen odola aiertu egin bear da.

BESTEAK.— Oraingoan ezin geinke geldi egon.

TARIN.— Odolik ba'dogu, edo ez?

TXEPETXA.— Lapur batik be ez dogu bizirik lagako.

BATEK.— Adiskiderik kutunenak eroan dauskuez.

BESTE BATEK.— Erriko gizonik langille eta bulartsuenak

EMAKUMEAK.— Il lapurrak! Lapurrak il!

BATZUK.— Il! Il!

BESTETZUK.— Ilko doguz!

## BIGARREN EKITALDIA

(Iruditegi berbera maia eta aulkiak kenduta. Gau izartsua).

I

*IXURDE, IPARRA, TXIMISTA eta NAGI.*

IXURDE.— Erria altzauta dago; gora-goraka dabil. Eta itxas-aurrean dago itxas baztarra zainduten.

IPARRA.— Zoroak alakoak portua utsik laga dauskue. Atxetatik-eta urteten dogula pentsauko dabe.

TXIMISTA.— Portua utsik dagonez ziur zagoz?

IPARRA.— Oraintsu andik etorria naz. Inguruak ikusi dodaz bada-ezpadan. Gizonaren aztarrenik ez egoan.

TXIMISTA.— Dan-dana gertuta dago?

IPARRA.— Ustez bai.

TXIMISTA.— Erramuak sartu dozuez?

NAGI.— Daukaguzan laurak an dira.

TXIMISTA.— Eta iskilluak? Gaur bearrik egin beariko dabe.

IPARRA.— Neuk zorroztu dodaz. Eskuak indarrrik ba'dabe iskilluak erantzungo dabe.

IXURDE.— Ausarditsuegi zara, Tximista. Gaurko ibillalditik zoriontsu urteteko itxaropenik dozu?

TXIMISTA.— Ekaitz gogorretan egiten dira arrantzarik ugarienak.

IXURDE.— Baita gizonik geienak galdu be. Gaur erria dagon letxe ikusita, zorakeri andia egiten dogu itxasora urteteagaz.

TXIMISTA.— Itxas aurrean dagozanak oartuko gaituezala pentsaten dozu? Argi barik joango gara sarri legetxe eta erramuketa ixillean ibilliko gara.

IXURDE.— Ala eta be erriak oartu bear nai eta ez. Aitz-puntetan gazte asko dagoz eta illargiaren argitara ezagutuko gaitue. Bertsolarietan pentsau gendun erria atzeratzeko, baiña bertsolariak porrot egin dauskue.

IPARRA.— Jakiña zan. Baltza'ren eriotzea jakin zanetik ez dago erria jaietarako.

IXURDE.— Baltza'ren eriotzeagaz be zorakeri galanta egin gendun. Gizonak ito eta erritarrak billatzeko eran laga?

TXIMISTA.— Zer egingo gendun ba?

IXURDE.— Ito ez beintzat, beti be esan dot-eta. Itotea bearrezko ba'zan ezkutau iñok billa-tuko ez eban tokian. Odol beroa darabilgu batzuetan. Zetarako? Une bateko arin-keriak geure lan guztiak ezerestuteko?

TXIMISTA.— Asarre dirudizu. Ez ete izango bildur zarealako?

IXURDE.— Zeiñen bildur?

TXIMISTA.— Ez dakit ba. Neure uste bat da.

IXURDE.— Ixurde'k ez daki ondiño bildurrik Tximista doan bidetik ibilteko. Kezkarik ager-tzen ba'dot geure zorakeri eta arinkeriena da.

NAGI.— Ixurde'ren kezkek zuzenak eta bidezkoak dira. Erri guztiari arpegi emonaz etxaso-ra joaten ausartuko ete gara? Joateko asmotan jarraitzen ba'dogu urten aurretik zeezer egitea bearrezko dogu erria atzipetuteko. Gaurko onetan ontzikoien eta erri-tarren aurka jokatu bearko dogula ez dagigun aztu. Eta ain burubakoak izango ete gara lau gizon bakarrik ainbeste gizonen aurka jokatzeko?

IPARRA.— Eta ezin geinke ezer egin gizonak itxas-aurretik atzeratzeko? Oraindik astia dogu arin be arin ibiltekotan.

IXURDE.— Orain ez. Bertsolarien gudua asmau gendun. Bertsolariak lakorik ez egoan gizo-nak atzipetu eta euren ondoan eukiteko. Eta bertsolariena ba'dakizu. Ontzia agi-rrian dago; urretsu dago; ordu bi barru portuan sartuko da. Zer egin geinke ordu bi oneitan?

NAGI.— Eta ontzia zenbat eta barrurago guretzat okerrago dala gogoratu egizue; erriaren-tzat obeto ostera.

IPARRA.— Etxeren bateri zu emon geinkio. Orretara erri osoa su ori itzaliten jardutera bear-tuko genduke. Asmo txarra daritxozue?

TXIMISTA.— Argietan argiena zara Iparra. Zeure asmoa ezin obeagoa. Zein etxe erreko dogu?

IPARRA.— Itxas-aurrean ez dagonen bat. Erri-etxea bera.

IXURDE.— Erria geiago berotu eta asarretu guraz zabiltz?

IPARRA.— Etxerik erretokotan egokiena esan dot. Iñor erreteko bildurrik be ezin geinke euki. Gertu zagoze? Iñok igarri barik egin leikiana da.

TXIMISTA.— Goazen bertara. Ezin geinke une baten geldi egon. Goitik joango gara, kaletik baiño obeto. Orretara iñok ez gaitu ezagutuko. (Tximista eta Iparra joaten asten dira. Ixurde eta Nagi geldi dagoz alkarrereri begira, zer egin ez dakiela). Ez zarie ausartuten?

IXURDE.— Joango gara, baiña gizonik ez da ilgo (Badoaz).



## II

### *MALKO-ZARRA eta DANEL*

(Kaletik datoz).

MALKO.— Ekin eta ekin, eta beti egarri. Orixe da gizonaren bizitzea. Beti egarri.

DANEL.— Mozkortuta dagoanean be gizona egarri izaten da?

MALKO.— Bai, mutil. Zenbat eta mozkor andiago eta egarri geiago. Gizona albo-alboka, kilin-kolozka buruari eutsi ezinda ibilli oi danean, orduantxe be egarri izaten da. Bakar-bakarrrik zorionak asetuko leuke gizonaren egarri ori. Baiña gizonak zorion ori ezetsi edo despreziau egiten dau.

DANEL.— Zegaitik ezetsiten dau ba zoriona?

MALKO.— Zoroak legetxe beti zoritzarraren atzetik dabillalako, beti zoritxarraren atzetik. Eta gaixoak alakoak ez daki bera dala zoritxarra; gizona bera dala zoritzarra, zorion apur bategaz nastauta.

DANEL.— Ni andia izan naitenean beti zorionaren billa ibilliko naz.

MALKO.— Zorion billa asi zaitezanean begiratu urrunera, urrun urrunera.

DANEL.— Itxasoa baiño urrunago?

MALKO.— Urrunago oraindik. Itxasoa bidea da.

DANEL.— Izarrak baiño urrunago?

MALKO.— Izarretara begiratzen ikasten ba'dozu zoriontsu izango zara. Zeure aitak be, mutil, izarretara sarri-sarri begiratzen ekian. Eta ziur nago zoritxarraren adiskideak menderatu ebenean be izarrei begira egoala.

DANEL.— Bildur-bildurrez nago, aitita. Nire lagunak esaten dabe bein illundu ezkeror sorgiñak-eta agertuten dirala leku onetan.

MALKO.— Ez egiezu jaramonik egin. Sorgiñak-eta guzurraren alabak izaten dira eta ementxe ibilten dira gau illunetan euren aitari, guzurrari, kanta ariñak abestuten. Neskazarrei eta andra barritxuei bakar-bakarrrik urteten dautse sorgin orreik.

DANEL.— Zegaitik urteten dautse ba?

MALKO.— Neskazarren eta andra barritsuen arnasea guzurraren gogoa (arimea) izaten dalako.

DANEL.— Aitita, eta alde andirik ete dago amen eta neskazarren artean?

MALKO.— Bai, mutil. Neskazarrek zazpikiak izaten dira. Jaungoikoaren eskuetatik iges egiñak, euretan biotzik ipinteko astirik emon barik. Amak osteria oso-osoak izaten dira, neskazarrei paltetan jakena eurak eukiten dabe-eta.

Baiña goazen portura, antxe ekingo dautsagu-eta.

DANEL.— Eta portuan zer egingo dogu ba?

MALKO.— Itxaron, izarrei begira. Eta zorion bidea mingostu eta neketuten jaio diran loreak ebagiko doguz amen biotz negartiei opalduteko. Goazen mutil (Badoaz).

### III

#### *IBON eta ILLARGI*

(Kaletik datoz)

IBON.— Emen ez da agiri.

ILLARGI.— Zoro alakoak bildurtuta iges egingo eban.

IBON.— Orain ez dakigu emendik igaro diran edo ez.

ILLARGI.— Oraindik kalean ibilliko dira nire ustez. Uste dozu ausartuko dirala itxasora joaten, erria dagon legetxe ikusita?

IBON.— Joango dira. Ziur nago. Gaur ez joatekotan lotsa guztia gainduko leuke. Eta arrantzalerik makalenak irri egingo leuskioe aurrerantzean.

ILLARGI.— Gaurtik aurrera nasaiago egingo dautse.

IBON.— Ori bai. (Ixillunea. Alde guztietara begira dabiz). Inguru au ixiltzu dago. Eta Ikara'rik ez da agiri.

ILLARGI.— Iru bakarrik gara eta eurak lau gitxienez izango dira. Ez ete dauskue geiagorik egingo?

IBON.— Burrekaldiren bat egiteko ustez al zoaz? Nortzuk diran jakitea naiko dogu gaurko.

ILLARGI.— Alantxe. Baiña menperatu eta lotuta erriari aurkestutea oba litzake orraitik.

IBON.— Erriaren aurrera aurkeztu, ez gaur beintzat. Erria itsurik dago eta zorakeriren bat egingo leuke. Erritarrak, uste dabezan gure eriotzak aiertutekotan altzau dira. Odol egarri diranik ez aztu. Eguerdian ez dozu entzun? Atsuak ziran beroenak. Eurak izan dira gazteak berotu dabezanak. Eta lapurrak euren aurrera aurkeztutean barrero euren eriotzea eskatuten asiko ba'litzaz, zer egingo genduke? Erailten laga?

ILLARGI.— Nire aldetik bai. Oker guztiak zigorra bear dabe. Eta eriotzea eriotzeagaz zigortzen da. Orixo gizatasunaren legea.

IBON.— (Kalerantz begira). Ikusten? Kanean itzal bi oartzen dira.

ILLARGI.— Lapurrak izango dira. Besterik ezin lei bide onetan. Ikara non dabillen ez daki-gu.

IBON.— Ez arduratu. Portura etorteko agindua dau. Onaxe datoz. Zer egingo dogu? Emen geratu?

ILLARGI.— Obeto ezta izango portuan itxarotea? Bi bakarrik datoz.

IBON.— Lagunak portuan ete dabez?

ILLARGI.— Bear ba'da onezkero ontzian egongo dira, bestean zai. Eta eurok eldu orduko urtengo dira.

IBON.— Olakorik ez. Ez dira urtengo. Ontzia zulatuko dautsegu. (Bero). Goazen, goazen portura.

ILLARGI.— Itxaron. Ezagutu bear doguz.

IBON.— Bertara eldu arte ezin leiz ezagutu. Eta emen errez iges egin al leikie. Goazen portura. (Doaz).

#### IV

#### *TXIMISTA eta IPARRA. Gero NAGI eta IXURDE.*

(Kaletik datoz)

TXIMISTA.— Galdu egin ete gaitue? Oraindik ez da surik agiri.

IPARRA.— Onezkero agertu bearko zan.

TXIMISTA.— Jenteak igarri ete dautse ba?

IPARRA.— Ez olakorik. An inguruan ez zan iñor agiri. Bildurtuko ziran su emoten. Ixurde ori bildurtia dogu eta bere gaixoa Nagi'ri ezarri dautsa.

TXIMISTA.— Ori bai. Alderik egin dau aspaldi onetan. Len beroegi zan; ez eban atzerarik.

IPARRA.— Gaur ikusten dozu. Eragozpenik egotekotan bere aldetikoak izango dira. Artizar'eko alabeagaz asi zanetik bere bildurrak.

TXIMISTA.— Oraindik be ez da surik agertzen.

IPARRA.— Zer egingo dogu?

TXIMISTA.— Bitzuok bakarrik ezer bez.

IPARRA.— Origaitik ez nenbillen. Eurekana joango ete gara?

TXIMISTA.— Arriskutsu da.

IPARRA.— Egiz. Baiña onela egotea be... Ontzia laster sartuko da portuan biderik ez ebagi-tekotan.

TXIMISTA.— Alaxe. Eta gau aberatsa galduko dogu.

IPARRA.— (Urrunera begira). Ara...! Ikusten? Garra?

TXIMISTA.— Sua! Sua! (Nasaikiro eta zaratatsu barre dagi zoro baten antzera). Jenteak igarriko eban onezkero eta zalapartatsu asiko ziran. (Barriro barre dagi).

IPARRA.— Arintsu ibilli bearco gara.

TXIMISTA.— Laga egizuz keskok. Suaren ederrak ez zaitu lilluratzen? (Barriro barre dagi zaratatsu).

IPARRA.— Zaratarik ez dozu entzuten?

TXIMISTA.— Buru argia izan dozu.

IPARRA.— Onezkero emen egon bearco ziran.

TXIMISTA.— Su andia egin dabe.

IPARRA.— Ez zan gatxa be. Orioz ondo igortzita laga dogu etxea.

TXIMISTA.— Nun arrano ete dira oraindik agertu barik? Baretsu ibilliko dira arriskurik igarri barik.

IPARRA.— Oartzen? Ontxe etorri bear dabe. Oiñotsak entzuten dira.

TXIMISTA.— Eurak izango dira. Bai, eurak dira. (Nagi eta Ixurde arnas-estuka agertzen dira).  
Denporarik egin dozue.

NAGI.— Su-arria bustita egoan eta ezin surik emon. Ganera Ikara oartzen gendun inguruan.

TXIMISTA.— Ikusi zaitue?

NAGI.— Ez.

IPARRA.— Arintsu ibilli gaitezcan. (Porturantz egiten dabe).

V

*IKARA eta SORGIÑAK*

IKARA.— (Kezkati agertuaz). Emen bere ez. Portura joan ete dira ba? Ain arin ez ziran joango orraitik.

Iñoiz bere ez dot gaur beste bildurrik igaro. Lapurrak dabiltzala, eta zer? Erri-etxe-ari su emon dautsenak izan ete dira ba? Ikusi nabenean areik egin dabe arinketea! Lapur guztiak alakoak ba'dira...! Oi! Zer da ori? Argia emen? (Sasi biderantz egiten dau argia ete dan ikusten eta urreratuagaz batera sorgin batzuk urteten dautse. Arek ikustean zarataka eta txilioka kale alderantz doa igesi, baiña andik be sorgiñak agertuten jakoz. Orduan portu alderantz zuzenduten da, baiña an be bardin. Sorgiñak saltoka eta zarataka urtengo dira euren esakun jakiña esaten: "Ba'garala, eskarala, milla eta bosteun emen garala". Ainbat aldiz esan dagie esatera ori. Alde guztietatik urtenaz batera Ikara inguratzen asiko dira danen erdian artu arteraiño. Ikara'k didar eta zizpuru galantak egin dagiz, sorgiñak saltoka eta ujujuka geratu barik, txitximurkaka eta zitalkeriak egiten ekingo dautselako. Igesiteko alegiñak egiten dauz alperrik. Sorgiñak ez dautse lagako korrotik igesten. Azkenean nekatuta lurrera jausten da, baiña sorgiñak ez dautse lagako atsedetik artzen txitximurkaka eta zitalkerika).

GONAGORRI.— (Geratu barik). Dantzalari da.

SORGIÑAK.— Dantzalari! Dantzalari! Ujujuju!

GONAGORRI.— Dantzan eragin dagiogun.

SORGIÑAK.— Dantzan, dantzan, mozkortien dantzan! Ujujujuju!

(abestuaz)

Tun tun purruputun,  
tun tun purruputun,  
ju-ju, ju-ju, ju ju.

Tun tun purruputun,  
tun tun purruputun,  
ju-ju, ju-ju, ju ju.

Tun tun purruputun,  
tun tun purruputun,  
ju-ju, ju-ju, ju ju.

(Abestia jarraitzen dabe luzarotsu. Ikara nai eta ez dantzan ekin bearrez aurkitzen da abestia asiagaz batera, beti bildurri eta ikarati be ikarati. Dantza traketsa berea. Alako baten, geiago ezinda, lurrera jausten da konort barik. Sorgiñak abestuten jarraituko dabe txitximurkaka ekiten dautsela, baiña geiagorik ezin dabela ikusten dabenean ujuju luzea egin eta lagako dautse. Dantzeari laga eta bereala, unerik galdu barik, Gonagorri'k atzaparragaz zerbait erakusten dautse sasi-bidetik urrun. Guztiak begira jarriko dira).

GONAGORRI.— (Atzaparragaz urruna erakutziaz). Sagastiko larran...

SORGIÑAK.— (Kezkati). Sagasti'ko larran!

GONAGORRI.— Aker bat!

SORGIÑAK.— Aker bat! Aker bat!

GONAGORRI.— Joango?

SORGIÑAK.— Goazen! Goazen!

GONAGORRI.— Dantzan egiten!

SORGIÑAK.— Dantzan! Dantzan! Ujujuju!

(Abestu eta dantzan asten dira alkarrerri eskutik elduta, kara'ren inguruan ibilliaz).

(Abestia).

Sagastiko larran  
aker bat dago erdian,  
atso errenak dabiltz  
bere aurrean dantzan.  
goazen, goazen, goazen  
eurari laguntzen,  
mendi eta arkaitz artean  
ujuju egiten.  
Trulala la laran larai  
trulala la laran larai;  
trulala la laran laralala  
larala lala lai;  
lara la la la la la lai,  
lon lan lon lan lon larai,  
trulala la lalalan lalala.  
laran la la la lai. Uju, u-ju, u-ju!

(Abestia amaituaz eta saltaketeari laga barik sasi-bidetik joaten dira ujuju luzeak egiñaz).

(Oarra: Irudi onetan abestuko diran abesti biak Azkue euzkel-  
tzale ospatsu eta agurgarriaren "Euskalerria'ren Yakintza"n  
dagoz. Lenengoa 384gn. orrialdean eta bestea 390 garrenean).

## VI

### *IKARA eta ARRANTZALEAK*

(Iru arrantzale gazte. Kaletik portura, asarre).

BATEK.— Igarri bear gendun geu atzipetutearren izan dala!

BESTEAK.— Ondiño ez ziran urtengo orraitik.

IRUGARRENAK.— (Ikara oartuaz). Oi! Ikusten? (Zein ete dan inguratzen dabe eta burua  
altzauten dautsoe ikusteko asmoz).

IKARA.— (Zalapartaka, arpegia esku artean obetoago ezkutatuaz). Laga! Laga niri!

BATEK.— Ikara da.

IRUGARRENAK.— Ikara? Zoratuta egongo da.

BATEK.— Jagi Ikara. Zer dozu? Zer dagizu era onetan?

IKARA.— (Astiro eta bildurti burua esku artetik ataratzen dau. Arrantzaleak dirala ziurtau-  
ten danean). Joan dira?

BATEK.— Nortzuk? Lapurrak?

IKARA.— (Dardarati). Sorgiñak! Sorgin dantzariak!

BATEK.— Sorgiñakin zabiz, lelo ori?

BESTEAK.— Lapurrik ikusi dozu?

IKARA.— Lapurrak? Lapurrak baiño okerrago ziran.

IRUGARRENAK.— (Bere lagunei). Ez egizue jaramonik egin zoro orreri. Portura, arin, bixkor  
(Doaz).

IKARA.— (Bereala baten jagi eta besteei jarraituaz). Neu be zeuokaz noa. (Doa).

## VII

### *TXEPETXA, TARIN eta ARRANTZALEAK (IRU edo LAU)*

TXEPETXA.— Umeak legetxe atzipetu (engañau) gaitue.

TARIN.— Sua ikusi orduko pentsau bear gendun zegaitik izango zan.

BATEK.— (Atzera begira). Oraindik garra igarten da.

TXEPETXA.— Ez dago ardurarik. Amatauko dabe. (Portu alderantz ezkutetan dira).

## VIII

### *BRIX, IGERRA eta AINGIRA*

BRIX.— Ikara izan da, txikiña, erri-etxeari su emon dautsana.

IGERRA.— Ikara epel ori? Mutil mika ori?

AINGIRA.— Bera izanda neuk be igesika ikusi dot-eta.

IGERRA.— Aor politena! Andiagorik entzungo ondiño. Bere itzalaz be dar-darka dabillen mutil eme ori?

AINGIRA.— Arpegira ez begiratu iñori, alabatxu.

BRIX.— Ez, ez! Jiesuuuuus! Ze burutaziñok emon ete dautso, baiña, mutillari olakorik egi-teko?

AINGIRA.— (Misterio andiagaz). Ori lapurrekaz batuta ibilliko zan, bai?

IGERRA.— Ixilik egon zaitetz, ixilik egon! Lapurrekaz batuta? Nor, eta Ikara lelo eta koldar ori lapurrekaz batuta! Orixe be! Olgetan zabizala dirudi, olgetan ibilli. Ikara lapurrekaz batuta? Zelako lapurrak dira ba eurak?

BRIX.— Ikusi dozu, txikiña, ikusi; errian beintzat agiri ederra laga dauskue-eta.

IGERRA.— Ori bai. Bost gizon andi ito dauskuez, bost gizon andi eta gordin ito, biotz bakoak alakoak. Gizonak baiño abere ankerrak dirudie geiago, abere ankerrak dirudie-nez. Eta orreikin alkartuta Ikara ibilli? Berebizian ez neuke neuk siñistuko! Ez orixe!

BRIX.— Siñistu gura ez badozu be geuk ikusi dogu beintzat.

AINGIRA.— Besteren batek esana ba'litz be... Baiña geuk ikusia da. Eta Jaungoikoari eskerak begi ederrak doguz oindiño, begi ederrak euki. Eztaukot ukatuteko be! Niri neure begiok guzurrik esan? Ez daukat orixe esateko!



IGERRA.— Nik-neuk beñik bein, ezin dot olakorik sartu. Pentsetan astea be...! Ikara lapurrekin alkartuta? Gizonak itoten dabezan lapurrakaz? Ez txikiña, ez!

AINGIRA.— Ezetz barriro be? Ez diñotsut ba neuk ikusia dala?

IGERRA.— Baiña ezin leike ta...!

BRIX.— Ara bai, denporia izango da agertzale eta joan gaitezen portura gizonok zer egiten daben ikusten.

IGERRA.— Ikusiko dogu, ikusi, baiña nik neuk berealako baten olakorik siñistu ez beintzat, olakorik siñistu. Orixe be...! (Joaten dira).

## IX

(Biñaka edo irunaka alde batetik bestera igaroko dira saltalari eta dantzalari. Portutik kalera, sasi bidetik portura, kaletik sasi-bidera. Bi edo irutan egin dagie ibillera ori ujujuka. Gonagorri, Akelarre eta Turmoia agertuko dira orduan. Onek irurok besteak baiño irritsu eta argiago jantziak. Eurok agertutean sorgin guztiak inguratzen jakez eta sorgin dantzeari asierea emongo dautse, iru izendunak geldi dagozala. Laburkiro jardungo dira ikuslerik ez nekatuteko. Sorgin-dantzea amaitu eta bereala Gonagorri'k).

GONAGORRI.— (Pozarren saltoka besteak bardin jarraituko dabe poz eta alaitasunez gaiñez-ka itz egiten). Izar argitsuak ortzian!

AKELARRE.— Biar aizea?

TURMOIA.— Etzi euria!

GUZTIAK.— Euri on, euri on, guretzat zorion!

GONAGORRI.— Eta akelarrean biziko!

AKELARRE.— Eta jolastuko!

TURMOIA.— Eta dantzatuko!

GUZTIAK.— Euri on, euri on, guretzat zorion!

GONAGORRI.— Euri ziri, euri miri, basoan bizi!

AKELARRE.— Basojaunen eri!

TURMOIA.— Sorgiñen zori!

GUZTIAK.— Euri on, euri on, guretzat zorion!

GONAGORRI.— Euri ziri, euri miri, gizonen etxe-ziri!

AKELARRE.— Mozkortien on-sari!

GUZTIAK.— Euri on, euri on, guretzat zorion!

GONAGORRI.— Euri lantza, euri mintza, sorgiñen nagusitza!

AKELARRE.— Basojaunen eriotza!

TURMOIA.— Sorgiñen erregintza!

BATZUK.— Euri on, euri on, guretzat zorion!

GUZTIAK.— Euri zirin, euri mirin, basojaunak min, sorgiñak erregin! Ujujuju!

GONAGORRI.— Agurtu euria!

AKELARRE.— Ospatu euria!

TURMOIA.— Dantzatu euria!

GUZTIAK.— Dantza, dantza, mozkortien dantzan? Ujujuju...! (Abestuaz).

Tun tun purruputun,  
tun tun purruputun,  
ju-ju, ju-ju, ju-ju!  
Tun tun purruputun,  
tun tun purruputun,  
ju-ju, ju-ju, ju-ju!

(Abestu eta dantzan egiten dabe. Bizi, alai eta iaio. Une baten egin ondoren Gonagorri'k dantzea bertan bera laga eta sasi-biderantz igesten asten da, "otsoak, otsoa, giza otsoak, begi-argi eta biotz gogorrak" esaten. Besteak be zalapartadaka jarraitzen dautse esaera berberori esaten).

## X

### *TXEPETXA, TARIN, IBON, ILLARGI, BRIX, AINGIRA, IGERRA eta ARRANTZALEAK*

(Zarataka eta asarre datoz. Txepetxa, Tarin eta arrantzale batzuk aurretik. Ibon eta Illargi dakarrez eskuak lotuta. Emakumeak eta arrantzale geiago atzetik. Asarre guztiak Ibon eta lagunarentzat dira. Oneik igesteko eta askatuteko alegin biziak dagiez).

TXEPETXA.— Erritarrik kutunenak il dauskuzue. Erriak zuzentza egingo dautsue.

BATEK.— Ontxe bertan il bear gendukez, gerora begiratu barik.

IBON.— Zoruok alakuok! Zer egiten dozuen ba'dakizue?

ILLARGI.— Zeuontarrak gara eta ez gaituzue ezagutzen.

IBON.— Lapurrei aske itxi dautsozue.

IGERRA.— Ez siñistu.

BATEK.— Oraiñartekoak naiko dira.

IRUGARRENAK.— Egin dozuezan eriotzak ordainduko dozue.

IBON.— Eriotzarik ez dogu egin. Laga egiguzu. Lapurren billa joan nai dogu.

BRIX.— Ez jaramonik. Atzipetu gura gaituez.

BATEK.— Il, il ankerrok alakuok!

ILLARGI.— Askatu gagizue edo zorakeriren bat egingo dogu.

TXEPETXA.— (Barretsu). Txerren'entzat gorantziekaz askatuko zaituegu.

AINGIRA.— Eta oraindik azkatasuna eskatuten ausartuten zarie?

BATEK.— Askatasuna ez. Zuzentza. Zuzentza!

BRIX.— Lapurrentzat eriotza!

AINGIRA.— Il, il lapurrak!

BATZUEK.— Il! Il!

BRIX.— Eriotza, semerik maiteenak ito dauskuezenentzat!

IGERRA.— Erritarrik beargiñenen erailleentzat eriotza!

IBON.— Zoruok alakuok zer dagizuenik be ez dakizue. Eskuak lotuta gaukozue eta erruga-beak gara.

ILLARGI.— Onezkero zuon anaiak ilten egongo dira lapurren eskuetan.

BATEK.— Atzipetu gura gaituez. Espetxera! Espetxera!

BESTEAK.— Espetxera ez. Eriotzara zuzen! Eriotzara!

ILLARGI.— Askatu nagizue! Ez nozue ezagutzen? Illargi naz. Artizar'eko Illargi.

TARIN.— Artizar'eko Illargi ito zenduen.

TXEPETXA.— Il zenduen biotz bakuok alakuok.

BRIX.— Il zenduen anker burubakuok.

ILLARGI.— (Guzurrezko bizarra kendu eta bere arpegia agertuten emonaz). Nok il eban Illargi?

TXEPETXA.— (Arrituta). Illargi! Illargi!

IBON.— (Bizarrak kenduaz). Eta ni? Ezagutzen nozue?

TARIN.— Ibon!

IGERRA.— Illik uste genduen Ibon! (Gustiak arrituta, alkarrereri begira lotuten dira).

IBON.— Lapurren billa ibilli gara eta lapurtzat lotu gaituzue zoruok alakuok.

ILLARGI.— Lotuta euki gaituzuen bitartean lapurrak urtengo ziran. Eta erritarrak ilko ebezan.

IBON.— Oraindik astirik ba'dogu oker au zuzenduteko. Goazen lapurren billa!

ILLARGI.— Lapurren billa! Lapurren billa! (Urtetera doaz, baiña arintxu datorren Ikara'gaz topo egiten dabe).

## XI

### *LENGOAK eta IKARA. Geroago MALKO eta DANEL.*

IKARA.— Lapurrak menderatu doguz! Lapurrak iges egin dabe!

IBON.— Zer diñozu? Nora?

IKARA.— Mendira iges egin dabe. Malko zarrak ontzia zalatu dautse.

BRIX.— (Atze aldetik didarrez). Ez egiozue siñistu. Lapurren adizkide da. Erri-etxeari su emoten ikusi gendun.

IKARA.— Sorgiñei itandu.

BRIX.— Espetxera! Lapurretarikoa da!

IBON.— Ixil zaitzeze. Gure morroia zan. Ez eban olakorik egin.

AINGIRA.— Geuk ikusi gendun.

BRIX.— Espetxera! Espetxera!

IKARA.— Nagi eta Ixurde izan ziran. Nagi eta Ixurde. Neuk ikusi eta zaindu nebazan.

GUZTIAK.— (Mar-marka). Nagi eta Ixurde. Nagi eta Ixurde.

MALKO.– (Danel'egaz sartuaz pozkiro eta zaratatsu). Semeen odola aiertu dogu!

IBON.– (Malko'gana urreratuaz, bero). Aita!

MALKO.– Ibon! Zu? (Besarkatuten dira).

IBON.– (Semeari laztan egiñaz). Semetxu maitea!

BRIX.– Gora Malko!

GUZTIAK.– Gora!

DANEL.– Kezkati itxaroten zinduzan aita. Ipuñik ekarri dozu?

IBON.– Bildurtuko zara entzutean.

BATEK.– Malko lako gizonak bear doguz.

BRIX.– Gora Malko!

GUZTIAK.– Gora!

MALKO.– (Ibon'eri) Eta zelan izan da ori?

IBON.– Oraintsu etxera gentozan. Lapurrak artu giñuzen ustekabeen. Gaba zan. Iskilluoak diz-diz egien illargitara. Esku-utsik gengoan lapurren aurka irabazteko. Ler egin-da egin-da itxasora jaurti giñan eta ozta-ozta legorrera eldu. Guretarik iru ez; arek betiko ondatu ziran.

MALKO.– Ni zeure odola aiertuteko asmotan lapurren aurka urten naz. Eta lepoa urtez ganezka euki arren, menderatu dodaz era batera edo bestera. Menderatu dodaz. Zeure lagunen odola aiertu dot! Eurak iges egin dabe, zoratuta lez, mendirantz, ontzia zulatuta billatu dabenean. Ikara'k eta nik didarka ekin dautsegu. Gitxienez uste izan dabe erri osoak jarraituten eutsela. Zure semetxoak berotuten nindun.

TXEPETXA.– Eta lapurrak ezagutu dozuz?

MALKO.– Bai, Erri barruan gengoan, geure artean gengoan eta ez dogu oraiñarte jakin. Itsuak izan gara! Ba'dakizue nortzuk? Tximista, Ixurde, Iparra eta Nagi. (Guztiak arrituta).

BRIX.– Jiesuuuuuus! Entzun dozue? Orreik gizonok?

MALKO.– Errian beintzat ez dira geiago sartuko. Erriak ezagutzen dauz eta zuzentzea egin-go dautse.

TARIN.– Ori bai! Eurentzat esku gogorra eukiko dogu.

TXEPETXA.– Gora Malko!

GUZTIAK.– Gora!

BATEK.– Gora Malko!

GUZTIAK.– Gora! Gora!

TARIN.— Erritarren odolta aiertuko da. Lapurrak emen doguz!

GUZTIAK.— Il, il lapurrak!

(Malko eta Ibon besarkatuten dira. Danel'ek begiratuko dautse adi-adi. Besteak goraka eta "Lapurrak il"ka jarraituko dabe antzoiala beratuten dan bitartean).

AMAIA

Ondarroako herriak hainbat idazle izan ditu, baina bada sasoi bat gure historia hurrean guztiz berezia: II. Errepublikakoa eta 36ko Gerrakoa. Sasoi haretan euskal prentsak izugarrizko sorkuntza-maila bizi izan eban; hainbat aldizkari eta egunkaritan argitaratu ziran artikuluak, askotan baina, ezizenak erabilita, horregaitik batzuetan ez jakuz egileak hain ezagunak egiten.

Argitalpen honetan eurek idatzitako artikulu-bilduma bat dago –euskarri informatikoan– Ondarroako Historia Zaleak taldeak egina, eta liburuan bertan, ostera, Augustin Zubikarai idazleak prentsan argitaratutako lanen bilduma bat, Julen Urkizak prestatua.

Horren bidez jakin ahal izango dogu zein idazle izan dituan herri honek eta zein pentsamolde eukien.

